

Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak

Mikel Zalbide

Euskaltzaina

zalbide@hotmail.com

Sarrera-data: 2016-06-13 | Onartze-data: 2016-07-15

Laburpena. Kontzeptu nagusiak, metodologiazko aukerak eta terminologiazko hautuak zehaztu dira ekarpenaren hasieran. Eskueran ditugun datu demolinguistikoak (V. inkesta, kale-neurketa) kontuan izanik jendearen 2011ko mintzajarduna eta mintzajardun horren 1991tik 2011rako bilakaera hizkuntza-soziologiaren argitan ulertzeko saioa egin da. Perspektiba espazialari dagokionez Euskal herri osoa, hiru esparru geoadministratibo eta, horien barruan, bederatzi lurralde-eremu bereizi dira. Espazio soziofuntzionalari dagokionez jardungune nagusietan (zenbait rol-harremanetan) ageri den aldakortasuna ere berariaz zehaztu da, analisi horri adin-tarteen ikuspegia erantsiz. V. inkestaren emaitzak gogoan izanik jendeak nagusiki euskaraz egiten duen ($E4$), bietara berdintsu ($E3$) ala bien baturaz ($ET = E4 + E3$) argitu da bertan, analisi horiek kale-neurketaren ondorio argienez aberastuz. Arnasguneen definizio-saioa egin da gero, oraingo egoera eta azken urteotako bilakaera-zantzuak zehaztuz: arnasmune beteak eta erasanak bereizi dira batetik; euskarazko $E4$, $E3$ edo ET jardunak lurraldeka, jardunguneko eta adin-piramidean ageri dituen atzera-aurrerak (mintzaldaketa, indarberritzea) esplikatzen lagundu dezaketen elementuak zehaztu dira gaingiroki, bestetik. Mundu zabaleko osasun-neurpideak kontuan hartuz, eta hemengo egoera gogoan izanik, hizkuntza-soziologiaren kontzeptu nagusietan ainarrituriko EODA aplikazioa prestatu da. Hiru atal nagusi (G , J , U) eta hamalau osasun-maila ditu EODA horrek. Beste atalak ondo kontuan hartzen baditu ere, J atalean du EODAk muingune-barizentroa: hots, eguneroko jardun arruntak eta belaunez belauneko jarraipen-kateak gure artean ageri duen aldakortasun-espektro zabalean. Aurrera begirako erronka nagusiak, eta erronka horiei egoki erantzuteko zenbait proposamen, eskaintzen da azkenik: a) Eskolaz kanpoko erabilera ardatz izango duen lehentasun-eskema eratzea: “lehenik ikasi, gero egin” ordeztu “eginez ikasi”; b) konpartimentazio soziofuntzional iraunkor (diglosia) berria sortzea; c) $BZ5$, $BZ6a$ eta $BZ6b$ osasun-mailako arnasmuneei lehentasun argia aitortzea hitzez eta, bereziki, egitez; d) ($BZ-6c$) mailako ingurumenak ($BZ-6b$) mailara itzultzen saiatzea; e) erdara (arras) nagusi den ($BZ-6d$) eta ($BZ-6e$) lekuetan (tartean hiriburu gehienetan) euskarazko harreman-sareak eta hiztun-taldeak (berr)eskuratzea, berariazko hizkuntza-plangintzaren ondoan bide batezko euskalgintza sortuz eta zabalduz; f) horretarako gutzirako, orain arte bezain funtsezkoa izango da beti hiritarren gogo-nahia. Hori ez da,

ordea, aski: gogoaz eta borondate zabalaz gainera, gizarte-onarpen zabaleko euskaigintza koherentea eraikitzen asmatu behar da. Lekuan lekuko ahalmen-beharrak aintzakotzat hartuz, belaunez belaunez jarraipena ardatz izango duen paradigma diseinatu, luze-zabal adostu eta aplikatzea eskatzen du horrek. Herri-agintarien funtsezko eginkizunari itzal egin gabe hautapen alternatiboen zernolakoak eta argi-itzalak neurtzen eta lehentasun-bideak formulatzen jakitea. Luzera begirako jarraitasunez eta taldegiroan jardungo duen buru-langile taldea behar da, besteak beste, argitze- eta diseinu-lan horretarako. Erabat horretan zentratuko den aztergunea, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko gogoeta-etxea, ezinbesteko baliabidea du euskaigintza zuhur orok. • **Hitz gakoak:** Euskarazko jarduna, mintzajarduna, mintzaldaketa, hiztun-taldea.

Abstract. The main concepts, the methodological options and terminological choices are specified at the beginning of this paper. Bearing in mind the available demolinguistic data (5th survey, street measurement), an attempt has been made in the light of language sociology to understand the speaking activity of people in 2011 and the evolution in this speaking activity between 1991 and 2011. In terms of spatial perspective, a distinction has been drawn between the whole of the Basque Country, three geo-administrative areas, and within them nine regions. With respect to the socio functional space, the variability emerging in the main activities (in certain role relationships) has been deliberately specified by adding the age bracket perspective to this analysis. Bearing in mind the results of the 5th Survey, the people who speak mostly in Basque (*E4*), in both to the same degree (*E3*) or in both together ($ET = E4 + E3$) is clarified by enriching these analyses with the clearest outcomes of the street measurement. An attempt was then made to define the “breathing spaces”, by specifying the current situation and the evidence from the evolution over the last few years: firstly, a distinction is drawn between the full “breathing spaces” and those affected; secondly, the elements that may help to explain specifically or superficially Basque *E4*, *E3* or *ET* activity by region, the vicissitudes (change in speaking, revival) that have appeared in the place of activity and age pyramid are specified. Bearing in mind international means of measuring health, and taking the situation here into consideration, the *EODA* application based on the main concepts of the sociology of language has been prepared. *EODA* has three main sections (*G*, *J*, *U*) and fourteen levels of health. If other sections are properly taken into consideration, *EODA* has its core position-barycentre in the *J* section, in other words, in the broad changeability spectrum revealed by ordinary everyday activity and in the chain of intergenerational transmission. Finally, the main future challenges are covered, and proposals for properly addressing these challenges are offered: a) to set up a priority scheme whose core will be use outside school: “learn by doing” instead of “first learn, then do”; b) to set up a new ongoing sociofunctional compartmentalisation (diglossia); c) to acknowledge by word and particularly by deed the clear priority of the *BZ5*, *BZ6a* and *BZ6b* “breathing spaces” on a health level and, in particular, by implementing it; d) to try to bring the (*BZ-6c*) level environments to the (*BZ-6b*) level; e) to achieve, to revive Basque-language relationship networks and speaker groups in places where non-Basque languages predominate (totally) in the (*BZ-6d*) and (*BZ-6e*) locations (including most capital cities), by taking advantage of the chance to create and spread Basque language activity alongside deliberate language planning; f) the will of the citizens will always be just as essential as it has been until now. But that is not sufficient: in addition to broad-based desire and will, it is necessary to build coherent Basque-language activity with broad social acceptance. Taking local empowerment needs into consideration, this calls for the design, wholesale agreement on and application of a paradigm that will have intergenerational transmission as its core. Without casting a shadow on the basic work of the local authorities, it is necessary to know how to measure the nature as well as strong points and weaknesses of alternative choices and to formulate paths for priority. Taking the long-term perspective, a group of intellectuals will be needed to work in a group atmosphere on this clarification and design work, among

other things. A point of analysis that will focus fully on this, a place of reflection to revive a weakened language, is an essential resource for all prudent Basque-language activity. • **Key words:** Basque language activity, Basque speaker, speaking activity, speaking change, speech group.



V. Inkesta Soziolinguistikoa aurkezterakoan honela zioen Patxi Baztarrikak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordeak: “gero eta herritar gehiagoren bigarren hizkuntza da (euskara), zorionez, baina aldi berean, gero eta gehiagoren lehen hizkuntza ote? Hor dago gakoa, gako erabakigarria euskararen osasunerako. Bikoitza da erronka: gero eta hiztun potentzial gehiago izango dituen hizkuntza izaten jarraitzea eta, aldi berean, ohikotasunez eta erarik naturalenean gero eta neurri handiagoan erabilia izatea. Lehenbailehen heldu behar diogu gogoeta horri, gune eta esparru guztietan.” (Baztarrika, 2013: 12). Gogoeta-lan horretan kokatzen da, Iñaki Mz. de Lunak hizkuntza-gaitasunaz eta Xabier Erizek iritzi-jarrerez paratu dituztenekin batera, Soziolinguistika Klusterraren eskariz hizkuntza-erabileraz prestatu dugun txosten hau.

Xede bikoitza du txostenak, funtsaren funtsean: a) eskueran ditugun datu eta azterketa soziolinguistikoen argitan euskararen erabilerak azken hamarkadotan gora egin duen, bere hartan dirauen ala gainbehera datorren aztertzea¹: leku eta jaurdungune, solastalde eta rol-harreman, adierazpide eta adierazmolde bakoitzean erabilera horrek zertan aurrera egin duen, eta zertan ez, zehaztea; b) euskara indarberritzeko hizkuntza-plangintzaren alorrean, eta horri buruzko ikerketa-lanean, ditugun erronka nagusiak identifikatzea. Xede bikoitz hori neurri eta denboratarte jakinean bideratu ahal izateko², ondoko galdera hauei erantzuten saiatuko gara:

- Zer egoeratan gaude (2011n³), erabilerari dagokionez?
- Zer gertatu da oro har, erabilerari dagokionez, aurreko 20 urtean?
- Zer gertatu da lurralde-eremu batean edo bestean, zer eskualde batean edo bestean, zer udalerri mota batean edo bestean?
- Zer gertatu da jardungune batean edo bestean, zer rol-harreman batean edo bestean?
- Zer gertatu da ahoz edo idatziz, zer gertatu da estilo formalean, informalean edo intimoan?
- Zergatik gertatu da, azken 20 urtean gertatu dena?
- Zertatik gaude osasuntsu edo gaixo, eta zenbateraino?: diagnostiko-saioa, hiztun-elkarteen osasun-maila eta osasun-neurpidea izanik oinarri.
- Zer gerta liteke, erabilerari dagokionez, datozen (demagun) hogei urtean?
- Zer komeni da egitea, belaunez belauneko transmisioari bizirik eusteko eta, dagoeneko galdu den kasuetan, indarberritzen saiatzeko?

Saio xotila da gaurko hau, esan bezala. Xotila eta puntuala: horrelako langintzak gogoeta-leku egonkor eta ongi hornitua behar du berez. Hartarako proposamena egiten da txostenaren amaieran, gogoeta-lan honen ezinbesteko osagai dela uste izanik. Gogoetari berari ekin aurretik, halere, eginbehar xume baina, aldi berean, ezin baztertuzkoari ekingo diogu txostenaren hasiera honetan: eskuartearen ditugun kontzeptu nagusiak argitzen saiatuko gara lehenik, gaingiroki bada ere, azal eta mami (hots, adiera-edukia eta izendapen-terminologia zehazten saiatuz).

1. KONTZEPTU-ARGITZEA; METODOLOGIAZKO ETA TERMINOLOGIAZKO ZEHAZTAPEN-SAIOA

Hizkuntza-erabilerari buruzko zenbait definizio operatibo eta zenbait aukera terminologiko egin da txosten honetan, eskueran dagoen datu-aberastasun zabalarari nolabaiteko adiera-marko koherentea aplikatu ahal izateko. Hots, gauzak ahalik eta era unibokoenean azaldu nahirik, definizio operatibo eta aukera terminologiko jakinak egin dira bertan. Batez ere ondoko galdera hauei eman beharreko erantzunetan oinarritu dira definizio operatibo eta aukera terminologiko horiek: a) Zer da “euskal hiztuna”, eta zer ez?; b) Zer da “euskaraz egitea”?; c) Zer da “euskararen erabilera handia, ertaina, txikia”?; d) Zer da teknikoki “euskararen erabilera”, zer da “euskarazko jarduna”?; e) Zer maiztasun-mailaketa erabili?; f) Zein dira mintzajardunaren aldakortasun-iturriak? g) zer dira “udalerri euskaldunak”?; h) zer dira “arnasguneak”?; i) nolako erabi-

Xede bikoitza du txostenak, funtsaren funtsean:
a) eskueran ditugun datu eta azterketa soziolinguistikoen argitan euskararen erabilerak azken hamarkadotan gora egin duen, bere hartan dirauen ala gainbehera datorren aztertzea.
b) euskara indarberritzeko hizkuntza-plangintzaren alorrean, eta horri buruzko ikerketa-lanean, ditugun erronka nagusiak identifikatzea.

**Honako definizio
operatiboa, eta
horri dagokion
terminologia,
darabilgu txosten
honetan: euskal
hiztuna ez da
euskaraz dakien
edonor, euskaraz
egiten duena
baizik.**

lera-datuak ustiatuko dira?; j) Mintzajarduna (batez ere maiztasuna) aztertzeko teknika bakoitzak zer abantaila eta zer arrisku ditu?, k) Analisi geoterritoriala egiteko zer dimentsio aukeratu dira?, l) zer da mintzaldaketa?, m) etxeko (edo eskola bidezko) transmisioa; belanez belanezko jarraipena, eta n) zer da nahas-hizketa edo kode-aldaketa?

Hamalau galdera horiei txosten honetan emango zaiei erantzuna azaltzen da, labur, hurrengo lerrootan. Definizio operatibo, metodologiazko hautapen edo aukera terminologiko hutsak dira hauek: “hemen eta orain” egin behar dugun lanerako ustez egokienak, ez “berez eta beti” horrela definitu eta horrela erabili beharrekoak. Ez dira, halere, edergarriko alferlan. Kontuok aurrez argitzen ez baditugu, beldur izatekoa da nekez ulertuko dela hitz horien bidez adierazten dugun hainbat gauza. Ezinbesteko aurrepausotzat daukagu beraz, aspergarri samar gerta baliteke ere, kontzeptu-argitze, metodologia-azaltze eta terminologia-zehazte hau.

1.1 Zer da “euskal hiztuna”, eta zer ez?

Adiera jakinak ditu *hiztun* hitzak, izen gisa⁴, Orotariko Euskal Hiztegiari: “(el) que habla (bien, mal, etc.)” eta “hablante (de una lengua)”. Hortik datoz *hiztun ederra*, *hiztun motela*, *hiztun ona* modukoak batetik, eta honelako esaldiak bestetik: “gizartean bizi da [hizkuntza], *hiztunengan*; *hiztunak* ditu jasaile, *hiztunek* bizi dute” (Mitxelena). Hiztuna, “euskaraz egiten” duen neurrian, “euskaraz egiten dakiena” ere bada. Euskaraz egingo bada euskaraz jakin behar da: *hiztun* direnek jakin ere badakite euskaraz, egiteaz gainera. Hori horrela izanik ere, *hiztun* hitzaren OEHko adiera hurbilago dago egitetik jakitetik baino. Bistan da, bestalde, hizkuntza-soziologiaren alorrean funtsezko aldea dagoela hizkuntza bat jakitetik hizkuntza horretan egitera⁵. Garrantzitsua da, beraz, *hiztun* diogunean zer esan nahi dugun argi azaltzea. Honako definizio operatiboa, eta horri dagokion terminologia, darabilgu txosten honetan: *euskal hiztuna* ez da euskaraz dakien edonor, *euskaraz egiten duena* baizik⁶. Euskaraz asko, erdizka, gutxi edo oso gutxi egin dezake *euskal hiztun* horrek. Goren-graduak *hiztunak* euskaraz egiten du, erabat⁷ edo ia huts-hutsik, eguna joan eta eguna etorri⁸. Beheren-graduak, aitzitik, oso gutxi egiten du euskaraz: erdaraz baino askoz gutxiago hitz egiten, irakurtzen eta idazten du. Jakiteaz gainera egin, egin behar du ordea, *hiztun* izango bada: oso gutxi bada ere euskaraz hitz egin, euskaraz irakurri edota euskaraz idatzi behar du halakok, euskaraz egiten jakiteaz gainera, *euskal hiztun* izateko. Euskaraz hitz egiten, irakurtzen edo idazten jakin

arren euskaraz egiten ez duena ez da, txosten honetako terminologian, *euskal hiztun*⁹.

1.2 Zer da “euskaraz egitea”?

Mintzajardunaren dimentsio kuantitatiboak eta kualitatiboak aztertzea eskatzen du galdera horri eman beharreko erantzunak. Arazorik ez dugu falta izango, azterlan horretan hasi orduko¹⁰. Lan-unitatea, izan ere, gutxitan izango da txuri/beltz modukoa. Egin dezagun proba: “euskaraz egiten al duzu?” galdetzen badiogu inori, honelakoak entzun ditzaiegu bere ahotik:

- a) “bai horixe: etxean, kalean eta lanean ez dut besterik egiten egun osoan; ametsetan ere euskaraz ari izaten naiz; irakurri eta idatzi ere euskaraz egiten dut oso nagusiki.”
- b) “euskaraz hitz egiten dut maizenik, ia erabat; baina irakurri eta idatzi erdaraz egiten dut gehienetan”;
- c) “segun non nagoen, norekin ari naizen eta zertaz, batera edo bestera egiten dut: batzuetan euskaraz, besteetan erdaraz”;
- d) “bietara egiten dut nahas-mahas, euskaldunekin¹¹: bietara egiten dut etxean, kalean, lantokian eta lagunartean”;
- e) “gehienetan erdaraz ari izaten naiz, baina euskaraz ere egiten dut hainbat alditan (lagun batzuekin, edadeko euskaldunekin, gurasoen herrira noanean)”;
- f) “jakin badakit ondo samar, baina gutxitan egiten dut euskaraz; erdaraz bizi naiz oro har”;
- g) “sé algo de euskera, y a veces lo uso: en el trabajo o en la calle (*kaixo, agur, eskerrikasko, egunon*), en el mercado semanal (*zenbat da?*), cuando me sale sin querer (que *goxo* habeis puesto el salón¹²), cuando hablo con la nieta (*Ainhoa, tori* palomitas *maitia!*), cuando nos ponemos a cantar (*hegoak ebaki banizkion*), con el perro (*Lagun, etorri!*). Lo demás siempre en erdera”¹³;
- h) “No sé euskera, aunque ya me gustaría”, eta
- i) “Hablo español¹⁴: para ser de aquí no hace falta hablar euskera”.

Goiko bederatzi erantzun-aukera horiek zabaldu egin litezke kopuruz, soildu edo bestelakotu, aldian aldiko enfasi-beharraren arabera¹⁵. Lehenengo lau adibideak (*a*-tik *d*-ra doazenak) euskarazko jardunaren alorrean sartzen dira bete-betean¹⁶, eta goitik beherako maiztasun-eskema ageri dute oro har. Bosgarren (e) eta seigarren (f) adibideak ere euskarazko zati-jardunaren atalean sartzekoak dira, erdara (erabat) nagusi

Euskaraz hitz egiten, irakurtzen edo idazten jakin arren euskaraz egiten ez duena ez da, txosten honetako terminologian, euskal hiztun.

**Argi dago,
hasierako
“euskaraz egiten
al duzu”
galderak ez duela
askotan, hemen
eta orain, bai/ez
erantzun
dikotomiko
zorrotzik.
Dikotomia ordez
gradazio modu
bat dago hor,
sarri,
maiztasunari
dagokionez.
Hiztun batzuek
euskaraz egiten
dute nagusiki,
eta beste batzuek
(beste askok)
erdaraz.**

dutelarik. Aldiz zazpigarren adibidea (g kasua) erdarazko jarduna da, euskal maileguzko hitzez, interferentziazko elementuz edo, gutxienetan, kode-aldaketazko nahas-hizkeraz hornitua: interferentziazko edo maileguzko zenbait inkrustazio lexikal (“el hijo menor es *pelotari*”), semantiko (“me ha entrado el *limaco*”) edo morfosintaktiko (“¿qué pasa pues?”) gorabehera, erdarazko jarduera modu bat da hori¹⁷. Hots, “hemengo erdara” da hori¹⁸. Zenbaitetan euskaraz ari dela sentitzen badu ere g-hiztun horrek, erdal jardunean sartzen da nagusiki, inon baino zuzenago, analisi soziolinguistikoari dagokionez¹⁹. Zortzigarren eta bederatzigarren (h eta i) kasuetan, azkenik, ez dago inolako dudarik: erdarazko mintzajardunaren instantzia dira horiek, bete-betean. Argi dago, nolanahi ere, hasierako “euskaraz egiten al duzu” galderak ez duela askotan, hemen eta orain, *bai/ez* erantzun dikotomiko zorrotzik. Dikotomia ordez gradazio modu bat dago hor, sarri, maiztasunari dagokionez. Hiztun batzuek euskaraz egiten dute nagusiki, eta beste batzuek (beste askok) erdaraz. Alde nabarmenak egon litezke, bestetik, aurrerago ikusiko ditugun aldakortasun-iturrien arabera. Hori guztia hartu behar dugu kontuan, hortaz, “euskaraz egitea” zer den argi adierazteko.

1.3 Zer da euskararen erabilera “handia, ertaina, txikia”?

Formula intuitibo batek honelako zerbait planteatzea eska diezaguke: a) *erabilera unibertsala*: “mundu guztiak” euskaraz egiten du “beti”; erdaraz ez du inork inoiz egiten, ez hitzez eta ez idatziz; b) *erabilera handia*: gehienetan euskaraz egiten du jende askok. Beste zenbaitek, horrezaz gainera, euskaraz egiten du aldizka; c) *erabilera ertaina*: hainbatek (jende guztiaren erdiak-edo) hainbatetan (erditan-edo) euskaraz egiten du; gainerakoek, edota gainerakoan, erdaraz; d) *erabilera txikia*: batzuek zenbaitetan euskaraz; jende gehienak gehienetan erdaraz; eta e) *erabilerarik ez*: inork ez du inoiz euskaraz egiten.

Horrela esanik, oso gradazio argia eta eroso aukeratu dugula dirudi. Lanean hasi orduko berehala konturatuko gara, ordea, hori baino ondotxoz konplikatua dela kontua: hori baino bihurriagoa, konplexuagoa da eguneroko mintzajardun kolektiboaren errealitatea. Lehenengo kasua (teoriko hutsa) eta azkena²⁰ alde batera uzten baditugu, eguneroko situazio praktikoko asko (agian gehienak) ez dira tarteko hiru atal horietan kabitzen, edota asignazio hirukoitz horrekin ez dago argibide handirik ateratzerik: tarte-bitarteko situazio horiek aski nabarrak dira eskuarki; nabarrak eta, etengabeko antzaldatze-bilakaeran murgildurik daudenez hainbat kasutan, aski iheskorak. Konplexutasun horri

itxura batean erantzuteko balio izango duten formulazio landu(xeago)ak behar ditugu hortaz, goiko taula laburra alde batera utziz. Formulazio landu(xeago) horiekin jarduteko, berriz, gainerako zientzia-adarretan bezala kontzeptu aproposak behar ditugu aldez aurretik: bestek dagoeneko prestaturik eta han-hemen emaitza argiz aplikaturik dituen kontzeptuak, ahal delarik²¹; lehendik prestaturik daudenek “hemengo eta oraingo” errealtatea esplikatzeke argi-indar handirik ez dutenean²², berriz, geure kontzeptu propioak lantzen eta borobiltzen saiatu beharko dugu. Hurrengo zenbait puntutan heltzen zaio eginkizun horri.

1.4 Zer da teknikoki “euskararen erabilera”, zer da “euskarazko jarduna”?

“Euskararen erabilera” esaten dugunean, euskaraz asko ala gutxi egiten den zehaztu nahi izaten dugu maiz: aldiune eta leku jakinean “euskaraz zenbat egiten den”. Delako “aldiune” hori era askotakoa izan liteke²³. Era berean, “leku” diogunean oso gauza diferenteak izan ditzakegu gogoan: esparru geoterritorial desberdinak²⁴ edota esparru soziofuntzional diferenteak²⁵. “Euskaraz zenbat egiten den” jakiteko, nolanahi ere, bi galdera-multzo hauei erantzuten saiatu behar izaten dugu lehen-lehenik: a) zenbat euskaldunek egiten dute euskaraz, gutxi-asko, une eta leku jakinean?; b) euskaraz egiten duten horiek zenbatean, zer neurritan edo zer maiztasunez alegia, egiten dute euskaraz? Lehenengo galdera-multzoak *erabiltzaile-kopurua* (zenbat hiztun) du aztergai. Bigarrenak, aldiz, hiztun horien *erabilera-maila* (zer maiztasun). Dimentsio kuantitatiboetan mugitzen gara batean zein bestean. Trataera diferentea dute, ordea, bi elementu horiek: hiztun-kopurua zenbaki konkretuz eman ohi da normalean (estimazio bidezko zenbaki absolutuz edo portzentualez, askotan²⁶); erabilera-maila edo maiztasuna zehazteko, aldiz, *continuum* zabala daukagu begien aurrean eta *continuum* hori *kategoria* edo *label* jakinetan zatikatu ohi dugu sarri. Hots, mintzajardunaren maiztasuna kategoria batean edo bestean tipifikatuz jardun ohi dugu askotan²⁷. Inportantea da, nolanahi ere, a) eta b) multzoak ongi bereiztea: gauza bat da zenbatek euskaraz egiten duen (zenbat hiztun), eta beste bat euskaraz egiten duten horiek zenbatean (zer proportziotan, zer maiztasunez) egiten duten euskaraz (zer maiztasun). Gero, kontuak xeheago argitzeko, beste galdera hauei ere erantzuten saiatu beharko da: norekin eta nola egiten dute euskaldunek euskaraz²⁸? Zer adinetakoak dira euskal hiztun horiek? Hori guztia kontuan hartu beharko da, erabilerari buruzko txosten honetan. Nolanahi ere, eta sarrerako atal honi amaiera emateko, euskarazko jarduna goiko bi multzo horien konjuntzioaz ateratzen da:

Inportantea da, nolanahi ere, a) eta b) multzoak ongi bereiztea: gauza bat da zenbatek euskaraz egiten duen (zenbat hiztun), eta beste bat euskaraz egiten duten horiek zenbatean (zer proportziotan, zer maiztasunez) egiten duten euskaraz (zer maiztasun).

ET = E4 + E3.
Erdaraz baino
sarriago edota
erdaraz bezain
sarri euskaraz
dihardutenek
osatzen dute
euskararen
erabilera trinkoa,
HPSOren
definizioaren
arabera. Horiek
dira, gure
terminologian,
ET-hiztunak. ET-
hiztun horien
mintzajardunari
ET-jarduna
esango diogu.

jarduna: hiztun-kopurua eta erabilera-maiztasuna

Gauza bat da hiztun gehienek ia beti euskaraz egitea, beste gauza bat oso hiztun gutxi oso gutxitan euskaraz egitea, eta besterik dira bi punta-mutur horien arteko kasu gehienak: hiztun gutxi ia euskara hutsen egitea, hiztun askok oso aldian behin egitea, zenbait hiztunek hainbatean euskaraz egitea,... Hori guztia ezin da, normalean, zenbaki bidez erabat kuantifikatu. Funtsezkoa da, ordea, aniztasun handi hori begien bistatik ez galtzea eta kasuan kasuko *erabilera*, *erabiltzaileak* eta *jarduna* ongi bereiztea.

1.5 Zer maiztasun-mailaketa erabili?

Esan berri dugunez, “euskaraz egiten al duzu” galderak ez du askotan *bai/ez* erantzun dikotomiko zorrotzik. Dikotomia ordez gradazio modu bat dago hor, sarri: maiztasun-abaniko bat. Mintzajardunaren maiztasun-abaniko horrek barne-gradiente handia du norbanako hiztunei dagokienez. Barne-gradiente handikoa da, era berean, herri edo eskualde bateko erabilera kolektiboa. Kale-neurketa egin izan denean, adibidez, oso argi agertzen da hori. Hiztun guztiak zaku bakarrean sartzen badiugu, horregatik, argitu ordez ilundu egin dezakegu panorama, eta aterako ditugun ondorioak nahasgarri gerta litezke: egun osoan nagusiki euskaraz ari dena eta egun osoan nagusiki erdaraz ari dena ez dira gauza bera: ez dira “bi hiztun”, bi elementu bereizi baizik. Tarte-bitarteko erabilerak ere bere ezaugarri propioak ditu sarri. Bereizi egin behar ditugu hortaz bata eta bestea, tarte-bitarteko kategoria(k) ere kontuan hartuz.

Galdera biri erantzun nahi zaio hemen: a) “maiztasun”-aren *continuum* hori zenbat *kategoriatan* banatuko dugu? b) *kategoria bakoitzean* zer sartuko dugu, eta zer ez? Galdera horiei dagokienean definizio operatibo boskoitza aukeratu ohi da zenbaitetan. Hala egin ohi da, adibidez, inkesta soziolinguistikoetan. Hona, bertako azalpen xehea labur bilduz, V. inkesta soziolinguistikoaren zati-banatze boskoitza:

E4	euskaraz erdaraz baino gehiago
E3	euskaraz erdaraz beste
E2	euskaraz erdaraz baino gutxiago
E1	oso gutxi euskaraz
E0	Beti erdaraz

E4-E3-E2-E1-E0 eskalak²⁹ gradazio kuantitatibo argia dakar: E4 ataleko hiztunek euskaraz egiten dute nagusiki³⁰ eta E0koak erdaraz ari izaten

dira beti. Tartean daude, maiztasun handiagotik txikiagora, *E3* (bietara berdintsu), *E2* eta *E1*. Batez ere euskaraz egiten duten hiztunak (*E4*-hiztunak) *E3* multzokoak baino euskaldun aktiboago dira, definizioz: beraiek ditugu euskararen erabiltzaile trinkoenak³¹. Bigarren multzokoak (*E3*-hiztunak) ere badira aktibo, baina neurri apalagoan: erdarazko mintzajardunak sarbide zabala eginik du beraien eguneroko bizimoduan.

Zati-banatze boskoitz horri “erabilera trinkoa”-ren *ET* kategoria erantsi dio Eusko Jaurlaritzako HPSOk. Honela definitu da kategoria hori: $ET = E4 + E3$. Erdaraz baino sarriago edota erdaraz bezain sarri euskaraz dihardutenek osatzen dute euskararen erabilera trinkoa, HPSOren definizioaren arabera. Horiek dira, gure terminologian, *ET*-hiztunak. *ET*-hiztun horien mintzajardunari *ET*-jarduna esango diogu labur beharrez.

<i>ET</i>	euskaraz erdaraz baino gehiago edo erdaraz beste
-----------	--

Txosten honetan esaten denaz argi jabetzeko, funtsezkoa da *ET*-hiztunen edota *ET*-jardunaren kategoria sintetiko hori begien bistatik ez galtzea. Azken inkesta soziolinguistikoek kategoria horretara jotzen dute maiz, emaitza operatiboak azalduz normalean, eta ezinbesteko elementu dugu hortaz. “Erabilera trinko”-aren izendapen sintetiko horri eutsiko diogu guk ere, argi izanik *E3* multzoa nekez izan litekeela *E4* bezain baliagarri *maintenance*-fenomenoaren esplikazio betea eman ahal izateko. Aukera bat egin behar izan da ordea, eta *ET*ren definizio operatibo hori ontzat eman dugu txosten honetan. Behar den guztian, hori bai, *E4* eta *E3* elementuak bereiz azpimarratuko dira.

V. inkestatik kanpoko beste zenbait datu ere *E4* kategoriara ekartzen saiatu gara, bestalde: kale-neurketaren datuak eta Iñaki Iurrebasok etxeko hizkuntza nagusiaz landutakoak, bereziki, *E4* horretara ekarri ditugu lehen saioan³². Kale-erabilerari dagokionean aldatu egin dugu, gero, jokabidea. Olatz Altunak bere irizpen-txostenean argi dioenez, kale-erabileraren datuak ezin dira *E4* errotulupera ekarri. Besterik dira horiek, eta bestela tratatu behar dira. Hobe, hortaz, kale-erabilera *E4*-tik aparte tratatzea.

Goiko bost kategorien araberrako sailkatze kontua ez da gauza objektibo unibertsala, beti eta nonahi berdin egitekoa. Aski erabaki subjektiboa da kategorizatze-lana era batera edo bestera egitea. Ezaugarri objektiboek adina bestelako ingurumen-baldintzek eta bestelako lehentasunek determinatu ohi dute sarri, azkenean zer erabaki. Hiru faktore ibili ohi

**Aurrera begirako
erronka nagusiei
arte erantzuten
saiatzeko,
bigarren
mailakoak dira
E1-E2 alorretako
hiztunak: handik
ateratzen den
informazioa
lagungarri bezain
endredagarri da
gehienetan.**

dira tartean³³, maiz asko, hau edo hori erabakitzeko orduan: a) unean uneko xedea: zer argitu nahi dugu? zer epetan? zer sakontasun-mailaz?; b) gure jakituriaren luze-laburra: gai hori lantzeko dugun trebetasun zientifiko-teknikoa mugatua izaten da oro har: “honetaz badakigu hainbat kontu, horretaz ezer gutxi eta beste hartaz ezer ez”; eta c) argitze-lan horretarako eskueran ditugun “tresnak”: informazio-iturriak batetik, datu-lanketarako baliabideak bestetik (gizajendea, dirua, tresneria teknologikoa, antolamendua,..). Faktore horiek izaten dira, gehienetan, konpromisozko erabaki operatibo honetara edo hartara eramaten gaituztenak. Kasu honetan maiztasun-kategoria hauek erabiliko ditugu hortaz: E4, E3 eta ET.

Eskuartearen dugun eginbehar nagusirako, aurrera begirako erronka nagusiei arte erantzuten saiatzeko, bigarren mailakoak dira E1-E2 alorretako hiztunak: handik ateratzen den informazioa lagungarri bezain endredagarri da gehienetan. Eguneroko mintzajardunak berekin dituen argi-ilun nagusien estalgarri. Horregatik utzi ditugu kanpoan.³⁴

1.6 Zein dira mintzajardunaren aldakortasun-iturriak?

Erabilerak duen izaera konplexu-nabarra ez da, esan bezala, maiztasun-mailaketa kuantitatibo hutsez sailkatzekoa: elementu kualitatiborik ere badago hor sarri. Elementu kuantitatiboek eta kualitatiboek, biek markatzen dute “euskaraz egiten al duzu?” galderari emandako erantzunetan ageri den aldakortasuna. Aldakortasun kuantitatiboaz zer bait esan dugularik aurreko puntuan, gatozen parte kualitatibora. Erantzun batetik bestera dagoen aldakortasunaren parte kualitatiboak iturri eza-gunak³⁵ ditu oro har. Ondoko sei iturriok oso kontuan hartu behar dira “hemen eta orain”³⁶:

- *non geografikoa*: lekua. Euskal herriko leku batzuetan euskaraz egiten da nagusiki, eta besteetan (gehienetan) erdaraz. Zuzen dabil, oro har, “Amezketan euskaraz egiten da eta Balmasedan erdaraz” dioena³⁷. Nekez sar ditzakegu, ordea, gure herri guztiak zaku bitan: Amezketan-zakuan batzuk, Balmaseda-zakuan besteak. Gradazio baten aurrean gaude hor ere. Beste galdera modu hau zuzenagoa genuke oro har: non egiten da euskaraz gehiago, eta non gutxiago? Euskal Herria bere osoan hartzeaz gainera analisi xeheagoak egin behar dira horretarako. Honako espazio-atal hauek berariaz arakatu behar dira: a) EAE eta bere hiru Lurralde Historikoak³⁸; b) Nafarroa eta bertako hiru eremu soziolinguistikoak³⁹; c) Iparralde eta bertako hiru eremu soziolinguistikoak⁴⁰; d) UEMAren udalerri euskaldunak eta

e) gero eta bakanago eta gero eta ahulduago ditugun *arnasguneak*.

- *non soziofuntzionala: jardungunea*. Euskaraz egiten den lekuetan ere, ez da jardungune guztietan euskaraz egiten: ez neurri berean, behintzat. Zein jardungunetan egiten da (nagusiki) euskaraz, eta zeinetan (nagusiki) erdaraz? Ohiko jardunguneak (*etxea, lagunartea, kalea, eskola*⁴¹, *lantegia, eliza, administrazioa*,...) dira, normalean, “non soziofuntzional”-aren kategoria nagusi. Telefonía mugikorrak, mass-media direlakoan jarduera-moldeak eta internet bidezko interakzio-moldean oinarritzen diren sare sozialak ere aztergai dira, ordea, gero eta sarriago.

- *nor-norekikoa: rol-harremanak*. Jardungune bakoitzak rol-harreman prototipikoak izan ohi ditu sarri berekin. Mintzajarduna aldatu egiten da hainbatean, rol-harreman horien arabera. Etxean, adibidez, gero eta maizago era batera dihardute gurasoek beren artean, eta beste batera seme-alabekin; D (eta, partez, B) ereduako eskoletan, orobat, era batera ari izaten dira maiz ikasle-irakasleak gela barruan, eta beste batera dihardu ikasle askok jolaslekuan; lan-esparruan era batera ari izaten dira beren artean enpresako esku- zein buru-langile euskaldunak (ahoz eta beste batera bezero askorekin). Administrazioko funtzionarioek ere jokabide bereziak izan ohi dituzte hainbatetan, beren artean ari direnean edota kalera begira dihardutenean.

- *adierazpidea eta zabaleroa*. Hitzezko jarduna, irakurrizkoa eta idatzizkoa aparte aztertzeak dira normalean. Bereiz analizatzea komeni da, orobat, nor bere buruarekin ari deneko jarduna, hitzez edo idatziz besteri zerbaít adierazi nahirik diharduenekoa edota besterena jasoz (entzutez, irakurriz) moldatzen denekoa. Inkestek eta kale-neurketek hitzezko jarduna neurtzen dute normalean. Ondotxo datu gutxiago daukagu, horregatik, irakurrizko edo idatzizko jardunaren zabaleraz eta sakonaz.

- *Estilo kontua* ere gogoan izan behar da maiz. Situazio bakoitzak “berez eskatzen” du zenbait mintzamolde eta zenbait interakzio-pauta: estilo formaleko jarduna, informala edo intimoa ez dira gauza bera, ez hizkuntzaren barne-osaera aldetik eta ez elkarrekintza bakoitzean nagusitzen den diskurtso moduaren aldetik. Estilo bat ala beste aukeratzera garamatza, maiz asko, aldian aldiko situazio konkretuari atxikitako interakzio-pautak: “diferente” hitz egitera edo “diferente” idaztera.

- *Hiztunen* (inoiz *solaskideen*) *adina*. Perspektiba deskriptibotik eta, bereziki, zinetiko-dinamikotik oso kontuan hartzekoa da hiztun-irakurle-idazleen adina⁴². Bai inkesta- edo zentsu-aitormenetan eta bai kale-neurketa askotan, emaitza diferenteak ageri dira maiz adi-

**Argi definiturik
du UEMAk
“udalerri
euskalduna” zer
den. “Udalerri
euskalduntzat
hartuko ditugu
euskararen
indizean %70eko
balioa gainditzen
duten udalerriak.
“Euskararen
indizea” honela
kalkulatzen da:
udalerri horretan
bizi diren
hiztunen artean
euskaldunek
osatzen duten
ehunekoa eta ia-
euskaldunek
osatzen duten
ehunekoaren
erdiaren batura”.**

naren arabera. Herri eta jardungune berean diferenteak dira, euskal/erdal jardunari dagokionez, haurrak, gazte-jendea, helduak eta adinean gora doazenak. Aurrez aurreko solaskideen artean haurrik baden ala ez den (eta, hein batez, unean uneko mintzoduna haurra den ala heldua) funtsezkoa da, orobat, zenbaitetan. Labur bilduz: mintzajardunaren giza arteko moldaera analizatzeko orduan aski informazio pertinentea dakar hiztunen edo solaskideen adinak eta, horrexegatik, ikerlan hauetan ari diren soziolinguista adituek kontuan izan ohi dute aldagai hori ere, ahal delarik.

Sei aldakortasun-iturri nagusi hartu behar ditugu beraz kontuan, ahal delarik, eta ez “beti euskaraz” baieztapenetik “beti erdaraz” erantzunera daraman maiztasun-eskala kuantitatiboa bakarrik. Seikote horrek nabarmen eragiten du gure mintzajardunaren nolakoan eta, horren oihartzunez, gure euskal/erdal jardunaren maiztasunean. Aldakortasun-iturrioz ahazturik euskaldun elebidun bati “euskaraz ala erdaraz egiten duzu?” galdetzen dionak nekez erantzun beterik, estatistikoki fidagarriarik eta kontzeptu-lanketarako aberatsik, bildu ahal izango du beti⁴³.

Aldakortasun-iturriok aldiro kontuan izatea ez da batere lan erraza. Horiek guztiak hartu behar dira kontuan “ahal delarik”, baina askotan ezin izaten da iturri horiek (guztiak edo gehienak) kontuan hartu eta, beraz, “dagoenarekin” konformatu behar izaten dugu sarri. Iturri guztiak kontuan hartu arren, bestalde, ondorio sinpleagoetara jo nahi izaten dugu sarri, landa-lana neurriz gain ez konplikatzeko edota datu-base erraldoiak nolabait ordenatu eta ulergarri bihurtu ahal izateko.

1.7 Zer dira “udalerri euskaldunak”?

UEMAren kategorizazioaz eta bere aukera terminologikoaz baliatuko gara hemen. Operatiboki argi definiturik du UEMAk “udalerri euskalduna” zer den. Iñaki Iurrebasoren hitzetan⁴⁴ “udalerri euskalduntzat hartuko ditugu euskararen indizean %70eko balioa gainditzen duten udalerriak. Udalerri baten “euskararen indizea” honela kalkulatzen da: udalerri horretan bizi diren hiztunen artean euskaldunek osatzen duten ehunekoa eta ia-euskaldunek osatzen duten ehunekoaren erdiaren batura”. Labur bilduz,

$$\text{euskararen indizea} = \text{euskaldunen \%} + (\text{ia euskaldunen \%} / 2)$$

Indize hori bat dator EAEko administrazioan lanpostuen hizkuntza-eskakizuna erabakitzeke erabili ohi den derrigortasun-indizearekin. Gai-

nerako kategoria guztiek bezala bere abantailak eta bere eragozpen-
mugak ditu “udalerri euskaldun”-en definizio honek (ikus hurrengo
puntuari argi-itzal horiei buruzko zenbait ohar).

1.8 Zer dira “arnasguneak”?

Joshua A. Fishman-ek 1991ko bere *Reversing Language Shift* ezagunean
“physical breathing space” esaten duen kontzeptuaren euskal itzulpena
da arnasgunea⁴⁵. Hots, “demographically concentrated space where Xish (gu-
rean euskara) can be on its own turf, predominant and unharassed” (Fishman,
1991: 58). Demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den es-
parru geoterritoriala da arnasgunea. Inork xaxatu eta eraso gabe “etxe-
jaun” sentitzen den eremua. Hori da, funtsaren funtsean, Fishman-en
physical breathing space edo arnasgunea. Euskaldunak euskaldunekin eus-
kal giro sendoan bizi diren lekua, gurasoen hizkuntza belaunez belaun
eskuratzen den lekua. Osasun oneko hizkuntzetan normal dena normal
da arnasguneetan ere, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez.
Berariazko interbentzio berezirik gabe belaunez belaun bizirik eta in-
dartsu iraun duten ingurumen horietan dago euskara, orain ere, bizien.
Hor du euskarak, orain ere, osasunik hoberena. Hori da euskal arnasgune
petoa: bertako biztanle guztiak edo gehien-gehienak euskaldun garbiak
dira, eguneroko bizimodua euskaraz egiten da herrian⁴⁶ eta ama-hiz-
kuntzaren belaunez belauneko transmisioa bere betean (beste leku gehie-
netan baino askoz nabarmenago) segurtatzen da hor⁴⁷. Udalerrri euskal-
dunen azpimultzotzat har litezke gaurko arnasguneak, huts egiteko
arrisku handirik gabe. Arnasgune guztiak udalerri euskaldun dira
egungo egunean⁴⁸, baina udalerri euskaldun guztiak ez dira arnasgune.

Aldaketa-aldi bizian murgildurik daude arnasguneak, azken hamarka-
dotan (batez ere azken mende-laurdenean). Lehen aski antzekoak eta
aski sendoak ziren arnasguneak elkarrengandik bereizten (baina oro har
ahultzen) ari dira. Gero eta *continuum* zabalago baten aurrean gaude hor,
aldaketa-giro hori dela medio. Posible da lehenengo saio batean, egoera
diferente horiek nolabait operatibizatzeke, arnasgune beteak eta erasanak
bereiztea. Xehetasunei dagokienez, ikus txosten honen aurreragoko atala.

1.9 Nolako erabilera-datuak ustiatuko dira hemen?

Bestek egindako lanean oinarrituko gara txosten honetan, gure ondo-
rioak edo ondorio-ustezkoak ateratzeko orduan. Bost iturri erabiliko
ditugu horretarako, nagusiki: a) inkesta soziolinguistikoak⁴⁹: konkretuki
Eusko Jaurlaritzak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren lan-

**Udalerrri
euskaldunen
azpimultzotzat
har litezke
gaurko
arnasguneak,
huts egiteko
arrisku handirik
gabe. Arnasgune
guztiak udalerri
euskaldun dira
egungo egunean ,
baina udalerri
euskaldun
guztiak ez dira
arnasgune.**

kidetzaz⁵⁰, paraturiko V. Inkesta Soziolinguistikoa⁵¹, 2011n egina⁵² eta 2013an argitaratua. Ezin baztertuzko informazio-iturria da hori, Zazpi Probintzietan zer gertatzen ari den jakin nahi duen edonorentzat. Demolinguistikazko informazio landu gehiena bertatik atera dugu, nolanahi ere, hasierako gomendio-oharrei jarraiki. Ion Aizpuruaren ekarpen eta jarduera-ardura teknikoak funtsezkoa da inkesta hauen prestaeran, garapenean, ustiatze-fasean eta argitaratze-lanetan⁵³); b) kale-neurketaren emaitzak, Soziolinguistika Klusterrak (Olatz Altuna eta lankideak buru direla) argitara emandakoak; definizio operatibo esplizituak dituelako, aski uniformeki aplikatzen delako eta udalerri askotan egindako lana delako, informazio-iturri garrantzitsua da hori ere; c) Xabier Bengoetxeak Tolosaldeko arnagunez egindako azterlan monografikoa; d) Iñaki Iurrebasok udalerri euskaldunei (eta, horren barnean, arnaguneei) buruz egindako azterlan demolinguistikoa, eta e) lekuan lekuko zenbait azterlan⁵⁴. Txostenaren bukaerako bibliografian ageri diren iturriak ere hor daude, jakina: guztiak izan ditugu kontuan. Bost iturri horietatik, lehenengo biak (batetik V. Inkesta Soziolinguistikoa, eta bestetik kale-neurketa) erabiliko dira maizenik. Kontuan hartuko dira ordea, zenbait puntutan duten garrantzi handiagatik, bestek hirurak ere.

1.10 Mintzajarduna aztertzeke teknika batzuek eta besteek zer abantaila eta zer arrisku dituzte?

Inkesta Soziolinguistikoak eskaini ohi dizkigun datuak, eta kale-neurketaren bidez eskuratzen direnak, diferenteak dira alde askotatik. Diferenteak dira definizio operatiboz, datuak eskuratzeko prozeduraz, aztertzen duten unibertsoaren hedaduraz, estaltzen duten espazio soziofuntzionalaren zabalaz, datuak lantzeko⁵⁵ moduaz eta aplikazio-aukerez. Norbanakoek aitorturiko *erabilera-maiztasun erlatiboan* oinarritzen dira inkesta soziolinguistiko gehienak; *kalean dabilen jendea bere artean euskaraz ala erdaraz ari den*⁵⁶ enpirikoki analizatuz ateratzen dira kale-neurketako datuak⁵⁷. Biak dira interesgarri, biak (bere neurrian) fidagarri, biak “on”.

Antzekoak izanik ere bi “gauza” dira ordea, eta kontuan izan behar da hori. Gernikari dagozkion datuetan, esate baterako, neurketa-egunean Gernikako kalean zebilen jendearen (ez ezinbestean gernikarren) “kaleko mintzajarduna” neurtu izan da (ez etxekoa, eskolakoa, lan-esparrukoa... ezta kalez kanpoko lagun artekoa ere ezinbestean). Gernikar guztiak ez zebiltzan neurketa-egun horretan kalean, seguru, eta kalean zebiltzan guztiak ez ziren seguruenik Gernikakoak izango. Lurralde-hedadurari

dagokionez lagin-unibertsoa zabalagoa da, normalean, gure arteko inkesta soziolinguistikoetan. Kale-neurketa, aldiz, herri mailakoa izaten da maiz: herri bakarrean edo herri batzuetan egiten da askotan, ez Lurralde oso-osoan. Horrelakorik ere egiten da, ordea⁵⁸. Berta-bertakotik eremu zabalgorako enfokea du askotan kale-neurketak. Inkesta Soziolinguistikoak, aldiz, perspektiba globalenean jasotako erantzun-unibertsoa du abiaburua eta Lurralde edo (Nafarroan eta Iparraldean) eremu mailara jaisten da zenbaitetan. Gutxitan (egin ezinik ez badago ere teorikoki) udalerrri mailara, eta are bakanago hortik behera (auzo edo bizigune beregainetara).

Arriskua dugu guztiok, datu hauez baliatzerakoan, benetan zein oinarri delikatuko materialekin lanean ari garen ahazteko. Lan horretan (HP-SOn, Soziologia Klusterrean, unibertsitate esparruan) ari diren espezialistek dakite, inork baino gordinago, arrisku horren berri. Ez goaz, beraz, kontu horiek nola diren guk baino hobeto dakitenei ezer erakusten hastera. Izango da ordea irakurleen artean, egun edo bihar, informazio hori eskertuko duenik. Horiek gogoan izanik prestatu da, beraz, azken ataltxo hau. Hona, labur-labur, kontuan hartzekoak iruditzen zaizkigun oharrak

a) Mintzajarduna, hizkuntza-erabilera, *continuum* batean mugitzen da maiz kopuru aldetik, eta aldakortasun-traza nabariak ditu dibertsifikazio aldetik. Berez *continuum* batean eta dibertsifikaturik mugitzen den maiztasun-kopurua neurri-tarte jakinetara ekarri behar izaten dugu maiz, datuak operatibizatu eta ondorio sendo samarretara ahal izateko. Hots, maiztasun-eskala diskretuekin⁵⁹ jokatu behar izaten dugu eta, horrek ere, nolabaiteko distortsioa ekar dezake.

b) Alde handia, zenbaitetan oso handia, dago goiko sei aldakortasun-iturrien informazio egituratua berekin lukeen informazio-multzoaren eta erabilera-indize sintetikoaren bidezko maiztasun-datu diskretuen artean. Bi polo horien artean badugu, bestalde, erdi-bideko hainbat datu-aukera: esate baterako leku fisikoaren, jardungunearen, zenbait rol-harremanen eta adierazpidearen araberako zehaztapena. Indize sintetikoak borobildutako informazioa baino aberatsagoa da, zenbait azterketa egiteko orduan, erdi-bideko analisi-aukera hori. Sintesi-joera hain berea duen informazio demolinguistikoa ez da ordea, inola ere, gutxiestekoa. Ez erdi-bidekoa eta ez global-sintetikoena. Aitzitik, tentuz (beharrezko perspektiba soziologikoz eta ezinbesteko zuhurtzia metodologikoz) erabiltzen badira balio-indar handiko informazio-iturri izan litezke bata zein bestea. Balio-indar handikoak izan litezke eta askotan, perspektiba

**Giza arteko
mintzajardun
arruntari bizirik
eusteko eta,
horren bidez,
ahuldutako
hiztun-taldeen
edo hiztun-
elkarte osoaren
ama-hizkuntza
belaunez belau-
n transmititu ahal
izateko, eragin-
indar
handia(goa) dute
jardungune
batzuek (etxeak,
lagunarteak,
auzogiro
hurbilak, une
batetik aurrera
lan-esparruak)
eta txikia(goa)
besteek.**

territorial globalean edota aldian aldiko errepikakortasunez jokatzeko, beraiek dira eskueran dugun informazio-iturri aberatsena; zenbaitetan, iturri baliagarri bakarra. Hori guztia kontuan hartu behar dugu, hortaz, zer aztertzeraz goazen, eta nola, argitzeko orduan.

c) Metodo bakoitzak bere abantailak eta bere eragozpen-mugak ditu. Zentsu- eta inkesta-lanek, esate baterako, “jatorrizko bekatu” ezaguna dute: zentsu-erantzuleek beren⁶⁰ mintzajardunaz zer dioten hartzen dugu kontuan, ez ezinbestean zer egiten duten. Badakigu, zentsu-erantzun horiek badutela osaera auto-babesgarririk⁶¹ eta, alde horretatik, urrun daudela egia huts-hutsa azaltzetik⁶². Alde horretatik hobeak dira kale-neurketak. Muga-eragozpen nabarmenak dituzte ordea horiek ere, ezaguna denez: beti-beti ez dira populazioaren unibertso osora hedatzen eta, bereziki, jardungune-situazio bakarrera mugatzen dira. Hori guztia kontuan izan behar dugu, hortaz, egitera goazen analisi-saioaren oinarria baloratzeko orduan. Horri, jakina, norberaren subjektibotasun-arriskua erantsi behar zaio.

d) Arrisku jeneral horiezaz gainera bestelako ahulune bat ere ager liteke, bai perspektiba sintetikotik jarduterakoan eta bai jardunguneen araberrako analisi berezituak egiterakoan: ama-hizkuntzaren belaunez belau-neko transmisio naturalari dagokionez jardungune guztiak garrantzi bereko edo bertsuko direla uste izatea. Giza arteko mintzajardun arruntari bizirik eusteko eta, horren bidez, ahuldutako hiztun-taldeen edo hiztun-elkarte osoaren ama-hizkuntza belaunez belau-n transmititu ahal izateko, eragin-indar handia(goa) dute jardungune batzuek (etxeak, lagunarteak, auzogiro hurbilak, une batetik aurrera lan-esparruak) eta txikia(goa) besteek. Perspektiba kuantitaboa (“zenbat ordu?”) da, has-teko, garrantzi-hierarkia horren moldatzaile: jardungune eta rol-harrem-an batzuetan ordu asko ematen ditugu hizketan, eguna joan eta eguna etorri, eta beste zenbaitetan gutxi. Egin dezagun kontu: urtearen buruan zenbat ordu egiten ditu 16 urteko hiztun gazte batek etxekekin, gelako eta auzoko lagunekin edo kaleko ezagunekin hizketan, eta zenbat ordu udaletxeko funtzionarioekin, osasun-etxeko mediku-gaixozainekin eta banku-etxeko bulegariekin? Berdin gertatzen da, aldeak alde, 36 urteko hiztun helduarekin. Perspektiba kuantitatibo horri kualitatiboa gaineratu behar zaio. Interakzio horietan guztietan zein dira mintzamolde bizi-enak, gatz-piperrez eta sentimenez hornituenak? Zein dira, aitzitik, formal-eklektikoenak? Etxe-lagunarte-auzo-langune multzokoa, ez administrazioakoa, dugu hizkera-molde naturalena, jario bizi-enekoa, jende gehienak gehienetan ezpainetaratzten duena. Batez ere hizkera informal

hori da belaunez belaun transmititzen dena. Eguneroko hizkera-molde informala, etxekoa, kale-giro hurbilekoa edota lagun artekoa, transmititzen da batez ere belaunaldi batetik hurrengora; ez boletinekoa (EHAAkoa, demagun), prentsa idatzikoa edota ikasgelan (batez ere bigarren hezkuntza-mailan eta unibertsitatean, bere jakintza-alorreko azalpena ematera-koan) irakasleek erabili ohi duten mintzamolde formal-jantzi-landu(ago)a. Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio naturalari dagokionez, jardungune eta rol-harreman guztiak ez dira garrantzi bereko: askoz garrantzitsuago dira hiztunen eguneroko jardun informal-espontaneoak, ez aldian behingo konexio formalizatua, bizten dutenak. Kontuan izan behar luke garrantzi-hierarkia nabarmen hori, ahal delarik, erabilera globalaren berri eman nahi duen edozein indize sintetikorik.

ET-hiztunen edo ET-jardunaren indize sintetikoa (Inkesta soziolinguistikoa 2001etik aurrera era kontsistentean darabilen “erabileraren tipologia”) prestatu denean, garrantzi-hierarkia hori ez da kontuan hartu⁶³: jardungune guztiei pisu bera aitortu zaie bertan. Horren ondorioz, erabilera “global”aren benetako izaera behar bezain zehatz ez adierazteko arriskua du ET-jardunaren balio sintetikoak. Euskararen belaunez belauneko transmisio-ahalmenari dagokionez benetan duena baino emaitza baikorragoa eskaintzen ari izan liteke “erabileraren tipologia”, guk *ET-jarduna* dioguna.

Mila bider errazagoa da, jakina, arriskua seinalatzea konponbide arteza aurkitzea baino. Zein da, izan ere, oraingo ponderazio-sistema uniformearen alternatiba egokiena, doituena?⁶⁴ Has gaitezen errazenetik: zer bide hartu izan da hemendik kanpora, batezbesteko erabileraren gaiari heldu zaionean? Ibili izan gara horri buruzko bibliografia teknikoak arakatzen, eta ez dugu hartarako irtenbide landurik, “prêt-à-porter” modukorik, inon aurkitu. Tentuz ibili behar dugu, hortaz, bertan egin den saioa baloratzeko orduan. Mundu zabalean itxuraz inork egin ez duena⁶⁵ guk oraingoz lortu ez izana nekez defektu larritzat har liteke. Hori bezain egia da, gure ustez, berariazko atentzioa eskatzen duen kontua dela erabilera-indize global-sintetikoaren hau: inkesta soziolinguistikoen emaitzak gero eta fidagarriago izan daitezen aurrera begirako hobekuntza-iturri posiblea. Ikerlerro propioa merezi du (ikus aurrerago, VII. atala) indize sintetiko egokienaren bilaketa-lan horrek.

Kategoria guztiek bezala bere abantailak eta bere eragozpen-mugak ditu “udalerrri euskaldun”-en definizioak ere. Udalerriko hiztun “euskaldunen eta ia-euskaldunen erdiaren” baturatik pasatu ohi gara, jakina

**Ama-
hizkuntzaren
belaunez
belauneko
transmisio
naturalari
dagokionez,
jardungune eta
rol-harreman
guztiak ez dira
garrantzi bereko:
askoz
garrantzitsuago
dira hiztunen
eguneroko jardun
informal-
espontaneoak, ez
aldian behingo
konexio
formalizatua,
bizten dutenak.**

**Errealistago
litzateke, gure
ustez, udalerri
euskaldunen
definizio
operatiboa
egiterakoan
beren burua
“euskaldun”
aitortu duten
biztanleak
bakarrik
kontabilizatzea.
Ahalik eta
analisi
fidagarrienen
bila gabiltzalarik
litekeena da,
orobat, jakite-
langak %70ean
edo beste
nonbait.**

denez, “udalerri euskaldun”-aren tipifikaziora. Alde du definizio operatibo horrek, nabarmen alde, azken hamarkada hauetan jaso, landu eta argitaratu den informazio demolinguistiko aberatsaz luze-zabal baliatu ahal izatea⁶⁶. Bere alde du, orobat, perspektiba makrotik hasi eta udalerri-mailaraino “jaitsi” ahal izatea, perspektiba globalen arazo estrukturala gainditzen lagunduz. Ezin utzizko erreminta da, horregatik, aurrera begirako hizkuntza-plangintzaren lehentasunak termino errealista samarretan, lekuan lekuko egoeratik “hurbilago” dauden datu-unitateetan txertatuagoko informazio-oinarrian, bideratu ahal izateko.

Kontra du, aitzitik, kontzeptu bi nahasteko arriskua: mintzajarduna eta hizkuntza-gaitasuna. Jakitetik egitera dagoen jauzia, gure artean gero eta osin zabal-sakonagoa, argitu ordez ilundu egin dezake horrek. Dimentsio bien arteko lotura-harremanak ezin ukatuzkoak dira, eta horberik ezean hortik abiatzea arrazoizkoa da. Hala ere, lekuan lekuko hizkuntza-plangintzaren lehentasunak gaitasun-datuetan oinarritzea ez da beti egokia, benetako aldeak erabileraren planoan daudela daki-gunean. Are diskutigarriago da definizio operatiboan “ia-euskaldun”-en kategoria sartzea. Jarrera- eta gaitasun-kontuak aztertzeke orduan interesgarria da elementu hori, ez ordea eguneroko erabilera informal arrunta, gatz-piperrez oratua, definitzen duten kontestu-elementuak kontzeptualki integratzeko orduan. Itsasontzia hondoratu delarik zenbat pertsonak bizia galdu duen jakin nahi denean, bi kategoria hartzen dira kontuan: *ito direnak* eta *salbatu direnak*. Istripu lazgarri horretan “ia salbatu direnak” inor gutxik kontabilizatzen ditu. Gurera etorritz, “ia-euskaldun”-ak inaktibo izaten dira euskarazko mintzajardun arruntean, oro har. Euskaldunen arteko jarduna ez oztopatzerira irits litezke gehienez⁶⁷, ez mintzajardunaren partaide aktibo, zer esanik ez eguneroko mintzajardun informal-biziaren iturburu, izatera. Errealistago litzateke, gure ustez, udalerri euskaldunen definizio operatiboa egiterakoan beren burua “euskaldun” aitortu duten biztanleak bakarrik kontabilizatzea. Ahalik eta analisi fidagarrienen bila gabiltzalarik litekeena da, orobat, jakite-langak %70ean edo beste nonbait egon behar lukeen patxadaz berraztertu behar izatea horretan aditu direnek⁶⁸.

Zailtasunak zailtasun, posible da kasu batean zein bestean objektibazio-saiorik egitea. Horrela, zentsu-emaitzetan edo bestelako inkesta-lanetan, datu aitortuen (ez enpirikoki konprobatuen) argitan, leku eta une jakinean zenbat erabiltzaile (zenbat hiztun) dauden jakin liteke batetik, eta erabiltzaile horiek (beren esanean) zer maiztasunez euskaraz diharduten finkatu liteke bestetik. Eragozpen-muga handiekin bada ere

posible da, hortaz, leku eta une horretan zenbateko euskal jarduna dagoen zehazteko datu egituratua (bosna edo hamarna urtero eguneratua) eskuratzea. Horregatik, eta beste zenbait motiborengatik, oso estimatua da azterbide hori hainbat soziolinguistaren artean. Zentsu-emaizten eta antzeko inkesta soziolinguistikoen bidezko datuen alde mintzatua da, adibidez, Michael Krauss: “Statistics on language viability are very hard to come by. This is partly because in some parts of the world we hardly know what languages are spoken, let alone how viable each is, and partly, perhaps even more, because governments generally favor one language over another and have reason not to provide figures for non-favored languages.” (Krauss, 1992).

1.11 Analisi geoterritoriala egiteko zer dimentsio aukeratu dira?

Perspektiba politiko-operatibotik atal bitan banaturik daude, lehenik eta behin, garai bateko “Zazpi Probintziak”: Hegoaldea batetik, Iparraldea bestetik. Hegoaldean argi bereizi behar dira, bestetik, Euskal Autonomia Elkarte (EAE) eta Nafarroa. Aurreko biak konbinatuz zatiketa hirukoitz ezaguna eskuratzen da horrela: EAE, Nafarroa eta Iparraldea. Atalkatze hirukoitz horren arabera eginik dago demolinguistikazko hainbat datu-biltze eta, are, hainbat datu-lanketa. Normala da, horregatik, egingo diren analisi askotan zatibanatze hirukoitz hori izatea abiaburuko datu.

Hiru esparru geoadministratibo horien arabera datu-lanketak ez digu ordea, sarritan, ezaugarri demolinguistiko askoren benetako aldakortasun geoespaziala behar bezain xehe erakusten uzten: bai EAEn, bai Nafarroan eta bai Iparraldean diferentzia handiak daude leku batetik bestera, E4-edo ET-hiztunen kopuru absolutuz zein portzientualez. Hori dela medio, arrazoiz gure ustez, hiru esparru geoadministratibo zabal horien datu soziolinguistikoak bederatzi lurralde-eremu xumeagotan banaturik datoz askotan, V. Inkesta Soziolinguistikoan. Ez beti, baina bai hainbat kasutan. Hona bederatzi lurralde-eremuak: EAEn *Araba*, *Bizkaia* eta *Gipuzkoa*; Nafarroan *euskal eremua*, *bietarikoa* eta *erdalduna*⁶⁹; Iparraldean *Baiona-Angelu-Miarritze herriarte* (laburduraz *BAM*), *Lapurdiko barnealdea* (laburduraz *LB*) eta, azkenik, *Nafarroa Beherea* eta *Zuberoa* (laburduraz *NBZ*). Guztira bederatzi lurralde-eremu, hortaz. Bederatzi eremuka jotatuz zorrotzago eta gordinago agertu ohi dira, askotan, mintzajardunaren erabilerak bere baitan dituen gorabeherak, aurrerabideak eta gainbeherak.

Horrekin ere ez da, ordea, beti-beti aski izaten. Lupa zorrotzagoa, edota beste lupa modu bat, aplikatzea komeni izaten da zenbaitetan. Argigarriago izaten da horrelakoetan, perspektiba geoterritorialari eutsi ordez

**Euskal Herria
bere osoan
kontuan hartu
nahi duenez
azterlanak,
normala da
gehien erabiliko
direnak
zatibanatze
hirukoitza eta
bederatzi
lurralde-
eremuena izatea.
Zenbait
analisitarako
funtsezkoak dira
ordea beste
zatikatz-
moldeak.**

**Hiztun-talde
batek (edo
hiztun-elkarte
osoak: ez
norbanako honek
edo horrek)
eguneroko jardun
arruntean
("habitual use"
delakoan) ordura
arteko A
hizkuntza alde
batera utzi eta
handik aurrera
(erabat edo
nagusiki;
etengabe, ez
aldian behin) B
hizkuntzan
egitera pasatzen
denean gertatzen
da (luze-
zabaleko)
mintzaldaketa.**

bestelako segmentazioren bat egitea. Esate baterako, han-hemengo lur-sailak (gehienetan udalerriak) euskaldun-dentsitatearen arabera bereiztea. Posible da, horrela, Inkesta soziolinguistikaren argitan bertako biztanleen %80 edo gehiago euskaldun direneko udalerriak elkartu eta beraien zenbait ezaugarri estruktural berariaz aztertzea. Analisi-bide horrek aparteko balio-indarra izan dezake, hoberik ezean, arnasguneetan. Baliozkoa izan liteke, horrezaz gainera, udalerri euskaldunen tipifikazio berritu bati ekiteko⁷⁰.

Labur bilduz: Zazpi Probintzien esparru geoterritorial globala era askotara segmentatuz egin ohi dira demolinguistikazko, hizkuntza-soziologiazko eta hizkuntza-plangintzazko analisiak. Segmentazio-aukera ezagunenak honako hauek dira: a) Hego/Ipar; b) EAE/Nafarroa/Iparralde; c) bederatzi lurralde-eremuak, eta d) euskaldun-portzentajea segmentu jakinekoa duten (demagun %80tik %100era bitarteko) udalerrien multzoa,.. Segmentazio guztiak izango ditugu kontuan, analisi honetan. Euskal Herria bere osoan kontuan hartu nahi duenez azterlanak, normala da gehien erabiliko direnak zatibanatze hirukoitza eta bederatzi lurralde-eremuena izatea. Zenbait analisitarako funtsezkoak dira ordea beste zatikatze-moldeak. Kontuan izango ditugu guztiak.

1.12 Zer da mintzaldaketa?

Oinarri-oinarrizko kontzeptua dugu *mintzaldaketa*, hizkuntza-soziologiaren arloan⁷¹. Era askotara esan ohi zaio gure artean kontzeptu horri: (luze-zabaleko) *mintzaldaketa*, *mintzaldatzea*, *hizkuntza-ordezkapena* edo *ordezkapen linguistikoa*, adibidez. Erdaraz ez dago hainbesteko terminodantzarik: ingelesez *language shift* edo *language displacement* dugu nagusi, alemanez *Sprachverschiebung* eta gaztelaniaz *desplazamiento lingüístico* edo *sustitución lingüística*. Gatozen azaletik mamira:

- Adiera bat baino gehiago du *mintzaldaketa* delakoak⁷², baina antzekoak dira adiera horietariko gehienak eta, nolanahi ere, bakarra da zentrala. Inoiz esana dugunez (Zalbide 2008: 1), *mintzaldatzea*, *mintzaldaketa* edo *luze-zabaleko mintzaldaketa* diogunean Uriel Weinreich-en definizioaz ari gara funtsean: "the change from the habitual use of one language to that of another" (Weinreich 1953: 68). Hiztun-talde batek (edo hiztun-elkarte osoak: ez norbanako honek edo horrek) eguneroko jardun arruntean ("habitual use" delakoan) ordura arteko A hizkuntza alde batera utzi eta handik aurrera (erabat edo nagusiki; etengabe, ez aldian behin) B hizkuntzan egitera pasatzen denean⁷³ gertatzen da (luze-zabaleko) *mintzaldaketa*.

- Adiera zentral horretaz gainera bada, dena den, horren garapenezko zati-definizioz ere: jardungune eta adierazbide jakin batean⁷⁴ (ez ezinbestean eguneroko jardun arrunt, aurrez aurreko, informal-kolikalean) gertatzen den jauzia aztertzen du horietariko batek: EAEko gazte gehienek euskara dute gaur egun, ez gaztelania, ikasgela barruko mintza- eta idazbide nagusi. Gaztelaniatik euskararanzko mintzaldaketa gertatu da hor: *erd* > *eus*. Horrek ez du ordean esan nahi, beren arteko hizkerabide nagusi euskara bihurtu denik etxean eta kalean, lagunartean (are eskolako jolasgunean) eta telebista-kontsumoan. Ikasgelako mintzaldaketaren aurretik, harekin batera edo haren ondorioz ez da eguneroko jardun arruntean pareko mintzaldatze zabalik gertatu. Inoiz, *eus* > *erd* gertatu ohi da gure arteko hainbat haurren edo gazte askotxoren eguneroko jardun arruntean. Litekeena da hortaz luze-zabaleko mintzaldaketak norabide bat izatea eta, aldi berean, jardungune jakin batekoak (ikasgelakoak, demagun) kontrakoak.
- Aldaketa-etenik gabe ez dago mintzaldaketarik; latinetik erromantzeetara Mendebal Europan menderik mende gertatu den bilakaera (*language change*, ez *shift*) ez da beraz mintzaldaketa. Beti ere “a sharp break from one colloquial speech system to another” eskatzen du mintzaldaketak, perspektiba soziohistorikoan (Mesthrie, 2001: 493). Hurbilagoko perspektiba soziologikotik begiratuta, harelere, Atik Brako jauzi hori ere prozesu graduala izan ohi da sarri, ez bat-batekoa: gradazio tenporala agertu ohi da maiz mintzaldatze horretan. Hiztunen edo hiztun-taldeen adinak eta sexuak, orobat mintzajardunaren lekuak eta hizketa-gaiak, zerikusi nabaria izan ohi dute gradazio horretan.
- Txosten honek duen eginkizunerako, luze-zabaleko mintzaldaketa eta jardungune jakinen arabera berezikio ditugu batetik. Horrezaz gainera, mintzaldaketaren norabidea bi atal nagusitan sailkatuko dugu: *eus* > *erd* norabidea batetik, *erd* > *eus* bestetik. Luze-zabaleko *eus* > *erd* mintzaldaketa gertatu da Euskal herrian, oro har, azken 250 urtean⁷⁵, eta eskola-esparruan⁷⁶ *erd* > *eus* mintzaldaketa gertatzen ari da azken 50 urtean.

**Luze-zabaleko
eus > *erd*
mintzaldaketa
gertatu da Euskal
herrian, oro har,
azken 250 urtean,
eta eskola-
esparruan
erd > *eus*
mintzaldaketa
gertatzen ari da
azken 50 urtean.**

1.13 Etxeko edo eskola bidezko transmisioa, eta belaunez belauneko jarraipen-transmisioa: gauza bi dira horiek, ahuldutako hiztun-elkarteetan⁷⁷.

Osasun oneko hizkuntza guztien belaunez belauneko transmisioa etxean hasten da normalean⁷⁸: gurasoekiko jardunean, anai-arrebekiko solasean eta familiarete zabalagoko interakzio arruntean. Hor garatzen eta zimen-

**Etxeko
transmisioa ez da
hor etxe barruko
gertakari huts,
dimentsio
kolektibo
iraunkorra duen
fenomeno zabal
baten lehen
pausoa baizik.
Belaunez
belauneko
transmisio-
jarraipenaren
iragarle sendo,
prediktore
fidagarri, da
etxeko
transmisioa
osasun oneko
hiztun-
elkarteetan.**

tatzen da haurren eta neska-mutikoen mintzagaitasuna. Etxe inguruko, auzoko eta herri-giro zabaleko mintzajardun arrunta bat dator, normalean, eguneroko interakzio familiar horrekin: etxeko eta kaleko hizkera gauza bera dira funtsean. Eskolak garatu eta aberastu egiten du gero, sarri, etxean eta kalean ikasitakoa. Azkenik, bigarren (inoiz hirugarren edo enegarren) hizkuntzaren bat eskuratzen dute hiztun gazte horiek hainbat kasutan⁷⁹, eguneroko jardun arruntean bederen etxeko eta kaleko hizkuntzan egiteari utzi gabe. Haurtzaroan jasotako L1 hizkuntza horrekin iristen dira gazte horiek, normalean, helduen mundura: tartean lan-mundura. Hizkuntza hori bera egiten duen bikotea aukeraturik, azkenik, hala mintzo diren seme-alaben guraso bihurtzen dira biak. Etxeko transmisioa belaunez belauneko transmisio-jarraipen bihurtzen da normalean, osasun oneko hiztun-elkarteetan. Etxeko transmisioa ez da hor etxe barruko gertakari huts, dimentsio kolektibo iraunkorra duen fenomeno zabal baten lehen pausoa baizik. Belaunez belauneko transmisio-jarraipenaren iragarle sendo, prediktore fidagarri, da etxeko transmisioa osasun oneko hiztun-elkarteetan.

Diferente dira kontuak, askotan, ahuldutako hizkuntzen kasuan. Egoera horretan dauden hiztun-elkarte edo hiztun-talde askotan gauza bat da etxeko transmisioa (gurasoek haurrei, beren lehenengo urteetan, hizkuntza propioa erakustea), eta beste bat hizkuntza horren belaunez belauneko transmisio-jarraipena. Gurasoek haurrei (jaio eta lehenengo urteetan) beren hizkuntza propioa erakustea ez da maiz aski izaten, ahuldutako hizkuntza belaunez belaun transmititzeko. Ahuldutako hiztun-herrien kasuan, bata ez du askotan bestea segurtatzen. Etxeaz gainera auzo-giroak eta kaleak, lagunarteak, eskolak, kirolak eta aisialdiak, lan-esparruak eta, oro har, sozializatzeko edo gizarteko kide bihurtzeko prozesuan parte hartzen duten eragileek erabakitzen dute bere osoan, ez etxeko lehen urteetako mintzajardunak soilik, belaunez belauneko jarraipena edota mintzaldaketa gertatuko den⁸⁰. Maiz suertatzen da ahuldutako hiztun-taldeetan, etxean hizkuntza propioan egiten ikasi arren etxetik kanpora beste hizkuntza bat nagusi izatea eta neska-mutilek, adinean aurrera egin ahala, etxean ikasitako ama-hizkuntzatik beste horretara jauzi egitea: bai helduekin jarduterakoan eta bai, une batetik aurrera, beraien artean. Ama-hizkuntzaren etxeko transmisioak belaunez belauneko jarraipenik izan duen jakiteko⁸¹, hortaz, “A” belaunaldi heldua (demagun 35 bat urtekoa, haur-haztekoa) eta haien hurrengo “A+1” belaunaldia (orobat 35 bat urtekoa, haur-haztekoa) konparatu behar izaten dira, “Benetan zenbatekoa den” neurtu behar da hor, ez etxeko lehen urteetako L1-saioaren argitan “zenbatekoa izan zitekeen”. Bat da-

tor azalpen hori, euskaldunok oso barruan iltzaturik daramagun bizi-penarekin: umetan euskaraz (bakarrik) egiten zuen hainbat heldu erdaraz bizi da orain, partez edo osoz; mintzaldatu egin da une batez, haurtzaroko transmisioak txukun antzean funtzionatu zuen arren. Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenaren garaipen/porrota ez da hizkuntza hori seme-alabei etxean transmititzerakoan bakarrik erabakitzen: urte gehiago behar dira urak alde batera edo bestera makurtzeko (mintzaldatze osoaren kasuan 35 bat urte: ikus Veltman, 1983: 21, 22 eta 24). Ibilbide soziobiografiko zabal horretan garrantzitsuago dira askotan etxe-giroaz kanpoko jardungune basikoak (auzoa, lagunartea, kale-giro zabala, eskola, lan-esparrua) eta pertsona jakinak (jolas-garaiko lagunak, ikaskideak, kirol-taldeko kideak, bikotea) umetako etxe-giroa bera baino. Etxeko transmisioaren eta belaunez belauneko jarraipenaren arteko harremanak perspektiba globalago horretan kokatu behar dira. Etxeko transmisioa mesede handia da ahuldutako hiztun-elkarteetan: osasun onekoetan baino funtsezkoago ere bai, hortik kanpora lagungarri meharra baitu belaunez belauneko jarraipen-bideak. Altxor preziatua izanik ere, etxeko transmisio hori ez da, ahuldutako hiztun-elkarteetan, belaunez belauneko jarraipenaren (bbj) berme: lagungarri handia eta funtsezko abiaburua da sarri, baina ez da jarraipen hori segurtatzeko lain.

Seme-alabak hizkuntza horretan (“D ereduan”) eskolatzea ere ez da aski, gurea bezala ahuldutako hiztun-elkarteetan, ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio-jarraipena segurtatzeko. Are gutxiago etxetik erdaldun diren haurrak adin batetik aurrera, eguenroko jardun arruntan, euskal hiztun bihurtzeko. Joshua A. Fishman-en hitzetan “it is relatively easy to found (and even to fund) a school; it is much harder to graduate a cohort of fluent and active Xish speakers; and it is hardest of all for this cohort to continue being fluent and active speakers of Xish until they find an equally committed life-partner and start nuclear families of their own. *It is at this step that intergenerational transmission is achieved*” (Fishman 2001, 472; letrakera etzana gurea).

1.14 Zer da nahas-hizketa edo kode-aldaketa?

Mintzaldaketa eta nahas-hizketa gauza bi dira: hiztun-talde bat eguneroko jardun arruntan A hizkuntzatik Bra⁸² pasatzea (eta handik aurrera Bn jardutea) adierazten du bata, luze-zabaleko zentzuan (ikus txostenaren aurreko puntua); neurri batean edo bestean A eta B hizkuntzez baliatzen den hiztun-elkarte edo hiztun-talde elebidunean⁸³ hainbat hiztunek⁸⁴ A eta B hizkuntzak (solasaldi, pasarte edo xeheagoko atal bakanetan) na-

Altxor preziatua izanik ere, etxeko transmisio hori ez da, ahuldutako hiztun-elkarteetan, belaunez belauneko jarraipenaren (bbj) berme: lagungarri handia eta funtsezko abiaburua da sarri, baina ez da jarraipen hori segurtatzeko lain.

**Mintzaldaketa
eta nahas-
hizketa gauza bi
dira: hiztun-talde
bat eguneroko
jardun arruntean
A hizkuntzatik
Bra pasatzea
(eta handik
aurrera Bn
jardutea)
adierazten du
batak, luze-
zabaleko
zentzuan; neurri
batean edo
bestean A eta B
hizkuntzez
baliatzen den
hiztun-elkarte
edo hiztun-talde
elebidunean
hainbat hiztunek
A eta B
hizkuntzak
(solasaldi,
pasarte edo
xeheagoko atal
bakanetan)
nahas-mahas
erabiltzea esan
nahi du besteak.**

has-mahas erabiltzea esan nahi du besteak. Teoriaz aski horniturik⁸⁵ daude *code-alternation*, *code-switching*, *code-mixing*, *code-shifting* edo *style-shifting* moduko kontzeptu-terminoak⁸⁶. Aplikazio-alorrean, aldiz, ilunago dira kontuak. Gatozen gure errealitate praktikora: *code-switching* eta *code-mixing* direlakoak aski maiz ageri dira hemen, kale gorriko solas-talde elebidunon jardun arruntean. Kode-aldaketa garbia dugu honelakoetan: “Kontuz ibili hadi *perikito* horrekin: *menudo bitxo*; atzo ere ederra egina zioke Josebari”⁸⁷. Hori baino alternantzia gotorragorik ere antzeman liteke gure artean, *conversational code-switching*⁸⁸ delakoaren sailean. Ez dago ordea argi, gure arteko kode-aldaketa non hasten den eta non bukatzen. Ez dago argi, bereziki, kode-aldaketa prototipikotik hainbat elebidun desorekaturen hizkera mordoilora justu noiz egiten den jauzi⁸⁹. Are gutxiago Nancy Dorian-ek Eskozian edo Mari C. Jones-ek Galesen hain zorrotz aztertutako *language obsolescence* delakoa gure artean zenbateraino hedatu den⁹⁰. Hori guztia funtsezko analisi-esparrua da gure arteko mintzajardunaren egungo egoera zehatz eta sakon aztertzeke⁹¹. Gaurkoan ez gara ordea horretan sartuko, saihestetik ez bada. Eskueran ditugun informazio-iturri sistematizatuak (batez ere bosna urte errepikatuek) ez digute horretara iristeko aukera handirik ematen eta, hori gutxi bailitzan, txostenaren neurriak eragozpen bizia eranstean dio aurreko muga horri. Ez dugu, beraz, nahas-hizketaren analisi sakonik egingo. Esanik bego, halere, zer terminologiaz baliatuko garen hala dagokion uneetan.

2. JENDEAK EUSKARAZ ALA ERDARAZ EGITEN DU? 2011KO DATUEN TESTIGANTZA

Jendeak leku eta une jakinean, solaskide jakinekin, hitzez edo idatziz, euskaraz ala erdaraz egiten duen jakin nahi genuke atal honetan. Zenbatek egiten du euskaraz? Zenbatek oro har, leku batean edo bestean, adinaren arabera, jardungunearen (eta bertako rol-harreman jakinen) argitan, zenbatek hitzez/idatziz, estilo formal-informal-intimoan? 2011ko egoera aztertuko da, nagusiki, analisi honetan: urte horretarako hainbat datu bildurik, landurik eta argitara emanik dagoenez, hortik abiatuko gara. Azken urteotako beste zenbait datu ere erantsiko diogu, aldian behin, 2011ko perspektiba nagusi horri.

Ahozko jardunera mugatu beharko dugu kasu gehienetan. Gutxi-asko euskaraz mintzo direnek zenbat irakurtzen / idazten duten euskaraz, zertaz eta zertarako, nekezago jakin ahal izango dugu: ez daukagu horretarako, zoritxarrez, ahozko jardunaren pareko informazio-oinarri demolinguistiko zabalik. Errazenetik hasiko gara beraz, analisi xumeagoak

egiten saiatuz ondoren: HPSOren tipologia sintetiko globalenetik abiatuko gara; ahozko jardunaren baterabilduzko datuetatik. Mintzajardun horren aldakortasun-iragarle izan ohi diren jardunguneak, solaskideak eta rol-harremanak, adin-geruzak, adierazpidea eta estilo kontuak ez ditugu beraz, oraingoz, aintzakotzat hartuko. Labur bilduz, leku jakinetako E4-, E3- (eta, bien baturaz, ET-) hiztunei (beraz hiztun horien jardunari) buruzko informaziotik hasiko gara. Gero, hartarako biderik dugun heinean, galdera konkretuagoei erantzuteko argibide osagarriak erantsiko dizkiogu analisiari.

2.1 Ahozko jardunaren baterabilduzko datuak

Zenbat E4-, E3- eta ET-hiztun kontabilizatu da 2011ko inkestan? Euskal herriko “Zazpi Probintziak” ohiko hiru lurralde-eremu zabaletan banatuz (EAE, Nafarroa, Iparraldea), datu hauek eskaini ditu V. inkesta soziolinguistikoak⁹²:

1. taula: Euskarazko mintzajarduna, kopuruz eta portzentajeaz: EH, EAE, Nafarroa, Iparraldea

	16 urte edo gehiagoko biztanleak, ggb		Euskarazko mintzajarduna, kopuruz eta portzentajeaz: EH, EAE, Nafarroa, Iparraldea											
			1991 ⁹³						2011					
			E4		E3		ET		E4		E3		ET	
			Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
	1996	2011												
EH	2.371.000	2.649.000	202.000	8,5	123.000	5,2	325.000	13,7	263.000	9,9	164.000	6,2	427.000	16,1
EAE	1.741.000	1.873.000	175.000	10,0	96.000	5,5	271.000	15,5	238.000	12,7	137.000	7,3	375.000	20,0
Nafarroa	421.000 /	537.000	16.000	3,7	10.000	2,3	26.000	6,0	19.000	3,6	10.000	1,9	29.000	5,5
Iparraldea ⁹⁴	212.000	239.000	11.000	5,4	17.000	7,9	28.000	13,3	6.000	2,5	17.000	7,1	23.000	9,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Konturatu, 16 urteko edo hortik gorako jende-kopuruaz ari garela hemen, ez populazio osoaz edota, beste zenbait ikerlanetan ohikoa denez, bizpahiru urtetik gorakoaz. Nolanahi ere, eta goiko taulara itzuliz, ondorio hauek atera litezke bertatik, gure ustez, lehen hurbilketa moduan:

- 2011ko datuen arabera, nagusiki euskaraz egiten duten euskaldunak 263.000 dira Euskal Herri osoan. Laburduraz E4 (edo E4-jarduna) esan diogu erabilera horri. Horrela diharduten hiztunei, berriz, E4-hiztunak edo E4-erabiltzaileak.
- Zazpi Probintzietako mintzajardun sendo hori (E4-jarduna alegia), kopuru aldetik Euskal Autonomia Erkidegoan kontzentratu dago nabarmen: 263.000 hiztun sendo horietatik EAEn bizi dira 238.000.

**E4-hiztunei
E3-hiztunak
batuz, 427.000
hiztun trinko
(427.000 ET-
hiztun) daude
guztira Euskal
Herrian, 2011
urtean. 427.000
hiztun trinko
horietatik EAEn
bizi dira 375.000.
Multzo nagusi
horren ondoan
bada bigarren
bat Nafarroan
(29.000), eta
hirugarren bat
Iparraldean
(23.000).
Portzentaje
aldetik, 427.000
ET-hiztunen
%87,8 EAEn bizi
da, %6,8
Nafarroan eta
%5,4
Iparraldean.**

Horren ondoan bada bigarren E4-multzo bat Nafarroan (19.000), eta hirugarren bat Iparraldean (6.000). Portzentaje aldetik, erdaraz baino sarriago euskaraz egiten duten E4-hiztunen %90,5 EAEn bizi da, %7,2 Nafarroan eta %2,3 Iparraldean.

- Badira, bestalde, bietara berdintsu egiten duten E3-hiztunak: horrelako 164.000 lagun identifikatu dira Zazpi Probintzietan. Berrirori ere Euskal Autonomia Erkidegokoak dira E3-hiztun gehienak: EAEn 137.000 kontabilizatu dira, Nafarroan 10.000 eta Iparraldean 17.000. Portzentaje aldetik, euskaraz eta erdaraz bezainbat bietara berdintsu egiten duten E3-hiztunen %83,5 EAEn bizi da, %6,1 Nafarroan eta %10,4 Iparraldean.

- E4-hiztunei E3-hiztunak batuz, 427.000 hiztun trinko (427.000 ET-hiztun) daude guztira Euskal Herrian, 2011 urtean. ET-erabilera hori ere, E4 bezala, EAEn kontzentraturik dago: 427.000 hiztun trinko horietatik EAEn bizi dira 375.000. Multzo nagusi horren ondoan bada bigarren bat Nafarroan (29.000), eta hirugarren bat Iparraldean (23.000). Portzentaje aldetik, 427.000 ET-hiztunen %87,8 EAEn bizi da, %6,8 Nafarroan eta %5,4 Iparraldean.

Askotan alde batera uzten dugun gertakaria da hori, egungo Euskal Herriaren izaera soziolinguistikoaz jarduterakoan. Merezi du, horregatik, aurrera jo baino lehen puntu honetan zentratzea. Zazpi Probintzia eta hiru Lurralde-eremu nagusi ditu Euskal Herriak azken mendeotan, baina euskararen bizi-indarra EAEn kontzentraturik dago nabarmen. Euskararen erabilera ez dago Euskal Autonomia Elkartera mugatua, baina euskal hiztun gehienak, askogatik gehienak, EAEn bizi dira. Zer-gatik kontzentrazio hori? Erantzun posible bat aski erraza da: Euskal Herriko populazio osoa⁹⁵ 2.649.000 lagunekoa delarik, EAEn bizi da jende gehiena (1.873.000 lagun: Euskal Herriko %70,1 hortaz). Ondotxoz biztanle gutxiago ditu Nafarroak (537.000: EHko %20,3) eta are gutxiago Iparraldeak (239.000: EHko %9,6). Jende gehiena EAEn bizi denez, ulertzekoa da E4-, E3- eta ET-hiztun gehienak EAEkoak izatea.

Esplikazio-iturri bakarra ez da, ordea, goiko hori: E4-, E3- edo ET-hiztunen EAEko kontzentrazioa biztanle-banaketa jeneralari dagokiona baino nabarmenagoa da. Biztanle guztien %70,1 bizi da EAEn, baina E4-hiztunen %90,5 eta ET-hiztunen %87,8 dago bertan. Lekuan lekuko portzentajeak ere kontuan hartu behar dira, EAEn nagusitasun hori ondo ulertzeko. EAEko biztanleen %12,7 E4-hiztuna da; aldez Nafarroan %3,6 dira E4-hiztun, eta Iparraldean %2,5. Erabilera trinkoari dagokionez, azkenik, EAEn %20 dira ET-hiztun, Nafarroan %5,5 eta Iparraldean

%9,6. Labur bilduz: 2011ko euskaldun sendoen eta trinkoen dentsitatea ez da uniformea Euskal Herrian: portzentaje aldetik gorago dabil EAE, apalago Iparraldea eta are apalago Nafarroa.

Hiru esparrutik bederatzi eremurako jauzia

EAE/Nafarroa/Iparralde mailako datu hirukoitz horiek ez digute, ordea, benetako aldakortasun geoespaziala behar bezain xehe erakusten: bai EAEn, bai Nafarroan eta bai Iparraldean diferentzia handiak daude, E4- edo ET-hiztunen kopuru absolutuz zein portzentualez, leku batetik bestera. Hori dela medio, arrazoiz gure ustez, hiru esparru geoadministratibo zabal horien datu soziolinguistikoak bederatzi lurralde-eremu xumeagotan banaturik datoz V. Inkesta Soziolinguistikoan. Ez beti, baina bai hainbat kasutan. Hona bederatzi lurralde-eremuak: EAEn *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*; Nafarroan *euskal eremua, bietarikoa eta erdal-duna*; Iparraldean *Baiona-Angelu-Miarritze herriarte* (laburduraz *BAM*), *Lapurdikoko barnealdea* (laburduraz *LB*) eta, azkenik, *Nafarroa Beherea eta Zuberoa* (laburduraz *NBZ*). Guztira bederatzi lurralde-eremu, hortaz. Hasierako hiru lurralde-multzoetatik bederatzi hauetara jaitsiz, analisi xeheagoa (benetako egoera konkretuaren egiazko izaeratik hurbilagoa) egin liteke. Hots, euskarazko mintzajardunaren 2011ko indar-osaera xehekiago azter liteke bederatzi lurralde-eremu horien bidez. Ikus ditzagun horretarako, lehen-lehenik, lurralde-eremu bakoitzeko ET-hiztunen kopuruak. Kopuru horiek balira irizpide nagusia⁹⁶, honako sailkapen hau egin ahal izango genuke lurralde-eremu indartsuenetik ahulenera:

2. taula: ET-hiztunen kopurua

ET-hiztunen kopurua		
	Lurralde-eremuen sailkapena	ET-hiztunak
1	Gipuzkoa	235.000
2	Bizkaia	128.000
3	Nafarroako euskal eremua	24.500
4	Araba	11.700
5	Iparraldeko LB	10.900
6	Iparraldeko NBZ	10.100
7	Nafarroako bietariko eremua	4.700
8	Iparraldeko BAM	2.000
9	Nafarroako erdal eremua	500

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Argi dago kopuru aldetik Gipuzkoa eta Bizkaia direla, askogatik⁹⁷, ET-hiztunen lurralde nagusiak. Hor dago euskal hiztun trinkoen muina,

2011ko euskaldun sendoen eta trinkoen dentsitatea ez da uniformea Euskal Herrian: portzentaje aldetik gorago dabil EAE, apalago Iparraldea eta are apalago Nafarroa.

**Gipuzkoan edo
Bizkaian bizi
dira Zazpi
Probintzietako
ET-hiztun guztien
%85. Nafarroako
euskal eremua
dator gero,
kopuru txikiagoz
(%5,7), eta
pareko kopuru
mugatuagoz
dabiltza Araba,
Iparraldeko LB
eta Iparraldeko
NBZ.**

hor “barizentroa”. Euskal herriko 427.000 ET-hiztunen %55 Gipuzkoan bizi da, eta %30 Bizkaian. Beste era batera esanik, Gipuzkoan edo Bizkaian bizi dira Zazpi Probintzietako ET-hiztun guztien %85. Nafarroako euskal eremua dator gero, kopuru txikiagoz (%5,7), eta pareko kopuru mugatuagoz dabiltza Araba, Iparraldeko LB eta Iparraldeko NBZ (EET-hiztun guztien %2,7, %2,6 eta %2,4 hurrenez hurren). Are mugatuagoak dira ET-hiztunetz Nafarroako bietariko eremua (%1,1) eta Iparraldeko BAM (%0,5). Arras xumea da azkenik, ET-hiztunen portzentajeari dagokionez, Nafarroako erdal eremua (%0,12).

Kopuru-eskala hori garrantzitsua da, bai egungo egoera ulertzeko eta bai hiztun-talde baten etorkizuna aurreikusteko⁹⁸. Lurralde-eremu guztietan dago zer eginik, baina euskararen geroa aurreikusteko eta hobekuntza-neurriak proposatzeko orduan guztiak ez dira balio-indar bereko. Kontuz ibili behar da, ordea, hiztun-elkarteen balio-neurketa kopuru absolutuetara bakarrik mugatu gabe. Hori bezain garrantzitsua da, askotan, hiztun horien kontzentrazioa, beren proportzioa adierazteko lagungarri izan ohi den portzentajea: UNESCOren *Expert Group* delakoaren hitzetan, “absolute number of speakers” faktoreari ezer kendu gabe kontuan izan behar da “proportion of speakers within the total population” delakoa ere. Goiko taula horren informazioa argitzeko azter ditzagun, beraz, lurralde-eremu bakoitzeko E4-, E3 eta ET-hiztunen portzentajeak⁹⁹. Panorama ez da goitik behera aldatzen, baina badago taula batetik bestera gogoan izateko berrikuntza zorrotzik. Horrela, ET-hiztunen portzentajea balitz irizpide nagusia, ondoko sailkapen hau egin beharko genuke¹⁰⁰.

3. taula: 2011ko E4-, E3- eta ET-hiztunen portzentajea

2011ko E4-, E3- eta ET-hiztunen portzentajea				
	Lurralde-eremuen sailkapena	E4 %	E3 %	ET %
1	Nafarroako euskal eremua	38,0	10,6	48,6
2	Gipuzkoa	26,6	12,4	39,0
3	Iparraldeko NBZ	10,2	20,4	30,6
4	Bizkaia	..7,4	5,4	12,8
5	Iparraldeko LB	2,2	..8,00	10,2
6	Araba	..1,3	3,00	4,3
7	Iparraldeko BAM	0,3	1,8	..2,1
8	Nafarroako bietariko eremua	0,1	1,6	1,7
9	Nafarroako erdal eremua	0,0	0,2	0,2


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Sailkapen biak (ET-kopuruena batetik, E4-, E3- eta ET-portzentajeena bestetik) diferenteak dira emaitzaz. Nafarroako euskal eremua hiruga-

rrren da ET-hiztunen kopuru-taulan (Gipuzkoaren eta Bizkaiaren atzetik) baina ET-portzentaje lehengo. Inportantea da hori. Are inportanteago, Nafarroako euskal eremu hori E4-portzentaje ere lehengo postuan (eta Gipuzkoatik are destakatuago) dagoela ikusten bada. Oso kontuan hartzekoa da, gure ustez, Nafarroako euskal eremuaren indargune konparatibo hori.

Antzera gertatzen da, partez, Iparraldeko NBZrekin: ET-kopuruz aski atzean dabil (sailkapeneko seigarren) baina ET-portzentajez aurrera samar (hirugarren). Bereizkunde horren balio-indarra ez da ordea, urrundik ere, Nafarroako euskal eremuaren parekoa. Oso bestelako irudia ematen digute, izan ere, NBZren E4 eta E3 indizeek: ETko %30,6tik %10,2ra jaisten da E4ren portzentaje hori. Bistan da zergatik: bertako ET-hiztun gehienak E3-hiztun bihurtu dira dagoeneko, behinolako E4-hiztun izaera galduz. NBZko fenomeno hori bera, edo are nabarmenagoa, gertatzen zaio Lapurdiko barnealdeari (LBri): ET-hiztunak %10,2 dira bertan, baina E4-hiztunak %2,2 (LBko ET-hiztunen hiru laurdenak baino gehiago E3-hiztun “ahul” ditu hortaz, ez E4-hiztun “sendo”). Bestela esanik, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdiren barnealdeko hiztun trinko gehienak ez dira batez ere euskaraz bizi beren eguneroko jardunean, euskaraz eta frantsesez nahas-mahas baizik. Inportantea da, nola ez, beste hau ere gogoan izatea: kopuruz bigarren den Bizkaia laugarren postura jaisten da, E4- eta ET-hiztunen portzentajeak aztergai ditugunean. Are beherago (bosgarren postuan) dago Bizkaia, E3ri dagokionez. Ahuldade horrek ere aparteko garrantzia du (tartean, aurrerago aztertuko ditugun arnasguneetarako)¹⁰¹.

Inportantea da, azkenik, kopurua eta portzentajea konbinatuz Gipuzkoak, Bizkaiak eta Nafarroako euskal eremuak ageri duten lehentasun globala gogoan izatea. Hiru horien oso atzetik datoz (aurrerago zehaztu beharko diren datuen argitan) gainerako seiak. Beñat Arregiren ondoko mapa-grafiko hauek adierazgarri dira oso, zenbait zertzeladak gorabehera¹⁰², Gipuzkoak, Bizkaiak eta Nafarroako euskal eremuak egungo egunean duten buruzagitza demolinguistiko hori argitzeko:



Datuen iturria: Gaindegia. Euskalgeo.net. UEMA. Mapagilea: Beñat Arregi

2.2 Jardunguneen araberrako datuak

Jardungune batetik bestera alde nabarmena agertu ohi du, askotan, euskarazko jardunak. Horrela ote da 2011n ere, V. Inkesta Soziolinguistikoaren argitan? Berdin ote dabilta kontuak EAEan, Nafarroan edo Iparraldean? Galdera modu horiei erantzun nahi zaie hemen.

2.2.1 V. inkesta soziolinguistikoaren emaitzak

Etxean, kale-giro arruntan, lan-esparruan, administrazio- eta zerbitzu-esparruan eta, azkenik, internet bidezko gizarte-sareetan nola ageri dira erabilera kontuak, 2011n? Banan banako azalpen laburra eskaintzen da hemen, V. inkesta soziolinguistikoak adierazten duenetik abiatuz. Jardunguneen araberrako datuok hiru lurralde-eremu nagusien arabera desglosaturik datoz¹⁰³. Handizkako perspektiba horri azterbide xumeagoa erants dakioke bestalde: Soziolinguistika Klusterraren datuetan oinarrituz zenbait herritako kale-erabilera nolako den azaltzen saiatuko gara hortaz, kale-neurketen datu global(ago)ak analizatzeaz gainera. EAEko udalerrri euskaldunetako etxe-giroko erabilera arakatuko da azkenik, Iñaki Iurrebasoren azalpen argitara berrian eta (Xabier Bengoetxearen eskutik) Tolosa aldeko zenbait arnasgunetan pausatuz begiak.

a) Etxeko ET-erabilera: Etxean, bere osoan harturik, 16 urte edo gehiago duten EAEko biztanleen %17,2k erdaraz bezainbat edo erdaraz baino sarriago egiten du euskaraz. Horrezaz gainera, EAEko biztanleen %6,5ek erdaraz baino apalago egiten du euskaraz, eta %76,4k erdaraz egiten du (ia) beti. Laburbilduz, EAEko biztanleen %17,2 ET-hiztuna da. Etxeko erabilera global hori aldakorra da, bestalde, etxe barruko rol-harreman nagusien arabera. Aldakortasun nabarmena ageri da, alegia, etxe barruko

solaskide prototipikoen jardunean. Ondoko taulak ematen du horren berri:

4. taula: ET-erabilera etxean.

<i>ET-erabilera etxean</i>			
<i>solaskideak:</i>	<i>EAE</i>	<i>Naf</i>	<i>Ipar</i>
<i>nor norekin ari</i>	<i>%</i>	<i>%</i>	<i>%</i>
gurasoak seme-alabekin	22,8	8,0	11,1
anai-arrebak	20,1	7,0	13,6
seme-alabak gurasoekin	14,3	3,8	7,3
senar-emazteak ¹⁰⁴	14,1	4,3	10,8
etxekoak, oro har	17,2	5,4	10,7

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Solaskideei dagokienez bi polo nagusi ageri dira EAEn eta Nafarroan¹⁰⁵, etxe-giroko mintzajardunean: batetik euskal enfasizko rol-harremanak daude (gurasoek seme-alabekin edota anai-arrebek beren artean); bestetik erdal enfasizko rol-harremanak ageri dira (senar-emazteek beren artean eta (16 urtetik aurrerako) seme-alabek gurasoekin). Aldea nabarmena da EAEn, oro har, eta (termino konparatiboetan) are nabarmenagoa Nafarroan. Iparraldean, berriz, bi polo ordeztu hiru gradu-maila hauek nabari dira: batetik anai-arrebek beren artean ageri dutena (euskaldunena), gero senar-emazteek beren artean edo seme-alabekin darabiltena eta, azkenik, seme-alabek gurasoekin ageri duten jokabide erdaldunagoa.

b) Kale-giro arrunteko ET-erabilera: “Kale-giro arrunt”-ean sartu ditugu dendarietara harremanak¹⁰⁶, lagunetik eta auzokietara harreman-sareez gainera. Hiru elementu horietan oinarriturik, honako datuok eskaintzen ditu Inkesta Soziolinguistikoa:

5. taula: ET-erabilera kale-giro arruntean.

<i>ET-erabilera kale-giro arruntean</i>			
<i>solaskideak:</i>	<i>EAE</i>	<i>Naf</i>	<i>Ipar</i>
<i>nor norekin ari</i>	<i>%</i>	<i>%</i>	<i>%</i>
lagunekin	21,4	7,2	14,5
auzokietara	18,4	5,7	10,4
dendarietara	20,4	5,1	6,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

EAEko etxe-giroa baino euskaldunxeagoa da kale-giroa, datu hauen arabera. Nafarroan ez da etxe-giroko datuetatik alde nabarmenik ageri. Iparraldean, berriz, dispersio handia ageri da lagunetik harreman-saretik denda-mundukora, erdibidean dela auzoa.

**Etxean eta kale-
giro arruntean
baino
indartsuago ageri
da ET-jarduna
lan-esparruan.
Deigarria da
hori.**

EAEko etxe-giroa baino euskaldunxeagoa da kale-giroa, datu hauen arabera. Nafarroan ez da etxe-giroko datuetatik alde nabarmenik ageri. Iparraldean, berriz, dispartzio handia ageri da lagunekiko harreman-saretik denda-mundukora, erdibidean dela auzoa. Kale-giro arrunteko ET-hiztun gehienak EAEn daude, kopuru absolutuz eta portzentajeaz. Kale-giroko solaskide batzuetatik besteetara alde txikia dago EAEn, baina aski nabarmena Iparraldean. Erdibidean-edo daude, kale-giroko jardunaren kontuan ere, Nafarroako ET-hiztunak.

c) **Lan-esparruko ET-erabilera:** Galdera bakarra egin da jardungune horri begira, eta litekeena da galdera bera lausoegi gertatzea. Erantzunak hor daude, dena den, eta hoberik agertzen ez den artean kontuan hartzekoak dira. Hona, konkretuki, hiru esparruetako datuak:

6. taula: ET-erabilera lan-esparruan

ET-erabilera lan-esparruan			
solaskideak:	EAE	Naf	Ipar
nor norekin ari	%	%	%
lankideekin	24,6	7,1	10,9

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Etxean eta kale-giro arruntean baino indartsuago ageri da ET-jarduna lan-esparruan. Deigarria da hori. Teoria soziolinguistikoa hainbat ondorio-ustezko kolokan-edo jartzen ditu emaitza horrek, baina hori erantzun dute inkestatuek eta, dudamudaz bada ere, erantzun horietan oinarrituko gara. Gatozen zenbait ondorio argitara: Lan-esparruko ET-hiztun gehienak EAEn daude, bai kopuru absolutuz eta bai portzentajeaz. Txikienak, berriz, portzentualki Nafarroan; Interpretazio-arazorik sortzen digu Iparraldeko jarduera horrek: nola liteke lankideekin %10,9ko ET-jarduna izatea, eta dendariekin %6,6koa¹⁰⁷.

d) **Administrazio- eta zerbitzu-esparruko ET-erabilera:** Hona, labur-labur, esparru publikoan eta pribatuan ageri diren emaitzak:

7. taula: ET-erabilera administrazio- eta zerbitzu-esparruan.

ET-erabilera administrazio- eta zerbitzu-esparruan			
solaskideak:	EAE	Naf	Ipar
nor norekin ari	%	%	%
udalekoak	24,7	6,2	8,4
bankukoak	21,1	5,4	3,1
osasun-alorrekoak	19,8	4,9	3,5
Admin. supralokala ¹⁰⁸	23,5	2,6	0,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Alde handia, arras nabarmena, ageri da hemen EAEko egoeratik Nafarroako eta Iparraldeko situazio ez hain diferenteetara. “Bi mundu” ditugu hemen, batetik %20 inguruko ET-jarduna izanik pauta nagusi eta bestetik %5etik behekoa. Guztia ez da, gure ustez, hiltun-portzentajeen oihartzun huts. Ofizialtasun bikoitzeko lege-markoaren garapenez EAEko administrazio eta zerbitzu publikoen alorrean hartutako neurriek izan dute bereizbide horretan, gure ustez, bere eragina. *Institutional support* delakoa, bere muga guztiekin ere, eragingarri izaten ari da bertan. Kontuz ibili behar dugu, ordea, bereizbide zorrotzegiekin: Nafarroako euskal eremua hartuk bagenu aztergai, ez Nafarroa bere osoan, hor ere *Institutional support* delakoak ohargarritzko eragina izan duela ikusio genuke seguruenik.

e) Internet-eko gizarte-sareetan aitorturiko ET-erabilera.

Diskutigarria da, teoria aldetik, “benetako jardungune” baten aurrean gauden hor. Litekeena da horko erabilera horren zati on bat lan-esparruko izatea, eta beste bat lagunartekoa. Nolanahi ere, datua eskueran dugunez kontuan hartzekoa iruditzen zaigu eta, lehen hurbilketa gisa, hemen kokatu dugu. Ohiko jardunguneetan baino zehaztapen handixeagoa dakar V. inkestak, bestalde, kasu honetarako. ET-hiztunez gainera E4- eta E3-hiztunak eskaintzen ditu batetik, eta bi adin-perspektiba eskaintzen ditu bestetik: adin orotakoak eta gazteak. Hona emaitzak:

8. taula: E4, E3 eta ET internet-en.

E4, E3 eta ET internet-en						
solaskideak, binaka edo taldean	EAE		Nafarroa		Iparraldea	
	oro har	gazteak	oro har	gazteak	oro har	gazteak
	%	%	%	%	%	%
gehienik euskaraz	10,1	23,9	3,5	9,1	1,7	2,5
bietara berdintsu	5,3	10,3	2,1	4,3	2,9	4,1
a + b: erab. trinkoa	15,4	34,2	5,6	13,4	4,6	6,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

EAE batetik eta beste bi lurralde-eremuak bestetik aski proportzio berezietan agertzeaz gainera, aski deigarri iruditzen zaigu EAEko eta Nafarroako (ez Iparraldeko) gazteek orotariko neurritik ageri duten gainbalio sendoa: bikoiztu baino gehiago egiten da erabilera-datua EAEko eta Nafarroako gazteen artean. Xabier Bengoetxeak Tolosa aldeko arnasguneetan jasotako datuen argitan ez dakigu, bestalde, emaitza altu horiek nola interpretatu. Arnasguneetako gazte(txo)en E4-jarduna %50 ingurukoa baldin bada, nola liteke EAEko gazteen ia laurdena (%23,9k) E4-erabiltzaile izatea? Ezinezkoa ez da, baina bai deigarria.

2.2.2 Kale-neurketaren emaitzak

Lan handia egin ohi du Soziolinguistika Klusterrak, Euskal Herriko hainbat herritan euskarak kale-giroan zer erabilera-neurri eta zer erabilera-mota ageri duen arakatuz¹⁰⁹. 2011ko neurketaldian Euskal Herri osoko 97 udalerri aztertu ditu, 154.277 elkarrizketa eginez eta 363.616 hiztunen informazioa bilduz¹¹⁰. Neurketa-lan horrek ondoko emaitzak eskaini ditu:

9. taula: 2011ko kale-erabilera (Euskal Herriko emaitza).

2011ko kale-erabilera (Euskal Herriko emaitza)					
Araba	Bizkaia	Gipuzk	Nafarro	Iparrald	Euskal
%	%	oa	a	ea %	Herria,
		%	%		%
4,0	9,4	32,7	5,7	6,2	13,3

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Euskal Herriko kale-erabilera hori hainbat herritan neurtu izan du Soziolinguistika Klusterrak eta lekuan lekuko emaitzak argitara emanik daude han-hemen. Argitalpen monografikoei dagokienez oso kontuan hartzekoak dira, gure lan honen xedea kontuan izanik, Bermeoko, Gernikako, Lekeitioko, Ondarroako, Baztango, Altsasuko, Andoaingo, Erreterriako, Tolosako eta Zestoako kale-neurketen emaitzak. Badira horietan izan ere, alde eta bereizgarri nabarien ondoan, amankomuneko puntuak. Horietariko bat, neurtutako kaletarren adin kontua. Hona zenbait ondorio:

- a) Adinaren eragina kaleko mintzajardun arruntan: hona, taula bakkarrera bildurik, hiru udalerri horietariko emaitzak

10. taula: kale-erabilera adinaren arabera: %euskaraz.

kale-erabilera adinaren arabera: % euskaraz				
2011	haurrak	gazteak	helduak	adinekoak
Bermeo	41,14	18,18	28,96	59,87
Gernika Lumo	68,1	51,0	41,0	33,3
Lekeitio	84,6	71,6	61,6	63,3
Ondarroa	96,43	93,93	90,96	95,89
Baztan ¹¹¹	67,3	74,3	55,2 ¹¹²	44,0
Altsasu	10,50	4,70	8,04	3,74
Andoain	31,17	16,96	12,80	11,76
Errenteria	19,73	15,22	11,41	5,11
Tolosa	66,52	62,31	40,33	30,15
Zestoa	89,71	93,67	72,72	72,09

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Goiko koadro hori aski da, zenbait ondorio ateratzeko. Honako hauek argi samarrak dira gure ustez:

- Lurraldekako erabilera-eremua-globalek baino argazki finagoa, “pixelatu”agoa, herri batetik bestera aldakorragoa, erakusten digute zifra hauek¹¹³.
- Ez da egia, “zenbat eta adin-tarte gazteagoa hainbat eta erabilera-tasa handiagoa” dioten esaldia arau jeneral denik. Erabilera-datu hobereneko udalerrietan, Ondarroan bereziki, erabilera molde egonkorragoa ageri dute zifrek.
- Bermeoko datuek, bestalde, mintzaldatzeko bizkor baten isla dirudite. Ez da batere gauza segurua, bertako haurren erabilera-tasa (konparatiboki) handi horrek HINBE-indarrik izango duenik, bere baitarik eta bere hutsean: haurrak gaztarora pasatzean nabarmen jaisten dute bertan, antza, kaleko euskal erabilera.
- Badira, azkenik (ikus Tolosa, Gernika Lumo edo Baztan), burujasotze baten aurrean egon gaitezkeela uste izateko motiborik ematen dutenak.

Badirudi, oro har, joera nagusi-unibertsalekin zail dela bilakaera municipal guztiei edo gehienei erantzutea. Udalerri bakoitzean plano demografikoan, ekono-teknikoan, lurralde-antolamenduzkoan, soziokulturalean eta abar gertatzen ari den bilakaera partikularrari atentzio handiago zor zaio. Litekeena da kale-neurketaren datu horiekin, batez ere hamar-hogei urteko konparazioak egin nahi izatekotan, Inkesta So-

**Solas-taldean
haurrik baldin
bada, edo solas-
taldeko kideak
haurrak baldin
badira, gora egin
ohi du
normalean
erabilera-tasak.**

ziolinguistikoak eskaintzen duen perspektiba global-egonkorretik urrunxko egotea oraindik, baina azterbideak berak hobekuntzarako eta ikuspegi-berrikuntzarako aukera handiak dituela erakusten du. Sozio-linguistika Klusterrak berak argi azaldua duenez kale-neurketaren barne-aldakortasunak berariazko elementuak ditu, ohiko teoriak aurreikusirik zituenaz gainera. Horrela, esate baterako,

- a) urte-garaiak eragin bizia izan dezake kale-erabileran, turismoaren eraginez. Ikus Lekeitioko datuak: euskararen kale-erabilera %69,4koa da urte-garai arruntan, aldiz %53,7koa udako turismo-garaietan.
- b) herriko zein auzotan gabiltzan ere iragarle ona da, erabilera-tasa handiagoa edo apalagoa espero izateko: ikus, berriro, Lekeitioko taula hau:

11. taula: kale-erabilera, zonaldearen arabera. Lekeitio, 2014.

kale-erabilera, zonaldearen arabera. Lekeitio, 2014			
Lekeitio, 2014	eskola ingurua	kale nagusia	txikiteo gunea
euskaraz %	84,9	64,9	56,4
gaztelaniaz %	15,1	34,9	43,3
bestela		3,1	0,2

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Eskola-ingurua zona euskaldunagoa da kale-jardunari dagokionez, eta txikiteo-gunea erdaldunagoa. Honek, bide batez esanik, aski datu kezagarria adieraz dezake: orain puntura arte gure-gurea izan dugun (eta euskararen belaunez belauneko iraupenari gogotik eragin izan dion) jardungunea, lagunartea, ahultzen ari izan liteke Lekeition¹¹⁴.

- c) Aurkikunde handienetako bat, azkenik, solas-taldearen osaerari dagokiona da: solas-taldean haurrik baldin bada, edo solas-taldeko kideak haurrak baldin badira, gora egin ohi du normalean erabilera-tasak. Gernika-Lumon eta Baztanen, adibidez, emaitza hauek ateratzen dira:

12. taula: kale-erabilera, solas-taldearen osaeraren arabera.


kale-erabilera, solas-taldearen osaeraren arabera.						
2011 euskaraz %	guztira	haurrak bakarrik	nagusiak bakarrik	haurrak eta nagusiak batera		
				batez bestean	haurra mintzo	nagusia mintzo
Gernika-Lumo	69,4	86,5	57,5	79,6	88,3	60,6
Baztan		75,3	49,7	78,3		

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Joera bera dago bietan: tartean haurrik denean, gainerakoan erdaraz ari izaten den hainbat pertsona nagusik euskaraz egiten du. Kontua ez da, gainera, udalerri batzuetako bitxikeria: perspektiba jeneralean ere ondorio bera ateratu du kale-neurketak:

**Gela barruko
perspektiba
horretatik etxea
bera baino
euskaldunago da
eskola, gero eta
bakanago
ditugun
arnasguneetatik
kanpora.**

1. Grafikoa: Euskararen erabilera haurren presentziaren arabera. Lurraldeak 2011.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra (Olatz Altuna).

Garbi dago, beraz, ondorio jenerala zein den: kalean barrena doan solas-taldean haurrik dagoenean (edota haur-talde soila denean) nabarmen gora egiten du euskarazko jardunak¹¹⁵.

Ba ote dago Soziolinguistika Klusterraren 2011ko kale-neurketaz lortutako emaitza horiek V. Inkesta Soziolinguistikoak urte berean kale-giro arrunteko erabileraz (zehazkiago: erabilereiz) ematen duen informazio-arekin konparatzerik? Gauzak zorrotz harturik, gure ustez ez: galderari eta zenbait parametrori dagokionez antzekoak dira biak, baina elkarren arteko diferentziak askoz ugariagoak eta nabarmenagoak dira antzekotasun horiek baino. Ez dugu uste, beraz, bien arteko konparazio handirik egiterik dagoenik. Gehien-gehienik ere, hurbilketa hutsezko iritzi moduok eman litezke:

***Etartetik
ekarritako euskal
gaitasuna
berresteko edo
etxean ikasi
gabekoa eskuratu
eta hein batean
erabiltzeko gune
da oraingo
eskola, EAEen
batez ere.***

a) kale-neurketaren emaitzak apal(xe)agoak dira, itxuraz, inkesta bidezkoak baino.

b) Inkesta soziolinguistikoak etxe-giroko analisi xeheagoa egiteko aukera eman duelarik, gurasoen seme-alabekiko E4- edo ET-jardunaren batezbestekoa baino handiagoa dela ikusi izan da beti edo ia beti. Aski antzeko fenomenoak ageri da hemen, segun kaleko solastaldean haurrik dagoen edo ez dagoen. Analisi-bideon (inkestaren eta kale-neurketaren) balio-indarra sendotzera, ez ahultzera, dator antzekotasun hori.

2. 3 Eskolako erabilera, ikasleen artean

Euskararen gotorleku da euskara, egungo egunean; hala dira kontuak, batez ere EAEen. Ez dago beste inolako jardungunerik, are gutxiago ekimen-esparru instituzionalik, euskararen nagusitasun-moldaerari dagokionez ikasgelaren pareko emaitza gotorrik ager dezakeenik. Ikasgelan, ez jolaslekuan, pasatzen dituzte ikasleek beren eskola-ordu gehienak. Gela barruko perspektiba horretatik etxea bera baino euskaldunago da eskola, gero eta bakanago ditugun arnaguneetatik kanpora. Guztion begien bistara ekarri du errealitate hori Arrue ikerketak: etxean, mahaira biltzen direnean etxeok, %10 inguruan dabil euskara hutsezko jarduna. Eskolan, aldiz, ondotoz gorago dabilta erabilera-zifra apalena (%28 LMH4-n, ikaskideen artean, jolaslekuan), nahiz eta etxeko portzentajearen parera jaisten diren DBH2-n. Ikasgelan ondotoz portzentaje altuagoak lortzen dira ikaskideen artean (%60 eta %28, hurrenez hurren), eta are altuagoak izaten dira zifra horiek irakaslearekiko interakzioan (kasurik gotorrean, gela barruan, %71ra eta 61era igotzen dira portzentaje horiek, hurrenez hurren). Ez dago dudarik: etxean ikasitakoa galtzeko lekua baldin bazen eskola denbora luzez, oso bestelako funtzioa betetzen du orain: etartetik ekarritako euskal gaitasuna berresteko edo etxean ikasi gabekoa eskuratu eta hein batean erabiltzeko gune da oraingo eskola, EAEen batez ere.

Guztia ez da ordea, are eskola-esparruan, txuri-gorritzko amets-baratze: eten argia dago ikasle-irakasleen ikasgelako mintzaira formal-jaso asmozkoaren eta gazte-jendearen hizkera informalaren artean. Nahiz eta arnaguneetan bizi eta D eremuan ibili, gauza bat da ikasgelako erabilera nagusia eta beste bat gelaz kanpoko. Zer esanik ez eskolatik kanpora ateratzean: gazte-gaztetxoaren kultura-kontsumoan erabatekoa da gaztelaniaren pisua. Nabarmena da erdal nagusitasun hori telebistan, literaturan eta prentsan, ez hainbeste irratan. Informazio eta komunikazio

berrietan ere gaztelania da, ingelesa ez denean, jaun eta jabe. Hori guztia dela medio, eten nabarmena dago eskola bidez bultzatu nahi izaten den erabileraren eta hainbat alorretako kontsumo kulturalaren artean. Eskola ez da erabateko gotorleku: kanpoko eragina barrura sartzen da eta, bereziki, barruko mintzajardunak eragin mugatua du handik kanpora ateratzean. Arrueren emaitza hori mila eratara frogatu, neurtu eta berretsi da azken hamarkadotan, EAEn eta oro har Euskal Herrian. Bai perspektiba globaletik heldu izan zaio kontu horri (Zalbide, 2000), bai EAEko alorretik (Zalbide, 2007b), eta bai aplikazio lokal-konkretutik.

Azken hauetariko bat eskaintzen digu, argi eta zehatz, Jasone Aldekoa-ren doktore-tesiak (Aldekoa, 2012). Bertatik eratortzen diren emaitza batzuk, ez guztiak, kezkarri dira. Kezkarri, batetik, diotena diotelako. Kezkarri, bestetik, hurbil-hurbileko eta kalitate-maila oneko azterketaz eskuratuak direlako. Hona bere ondorio nagusia: “hezkontza-sistema elebidunaren ezarreratik espero zitekeen euskararen erabileraren orokortzea ez da gertatu, ez, bederen, gizarteak nahi zuen proportzioan” (Aldekoa, 2012, 295). Dioen horren argigarri da, bereziki, Arratiako datu-azalpen konkretua: eskola-esparruko erabilerak ingurumen horretan 2000-2010 urte-tartean izan duen bilakaera:

13. taula: Erabileraren bilakaera, 2000-2010 epean.

Erabileraren bilakaera, 2000-2010 epean		2000-05	2005-10	2000-10	ardatza
eremu Instituzionalean	erabilera orokorra	+	++	++	E
	ahozko erabilera	+	++	++	E
	erabilera idatzia	=	+	+	E
	Zuzendaritza	=	++	++=	E
ikastetxeko kideen artean	irakasleak	=	=	=	E
	langile ez-irakasleak	+	++	++	E
	gurasoak	+	++	++	D
Eskolatik kanporaz	Ikasleak eskolan	-	=	-	D
	Ikasleak eskolatik kanpora	=	-	-	D

Iturria: Jasone Aldekoa, 2012: 297.

Goiko taula hori honela irakurtzekoa da: + zerbaiz igo; ++ nabarmen igo; = berdin; - zerbaiz jaitsi; E estatikoa; D dinamikoa.

Bistan da eskola-munduan gora egin duela euskararen erabilerak zenbait alorretan (eremu instituzionalean, bertako lankideen artean,..), ez ordea ikasleen jardunean: ez eskola barruan eta ez eskolatik kanpora egin du horrek gora. Hori da kontua, seguruenik Arratiako adibide konkretura

**“Hezkuntza-
sistema
elebidunaren
ezarrieratik
espero zitekeen
euskararen
erabileraren
orokortzea ez da
gertatu, ez,
bederen,
gizarteak nahi
zuen
proportzioan”
(Aldekoa, 2012,
295).**

mugatu ezin dena. Honako hau dio Jasone Aldekoak, horri buruzko iruzkinean: “Gure eskualdekoa da Arratia bailara, 80ko hamarkadan, arnasmune bezala har zitekeena (Zalbide, 2007a). Arratiakoak dira, besteak beste, Arantzazu, Artea, Igorre, Dima, Lemoa, Zeanuri, Zeberio eta Ubidea. Bertan, euskara etxean, auzo-giroan, plazan, tabernetan eta elizan nagusia zen: “Xish will have its ‘own space’, i.e. functions in which it and it alone is normatively expected, and Yish will no longer be a major danger to it in those functions” (Fishman, 1991: 85). Bestela esanda, euskarak bizi-esparru propioa zuen, gizarte-bizitzako funtzio gehienetarako erabiltzen zen, esparru hori hurrengo belaunaldiari transmititzen zitzaion, eta, gaztelania/erdarek ez zituzten arriskutan jartzen ez euskara ezta berak betetzen zituen funtzioak ere. Nolanahi ere, aurreko herri gehienak landa eremukoak ziren, izaera horrek daramatzan ezaugarri guztiekin, hala nola, biztanleriaren zati garrantzitsuenak nekazaritza eta basogintzatik bizi zen, dentsitate demografikoa txikia zen eta, ondorioz, bertako gazte askorentzat bertan ez zegoen etxebizitzarik ezta lanik ere; gainera, herri horien garapenerako jasotzen ziren laguntza administratiboak, biztanle kopuruen araberakoak izaten direnez gero, ez ziren nahikoa azpiegituren berrikuntzarako. Azken hogeitaz urteotan, ordea, urbanizazioa, lurralde-antolamendua eta dislokazio sozio-kulturala bitarteko izan direla (Fishman, 1991; Zalbide, 2007a), goian aipatutako herrietatik hiruk baino ez dute arnasmuneen definizio operatiboa betetzen; beste bostak, berriz, %50 eta %80 bitarteko udalerrir tartea osatzera pasatu dira gaur egun (Eustat, 2006). Herri hauetan guztietan, azken hamarkadan, batik bat, etxebizitza berriak eraiki dira, 100 etxebizitzatik gora herri bakoitzean, eta horrek, biztanlerian aldaketa nabarmenak sortu ditu. (Aldekoa, 2012: 304-5).

Labur bilduz, eskola barruko saiorik sendo, sakon eta teoriaz jantzienak ere ezin izan dio herri-giro osoaren erdalduntze bortitzari aurre egin: XX. mendearen 80ko hamarkadan (ordura arte bederen) euskara izan dugu herri horien “normatively expected” berbakera, baina eginkizun hori gaztelaniak eskuratu du geroztik eta ikasleak hartara bildu dira beren jardueran. Azterbide soziologikoari dagokionez bistan da zergatik: adin batetik aurrera ordain-sarien gizarte-sistemak gobernatzen du neurri handian, inoiz esana dugunez (Zalbide 2002: 48), gazte-jendeak euskaraz ala erdaraz egin. Ez dago hor aparteko nobedaderik: gizarteko ordain-sari sistema sendoenaz horniturik dagoen hizkuntzaren alde egin ohi dugu gizakiok, batez bestean. Gaztelaniak du gure artean, oro har, ordain-sistema zabal, sendo eta erakargarriena. Hala da esfera publiko-formal-mediatikoetan, aisialdiaren eta merkataritzaren alor gehie-

netan eta harreman-sare informal, barrenkoi-intimo askotan (Zalbide 2002). Arau zabal horretatik gehien aldentzen diren espazio geoterritorialak arnasmuneak ditugu: hala izan dira XX. mendean eta hala ditugu orain ere. Horietan bakarrik du euskarak, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, nagusitasun argia. Espazio horiek arnasmune iza-teari uzten dioten heinean, erdara nagusi deneko araua zabaltzen hasten da bertan ere: mintzajardunaren erdal moldaera horretara biltzen dira bertako herritarrek eta gazteek, inork baino errazago agian, ordain-sarien gizarte-sistema berriaren alde egiten dute apustu. Eskolaren eragina mugatua da beti, euskarari (etxe-auzo-kale)-giroan bizirik eusteko orduan. Are mugatuagoa hizkera-molde bizi-fresko-barrenkoi moduan euskara, esfera informalean, ordura arteko erabilera zabal-sendoa galduz doan edo dagoeneko galdurik¹¹⁶ duen lekuetan. Gertakari ezagun horren argitan ulertu behar dira gure eskola bidezko lorpenak (analisi erakar-garri baterako ikus, adibidez, A. Elordui 2006).

Gertakari hori ezertan gutxietsi gabe, besterik ere esan behar da ordeak; arriskua daukagu, bestela, txanponaren aurpegi-alde bakarra erakustekoa. Baditu euskal eskolak, arazo serio horren ondoan, euskara indarberritzeari dagokionez beste inor gutxik ekar ditzakeen onurak. Hona, Kardaberazek esango zukeenez, “euskararen (eskola-giroko) berri onak”¹¹⁷:

- Etiket euskaldun diren ikasleen gaitasuna, euskaraz mintzatzeko ahalmena, sendotzen, zabaltzen eta aberasten ari da eskola: etiketik dakarten gaitasuna zabaltzen, aberasten, etxeko erregistro informale-tatik erregistro formalagoetarako bidea indartzen du eskolak; ahozko jarduna idatzizko planora eta irakurrizkora hedatzen du, eta hizkuntzaren eredu bateratu baterako ateak zabaltzen eta hiz-tun-elkarte osoaren bateragarri izango den eredu horren ezagutza jeneralizatzen.
- Ikasle erdaldunak euskalduntzen ari da eskola, halako neurri ba-tean. Eskolan (eskolan bakarrik) ez da L2 hizkuntzaren hitz-etorri oneko mintzamenik eskuratzen, oro har. Erabateko gaitasun hori ez du eskolak eskaintzen, baina milaka ikasle (hein batez) elebidun sortzen ditu urtero. Elebitasun horrek era askotako eragozpen-mu-gak izan ditzake, baina abantaila sendorik ere badu berekin.
- Curriculumaren euskal dimentsioa aurrez aurre lantzen du esko-lak. Gure herri-izaeraren eta nortasun kolektiboaren ezagutza eskura dezakete horrela, hein batean, belaunaldi gazteek. Euskal dimentsioa ganoraz eta neurritz lantze hori bateragarri da gurea baino esparru zabalagoetako gizarte-moldaerak, aginte- edo lan-erakundeak, ba-

**Etiket
euskaldun diren
ikasleen
gaitasuna,
euskaraz
mintzatzeko
ahalmena,
sendotzen,
zabaltzen eta
abasteren ari da
eskola:**

**Ikasle
erdaldunak
euskalduntzen
ari da eskola,
halako neurri
batean.**

**Curriculumaren
euskal
dimentsioa
aurrez aurre
lantzen du
eskolak.**

**Eskola, buru-
langile eta
buruzagi berrien
harrobi da
eskola.**

**Milaka
euskaldun
profesionalen
bilgune eta
pizgarri da
eskola-mundua.**

teko eta besteko ohiturak, balio-ikuspegi diferenteak eta ekarpen globalak aintzakotzat hartzearekin.

- Eskola, buru-langile eta buruzagi berrien harrobi da eskola. Edozein hiztun-herri osasuntsuk, edozein hiztun-elkarte sendok, belanez belautun bizirik aterako bada bere gogoetagine propioak, bere sormen-eragileak, bere eliteak eta bere buruzagiak behar izaten ditu. Gurea bezalako hiztun-elkarte ahulduak are beharrezkoago dute hori. Bere ekarpena egiten du eskolak esparru horretan ere.

- Milaka euskaldun profesionalen bilgune eta pizgarri da eskola-mundua. Osasun oneko hiztun-herriek badute doai berezia, aldeko zein kontrako mila legek baino pisu handiagoa duena: beren aldeko ordainsari-sistema. Lan-esparru bakarra da hezkuntza, euskararen aldeko ordainsari-sistema (ez erabatekoa, baina bai nagusitasun nabarmenakoa) ezarri duena bere alde.

- Nabarmenak dira eskolaren mugak, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan¹¹⁸: ez da (eta ezin da izan) indarberritze-saioaren motore beregain; ez da (eta ezin da izan) benetako indarberritze arrakastatsuen eragile nagusi. Hori baino mugatuagoa da ahalmenez, irismenez eta eragimenez. Bere ahalmen-abantailak mugatuak izanik ere, nabarmenak dira ordeak. Are nabarmenago dira ahalmen-abantaila horiek, hedadura-maila batetik aurrera. Historia ezagunean inoiz izan gabeko hedadura eskuratu du euskarak, EAEn batez ere¹¹⁹, hezkuntza formalean. Portzentaje euskara gehien entzuten den jardungunea da eskola, hori dela medio, egungo egunean: portzentaje hori are nabarmenagoa da ikasgela barruan. Ondoko bi taula hauek datoz, kopuruz eta portzentajez hurrenez hurren, EA-Eko 2014-15 ikasturteko ikasle-estatistikak¹²⁰:

14. taula: EAEko 2014-15 ikasturteko ikasle-estatistikak.

Eredua	HH	LMH	DBH	LLHH	BATX	LH	HB	guztira
X	505	869	488	1.862	224	-	-	2.086
A	2.877	6.102	7.468	16.447	10.719	28.405	750	56.321
A+X	3.382	6.971	7.956	18.309	10.943	28.405	750	58.407
B	17.083	29.183	20.413	66.679	737	858	183	68.457
D	72.853	92.044	51.005	215.902	18.365	8.536	375	243.178
guztira	93.318	128.198	79.374	300.890	30.045	37.799	1.308	370.042

15. taula: EAEko 2014-15 ikasturteko ikasle-estatistikak.

Eredua	HH	LMH	DBH	LLHH	BATX	LH	HB	guztira
X	0,54	0,68	0,61	0,62	0,75	-	-	0,56
A	3,08	4,76	9,41	5,47	35,68	75,15	57,34	15,22
A+X	3,62	5,44	10,02	6,09	36,43	75,15	57,34	15,78
B	18,31	22,76	25,72	22,16	2,45	2,27	13,99	18,50
D	78,07	71,80	64,26	71,75	61,12	22,58	28,67	65,72

Unibertsitate aurreko ikasmaila guztiak kontuan hartuz, hiru ikasletik bi inguru D ereduan ari dira beraz EAEn, eta beste herenaren erdia baino gehixeago B ereduan dabil; A (edo X) ereduan dabilzan ikasleak seitik bat baino gutxiago dira. Begiak LLHH zutabea pausatzen baditugu, bestalde, 0 eta 16 urte arteko ikasle guztien %72 inguru D ereduan dabil, eta beste %28aren parte nagusia (%22) B ereduan. A eta X ereduak %6ra jaitsirik daude¹²¹. Hasieran esandakora itzuli behar dugu ezinbestean: euskararen gotorleku da eskola, EAEn bereziki, egungo egunean. Aski gotorleku ahula, askok uste duen baino mila bider ahulagoa, baina gotorlekua. Egin-egin ondotoz gutxiago egiten badute ere beraien artean, entzun behintzat ugari entzuten dute irakaslearen euskarazko jarduna eta, hainbatean, presentzia konparatiboki sendoa du euskarazko jardunak beraien artean ere, adin-tarte batera arte. Ikasge-latik kanpora (bertako jolaslekuan, pasilloetan eta abar) kaleko normara makurtzen dira, oro har, adin-tarte horretatik aurrera.

3. ZER GERTATU DA AZKEN 20 URTEAN?

I
2011ko egoeraz esandakoa nola analiza liteke perspektiba zinetikoan: kopuruz edo portzentajez, zer gertatu da euskal hiztunekin 1991-2011 epean?¹²² Hogei urteotan *Language maintenance* izan al da ET-hiztunen eta E4-hiztunen artean nagusi, ala luze-zabaleko mintzaldaketa (*language shift*) ari zaigu indartzen? Halakorik gertatzen ari baldin bada, oro har edo zenbait lekutan, zer abiadura du mintzaldaketa horrek? Espazio geoteritorialean non ari da mintzaldaketa gertatzen? Espazio soziofuntzionalean non?

Hiru erataraz neurtuko dugu, soziolinguistikazko datu-iturri diferentek lagun, azken 20 urtean mintzajardunak gure artean zer bilakaera izan duen. Konkretuki, a) ET-hiztunen bilakaera analizatuko dugu lehenik, perspektiba globalean, V. Inkesta Soziolinguistikoa lagun; b) herri-giro arrunteko erabilera bizia (erabilera biziaren atal bat) aztertuko dugu gero, kale-neurketak emandako datuen argitan, eta c) udalerri euskaldunetan

**Unibertsitate
aurreko
ikasmaila
guztiak kontuan
hartuz, hiru
ikasletik bi
inguru
D ereduan ari
dira beraz EAEn,
eta beste
herenaren erdia
baino gehixeago
B ereduan dabil.**

**Hasieran
esandakora itzuli
behar dugu
ezinbestean:
euskararen
gotorleku da
eskola, EAE
bereziki, egungo
egunean. Aski
gotorleku ahula,
askok uste duen
baino mila bider
ahulagoa, baina
gotorlekua.**

eta, bereziki, arnaguneetan zer gertatzen ari den ikusiko dugu azkenik, batez ere Xabier Bengoetxearen eta Iñaki Iurrebasoren analisietan oinarrituz. Gatozen beraz, hasteko, V. Inkesta Soziolinguistikoaren datuetara.

3.1 V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak

Hizkuntza-erabileraren azken hoge urteotako bilakaeraz argitalpen horretan dagoen informazio baliosa era askotara landu liteke. Esate baterako, a) EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko 2011ko E4-, E3- eta ET-hiztunak¹²³ 1991ko hiztunekin konparatuz; b) 2011ko ET-hiztunak adin-egituraren arabera analizatuz: zaharrek eta gazteek 2011n ageri duten ET-jarduna konparatuz, alegia; c) 1991n adin-talde bakoitzak zer erabilera ageri duen ikusiz eta 2011n adin-talde bereko (edo bestelako) jarduera-espektoarekin konparatuz; d) ama-hizkuntzaren analisisiaz, e) etxeko transmisioaz biztanleek zer aitortu duten ikusiz, f) galdu-irabazien tauletatik abiatuz, eta g) ET-hiztunen 1991ko eta 2011ko datuak jardunguneka konparatuz. Aukerak guztiak baliagarri izan arren, lau azterbideok dira guretzat batez ere kontuan hartzekoak: a), b) c) eta g). V. Inkestako galdu-irabazien taulek ez digute eginbehar honetarako ezer asko balio¹²⁴, gaitasun-kontuan oinarritzen baitira eta ez erabileran; ama-hizkuntzaren analisisia ere nekez erabil dezakegu hemen, hartarako datuak dauden gisa antolaturik daudelarik¹²⁵; etxeko transmisioaz biztanleek zer aitortu duten ikusiz zenbait ondorio atera liteke, baina hor ere ez dugu emaitza operatibo handirik¹²⁶. Hiru argi-iturri horietako informazioa ez da beraz gutxiestekoa, baina ez da beste iturriena bezain balio betekoa E4-, E3- edo ET-jardunak azken 20 urtean izan duen bilakaeraz ondorio sendorik atera ahal izateko. Gatozen, beraz, goian azal dutako lau analisi-bide nagusietara.

3.1.1 E4-, E3- eta ET-hiztunen 1991tik 2011rako bilakaera EAE, Nafarroan eta Iparraldean

Analisi demografiko globalenetik abiatuko gara hemen ere: 16 urteko edo hortik gorako zenbat pertsona ziren, kopuruz edo portzentaje moduan, E4- eta E3-hiztun 1991n (Iparraldean 1996an), eta halakoak zenbat dira 2011n? Bi horien baturaz zenbat pertsona ziren, kopuruz edo portzentualki, ET-hiztun 1991n, eta zenbat dira 2011n? Hitzezko jardunaz ari gara hemen (irakurketa-idazketak kanpoan gelditzen dira beraz), adin guztietako hiztunak batera biltzen ditugu bertan, eta jardunguneen araberrako bereizkunderik ez dugu egiten¹²⁷. Hots, aski enfoket global eta elaboratutik ari gara gaiari erreparatzen. Ondoko taulek lagun diezagukete bilakaera soziolinguistiko global horren gaineko informazio konplexua argitzen.

16. taula: Euskarazko mintzajarduna, kopuruz eta portzentajez: EH, EAE, Nafarroa, Iparraldea.

	16 urte edo gehiagoko biztanleak, ggb		Euskarazko mintzajarduna, kopuruz eta portzentajez: EH, EAE, Nafarroa, Iparraldea											
			1991 ¹²⁸						2011					
			E4		E3		ET		E4		E3		ET	
			kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
	1996	2011												
EH	2.371.000	2.649.000	202.000	8,5	123.000	5,2	325.000	13,7	263.000	9,9	164.000	6,2	427.000	16,1
EAE	1.741.000	1.873.000	175.000	10,0	96.000	5,5		15,5	238.000	12,7	137.000	7,3	375.000	20,0
Nafarroa	421.000 /	537.000	16.000	3,7	10.000	2,3	26.000	6,0	19.000	3,6	10.000	1,9	29.000	5,5
Iparraldea ¹²⁹	212.000	239.000	11.000	5,4	17.000	7,9	28.000	13,3	6.000	2,5	17.000	7,1	23.000	9,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Goiko tula horretatik datu portzentualak bakarrik aukeratuz, eta 2001eko datuak erantsiz, honako emaitza hau jasotzen da:

17. taula: Euskarazko mintzajarduna, kopuruz eta portzentajez: EH, EAE, Nafarroa, Iparraldea.

	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001	2011
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
E4: gehienik euskaraz	10,0	10,1	12,7	±3,7	±4,2	3,6	5,4	4,5	2,5
E3: bietara berdintsu	5,5	7,4	7,3	±2,3	±1,7	1,9	7,9	5,5	7,1
ET: erabilera trinkoa	15,5	17,5	20,0	5,9	5,8	5,5	13,3	10,0	9,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bigarren taula honetatik, lehen hurbilketa moduan, arrazoizkoa dirudi hiru ondorio hauek ateratzea:

a) EAEn hobera egin du euskararen ET-erabilera globalak, V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera: erdaraz bezainbat, edota erdaraz baino sarriago, euskaraz hitz egiten duten biztanleak gero eta gehiago dira EAEn. Ez hori bakarrik: *language maintenance* eta *language shift* fenomenoak analizatzeko ET baino erabilgarriago¹³⁰ den E4-jardunean ere oro har gorantz joan dira gauzak EAEn, 1991-2011 epean. Funtsezkoa da, zinez, datu hori: funtsezkoa eta, euskara indarberrituko bada, ezin pozgarriago. E4-hiztunen %90,5 bizi den espazio geoterritorialean hobera egin du, termino globaletan, euskararen erabilera

**EAEn hobera
egin du
euskararen ET-
erabilera
globalak, V.
Inkesta
Soziolinguistikoa
ren arabera:
erdaraz
bezainbat, edota
erdaraz baino
sarriago,
euskaraz hitz
egiten duten
biztanleak gero
eta gehiago dira
EAEn.**

sendoenak. Hobera egin du, orobat, E3-jardunak eta hala egin du, beraz, E4 + E3 baturaz osatzen den ET-jardunak ere. EAEko igoera bikoitz hori nabarmena da kopuruz ere, eta oso adierazgarria hortaz. b) Horretan bakarrik oinarrituz ezin da, ordea, hain epai sendorik eman. Informazio baikor horrek ez du, izan ere, “barruko tripak” xeheago aztertzeke aukera handirik ematen. “Barruko tripetara” iristeko analisi konkretuagoak egin beharko ditugu aurrerago. c) Nafarroan ondo samar eutsi zaio, datu global horien argitan, E4-jardunari. Bertako E3-hiztunek behera egin dute ordea, antza. Beraz, gutxi bada ere behera egin du ET-jardunaren baturak. Nafarroako gorabehera demolinguistiko horiek txikiak dira termino globaletan, ohargarriak izan litezke ordea termino kontrastiboetan. E4-jardunari eutsiz E3-jardunak aldi berean nolatan behera egin dezakeen argituko duen formulazio teorikorik ez dugu eskueran. Hipotesi moduan galdera hau planteatu liteke: erdarazko E2-, E1- edota E0-jardunak E3-hiztunei bakarrik (ez E4-hiztunei) erasan dielako al da hori?

Bestelakoa da, azkenik, Iparraldeko ET-jardunaren 1996tik 2011rako ibilera. Iparraldeko E4-jarduna (*language maintenance* edo *language shift* direlakoen adierazgarri sendoena) gainbehera bizian dator, eta bere horretan mantzentzen-edo da E3-jarduna. Argi dago luze-zabaleko mintzaldatze edo *language-shift* fenomenoaren aurrean gaudela Iparraldean. Nola interpretatu, aldiz, E4-jarduna ziztu bizian jaistea eta, aldi berean, E3-jardunak bere horretan irautea? Baliteke *language shift*-eko prozesua $E4 > E3 > E2, E1, E0$ modukoa izatea.

Aldi berean hiru fenomeno aski diferente gertatzen ari dira beraz, itxuraz, Euskal Herrian: euskararen aldeko mintzaldaketa “berria” (agian HINBE modukoa) EAEn, kontrako norabidean (euskararen kontra) doan mintzaldaketa bizia Iparraldean (XIX. mendearen azken herenetik ongi deskribaturik dagoen frantsese-prozesua¹³¹) eta agian *language maintenance* delakoaren oihartzun izan litekeen gertakaria Nafarroan. Esan bezala datu globalen lehen analisia da hori, eta ondorio finkoei dago-kienez ez du aparteko baliorik. Prozesu bihurri horren “barruko tripak” aztertu gabe arriskutsua da epai zorrotzik ematea. Datu globalek hori diote, ordea, eta azkarregi epaitzea bezain kaltegarri da eskueran ditugun emaitzei ezikusia egitea. Termino global horiei eutsiz, beraz, lehen hurbilketazko diagnostiko hau egiten ausartuko gara: euskara ez doa Euskal Herrian, oro har, amildegian barrena. Bere osoan harturik zenbait lekutan¹³², zenbait jardungunetan eta zenbait gai jorratzeko orduan euskaraz egiten du euskaldun-jendeak, orain dela hogeit hamar urte bezainbat

edota, inoiz, orduan baino zabalago; Gauzak kolpean aldatzen ez badira halatsu egingo ere du¹³³ gaurko euskaldunon hurrengo belaunaldiak, seguruenik, hemendik hogei urtera. Oraingook baino gehiago ala gutxiago egingo duten euskaraz (ET eta, bereziki, E4-jardunean), E4- eta ET-hiztunok elkarrengana bilduago ala elkarrengandik bananduago egongo diren, beren euskal jardun hori espazio soziofuntzionalaren zein gunetan oinarrituko den bereziki, eta abar, hori ezin dugu goiko analisi global horretatik atera. Has gaitezen, beraz, hurbilagoko betaurrekoak jartzen.

3.1.2 2011ko ET-hiztunak, adinaren arabera

2011ko V. Inkesta Soziolinguistikoa erantzun dioten biztanleek¹³⁴ E4-, E3-, E2-, E1- edo E0-hiztun direla aitortu dute inkesta-garaian. Biztanle horiek adin-taldeka edo adin-geruzaka sailka litezke, eta beren euskarazko jarduna horren arabera analizatu. Hiztun zaharren, erdibidekoen eta gazteen arteko konparazioa eginez, gazteen ET-jarduna hiztun zaharrena baino handiagoa, berdina edo txikiagoa den azter liteke. Ez da hori azken 20-30 urteko bilakaeraren argazki beteena edo zorrotzena, baina bada oso kontuan hartzekoa. Interesgarria da, batez ere, E4- eta ET-hiztunen bilakaera adin-taldeka analizatzea.

Euskal Herriko zenbat zaharrek, zenbat gaztek eta tarte-bitarteko zenbat hiztunek aitortu du 2011n ET-hiztun dela? Hori azaltzen da hurrengo bi tauletan. Lehenengoan datu globalak eskaintzen dira: EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko ET-hiztunen adin-arauzko portzentajeak. Hona emaitzak:

18. taula: Erabilera trinkoa (ET-hiztunak), adin-taldeka.

	Erabilera trinkoa (ET-hiztunak), adin-taldeka				
	>= 65	50-64	35-49	25-34	16-24
	%	%	%	%	%
EAE	19,3	16,7	19,7	22,4	26,7
Nafarroa	5,8	4,9	5,1	5,7	7,3
Iparraldea	16,6	10,2	6,0	6,0	5,0

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bigarren taulan, aldiz, hurbilagoko datuak eskaintzen dira: Euskal Herriko bederatzi lurralde-eremu soziolinguistikoak banan-banan hartuz, lurralde-eremu bakoitzeko ET-hiztunen adin-arauzko portzentajeak. Hona emaitzak

Termino global horiei eutsiz, beraz, lehen hurbilketazko diagnostiko hau egiten ausartuko gara: euskara ez doa Euskal Herrian, oro har, amildegian barrena.

**Adin-geruzen
arteko
aldakortasun-
kontuan alde
handia dago, oro
har,
Hegoaldearen eta
Iparraldearen
artean.
Hegoaldean
indartsuago ageri
da ET-erabilera,
oro har, adin-
geruza
gazteenetan.
Iparraldean,
aitzitik,
nabarmen
ahulago.**

19. taula: Erabilera trinkoa (ET-hiztunak), adin-taldeka eta lurralde eramuka.

	Lurralde-eremua	Erabilera trinkoa (ET-hiztunak), adin-taldeka				
		>= 65	50-64	35-49	25-34	16-24
		%	%	%	%	%
EAE	Araba	1,7	3,2	4,3	7,0	6,9
	Bizkaia	13,2	11,2	12,5	13,9	15,0
	Gipuzkoa	36,7	31,7	38,7	44,0	55,4
Nafarroa	Euskal eremua	49,5	43,1	43,9	56,7	60,9
	Bietariko eremua	0,8	0,9	1,7	1,8	4,0
	Erdal eremua					
Iparraldea	BAM	4,2	1,4	1,6	0,4	0,9
	LB	17,8	11,4	4,7	8,5	6,9
	NBZ	49,2	30,4	23,0	15,9	14,4

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Badirudi 2011ko taula bietatik, batez ere bigarrenetik, hainbat ondorio argi atera dezakegula eta zenbait hipotesi plazara litekeela i, aurrerago baieztatzeko edo ezeztatzeko. Hona ondorio-hipotesi zenbait:

- Adin-geruzen arteko aldakortasun-kontuan alde handia dago, oro har, Hegoaldearen eta Iparraldearen artean. Hegoaldean indartsuago ageri da ET-erabilera, oro har, adin-geruza gazteenetan. Iparraldean, aitzitik, nabarmen ahulago. Kontuak xeheago aztertuz, halere, barne-aldakortasun ohargarria dago bai Hegoaldean eta bai Iparraldean.
- 65 urte edo gehiago duten herritarren artean Nafarroako euskal eremuan eta NBZn ageri da ET-hiztunen portzentajerik handiena (%49,5 eta %49,2 hurrenez hurren). Gipuzkoa dator ondoren (%36,7) eta, nabarmen atzerago, LB zein Bizkaia gero (%17,8 eta %13,2 hurrenez hurren). BAM, Araba eta Nafarroako erdal zein bietariko eremuak oso atzean gelditzen dira: erdal esparru dira horiek aspal-didanik¹³⁵, eta gertakari ezagun horren oihartzun dira, besteak beste, bertako emaitza ahul horiek.
- 16-24 adin-taldeko ET-hiztunen artean ere Nafarroako euskal eremua da termino portzentualetan nagusi¹³⁶; Bizkaian ez da gorabide handirik ageri adin-geruza batetik bestera (zaharrenak %13,2, gazteenak %15,0); Arabako bilakaera, ohargarria eta azpimarratzekoa izanik ere, aski apala da termino demolinguistikoko globaletan (bertako gazteen %93,1 erdaraz mintzo da, erabat edo nagusiki¹³⁷). NBZko ET-hiztun gazteen portzentajeak atzera egin du nabarmen: zaharren artean zerrendako bigarren zena laugarren da, horregatik, gazteetan.

- Aldiz, 2011ko aitormen-datuen argitan Gipuzkoako ET-hiztun gazteen proportzioak gora egin du nabarmen, Nafarroako euskal eremuko portzentajera hurbilduz. ET-hiztunen hazkunde argia ageri da Gipuzkoan: zaharren adin-taldetik gazteenera %18,7ko aurrerabidea dago hor eta, bereziki, aurrerabide hori %23,7koa da 16-24 tarteko gipuzkoar gazteak beren gurasoen belaunaldikoak izan litezkeen 50-64 adin-tartekoekin konparatuz. Gipuzkoako gazteen erdia pasatxo euskaraz mintzo da (nagusiki edota erdararen pare), datu horien arabera¹³⁸.

Orain arte esandakotik, atentzio berezia merezi du Iparraldeko bilakerak. Badirudi hiru ondorio hauek egiantz ohargarrikoak direla:

- Iparraldean, 25 urtetik gorako adin-talde guztietan luze-zabaleko mintzaldatzea, *language shift* ezaguna, ari da itxura osoz gertatzen. Demografiako (eta, horren ondorioz, demolinguistikazko) aldaketek eragindako distortsio handirik ez baldin badago tartean, segurutzat eman liteke baieztapen kezkarri hori. Gaur egun Iparraldean euskaraz mintzo den jende gehiena, proportzioz ugariena eta, seguruenik, euskarazko harreman-sare, solaskidez eta mintzagaiz aktiboena, zaharr(en) da adinez. Hiztun aktibo horiek ari dira oro har, motibo biologiko jakinengatik, lehenik galtzen. Portzentualki aski segurua da baieztapen hori eta, itxuraz¹³⁹, kopuru absolututan ere bai.
- Iparraldeko hiru eremuetako ET-hiztunen analisia adin-taldeka egiten badugu, ez bere osoan hartuz (zahar eta gazte), NBZren eta beste bi eremuen arteko eten-langa ez da uste bezain zorrotza. Berrogeita hamar urtetik gorako hiztunen artean (hots, ET-hiztun gehien dagoen adin-taldeetan) hiru multzo daude berez, ez bi: LBko ET-hiztunak beste bi punta-muturretakoen erdian-edo daude portzentaje. Hiru multzo daude hortaz edota, are probableago, mosaiko-itxurako fragmentazio baten aurrean gaude.
- Multzo batetik besterako tarteak, gainera, gero eta ahulagoak dira: termino portzentual globaletan %45eko aldea dago, NBZtik BAMra, 65 urtekoen edota hortik gorako artean. 16-24 urte arteko ET-hiztunetan, aldiz, diferentzia hori %13,5koa da. Orain ere tarte nabaria dago hor, baina lehengo aldean txikia: zaharren arteko diferentziaren herena baino txikiagoa da gazteen artekoa.

Ondorio kezkarria ageri da hor, labur bilduz: aurreko hamarkadetan gertaturikoa garatuz eta osatuz, mintzaldatze bortitza ari da Iparraldeko ET-hiztunen artean gertatzen. Ziztu biziko hiztun-galtze horrek gero

Iparraldean, 25 urtetik gorako adin-talde guztietan luze-zabaleko mintzaldatzea, language shift ezaguna, ari da itxura osoz gertatzen.

**Aho biko
ezpataren
fenomenoa ageri
da hemen. Adin-
tarte
zaharreneko
hiztunak
ahultzen ari dira
beren ET-
jardunean eta,
aldi berean,
gazteenak (25-34
eta, bereziki, 16-
24 adin-
taldeetakoak)
indartzen.**

eta BAMen antzekoago bihurtu du dagoeneko, adin batetik beherako biztanleen artean, XX. mendean iparraldeko arnasmune sendo izandako NBZ. BAMEkiko antz hori are nabarmenagoa da, jakina, LBn.

3.1.3 ET-hiztunen 1991ko eta 2011ko adin-taldeen konparazioa, oro har

Adin-talde bereko (edo bestelako) ET-hiztunen portzentajeek 1991tik 2011ra izan duten bilakaera aztertuz ere argibide sendorik atera liteke. Hona 1991ko, 2001eko eta 2011ko datuen konparaziotik atera litezkeen emaitzak:

20. taula: ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean.

ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean									
adin-taldea	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001	2011
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
>=65	25,3	20,6	19,3	7,2	6,6	5,8	26	18	16,6
50-64	16,6	15,5	16,7	6,0	6,1	4,9	20,3	10,4	10,2
35-49	13,3	16,6	19,7	6,5	5,5	5,1	7,5	8,9	6,0
25-34	14,2	16,6	22,3	4,1	5,0	5,6	4,5	3,7	6,0
16-24	12,4	18,9	26,8	5,7	6,4	7,3	1,3	2,2	5,5

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Aho biko ezpataren fenomenoa ageri da hemen. Adin-tarte zaharreneko hiztunak ahultzen ari dira beren ET-jardunean eta, aldi berean, gazteenak (25-34 eta, bereziki, 16-24 adin-taldeetakoak) indartzen: 16 eta 24 urte arteko gazteen artean, bereziki, gorabide nabaria ageri da beren ET-jardunean. Hiru esparruetan ageri da aho biko ezpataren gorabehera hori. Hortik aurrera, ordea, hainbat diferentzia dago esparru batetik bestera. Atzerabide nabariena, adin-talde zaharrenetan, Iparraldean ageri da. Geruza gazteenetako gorabide deigarriena, bestetik, EAEn.

Belaunez belauneko jarraipenaren aldetik kontraesan biziko datua da hori: batetik seinale negatiboa dakar, bestetik aski datu baikorra. Airean gelditzen da, jakina, ET-jardunaren barne-banaketa (E4 eta E3 arteko proportzioa) kasu bakoitzean zein den. Litekeena da bien batura (hots, ET) positiboa izan arren E4ren bilakaera aski bestelakoa izatea. Datuok mikro-mailara jaisterik ez dugunez hemen, ezer gutxi gehiago erants daiteke bertatik.

3.1.4 ET-hiztunen 1991ko eta 2011ko datuen konparazioa, jardunguneka

1991 urtean¹⁴⁰ jardungune bakoitzean zer ET-erabilera ageri den ikus liteke batetik, eta jardungune bereko ET-erabilerak 2001ean zein 2011n nolakoak diren begira liteke bestetik. Datu horien arteko konparazioa eginez, jardungune bakoitzean ET-hiztunen portzentajea gorantz doan, behera ala egonkor-edo dagoen analiza liteke. Ohiko jardunguneak analizatuko dira konparazio-lan horretan: a) etxe-giroa, b) eguneroko kale-giro arrunta, c) lan-esparrua eta d) administrazio publikoen eta zerbitzuen esparrua. Aparte analizatuko dugu aurrerago, era kualitatiboan ordea, hezkuntza-esparrua.

a) 1991-2011 epeko ET-jardunaren bilakaera, etxe-giroan

Hona konparazio-lan horren emaitza:

21. taula: ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean. Jardungunea: etxe-giroa.

ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean									
Jardungunea: etxe-giroa									
solaskideak: nor norekin ari	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001	2011
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
etxeokak, oro har	17,3	17,0	17,2	6,6	6,3	5,4	16,0	11,9	10,7
senar-emazteak ¹⁴¹	14,7	12,1	14,1	5,7	4,7	4,7	16,5	12,2	10,8
gurusoak seme-alabekin	18,1	20,5	22,8	6,5	6,7	8,0	16,5	10,7	11,1
seme-alabak amarekin	16,0	14,8	16,4	6,5	6,1	4,9	19,2	13,9	9,9
seme-alabak aitarekin	13,9	14,1	15,9	6,3	6,2	5,1	17,8	13,6	8,2
anai-arrebak	17,0	18,1	20,1	6,2	7,2	7,0	19,6	15,0	13,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Etxeko ET-jardunaren bilakaera dela-eta, hona konparazio-lan horretatik gure ustez atera litekeen zenbait ondorio,

- Etxeko ET-erabilera globalak bere buruari eutsi dio edota gora egin du EAEn, bere buruari eutsi dio edota behera egin du Nafarroan eta ziztu bizian ahultzen ari da Iparraldean. Euskal Herria bere osoan hartuta, azken hogeitaz Iparraldean hamabost) urteko joera nagusia etxeko ET-erabilerak bere buruari eustekoa edota beherantz egitekoa da. Euskararen “azken gotorleku” izanikako etxe-giroa ahultzen ari da, hainbat rol-harremanetan.

Etxeko ET-erabilera globalak bere buruari eutsi dio edota gora egin du EAEn, bere buruari eutsi dio edota behera egin du Nafarroan eta ziztu bizian ahultzen ari da Iparraldean. Euskal Herria bere osoan hartuta, azken hogeitaz Iparraldean hamabost) urteko joera nagusia etxeko ET-erabilerak.

**Seme-alabek aski
bilakaera
desberdina izan
dute han-hemen,
aitarekin eta
amarekin
euskaraz
jarduteari
dagokionez.
EAEn eutsi egin
zaio ET-
jardunari, edota
nabarmen gora
egin du . Aldiz
Nafarroan eta,
oso bereziki,
Iparraldean gero
eta erdaldunago
dihardute seme-
alabek
gurasoekin.**

- Senar-emazteen bikote-hizkeran, ET-jardunaren gainbehera ageri da nonahi. Baita EAEn ere (beste bietan baino xumeago ordea). Nafarroan eta, bereziki, Iparraldean, beren artean euskaraz egitetik erdaraz egitera pasatzen ari da hainbat bikote, edota sortu diren bikote berriek lehen baino nabarmen erdaldunago dihardute etxean, beraien artean.
- Seme-alabek aski bilakaera desberdina izan dute han-hemen, aitarekin eta amarekin euskaraz jarduteari dagokionez. EAEn eutsi egin zaio ET-jardunari, edota nabarmen gora egin du . Aldiz Nafarroan eta, oso bereziki, Iparraldean gero eta erdaldunago dihardute seme-alabek gurasoekin: bai amarekin eta bai aitarekin.
- Gurasoek ere aski bilakaera desberdina ageri dute seme-alabekiko ET-jardunean: EAEn eta Nafarroan gora egin du ET-jardun horrek, Iparraldean aldiz behera.
- Lehen begiratuan harrigarria den fenomeno gertatzen da, aldi berean, EAEn eta Nafarroan (ez Iparraldean): anai-arrebek lehen baino ET-jardun sendoxeagoa ageri dute beraien artean. Ondorio pozgarria izan liteke hori, bestelako analisiek kontrakorik ez badiote, euskal hiztun-elkartearen etorkizunerako.

Labur bilduz, zera esan liteke: etxe-giroko euskal jarduera trinkoa (ET), menderik mende eta belaunez belaun euskararen transmisio naturalaren abiaburu eta oinarri izandakoa, bere buruari ozta-ozta eusten edota nabarmen ahultzen ari da oro har. Rol-harreman batzuek hobeto eusten diote higadura horri, eta beste batzuk ahulago gertatu dira: senar-emazteen bikote-hizkeran gainbehera ageri du, nonahi, ET-jardunak; seme-alabek gurasoekin jarduterakoan ere hori da arau nagusi Nafarroan eta Iparraldean, ez ordea EAEn. Aitzitik, EAEn eta Nafarroan gora egin du gurasoen seme-alabekiko ET-jardunak, Iparraldean aldiz behera. Are deigarriago da, azkenik, beste hau: anai-arrebek lehen baino ET-jardun sendoxeagoa ageri dute beraien artean. Nola esplikatzen azken paradoxa antzeko hori? Hona gure hipotesia: ETren bigarren osagaiaren (“bietara berdintsu” dioen E3-jardunaren) prominentzia egon liteke horren azpian. Bigarren osagai horren zabalkundeak ezkutatu egiten digu, agian, lehen osagaiaren gainbehera. Litekeena da, alegia, seme-alaben gurasoekiko *ET-jarduna* hazten ari den aldi berean E4-jarduna geldirik egotea edota, are, ahultzen ari izatea¹⁴².

b) ET-hiztunen 1991-2011 epeko bilakaera, eguneroko kale-giro arruntean

V. Inkesta Soziolinguistikoaren datu ugarietatik hiru atal hauek hartu nahi genituzke kontuan, eguneroko kale-giro arruntari dagokionez: au-

zoa¹⁴³, lagunartea¹⁴⁴ eta dendarietako jarduna¹⁴⁵. Auzoko jarduna ez du ordea V. Inkesta Soziolinguistikoa, zeregin honi dagokionez, landu: ez dugu, behintzat, emaitzen azalpenik aurkitu. Beste bi ataletara mugatuko gara beraz, kale-giro arruntaren jardungunean. Ondoko taulak ematen du bi atal horietan ageri den bilakaeraren berri:

22. taula: ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean. Jardungunea: eguneroko kale-giro arrunta.

ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean									
Jardungunea: eguneroko kale-giro arrunta									
solaskideak: nor norekin ari	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001	2011
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
lagunekin	16,1	18,2	21,4	7,2	7,4	7,2	17,2	14,1	14,5
dendarietako	14,8	16,9	20,4	4,7	5,0	5,1	10,7	7,6	6,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hona atal bi horietan ET-jardunak ageri duen bilakaera:

- Lagunarteko ET-jarduna etxekoa baino euskaldunagoa da oro har, egungo egunean. Balirudike, alde horretatik, harreman-sare horizontaletan (adinkide-edo direnen artekoetan) bertikaletan baino indartsuago legokeela ET-jardun hori.
- EAEko joera goranzkoa da argi, bai lagunekiko ET-jardunean eta bai dendarietakoan. Emaitza baikortzat hartu behar da bilakaera hori ere, aurrerago egingo diren analisisien pentzutari. Hizkuntza-soziologiaren bidegile nagusien esanean etxea, auzoa eta eguneroko lagunartea izaten dira, normalean, hurrengo belaunaldia sozializatzeko eta, sozializazio horren baitan, haurrak eta gaztetxoak hizkera-molde informal-arruntaz jabetzeko testuinguru nagusiak. Testuinguru horiek definitzen dute argien, beste era batera esanik, hizkuntza bat belaunez belaun transmititzeko aukera zenbatekoa den. EAEko gorabideak, jenerala eta uniformeak balitz, aski emaitza baikorra lekarke berekin.
- Dendarietako jardunari begiratzen badiogu, aldiz, emaitza epela jasotzen da Nafarroan eta hita Iparraldean: etxe-girokoa baino nabarmen erdaldunagoa da horietan dendarietako jarduna. Hipotesi bi egin litezke hemen, gero konfirmatzeko, Nafarroako eta Iparraldeko dendarietako ET-galera nabarmenaz: a) auzo-giro hurbileko beste harreman-sareetan (merkataritzan, bereziki), etxe-giroan ez bezalakoa edo han baino sendoagoko mintzaldaketa gertatzen ari izan liteke;

Lagunarteko ET-jarduna etxekoa baino euskaldunagoa da oro har, egungo egunean.

EAEko joera goranzkoa da argi, bai lagunekiko ET-jardunean eta bai dendarietakoan.

Oso deigarria da lan-esparruan, iturri horren arabera, ET-jarduna EAEn izaten ari den buru-jasotze argia. Lau langiletik batek ET-jarduna ageri du: nagusiki euskaraz dihardu lanean bere lankideekin, edota erdaraz bezain sarri egiten du euskaraz.

Egia ote da emaitza hori?

hots, etxea eta lagunartea baino galduago dugu lurralde horietan, dagoeneko, gainerako auzo-giro hurbila; b) litekeena da, ordea, dendariekiko jarduna lehen baino auzotik (are herritik eta, zenbaitetan, eskualdetik) urrunago (hein batean harreman-sare inpersonalgogoen bidez) mamitzen ari izatea orain¹⁴⁶. Dendariekiko ET-jardunaren datuek diotena baino hobeto eusten ari izan liteke-Nafarroako eta Iparraldeko auzoa, bestela esanik, mintzaldatzeko-olatuari.

c) ET-hiztunen 1991-2011 epeko bilakaera, lan-esparruan

Dakigularik galdera bakarra ageri da V. Inkesta Soziolinguistikoa, lan-esparruarekin lotu litekeena: lankideekiko ET-jarduna. Ondoko taulak ematen du esparru horri buruzko informazioa:

23. taula: ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean. Jardungunea: lan-esparrua.

ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean									
Jardungunea: lan-esparrua									
solaskideak	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001	2011
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
lankideak	15,4	18,0	24,6	5,3	5,4	7,0	11,9	8,5	10,9

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Oso deigarria da lan-esparruan, iturri horren arabera, ET-jarduna EAEn izaten ari den buru-jasotze argia. Lau langiletik batek ET-jarduna ageri du: nagusiki euskaraz dihardu lanean bere lankideekin, edota erdaraz bezain sarri egiten du euskaraz. Nafarroan apalagoak dira zifrak, baina hor ere goranzko joera ageri da. Iparraldean ez doaz gora, baina jaitsiera ez da beste jardungune gehienetan bezain nabarmena.

Egia ote da emaitza hori? Lan-bizialdi osoan ikusitakoaren argitan, duda-muda eragiten digu¹⁴⁷. Datua hori da, dena den, eta hortik abiatu behar dugu ezinbestean. Datu hori ontzat emanaz, beraz, zabalkunde soziofuntzional garrantzitsu baten aurrean gaude. Baserri-giro tradizionala fabrika-girora lekualdatzean (azken ehun urte luzean, bereziki azken 60 urtean) *eus* > *erd* mintzaldaketa gertatu zen nabarmen, Bizkai-Gipuzkoetako lan-esparruan bereziki. Zerbitzu-sektorearen azken mende-erdiko leher-eztandak (hitzezko jardunaren osagarri idatzizkoa ekarri duela) are situazio delikatuagora eramango gintuela pentsa zitekeen. Eta horra: alderantziz dira kontuak, antza. Datu pozgarria, benetan, ET horren azpiko E4-ren bilakaera aski bestelakoa ez baldin bada edota lankideekiko jardun aitortua lan-giroko jardun nagusiaren

aski bestelakoa ez baldin bada. Badago motiborik, esplikazio koherentearen atal bat hortik doakeela uste izateko¹⁴⁸.

d) 1991-2011 epeko ET-hiztunen bilakaera, administrazio publikoan eta zerbitzu-esparruan

Udal-zerbitzuetako langileekin, osasun-zerbitzukoekin eta bankueta-koekin jarduterakoan ET-erabilerak zer bilakaera izan duen adierazten digu, labur bilduz, hurrengo taulak:

24. taula: ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean. Jardungunea: Administrazioa + Zerbitzuak.

ET-hiztunen bilakaera, 1991-2011 epean									
Jardungunea: Administrazioa + Zerbitzuak									
solaskideak: nor norekin ari	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001	2011
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
udal-zerbitzukoak	13,9	20,0	24,7	4,2	6,7	±6,3	14,4	9,1	8,4
osasun-zerbitzukoak	8,3	14,1	19,8	2,6	4,7	4,9	5,7	6,2	3,5
bankukoak	14,4	19,9	21,2	4,0	5,7	5,4	9,1	6,9	3,1

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Ohar hauek egi n litezke hemen, besteak beste:

- Zerbitzu-hizkuntzari dagokionez gorabide argia izan du ET-jardunak, datuon arabera, EAEko eta Nafarroako udal-esparruan, osasun-zerbitzuetan eta bankuetan. Beste inon baino bortitzagoa izan da jardungune honetan, EAEko perspektibara mugatuz, ET-erabilerak azken hogeitau urteotan izan duen goraldia;
- Udal-esparruan eta osasun-alarrean antzematen da EAEko eta Nafarroako aurrerabide indartsuena. Apalago joan dira kontuak, hor ere gorantz ordea, EAEko banku-esparruan¹⁴⁹.
- Besterik dira kontuak Iparraldean: gainbehera bizian dator ET-jarduna bertako administrazio- eta zerbitzu-alarrean ere. Termino globaletan puntu gutxikoa izanik ere atzerabide hori, %41,7ko galera konparatiboa izan du ET-jardunak udal-zerbitzuen esparruan, %38,6koa osasun-alarrean eta %65,9ko jaitsiera bankuen sailean. Euskararen presentzia aktiboa nabarmen mehartu da udal-zerbitzuetan, eta hutsaren hurrengora hurbiltzen ari da beste bietan. Ez dago jardungune horretan, gure ustez, garai bateko konpartimentazio soziofuntzional hertsia oihartzunik, luze-zabaleko mintzal-daketak dakarren ziztu biziko bilakaera baizik.

Zerbitzu-hizkuntzari dagokionez gorabide argia izan du ET-jardunak, datuon arabera, EAEko eta Nafarroako udal-esparruan, osasun-zerbitzuetan eta bankuetan.

Besterik dira kontuak Iparraldean: gainbehera bizian dator ET-jarduna bertako administrazio- eta zerbitzu-alarrean ere.

***Etxean eutsi
egiten zaio ET-
jardunari EAEn,
jaitzi egiten da
jardun hori
Nafarroan eta
ziztu bizian
erortzen ari da
Iparraldean.***

***Eguneroko kale-
giro arruntean
gorabide
ohargarria
antzematen da
EAEn, lehengoan
dirau Nafarroan
eta beherantz doa
Iparraldean.***

Iparraldeko eta Hegoaldeko bilakaeraren kontrastea jardungune honetan ageri da inon baino nabarmenago¹⁵⁰, V. inkestako datuen arabera. Iparraldeko ET-jardunak administrazio publikoan eta zerbitzu-esparruan ageri duen gainbehera hori nabarmen diferentea da Hegoaldean, batez ere EAEn, ageri den buru-jasotze ohargarriaren aurrez aurre. Esparru biek azken hamarkadotan izanikako bilakaera soziokultural eta politiko-administratibo diferentearen errainu izan liteke dibergentzia hori, neurri ohargarrian. Batean (EAEn eta, oro har, Hegoaldean) lehen baino maizago dihardugu euskaraz administrazio publikoetako eta gizarte-zerbitzuetako langile- zein arduradun-jendearekin, eta bestean (Iparraldean) gero eta bakanago.

Jardungunekako analisiaren zenbait emaitza global:

- a) Etxean eutsi egiten zaio ET-jardunari EAEn, jaitzi egiten da jardun hori Nafarroan eta ziztu bizian erortzen ari da Iparraldean.
- b) Jaisten ez den kasuan ere, barne-berrantolaketa bizian murgildurik gaude lurralde gehienetan: senar-emazteak gero eta bakanago mintzo dira euskaraz beren artean, oro har; EAEn eta Nafarroan (ez Iparraldean) lehen baino ET-jardun sendoxeagoa ageri dute aldiz (16 urteko edo hortik gorako?) anai-arrebek beraien artean. Etxebarruko jokabide bikoitz hori ez da esplikatzen hain erraza. Hori dio ordea, argi, Inkestak. Aski datu goibela da hau, oro har: belaunez belauneko transmisio-bide naturalak etxea eta auzo-giro hurbila izanik oinarri nagusi, etxean (are EAEn) gertatzen ari dena ez da berri pozgarria.
- c) Eguneroko kale-giro arruntean gorabide ohargarria antzematen da EAEn, lehengoan dirau Nafarroan eta beherantz doa Iparraldean. Kontuan izan, ordea, esparru-atal biko datu-bilketatik zaila dela jardungune osoaren balio-neurketa zorrotzik egitea. Are gehiago rol-harremanen araberrako daturik bildu ez denean;
- d) Lan-esparruan (zorrozkiago esanik, lankideekiko jardunean) gora egin du ET-erabilerak EAEn eta Nafarroan, aldiz (zertxobait) behera Iparraldean. Datu pozgarria izan liteke hau, oso, bestelako analisisiek kontrakoa ez badiote.
- e) Administrazio publikoan eta zerbitzu-esparruan gora egin du EA-eko eta Nafarroako ET-jardunak, behera aldiz Iparraldekoak. Beste inon baino bortitzagoa izan da jardungune honetako gorabidea EAEn.
- f) Garai bateko konpartimentazio soziofuntzionala aski ahuldurik ageri da EAEn eta Nafarroan: etxea oso euskaldun (hots, arras ET-jardun altuko) eta administrazioa (gehi eskola) arras erdaldun (ET-

jardun apaleko edo hutsaren hurrengo) zireneko situazio hura asko aldatu da, EAEn eta Nafarroan bereziki. Bi polo haien arteko diferentzia nabarmen hura hutsaltzen ari da: etxeko ET-jarduna behera dator sarri, eta administrazioa (gehi eskola) gora. Arrue azterlanaren ondorio nagusietako bat horixe da hain zuzen: hamar-hamabi urtera arteko ikasleen artean eskola da gaur egun, ez etxea, euskararen gotorleku nagusi. Iparraldean ere, beste motibo bategatik ordea, indargabetzen ari da konpartimentazio soziofuntzional tradizionala: administrazioko ET-jardunak ez du gora egin (behera doa hori ere) baina etxekoa gainbehera bizian dator bertan.

3.1.5 *Labur bilduz*

Bederatzi lurralde-eremuetako ET-datu globalei dagokienez, puntu hauek bederen argi daudela dirudi 2011ko V. Inkesta Soziolinguistikotik arabera:

a) Lurralde mailako makro-datuen argitan Araban, Bizkaian eta, batez ere, Gipuzkoan gora egin du ET-hiztunen portzentajeak: hots, gora egin du ET-jardunak. Are gehiago: bai E4-hiztunak eta bai E3-hiztunak ugaritu dira EAEn, azken 20 urtean. Nafarroako euskal eremuan ere gora egin du ET-jardunak, neurri mugatuagoan izan arren. Berri pozgarria da hori, bere barnean zer dagoen xeheago analizatu beharko bada ere. Lau lurralde-eremu horietan ET-jarduna (eta, horrenbestez, euskara) indarberritzen ari den seinale izan liteke 1991tik 2011rako igoera global hori. Hala izan liteke, ondoko hiru elementuok gertatzen badira horrekin batera: a) ET-hiztunen burujasotze portzentuala adin-talde gazteenetan agertzea; b) ET-hiztunen burujasotze portzentuala batez ere mintzajardunaren¹⁵¹ belaunez belauneko jarraipenaren euskarri diren etxe-auzo-lagunarte (eta, adin batetik gora, lanbide) alorretan agertzea; c) ETren gorabide horrekin batera E4tik E3rako trasbase handirik ez gertatzea. Bestela, balio mugatukoa izan liteke goian esandako burujasotze hori: balio mugatukoa hoberenean eta, okerreanean, baliogabea. Nolanahi ere, ETk ez ezik E4k ere EAEn gora egin izana azpimarratzekoa da, perspektiba globalean¹⁵².

b) Gainerako bost lurralde-eremuetan atzera egin du ET-erabilerak, edota bere horretan (aski maila apalean) dirau. Atzerabideari dagokionez oso deigarria da, duen zabaleroagatik, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdi barnealdeko kasua. Batean zein bestean, eta termino portzentualei dagokienez, ET-hiztunen herena galdu dute

Lurralde mailako makro-datuen argitan Araban, Bizkaian eta, batez ere, Gipuzkoan gora egin du ET-hiztunen portzentajeak: hots, gora egin du ET-jardunak.

Gainerako bost lurralde-eremuetan atzera egin du ET-erabilerak, edota bere horretan (aski maila apalean) dirau.

**Euskal Herriko
Kale-Neurketa
egiten hasi
zenetik, hogeita
bi urteko epean,
2,5 puntu egin du
gora euskararen
erabilerak Euskal
Herriko batez
bestekoan.**

Lapurdiko barnealdeak, Nafarroa Behereak eta Zuberoak¹⁵³ azken hamabost urtean. Nola esplikatu behar da gainbehera bizkor hori? Hona gure hipotesia, aurrerago (datu xeheagoen argitan) konprobatu beharrekoa: Iparraldeko ET-euskaldun gehienen artean azken (de-magun) 130 urteko *Language shift* edo luze-zabaleko mintzaldatzea aski aurreraturik dago eta, translinguifikatzeko mekanismoak indartu eta ugaritu egin direlarik azken mende-laurdenean, emagarri handirik gabe aurrera dirau mintzaldatze-fenomenoak. Horrela dira kontuak, gure ustez, analisi soziolinguistiko kontestualizatuagoek edo bestelako elementu demografikoek (immigrazio-emigrazioek bereziki) besterik frogatzen ez duten artean.

3.2 Kale-neurketaren emaitzak

Lehen baino hiztun gehiago ari al da orain euskaraz, kalean? 2011ko eta hogeit bat urte lehenagoko datuak kontuan izanik hori aztertu du Soziolinguistika Klusterrak, eta argitara eman. Jardungune(-moduko) bakarra izateak mugatu egiten du azterlanaren aplikazio-ahalmena, alde batetik; belarrizko behaketa zuzenean oinarrituriko analisi kontestualizatuagoa egiteko bidea ematen digu, bestetik. Zer ondorio atera ditu Soziolinguistika Klusterrak hogeit urte inguruko bilakaera-datuetatik? Perspektiba globalean, hona Olatz Altunaren balioespena: “Duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera bere horretan dagoela esan daiteke, trabatuta. 2011ko udazkenean burututako kale-neurketan, euskararen erabilera %13,3koa izan da. Euskal Herriko Kale-Neurketa egiten hasi zenetik, hogeita bi urteko epean, 2,5 puntu egin du gora euskararen erabilerak Euskal Herriko batez bestekoan. Azken hamar urteko epea hartuz gero, erabilera trabatu egin dela esan behar da. Geldiune batean dago. 2001eko erabilera 2011koaren berdina izan zen: %13,3.” Egoera horren determinante posibleen analisia eskaintzen du Soziolinguistika Klusterrak, horrekin batera: “egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen erabilerak goia jo du (...). Ez dago hobekuntza tarterik euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egiten ez badu eta, aldi berean, hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukerarik eskaintzen ez bazaie. Hau da, erabilerak ezin dezake gora egin elebidunen masa soziala eta euskararen erabilera ahalbidetzen duten sare zein guneen kopurua handitzen ez badira.”

Euskal Herriko perspektiba globaletik lurralde mailakora jaitsiz, osagarritzko informazio hau eskaintzen du Soziolinguistika Klusterrak: a) Gipuzkoan jaso da erabilera-mailarik altuena (%32,7); Bizkaian %9,4;

hirugarren multzoan Iparraldea eta Nafarroa ditugu, hurrenez hurren %6,2 eta %5,7; azkenik, gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da (%4,0). b) Gipuzkoa da Lurralterik euskaldunena da, eta hogeita bi urtean goranzko joera nabarmendu du. Joera hori etengabea da, nahiz eta apaldu egin den azken bosturtekoan. c) Bizkaiko eta Arabako erabilera-indizean ez da aldaketarik antzeman 1993az gero. Ez atzera ez aurrera dago euskararen erabilera¹⁵⁴. d) Nafarroan behera egin zuen euskarak 90eko hamarkadan, baina 2001etik geldirik dago, aldaketa esanguratsurik gabe. e) Iparraldean 1997tik 2006ra jaitsi egin zen euskararen erabilera, baina joera hori aldatu egin da azken bosturtekoan, eta 2011ko datuak orain bost urtekoen berdinak dira.

Bada, horrezaz gainera, analisi-bide zorrotzagarik: esate baterako, udal-erriak biztanle euskaldunen dentsitate-tarte jakinetan sailkatuz, honako ondorio hauetara iristen da Soziolinguistika Klusterra: a) Euskal Herriko biztanle gehienak zonalde erdaldunenean bizi dira (hau da, ezagutza %25 baino txikiagoa den eremuan). Biztanleria osoaren %70 inguru bizi da bertan, eta azken neurketan erabilera %3 ingurukoa da. 1993an ere erabilera-maila bera jaso genuen. 2006an, ordea, erabilera %4koa izan zen. b) Euskaraz dakiten biztanleen portzentajea %25 eta %50 bitartekoa den zonaldean, erabilera %14-15 ingurukoa da. Ia lau puntuko igoera gertatu da hamazortzi urtean. c) Ezagutza %50 eta %75eko tartean da goen zonaldeetan, erabilera %40 ingurukoa da. 1993tik hona igoera nabarmena gertatu da zonalde honetan, ia zortzi puntukoa, hain zuzen. d) Azkenik, biztanle gehienek (%75 eta %100 artean) euskaraz dakiten zonaldeetan, entzundako hitzunen %66 inguru euskaraz ari ziren. Hiru puntuko igoera izan du erabilerak 1993tik hona. Biztanleen dentsitate-arauzko analisisa aski baliagarria izan liteke, udal-erri euskaldunetako eta arnasguneetako analisi xeheagoekin gurutzatzeko. Aurrerago helduko diogu gai horri.

Aparteko begiratu ematen die Klusterrak, azkenik, hiriburuei. Hona, labur bilduz, bertako ondorio nagusiak: a) zonalde erdaldunen bilakaera bera izan dute Gasteiz eta Bilbok: 2006ra bitartean goranzko joera apala izan du bertako erabilerak, eta azken bost urtean zertxobait behera egin du; bi hiriburu horietako ezagutza-maila %25 ingurukoa da, eta jaso den erabilera-tasa %3 ingurukoa. b) Iruñean erabilera bere horretan dago 1997az geroztik, %2,5-2,9ren bueltan; c) Donostian, aldiz, aski bes-telako panorama ageri da: 1989tik hona ia sei puntu egin du gora erabilerak. 2011ko neurketan, halere, duela hamar urte jaso zen erabilera-maila bera jaso da (%15,9) eta 2006an %18koa izan zen. d)

**Nafarroan
behera egin zuen
euskarak 90eko
hamarkadan,
baina 2001etik
geldirik dago,
aldaketa
esanguratsurik
gabe. Iparraldean
1997tik 2006ra
jaitsi egin zen
euskararen
erabilera, baina
joera hori aldatu
egin da azken
bosturtekoan, eta
2011ko datuak
orain bost
urtekoen
berdinak dira.**

***Etxean erdaraz
ari dira gero eta
guraso gehiago,
beren artean (ez
seme-alabekin);
ezezagunei
erdaraz egiteko
joera zabaltzen
ari da herrian;
kultura-
kontsumoa
(ohikoa, ikus-
entzunezkoa eta
internet
bidezkoa),
erdararen gero
eta mendeana
geratzen ari da.***

Nabarmentzekoa da, azkenik, Gasteizen, Bilbon eta Iruñean bestelako erdal hizkuntzak euskara baino gehiago erabiltzen direla. Analisi baliotsak dira horiek guztiak, Inkesta Soziolinguistikoaaren emaitzekin kontraste-lan baliagarria egin ahal izateko eta, aurrerago ikusiko denez, arnasguneen fenomenora zenbait informazio osagarri hurbiltzeko.

3.3 Arnasguneetan zentraturiko emaitzak

Lan monografiko jakingarria paratu du Xabier Bengoetxeak, hain aspaldi ez dela, Tolosaldeko zenbait arnasgune harturik aztergai¹⁵⁵. Arnasgune horietako mintzajardunaren ezaugarriak argitzen saiatu da egilea, egungo egoerak ageri dituen argi-itzalak batez ere perspektiba demografikotik, lurralde-antolamenduzkotik, soziokulturaletik eta soziolinguistikotik behatuz eta azken hamarkadotako aldakuntza sakonak etenurratze ezagunen ildotik analizatuz. Eskola-umeei sei urteko tarteaz pasatako gela-argazkiaren¹⁵⁶ laguntzaz mintzajardunaren ohiko jardunguneetan gaur bizi den errealtatea argitu du horrela, eta azken sei urteotan antzeman den aldakuntza hurbiletik ikusten lagundu digu nabarmen. Arnasguneei buruzko ondorio sendoak, alde batera ezin utzizkoak, atera ditu Xabier Bengoetxeak azterbide horretatik. Honako hauek, besteak beste:

- Euskararen aldeko nagusitasun-moldaerak indartsu jarraitzen du arnasgune horietako ikasleen bizigiroan. Etxean ez ezik auzoan, eskolan, kirolean eta elizan euskaraz bizi dira ikasle horiek nagusiki.
- Eguneroko bizimodu arrunt, informal, aurrez aurreko mintzabidean oinarrituriko horretan euskara nagusi delarik, eta etxe gehienetako gurasoak euskaldun direnez, euskararen belaunez belauneko transmisio naturala aski bizirik dago Tolosaldeko arnasgune horietan.
- Hala ere, gela-argazkiaren arabera, pitzadura ohargarriak sortzen hasiak dira bertan. Familiako mintzajardunaren adierazgarri diren indize batzuen argitan, ahultzen ari da arnasguneotan euskararen nagusitasun-moldaera hori. Oso apal ari da ahultzen, baina aski era jeneralean. Zenbait indizek argi dio: gurasoek beren artean erdal-dunago dihardute, seme-alabekin jarduterakoan baino.
- Auzoan ere beheranzko joera antzematen hasi da. Ez agian lagunetik jolasean, baina bai bestelakoetan (ezezagunekin hitz egiterakoan bereziki).
- Eskola euskal gotorleku da arnasgune horietako gazteentzat: hor ere beheranzko joera antzematen da ordea, sei urteko tarte laburrean.

- Aldiz, komunikazio alorrean (egunkari-aldizkariak, irratitelebistak, internet,...), erdara da arnagune horietako ikasleen artean jauna eta jabe: ikasleen %25ek bakarrik ikusten du euskarazko telebista-programarik, erdara da bideo-filmetan garaile eta *internet*-en ere gaztelania da nagusi. Euskarazko irratia nagusitzen da, aldiz, bertako gazteen artean.

Benetako arnagune dira Xabier Bengoetxeak aztertu dituen Tolosaldeko herriok: euskaldunen kontzentrazio demolinguistikoa altua dute orain ere¹⁵⁷, eguneroko jardungune informal basikoetan euskara da herrian nagusi, eta bi elementu horiei eskerrak beren ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena bermaturik daukate, oraingoz¹⁵⁸, haurrek eta gazteek. Eskolak, bere-bereak dituen xedeak betetzeaz gainera, ekarpen handia egiten dio euskara indarberritzeko saioari: a) ikasle euskaldun horien mintzamen-entzumenak irakurmen-idazmenetara zabaltzen ditu¹⁵⁹ (historian lehenengo aldiz, kasik); b) etxetik eta auzo-girotik jaso duten hitz-altxorra zabaltzen eta batasun-girora hurbiltzen lan ohargarria egiten du bestetik eta, azkenik, c) estilo formal-landuaz jabetzeko aukera eskaintzen die bertako hurrei eta gaztetxoiei, hainbatean.

Hori guztia egia izanik ere, bistan da arnaguneen definizio-oinarri diren hiru ezaugarri horiek ahultzen hasiak direla dagoeneko eta, urak beren bidetik badoaz, menderik mendeko beren euskal izaera osabete hura galtzeko arriskua gero eta hurbilago dutela arnaguneok. Sintoma argiak detektatu ditu Xabier Bengoetxeak: etxean erdaraz ari dira gero eta guraso gehiago, beren artean (ez seme-alabekin); ezezagunei erdaraz egiteko joera zabaltzen ari da herrian; kultura-kontsumoa (ohikoa, ikus-entzunezkoa¹⁶⁰ eta *internet* bidezkoa), erdararen gero eta mendeago geratzen ari da, eta, bidenabar baizik aztertu ahal izan ez badu ere, erdal nagusitasun-moldearazko lekutara hegaldatzen ari zaie lan-mundua. Funtsezko azterlana da Xabierren ekarpen hori, euskalgintzaren lehentasunak aurrera begira non jarri behar diren argitzeko eztabaida patxaraz, gizabidez eta buru hotzez bideratu ahal izateko. Kontuan hartu behar ditugu hortaz bere ekarpenak, demolinguistikazko ekarpen handiekin uztartuz.

3.4 Udalerri euskaldunetan eta arnaguneetan zentratutako emaitzak

Lan handia egiten ari da Iñaki Iurrebaso ikertzailea, udalerri euskaldunen¹⁶¹ eta, horien barruan, arnaguneen egoera eta bilakaera EAEko perspektiba demolinguistikoa globalean argituz. Beste iturriarik falta ez

Guraize-efektua bizia gertatzen ari da EAEn, etxeko E4-jardunari dagokionean. Lehen (demagun orain dela 20 urte) erdara (arras) nagusi zen udalerrietan sendo(xe)ago ageri da orain (2011n) etxeko E4-jarduna. Aitzitik, etxeko E4-jarduna gainbehera dator lehen euskara nagusi zen udalerrietan. Hori da guraize-efektua.

***Guraize-efektu
hori gauza berria
da
arnasguneetan:
azeleratzen ari
da azken
urteotan.
Konkretuki,
1991-2001
tartean baino
nabarmenagoa
da 2001-2011
hamarkadan.***

den arren¹⁶² bere azken liburua adierazgarria da oso¹⁶³. EAEko udalerri euskaldunen egoera eta bilakaera aztertzeke, azken 30 urteotako zentsuetako emaitzak aztertu ditu Iurrebasok, EUSTATEk eskainitako datuetan oinarrituta. Hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera nagusia (*E4* hortaz, ez *ET*) aztertu ditu liburuan. Ondorio asko, eta jakingarriak, atera ditu hiru alorretan. Etxeko erabilera nagusiaz (*E4*-jardunaz eta *E4*-hiztunez), batez ere, emaitza deigarriak ageri dira bertan. Honako hauek azpimarratuko ditugu hemen (ez dago guztiez jarduteko lekurik, honelako lan batean):

- a) Gauza bat da Lurralde mailako (demagun Gipuzkoako) edo EAE osoko demolinguistikazko datu globalekin jardutea, eta beste bat udalerri euskaldunen (eta, horien barnean, arnasguneen) errealtetatik hurbilago dauden ustiapen-emaitzak analizatzea.
- b) Espero izatekoa zenez, ustiapen-emaitza horien argitan aski datu dibergenteak azaltzen dira etxeko erabilera nagusiaz (*E4*-jardunaz, *E4*-hiztunez). Espero izatekoa zen dibergentzia horiek azaleratzea¹⁶⁴ baina, dakigula, Iñaki Iurrebaso izan da lehena horretarako analisi demolinguistikoak sakon lantzen eta jasotako emaitza nagusiak argitara ematen. Zertan datza dibergentzia hori?
- c) Guraize-efektu bizia gertatzen ari da EAEn¹⁶⁵, etxeko *E4*-jardunari dagokionean. Lehen (demagun orain dela 20 urte) erdara (arras) nagusi zen udalerrietan sendo(xe)ago ageri da orain (2011n) etxeko *E4*-jarduna. Aitzitik, etxeko *E4*-jarduna gainbehera dator lehen euskara nagusi zen udalerrietan. Hori da guraize-efektua.
- d) Udalerri euskaldunetan ohargarria den gainbehera hori arras bizia da arnasguneetan: orain gutxira arte euskaldunen kontzentrazio demolinguistikoko handiena zuten, etxeko eta kaleko mintzabidea bakar euskara izaten zen eta belaunez belauneko jarraipena arras segurtaturik zeukaten herri(xk)etan. Herri-herrixka horietan (erdara hutsezko eskolaren ordezkari D ereduakoa eratu delarik tartean) gero eta gutxiago egiten da euskaraz etxean.
- e) Hots, etxeko bizigiroari dagokionean *E4*-jarduna gora doa zertxobait (ez asko) erdara nagusi den herrietan, herriburuetan eta hiriburuetan eta, aldi berean, behera doa euskara (menderik mende, “bart arratsera” arte) nagusi (are jaun eta jabe) izan den herri-herrixketan.
- f) Guraize-efektu hori gauza berria da arnasguneetan¹⁶⁶: azeleratzen ari da azken urteotan. Konkretuki, 1991-2001 tartean baino nabarmenagoa da 2001-2011 hamarkadan.
- g) Intentsitateari dagokionez, etxeko *E4*-jardunaren gorabidea xua-bea da herri/herriburu/hiriburu erdaldunetan. Aldiz, *E4*-jardunaren


gainbehera nabarmenki biziagoa da udalerri euskaldunetan, eta arras bizia arnaseguneetan.

h) E4-jardunaren gorabide xuabea biztanle askori dagokio; E4-jardunaren gainbehera bizia, aldiz, biztanle gutxiri¹⁶⁷. Horregatik, analisi globaletan EAEko E4-jarduna oro har gora doa. Erdara (arras) nagusi zen eta (arras) nagusi den lekuetan, lehen baino maizago da orain euskara etxeko hizkuntza nagusi. Euskara arras nagusi zen lekuetan, aldiz, lehen baino maizago da orain erdara etxeko hizkuntza nagusi, edota euskara-erdarek parean dihardute konpartimentazio argirik gabe. Beste gauza asko ere agerian jarri ditu Iñaki Lurrebasok, baina kontu hau da funtsezkoa arnaseguneetan zer gertatzen ari den esplikatzeko.

i) Ondoko grafikoei ematen digute gertaera horren guztiaren berri. Lehenengoan udalerri euskaldunak hartzen dira kontuan: arnasegunez gainera, hartara iristen ez diren (eta arnasegune gehienek baino biztanle gehiago duten) hainbat herri sartzen dira hor, beraz. Bigarrenean, aldiz errazago antzeman liteke arnaseguneetako bilakaera azeleratua.

j) Gatozen lehenengo grafikora. EAEko udalerri euskaldunetako etxegiroan zer gertatzen ari den azaltzen da bertan. Euskarazko E4-jardunak (grafikoan *euskara* dioenak) behera egin du, nabarmen, udalerri euskaldunetako etxegiroan: %56,4tik %47,5era jaitsi da. Bide beretik, euskara-erdarazko E3-jardunak (grafikoan *euskara eta gaztelania* dioenak) behera egin du zertxobait udalerri horietan: %15,2tik %13,3ra pasa da. Bi galera horien parte nagusia, ia osoa, erdarazko E4-jardunera lerratu da (grafikoan *gaztelania*): 27,9tik %37,3ra igo da. Bada, horrezaz gainera, 2001etik honako berrikuntza ohargarria: oraindik portzentaje laburra izanik ere, gorantz doa etxean jarduera alofonoa duen hiztun-multzoa. Hona grafikoa:


2. grafika: Etxeko hizkuntza. EAEko udalerri euskaldunak, 1991-2011.



Iturria lurrebaso, 2015: 34.

k) Gatozen bigarren grafikora. EAEko udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan ageri den guraize-efektua azaltzen da hemen. Iñaki Iurrebasoren arabera, udalerri ez-euskaldunetan igo egin da etxean nagusiki euskaraz egiten dutenen ehunekoa: 1991n %6,6koa izatetik 2011n %7,5koa izatera pasa da. Bien bitartean, ordea, udalerri euskaldunetan dezente jaitsi da nagusiki euskaraz egiten dutenen kopurua: %56,4koa zen 1991. urtean eta %47,5koa da 2011. urtean. Udalerri euskaldunetan jaitsi dena nabarmen handiagoa da, termino portzentualetan, besteetan igo dena baino: batean %8,9 jaitsi da, bestean %0,9 igo.

3. grafika: EAEko E4-hiztunen proportzioa etxe-giroan, udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan: 1991tik 2011rako bilakaera.




Iturria Iurrebaso, 2015: 34.

i) Gatozen hirugarren grafikora. Eskuartean dugun gairako aski ondorio garrantzitsuak eskaintzen ditu hor Iñaki Iurrebasok. Etxeko hizkuntzak, biztanleen dentsitate-multzo diferenteetan, 1991-2011 epean zer ibilbide berezi izan dituen azaltzen da bertan. EAE osoa aintzat hartuta, ez da aldaketa handirik ikusten EAEko herritarrek oro har etxean erabili ohi duten hizkuntzan: 1991. urtean %13,9 izatetik 2011. urtean %13,6 izatera igaro da portzentajea. Datuak biztanle euskaldunen 1981eko dentsitatearen araberrako udalerri-multzoka aztertutik, ordea, joera nabarmen bi ikusten dira oro har. Euskararen erabilerak gora egin du, eta gaztelaniarenak behera, hiru udalerri-multzo erdaldunenetan (hots, abiapuntuko ezagutzamaila %30etik behera zuten udalerrietan). Aitzitik, gainerako multzo guztietan behera egin du euskararen erabilerak eta gora gaztelaniarenak. Zenbat eta jatorriz euskaldunagoa izan multzoa, orduan eta gehiago egin du atzera euskararen erabilerak eta aurrera gaztela-

niarenak. Muturreko talde euskaldunenaren datua aipatuz, euskaldunak 1981. urtean %90-%100 ziren udalerrietako etxeetan euskara nagusiki erabili ohi dutela erantzun dutenen kopurua %88,5etik %65,4ra jaitsi da hogeitaz urtean, eta nagusiki gaztelania darabiltela diotenaren kopurua ia laukoiztu (%5,1ekoa 1991n, %23,3koa 2011n). Hurrengo multzo euskaldunetan ere jaitsiera handiak ikusten dira euskararen erabileran.

Beste hau ere argi samar dago datu horien argitan: euskararen erabilerak udalerri euskaldunetako etxe-giroan izan duen atzerakadak azken hamarkadan hartu du indar gehien, 1991-2001 hamarkadan ere halakorik gertatzen hasia zen arren.

4. grafika: EAEko etxeko E4-jardunaren 1991tik 2011rako bilakaera, 1981ko dentsitate-mailaren arabera multzokaturik udalerriak.



Iturria: Iñaki Iurrebaso, 2015, 39 or.

Balore handiko lana da Iñaki Iurrebasorena, Xabier Bengoetxearena bezala, euskara indarberritzeko orduan lehentasunak non jarri era informatuan eztabaidatzeko. Inkesta bidezko eta kale-neurketazko analisi globalak, dituzten abantaila zabal eta ukaezinen ondoan, uzkur agertzen ari dira euskararen etorkizuna non-nola bermatzen saiatu behar gukeen argitzeko orduan. Lan zabal horien eta honelako analisi xehatuon sintesia ezinbesteka da, hortaz, euskarak bizi-indar handiena duen lekuetan gure begien aurrean zer gertatzen ari den ulertzeko.

**Gure herri-
herrixka
euskaldunenetako
mintzoa
nabarmen
ahultzen ari da
etxe-giroan, eta
gainerakoetan
zertxobait
indartzen.
Besteak asko
direnez, balantze
total gisa
orekan-edo
gaudela dirudi.
Ez dago ordea
inolako orekarik
hor, arnasguneen
ahultze-prozesu
larria baizik.**

Iturri bateko eta besteko datuak aski bateragarri dira, bestalde. Etxeko E4-erabilerak ez du aldaketa handirik izan, Iurrebasoren analisiaren arabera, EAE osoan: %13,9tik %13,6ra pasa da. Era berean, EAEko etxegiroko ET-erabilera %17,3tik %17,2ra pasa da epe berean (ikus goiko pasartea eta berari dagokion taula). Aski bateragarri dira datu horiek. Oraingo analisiak, ordea, “barruko tripak” azaltzen dizkigu. Fenomeno uniforme baten ordeztu guraize-efektuko gertakari ezpainbikoa agertzen digu tripa-barruen analisiak: hori du berritasuna. Gure herri-herrixka euskaldunenetako mintzoa nabarmen ahultzen ari da etxe-giroan, eta gainerakoetan zertxobait indartzen. Besteak asko direnez, balantze total gisa orekan-edo gaudela dirudi. Ez dago ordea inolako orekarik hor, arnasguneen ahultze-prozesu larria baizik. Gaurko arnasguneak eta orain dela berrogei urtekoak aski diferenteak dira, kopuruz (bidean arnasgune askotxo galdu da) eta bizi-indarrez (ahultzen eta gesaltzen ari dira barrutik). Ordua da, beraz, lehengo eta oraingo arnasguneen gaineko gogoeta kualitatiboa egiteko eta, gogoeta horren argitan, azken hogeitaz urteko bilakaera bortitza perspektiba soziolinguistikoko globalean txertatzeko.

3.5 Arnasguneak, lehen eta orain: kontzeptuaren oinarri teorikoak, azken hogeitaz urteko ebidentzia enpirikoaren argitan. Arnasgune beteak eta erasanak

Diogun, sarrera moduan, 3.5. atal honen azpiataletan azalduko denak baduela aitzindaririk. Julio Caro Baroja izan genuen, oker ez banago, euskararen arnasgune-izaerako esparru zabalak galtzen (gesaltzen) ari zirela adierazten lehena. Mitxelenaren aitormena etorri zen handik gutxira: bere hitzetan “gaur gure herrian ezin berez daitezke, [gerra garaiko] Estatutoan egiten zen bezala, eskualde euskaldunak eta erdalduinak. (Dikotomia) honek, duela urte asko Julio Caro Barojak igarri zionez, ez du, hizkuntzari gagozkiola, muga jakinik, ez *geografiaz* (irizpideak oraindik bere balioa galdu ez duen arren¹⁶⁸), ez *soziologiaz*”. Hots, gure terminologia teknikora bilduz euskal hiztun-elkartearen behinolako izaera territorial sendoa apurtuz joan da; izaera territorial hartatik arnasgune gero eta fragmentatuagoak bakarrik ari zaizkigu bizirik gelditzen. Kopuru aldetik aski fenomeno demolinguistikoko txiki-bazterrekoa izan arren, analisi pausatua zor zaie.

3.5.1 Arnasguneen zenbait ezaugarri:

Gorago, txosten honen I.8. puntuan, “zer dira arnasguneak”? galdetu diogu gure buruari eta, lehen saiotxo moduan, erantzun llaur hau taxutu dugu: Joshua A. Fishman-ek 1991ko bere *Reversing Language Shift*

ezagunean “*physical breathing space*” esaten duen kontzeptuaren euskal itzulpena da *arnasgunea*. Hots, “*demographically concentrated space where Xish (gurean euskara) can be on its own turf, predominant and unharased*” (Fishman, 1991: 58). Beste hau ere erants dakioke definizio-saio horri: “Xish will have its ‘own space’, i.e. functions in which it and it alone is normatively expected, and Yish will no longer be a major danger to it in those functions” (Fishman, 1991:85). Bi ezaugarri ematen dira hor, lehen-lehenik: a) kontzentrazio demografikoa (udalerrri euskaldunen antzeko definizio-osagaia da hori, gradu-kontuak gorabehera, hein batean: trinkotasun hori ez da ordea euskaraz dakiten biztanleen dentsitatera mugatzen, herrian euskaraz egiten dutenetara zabaltzen baizik: bigarren eskakizun hau lehenengoa baino gogorragoa da, egungo egunean); b) herri-giro zabaleko mintzajardun arruntak¹⁶⁹ Xish-en (gurean euskararen) aldeko nagusitasun-moldaera argia, eztabaidarik gabea, izatea: “predominant and unharased” batetik, “Xish will have its ‘own space’, i.e. functions in which it and it alone is normatively expected” bestetik. Liburu berean, eta beste hainbatetan, arnaspune horien hirugarren elementu definitzailea ere argi azaltzen du Fishman-ek: nagusitasun-moldaera argi horri eskerrak bertako biztanleen ama-hizkuntza (gurean euskara) da herritarren artean belaunez belau sendo transmititzen dena.

Sarritan idatzi izan dugunez, demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den esparru geoterritoriala da *arnasgunea*. Inork xaxatu eta eraso gabe “etxeke jaun” sentitzen den eremu geospaziala¹⁷⁰. Hori da, funtsaren funtsean, Fishman-en *physical breathing space* edo *arnasgunea*. Euskaldunak euskaldunekin euskalgiri sendoan bizi diren lekua, gurasoen hizkuntza belaunez belau eskuratzen den lekua. Osasun oneko hizkuntzetan normal dena normal da arnaspuneetan ere, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez¹⁷¹: berariazko interbentzio berezirik gabe belaunez belau bizirik eta indartsu iraun duten ingurumen horietan dago euskara, orain ere, bizien. Hor du euskarak, orain ere, osasunik hoberena. Hori da euskal *arnasgune* petoa: bertako biztanle guztiak edo gehien-gehienak euskaldun garbiak dira, eguneroko bizimodua euskaraz egiten da herrian¹⁷² eta ama-hizkuntzaren belaunez belauke transmisioa bere betean (beste leku gehienetan baino askoz nabarmenago) segurtatzen da hori¹⁷³. Udalerrri euskaldunen azpimultzotzat har litezke arnaspuneak, huts egiteko arrisku handirik gabe. Arnaspune guztiak udalerrri euskaldun dira¹⁷⁴, baina udalerrri euskaldun guztiak ez dira arnaspune.

Mintzajardunaren giza arteko moldaeran (eta moldaera horren perspektiba deskriptiboan eta zinetikoan dauden elementu soziologiko ba-

**Demografia
aldetik euskara
“bere kabian”
sentitzen den
esparru
geoterritoriala da
arnasgunea.
Inork xaxatu eta
eraso gabe
“etxeke jaun”
sentitzen den
eremu
geospaziala.**

**Hor du euskarak,
orain ere,
osasunik
hoberena. Hori
da euskal
arnasgune petoa:
bertako biztanle
guztiak edo
gehien-gehienak
euskaldun
garbiak dira,
eguneroko
bizimodua
euskaraz egiten
da herrian eta
ama-
hizkuntzaren
belaunez
belauneko
transmisioa bere
betean (beste
leku gehienetan
baino askoz
nabarmenago)
segurtatzen da
hor.**

sikoetan) oinarritutako definizio xume horri aplikazio baliagarriak egiten ari zaizkio gure artean, teoriatzko formulaziotik egungo egoera konprometitura hurbilduz. Oso gogoan hartzekoak dira, gorago ikusi dugunez, Xabier Bengoetxearenak eta Iñaki Lurrebasorenak¹⁷⁵. Hala dira Jose Anjel Aldairenak ere (Aldai: 2016). Labur bilduz, a) gero eta udalerri- edo auzo-tamainatik hurbilago daude arnasguneak; urrun gelditzen ari dira arnasgune hutsez osaturiko eskualde zabalak, orain dela ehun eta berrogeita hamar urte Gipuzkoa gehienez, Nafarroako euskal eremuan eta Bizkaiko zenbait eskualdetan salbuespen ez baina arau sendo zirenak. b) udalerri horien txikitasun demografikoa¹⁷⁶ da, bestalde, gaur egun bizirik dirauten arnasguneen (eta, beste neurri batean, udalerri euskaldunen) ezaugarri demografiko argienetako bat; c) lan-esparrua gero eta arnasgunetik aparteago dago: aparte kilometroz, eta aparteago lan-leku hori kokaturik dagoen ingurumenean euskara-erdarek ageri duten nagusitasun-moldaeraz¹⁷⁷...; d) saldu-erosia ere, aisialdiko hainbat ekimen bezala, herritik gero eta urrunago egiten da: herriburuko edo hiriburu inguruko supermerkatu handietan bereziki, eta e) arnasguneko gazteak kanpora doaz bizi izatera sarri, eta kanpoko (herriburuko edo hiriburu inguruko) bikoteak datoz bertan bizi izatera, askotan herri-giroan txertatzera iritsi gabe.

Posible ote genuke, ezaugarri horietatik abiatuz, arnasgunea zer den definitzea? Goiko definizio-elementu horiek ez dira operatibizatzen errazak: “kontzentrazio demografikoa” eta “eguneroko mintzajardun arruntari dagokion nagusitasun-moldaera euskararen aldeko izatea”, adibidez, errazago da esaten aplikatzen baino. Bigarrenak, bereziki, berariazko azterketa eskatzen du. Kale-neurketak ezin du, oraingo moldean, halakorik egin. Inkesta soziolinguistikoak egin lezake halakorik, eta egin ere egiten du hein batean, baina kategorizazio egokia behar du hartarako: batetik E4-jardunean kontzentratu behar du, eta bestetik jardungunekako E4-datuak izan behar ditu oinarri, jardungune bakoitzaren kontribuzio erlatiboa argi ponderatuz. Oso eginkizun zaila da hori ere: gaur-gaurkoz ez hemen eta ez, dakigula, atzerrian inork egin gabea da ponderazio-lan hori. Labur bilduz: oso zaila da arnasguneen operatibizatze-lana, baina zinez merezi duena. Aurrerago ikusiko dugunez kontzeptu-oinarri sendokoak eta aplikagarritasun praktiko handikoak dira, bai perspektiba deskriptiboan eta bai zinetikoan, arnasguneetan biltzen diren ezaugarri soziolinguistikoak.

Goiko bi ezaugarri horiei beste zenbait eransten zaizkie, berez bere: konpartimentazio soziofuntzionala, bertako biztanleen L1 euskara izatea (ia) beti, euskararen belaunez belauneko jarraipena segurtaturik izatea,... Horiek eta beste hainbat. Ezaugarri horiek guztiak kontuan izanik, posible

da arnaguneen kontzeptu-marko nagusia eraikitzea. Arnaguneak gure begien aurrean ahultzen, urtzen, gesaltzen eta galtzen ari direnez azken mende-laurdenean, badugu guztiok joera bizia, azken-azken momentuko datuetan gehiegi zentratzekoa. Bide okerra da hori, kontzeptuari bere osoan eutsi nahi bazaio: hain noraezekoa dugun perspektiba soziohistorikoa galtzen dugu horrekin. Hobe dugu beraz, alde horretatik, arnaguneak “orain puntura arte” zer izan diren aztertzea¹⁷⁸ lehenik eta behin. Beraz, “arnaguneak zer izan dira orain puntura arte?” galdetzen badigute hamabi ezaugarri azpimarratu behar ditugu. Hamabi ezaugarri hauek markatu izan dute, orain puntura arte, leku bat arnagune den ala ez den:

- a) Kontzentrazio demolinguistiko handia: arnaguneko biztanleak (guztiak edo gehien-gehienak) euskaldun dira eta beren artean euskaraz egiten dute normalean. Kontzentrazio demolinguistiko hori handia da oso: normalean Euskal Herriko handiena.
- b) Nagusitasun-moldaera euskararen alde du, oro har, arnagune orok: herri-giro arruntean (etxean eta lagunartean, auzoan edo kalean, plazan, dendetan, tabernan, eskolan, kirolgunean,...) euskarazko mintzajarduna da jaun eta jabe¹⁷⁹.
- c) Konpartimentazio soziofuntzionala: ahozko jarduna euskaraz bideratzen da oro har; irakurketa-idazketak, aldiz, erdal bidera makurturik egoten dira (zaharren artean erabat). Beste modu batean esanik, diglosia da herrian oraindik nagusi: H eta L hizkuntzen konpartimentazio funtzional egonkorra¹⁸⁰, erabateko mintzaldaketa larririk gabea¹⁸¹, praktikatzten dute herritarrek oro har.
- d) Etxean hasten dira arnaguneko haurrak euskaraz egiten ikasten: euskaraz egiten da etxean, beti, eta eginez ikasten dute haurrek euskara. Hori dela medio euskara da arnaguneko biztanleen ama-hizkuntza, beren L1.
- e) Auzo-kale-lagunartean indartu egiten dute neska-mutilek euskarazko mintzajardun hori, eta indartzearekin batera hobetu, zorroztu eta zabaldu egiten dute beren euskarazko mintzamen-gaitasuna. Herritar gehienak “euskaldun zahar” dira hortaz, normalean, “euskaldun zahar”¹⁸² eta “euskaldun garbi”¹⁸³.
- f) Trasbase demografiko (konparatiboki) murrizteko lekuak dira arnaguneak: bertan jaiotako gehienak¹⁸⁴ bertan edo inguruan (maiz asko bera bezalako arnagunean) bizi izaten dira; bertan bizi diren heldu gehienak bertan (edo inguruko arnaguneren batean) jaioak dira.
- g) Ezkontidea edo bizilaguna ere euskalduna da normalean, eta euskal familia eratzen dute (normalean udalerrri berean, ezkontidearenean edo inguruan).

Kontzentrazio demolinguistiko handia: arnaguneko biztanleak (guztiak edo gehien-gehienak) euskaldun dira eta beren artean euskaraz egiten dute normalean.

**Garraiobide
(karretera,
trenbide, geltoki
eta aireportu)
nagusietatik,
orobat
industrialde eta
merkataritza-
gune
aktiboenetatik,
konparatiboki
urrun daude
arnasguneak,
lurralde-
antolamenduari
dagokionez.**

h) Herrian bertan edo inguruan egiten dute gurasoek lan: lehen sektorea gainbehera etorri delarik lantegiren batean edota, ondotoz bakanago, hirugarren sektoreko langune¹⁸⁵ batean. Lan-giroa euskalduna dute hainbatean, hitzezko jardunean batez ere¹⁸⁶.

i) Garraiobide (karretera, trenbide, geltoki eta aireportu) nagusietatik, orobat industrialde eta merkataritza-gune aktiboenetatik, konparatiboki urrun daude arnasguneak, lurralde-antolamenduari dagokionez.

j) Euskal kultura tradizionalaren zantzu biziak dituzte bertako biztanleek eguneroko bizimoduaren hainbat esparrutan: bertsotarako eta karta-jokorako afizioan, jan-edanean, kirol-jolasetan¹⁸⁷, fede-sinesmenean, emandako hitzari eusteko ohituran,...

k) *Gemeinschaft* giroa arnasgunetik kanpora baino nabarmen biziago, nabarmen inktaktuago dago arnasguneetan. Arnasguneko herritar izateak talde-giroan hezurmamitzen diren eskubideak eta eginbeharrak ditu. Nor bere etxean bildu eta itxita bizi izan gabe auzoko edo urrunagoko herritarrekiko kontaktu bizia du eguneroko bizimoduaren oinarri: auzolanez, talde-ospakizunez eta abarrez eusten zaio herri-giro horri¹⁸⁸. Sozializazio-pauta indartsua da hori: kanpomunduarekiko lotura ahuldu egiten du, eta arnasgune barruko herri-giro bizia nabarmen sendotzen.

l) Euskararen belaunez belauneko jarraipena bermaturik dago arnasgunean.

3.5.2 Arnasguneen azken hoge urteko bilakaera: zenbait ebidentzia enpiriko

Azken hamarkada hauetan aldatuz doaz ezaugarri kontuak, gorago esan dugunez. Goiko arnasgune prototipiko horietatik gero eta urrunago daude, aldaketa horiek direla medio, gaurko arnasgune-ustezko gehienak. Egungo arnasgune-ustezkoek justu-justu edo erdizka betetzen dituzte goiko hamaika ezaugarri prototipiko horiek, edota erabat alboraturik dute dagoeneko ezaugarri horietariko bat baino gehiago. Nabarmenak dira, oro har, orain puntura arte arnasgune argi izandako udalerri askotan agertuz doazen aldaketa-seinale hauek:

a) Kontzentrazio demolinguistikoa gainbehera bizian dator arnasguneetan, batez ere azken hamabost-hoge urtean: dislokazio edo eten-urratze demografikoa handia izan dute arnasguneek, eta lehen baino gutxiago dira euskaraz (garbi: ingurukoaren pare edo ingurukoek erraz ulertzeko moduan) hitz egiten dakitenak.

b) Eguneroko mintzajardun arruntari dagozkionetan euskararen al-

deko nagusitasun-moldaera tradizionala ahultzen ari da, etxetik bertatik hasita: gurasoek erdaraz egiten dute beren artean gero eta maizago, eta telebista-internet multzoan, prentsa idatzian lehendik arau zena areagotuz, erdara ari da gero eta nabarmenago gailentzen. Kultura-kontsumoan sarbide handia egin du erdarak arnasguneetako gazteen artean, bereziki;

c) Menderik mende bizirik iraun duen konpartimentazio soziofuntzionala zartatzen ari da era askotara: azken hatsak ematen ari da diglosia xaharra, eta berririk ez da ageri: “bilingualism without diglosia”-ko bizimodura goaz pauso bizian, moldaera horrek plano teorikoan aurreikusia eta enpirikoki sarri frogatua duen azken geltokia zein den konturatu gabe maiz;

d) Etxean hasten dira arnasguneko haurrak, orain, euskaraz eta erdaraz egiten ikasten: bietara egiten da etxean, gero eta sarriago, eta bietara eginez ikasten dituzte haurrek euskara eta erdara. Hori dela medio euskara ez da arnasguneko biztanle guztien ama-hizkuntza bakarra, ez da beren L1. Gehienetan beren L1a¹⁸⁹ da, eta kasurik larrienetan, beren L1b¹⁹⁰.

e) Auzo-kale-lagunartean ez dute neska-mutilek euskarazko mintzajarduna lehen bezain sendo indartzen. Horren eraginez, beren euskal-mintzamena ez dute lehen bezain azkar hobetzen, zorrozten eta zabaltzen. Gazte gehienak ez dira 50 urtetik gorakoak bezain “euskaldun garbi”: joskera-ahalmenez lehen baino motzagoak dira; doinuera-ebakeraz gurasoak baino erdal airekoago; ohiko hitz-altxor arruntean murriztapen-tasa handia ageri dute batetik, eta interferentziazko edo mailegu berrizko inpaktu sakonagoa bestetik.

f) Trasbase demografiko (konparatiboki) handiko leku bihurtzen ari dira arnasguneak: bertan bizi diren helduetan gero eta gutxiago dira bertan (edo inguruko arnasguneren batean) jaioak; bertan jaio-tako gazte asko arnasgunetik kanpora doa (hasieran ikastera, gero lanlekua eta bizigune ezartzera)

g) Ezkontidea edo bizilaguna erdal elebiduna da gero eta maizago (zenbaitetan erdaldun elebakarra). Euskararen belaunez belauneko jarraipena ez dago etxe-giroan, hori dela medio, lehen bezain bermaturik.

h) Herritik kanpora (gero era herritik urrunago, normalean arnasgune-esparrutik kanpora) egiten dute guraso berriek lan. Bigarren edo, gero eta maizago, hirugarren sektorean dihardute.

i) Garraiobide (karretera, trenbide, geltoki eta aireportu) nagusietatik, orobat industrialde eta merkataritza-gune aktiboenetatik, orain ere konparatiboki “urrun” daude arnasguneak baina, azken berrogei

urteko lurralde-antolamendu berriaren eraginez, gero eta moder-
notasun ekonoteknikoaren esparruarekin konektatuago daude.

j) Kultura tradizionalaren zenbait zantzu bizirik dute bertako biz-
tanleek, orain ere, eguneroko bizimoduaren hainbat esparrutan; glo-
balizazioaren eraginezko pauta supraetnikoen hazkunde-eztandak
gero eta erasanago dauzka ordea. Nolanahi ere, ahuldutako hiz-
kuntzaren belaunez belauneko jarraipena ezin da belaunaldi berriak
berekin duen (bere neurrira birmoldatzen duen) sozializazio-bidetik
disoziatu. Funtsezkoa da, alde horretatik, Ochs eta Schieffelin-en
edota Luykx-en ildotik Paula Kasares-ek azaldu berri duen ikuspegia
oso gogoan izatea¹⁹¹.

k) *Gemeinschaft* girotik *Gesellschaft* moldera pasatzen ari dira arnas-
guneetako biztanleak¹⁹². Batez ere bertako biztanle gazteenak, bate-
tik, eta kanpotik etorri berriak, bestetik. Nor bere etxean (gero eta
usuago etxe unifamiliarrean) biltzen da familia-gune berria, herri-
tarrekin eguneroko kontaktu handirik gabe: hots, auzolanez, talde-
ospakizunez eta abarrez herri-giro bizirik berreraiki gabe. Soziali-
zazio-pauta berri horrek kanpo-munduarekiko lotura indartzen du
familia berrietan, eta herri-giro bizia ahultzen.

l) Punturen batean edo bestean, euskararen presentziak gora egin
du arnasguneotan: eskola D eredukoa dute beti, adin-tarte batera
(8, 12 edo 16 urtera) arte. Euskal irrati-saioen kontsumoak ere gora
egin du arnasguneetan, itxura denez. Euskarazko prentsak eta euskal
telebistak, aldiz, ez dute aparteko arrakastarik lortu.

3.5.3 Arnasgune beteak eta erasanak

Aurreko bi pasarteetan azaldutakoa nolabait sistematizatu eta operati-
bizatzeko, egokia gerta liteke arnasgune *beteak* eta *erasanak* bereiztea.
Orain puntura arte ezaugarri hauek definitu izan dute *arnasgunea*, no-
labait behar-eta *arnasgune betea* esango dioguna: a) euskaldunen kon-
tzentrazio handia, hainbat kasutan eskualde osora hedatua; b) trasbase
demografiko murrizta; c) garraiobide nagusietatik, orobat industrialde
eta merkataritza-gune handietatik, urrun(sko)¹⁹³ (konpartimentazio fi-
siko-territoriala); d) hurbileko harreman-sareak, maiz aurrez aurre-
koak¹⁹⁴, nagusi; e) euskara jaun eta jabe etxean, lagunartean eta herri-
giro zabalean; f) lana bertan edo inguruan (askotan euskaraz); g) diglosia
nagusi: konpartimentazio soziofuntzional orokorra, argia eta egonko-
rra¹⁹⁵; h) ohiko kultura sendo (jan-edanean, kirol-jolasetan, bertsotan
eta karta-jokoan, fede-sinesmenean, emandako hitzari eusteko ohituran);
i) *Gemeinschaft* giroa bizirik¹⁹⁶; j) kanpo-munduarekiko loturak ahul, he-

rri-girokoak indartsu. Horren guztiaren ondorioz, k) euskararen belau-
nez belauneko jarraipena sendo, eta l) biztanleen ama-hizkuntza euskara
(herritarrak “euskaldun zahar”).

Arnasguneak ahultzen ari dira oro har: a) euskaldunen kontzentrazio-
maila ahultzen ari da bertan; b) biztanle-kopuruz (oso) txiki dira (herri-
herrixka edo auzo), eskualde mailako arnasguneak ia erabat galdu di-
relarik¹⁹⁷; c) trasbase demografikoa gora doa bertan (hainbat gazte
kanpora doa eta kanpoko hainbat herritar erdaldun edo erdal-elebidun
bertara dator, banaka edo bikote moduan); d) garraiobide nagusiak gero
eta eskuerago: harreman-sare fisikoak irismenez zabaltzen eta diberti-
fikatzen ari dira; e) lanera gero eta urrunago joan behar, lan-hizkuntza
nagusia erdara izanik sarri; f) erosketa, aisialdiko hainbat ekimen bezala,
herritik gero eta urrunago (herriburuan edo hiriburuan); g) konparti-
mentazio soziofuntzionala ahultzen edo hausten ari (hainbat erdaraz
mintzo da; irakurri eta idatzi, aldiz, gero eta sarriago euskaraz); h) min-
tzaldaketa agertzen hasi da, zenbaitetan; i) biztanle batzuen ama-hiz-
kuntza erdara da, edota euskara-erdarak (“euskaldun berri” gehiago);
j) kultura supraetnikoa gailentzen ari; k) *Gemeinschaft* giroa galduz doa;
l) kanpo-munduekiko loturak sendotuz doaz, herri-girokoak ahulduz.
Horren guztiaren ondorioz, m) euskararen belaunez belauneko jarrai-
pena ahultzen eta urratzen ari da. Ez erabat, kasu gehienetan; bai oro
har, hein batean. Arrazoizkoa dirudi, egoera honetan arnasgune beteak
(BZ-5, BZ-6a) eta erasanak (BZ-6b) bereiztea. Egia da *continuum* batetik
hurbilago gabiltzala sarri, dikotomia zorrotzetik baino: kontuz hartu
behar dira, hortaz, *arnasgune bete* eta *arnasgune erasan* terminoak. Kontuz
hartzeko bereizketa izanik ere, zati biko azalpen hori baliagarri dela
iruditzen zaigu: ahuldadeak ahuldade, *continuum* horretako aldakorta-
sun-joera nagusien nondik norakoaz jabetzen eta, hein batean, eztabaida
kontzeptuala errazten laguntzen du.

Labur bilduz, eta lehen hurbilketa gisa, honako taula honetan ageri dira
arnasgune beteen eta erasanen ezaugarriak: batetik hamar ingurumen-
baldintza, bestetik bost ondorio soziolinguistiko.

25. taula: Harnasgune bete eta erasanak ingurumen baldintzen arabera.

	ingurumen-baldintzak	Arnasgune beteak	Arnasgune erasanak
a	euskaldunen kontzentrazio-maila	handia	ohargarria, baina ahulduz doa
b	arnasguneen lurralde-hedadura	herrixka, herria, maiz herriburua eta, partez, eskualde osoa	auzoa, herrixka, herria; inoiz herriburua; ia eskualderik ez
c	trasbase demografikoa	txikia	ohargarria, inoiz handia
d	garraiobide, industrialde eta merkataritza-gune handietatik hurbil/urrun	denboraz (ez beti kilometroz) urruti	gero eta hurbilago, denbora aldetik
e	lana non, euskaraz/erdaraz, hitzez/idatziz	bertan edo inguruan; lan-hizkuntza nagusia euskara; gehienetan hitzez	gero eta urrunago; lan-hizkuntza nagusia erdara; idatzizko jarduna gorabidean
f	erosketa, aisialdia etab non	herrian bertan, inguruko batean edota herriburuan (hiriburuan)	herritik gero eta urrunago
g	ohiko kultura	sendo	bizirik baina aski ahuldurik
h	<i>Gemeinschaft</i> / <i>Gesellschaft</i> giroa	<i>Gemeinschaft</i> bizirik	<i>Gesellschaft</i> nagusi, <i>Gemeinschaft</i> ahul
i	kanpo- eta barne-loturak	kanpo-munduarekiko loturak ahul, herri-girokoak indartsu	kanpo-loturak gorabide bizian: turismoa, ikasketak, <i>internet</i> , komunikabideak,...
j	<i>hurbileko harreman-sareak</i>	sendo	ahultzen ari, urrunagokoen fabore
	ondorioak	Arnasgune beteak	Arnasgune erasanak
1	eguneroko jardun arrunta, herrian	euskara jaun eta jabe	euskara nagusi, erdara aski bizkor
2k	diglosia	hein bateank biziriki, ahulduz badoa ere	nabarmen ahulago
3l	mintzaldaketa	<i>eus</i> > <i>erd</i> ez; <i>erd</i> > <i>eus</i> bai, partez	<i>eus</i> > <i>erd</i> handirik ez, baina gora doa
4	ama-hizkuntza	euskara, beti edo ia beti	gehlenetan euskara, maiz erdara
5	belaunez belauneko jarraipena	bizi-bizirik	bizirik baina ez lehen bezain sendo

4. ZERGATIK?

I

Azken bizpahiru hamarkadotan aurrera egin du euskararen erabilerak, euskal jardunak, eskualde edo herrialde jakineko jardungune berri¹⁹⁸ batzuetan. Atzeraka doa, aldiz, jardungune basikoagoetan, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen-berme direnetan; desagertuz doa erabilera hori, horrezaz gainera, zenbait lekutan. Zergatik goaz aurrera? Zergatik atzera? Zergatik atzera eta aurrera? Zergatik abiadura diferentez? Honelako galderei erantzun nahi zaie hemen, labur-labur. Atzekoz aurrera hasiko gara kontuak ateratzen.

4.1 Zergatik goaz atzera?

Milaka hizkuntza dira munduan, eta hizkuntza horietariko gehienek arras hiztun gutxi dute¹⁹⁹. Milaka hizkuntza “txiki” horietariko asko galtzeko zorian daude²⁰⁰: ikus, adibidez, *Foundation for Endangered Languages (FEL)* erakundeak horretaz esan berri duena (*Ogmios* aldizkaria, 27 zkia.). Galdu eta galdu ari dira hizkuntzak munduan, batetik; gero eta indartsuago dira hiztun-kopuruz eta erabilera-moldaeraz hizkuntza handi batzuk, bestetik²⁰¹.

Jende asko da munduan zehar, bere buruari galdera hau egiten diona: “zergatik ari dira hainbat eta hainbat hiztun-herri (hiztun-herri osoak, bertako hiztun-talde jakinak eta, bereziki, herri(-zati) horien hizkuntza propioak) ahultzen, bakantzen eta galtzen? Zergatik gure hizkuntza, konkretuki? Lekuan lekuko *language loyalist* edo hizkuntzazaleek batetik, eta hizkuntza-soziologoez, antropologoez, linguistek eta gainerako adituek bestetik, era askotako erantzunak ematen dizkiete galdera horiei. Galdera batzuk aski lokal-konkretuak dira. Beste batzuek, aldiz, perspektiba transetnikoa dute eta mundu zabaleko fenomenoari nonahi aplikatu dakiokeen erantzun-marko kontzeptuala eskaini ohi dute. Azken hauetan zentratuko gara labur-labur. Honela dio, esate baterako, *Foundation for Endangered Languages (FEL)* delakoak: “Some of the forces which make for language loss are clear: the impacts of urbanization, Westernization and global communications grow daily, all serving to diminish the self-sufficiency and self-confidence of small and traditional communities. Discriminatory policies, and population movements also take their toll of languages. In our era, the preponderance of tiny () language communities (hiztun-elkarte txikiak edo txiki-txikiak) means that the majority of the world’s languages are vulnerable not just to decline but to extinction.” (*Foundation for Endangered Languages (FEL)*: *Ogmios* aldizkaria, 27 zkia; 2015-VIII-31). Argi dago beraz, ahuldutako hainbat eta hainbat hizkuntza FELeu ustez zergatik galtzen ari den: a) the impacts of urbanization, b) Westernization, c) (constant growth of) global communications, d) discriminatory policies eta e) population movements.” Hots, bost motibo horien baterabilduzko eraginak egunetik egunera ahulduagorik dauzka milaka hizkuntza (milaka hizkuntza horien sorburu, oinarri eta agerbide diren hiztun-herri), eta belaunaldi gutxiren buruan (agian belaunaldi batean edo bitan) desagerrarazi egingo ditu. Eragin jakina dute bost motibo horiek ahuldutako hiztun-herriongan: “they all serve to diminish the self-sufficiency and self-confidence of small and traditional communities”.

Zergatik ari dira hainbat eta hainbat hiztun-herri (hiztun-herri osoak, bertako hiztun-talde jakinak eta, bereziki, herri(-zati) horien hizkuntza propioak) ahultzen, bakantzen eta galtzen? Zergatik gure hizkuntza, konkretuki?

**Hizkuntza ahula
erabiltzeko (are
defendatzeko)
debekua.**

**Dislokazio
fisikoa.**

**Dislokazio
demografikoa.**

**Dislokazio
soziala.**

**Dislokazio
kulturala.**

Beste aditu askok ere antzeko motiboak plazaratu ditu, gertatzen ari dena zergatik gertatzen ari den adierazteko. Azalpen sistematizatu, landu eta adituen artean erabiliena Joshua A. Fishman-ek, 1964-1966ko *Language Loyalism in the United States* famatuan²⁰² eta handik aurrera, *language maintenance and language shift* izenburupean sorturiko konstruktua dugu²⁰³. Han bertan hasita, *language shift* kontzeptua behin eta berriro jorratua du Fishman-ek, eta bere ondoren beste askok (tartean Calvin Veltman-ek: ikus 1983ko bere *Language Shift in the United States* erraldoia²⁰⁴). Sarritan planteatu izan du Fishman-ek ahuldutako hiztun-herriak zergatik mintzaldatzaren diren (hots, zergatik *language shift* prozesuan barrena doazen). Euskal herrian hiru aldiz izan berri zelarik, 1991ko *Reversing Language Shift* famatuan emandako azalpena gogoangarria da orain ere. Bere azalpena laburbilduz inoiz idatzitakoaren argitan (Zalbide, 2001), honako bost faktoreek eragin bizia (izan) dute euskararen atzerabidean.

- a) *Hizkuntza ahula erabiltzeko (are defendatzeko) debekua*²⁰⁵;
- b) *dislokazio fisikoa*: gosetea²⁰⁶, katastrofe naturalak²⁰⁷ eta txikizioak²⁰⁸
- c) *dislokazio demografikoa*²⁰⁹: euskaldunok emigratzea edo erdaldunek bertara immigratzea²¹⁰. Haurgintza nabarmen ahultzea edota haurrik ez egitea²¹¹. Elearteko nahas-bikoteak. Baserritar edo herri txiki baten biztanle izandakoak kaletartzea, urbanizatzea²¹².
- d) *Dislokazio soziala*: giza arteko eten-urratzea: ukipen-kontaktuan dauden *language-in-culture* direlakoen artean dagoen ahalmen- edo botere-desoreka berdinu nahi eta ezina²¹³.
- e) *Dislokazio kulturala*: modernitate supraetnikoaren eta jatortasun etnokulturalaren artean elkarbizitza berriturik moldatu ezina²¹⁴

Antzeko bidetik dabil *Foundation for Endangered Languages (FEL)* delakoa, gorago ikusi dugunez. Hark ere dislokazio demografikoa (“population movements”; “urbanization”), eta dislokazio soziokulturala (“Westernization and global communications”) aipatzen ditu batetik; Fishman-ek “hizkuntza ahula erabiltzeko (are defendatzeko) debekua” jarri ohi zuen lekuan, bestetik, azalpen zabal eta, aldi berean, gure egungo egunerako kontzeptualki doiagoa dakar *FEL*ek (“Discriminatory policies”).

Alde eta aldi orotakoak dira bost faktore horiek. Lehengoak lehengo direla, gure gaurko kontestuan zer pisu dute bost faktoreek? Labur bilduz, zera esan liteke: azken 20 edo 30 urtean oso balio-indar ahula izan dute a) eta b) faktoreek, baina ez dira gauza ezezagunak izan orain gutxira arte; c) faktoreaz denaz bezainbatean, euskaldunok jaioterritik


kanpora (Espainiara, Frantziara, Ameriketara) joan izana aski fenomeno ezaguna izanik da zenbait mendez, eta kanpotarrak Euskal herrira (batez ere Bizkai-Gipuzkoetara, gero Arabara eta Nafarroara) samaldan etorri izana ere bai, 1880tik aurrera bereziki. Mugimendu bortitz haien aldean txikia da oraingo migrazio-balantzea, baina herri-giro arruntean euskara nagusi den (edota orain puntura arte hala izan den) hainbat lekutan eragimen bizikoa gertatzen ari da: euskal-erdal bikoteak ugarituz doaz, bertako (edo kanpoko) erdaldun-jendea dator bertan bizi izatera joaten bertakoak erdara nagusi den esparruetara biltzen ari dira; hots, orain ere aurrera darrai dislokazio demografikoak; zerrendako c) elementu horrekin batera d) eta e) faktoreak dira, egungo egunean, bortizkien eragiten ari direnak²¹⁵.

Hirugarren faktorea (*dislokazio demografikoa*) zertxobait zehaztuz, azken hamarkadotako immigrazio kasuetan nabarmen antzematen dira hiru elementu bereizgarri: immigrazio hori bat-batekoa, kolpekoa den ala apurka-apurka gertatzen ari den; kopuruz eta “etorkin/bertako” proportzioz bortitza den edo ahula, eta bertako herri-giroan bertako hizkuntza nagusi den ala ez, erdararen aurrez aurre. Kolpeko fenomenoetan zentratuz, ez da berdin hamar familia erdaldun²¹⁶ Azpeitira etortzea bizi izatera, Asteasura joatea edo Mutiloara. Azpeitiak daukan inkorporazio-ahalmenik ez dauka Asteasuk, are gutxiago Mutiloak. Ezaguna da fenomeno hori hemendik kanpora ere. Etorkinen kokagune berriaren biztanle-kopuruak eta bertako hizkuntzak bertako herri-giro informalean daukan nagusitasunak (edo nagusitasun faltak) eragin bizia du hizkuntza-ukipeneko $K > B$ prozesu ororen emaitza posibleetan: hots, B , K edo $B+K$ ondorioetan. Nabarmena da hori, adibidez, Suitzako lau hiztun-herrien zatibiketa soziolinguistiko argian²¹⁷.

“kolpekoa” diogunean ez dugu noski esan nahi, guziak urte bakarrean edo hamar urtean etorri direnik. Hogei edo hogeita bost urteko tartea nahiko kolpekoa da hiztun-herri baten bizieran. Demagun, esate baterako, Zumarragan batez ere 1950-1970 epe-inguruan gertatua:

***Mugimendu
bortitz haien
aldean txikia da
oraingo
migrazio-
balantzea, baina
herri-giro
arruntean
euskara nagusi
den (edota orain
puntura arte hala
izan den) hainbat
lekutan eragimen
bizikoa gertatzen
ari da: euskal-
erdal bikoteak
ugarituz doaz,
bertako (edo
kanpoko)
erdaldun-jendea
dator bertan bizi
izatera joaten
bertakoak erdara
nagusi den
esparruetara
biltzen ari dira.***

5. grafika: Zumarragako biztanleriaren bilakaera.



Zumarragako bilakaera demografikoak ezaugarri nabarmena du, Aitor Lizarazuk eskainitako informazioaren argitan: azken gerra ondoren, batez ere 1950-1970 tartean, kanpotik samaldan etorritako langile-multzo zabalen immigrazioa²¹⁸. 3.800 biztanle inguru izatetik 12.000tik gora izatera pasa zen Zumarraga 20 urtean. Bete-betean sartzen da hazkunde hori “kolpeko immigrazioa”-ren sailean. Herri guztiek ez dute Zumarragaren pareko immigrazio bortitz eta kolpekorik jasan, baina ez dira gutxi alor horretan Zumarragaren antzera ibili direnak. Etorkin horietariko asko erdaldunak zirenez (edota, jatorriz euskal hiztun izanik, erdal hiztun bihurtu zirenez lantegi-giro berrian) herri-giroko mintzajardun informalean inpaktu bizia izanik du kolpeko immigrazio horrek.

Azalpen batzuek batera bildurik eman ohi dituzte goiko bost faktoreak, edota bost horietariko zenbait. Ondoko azalpenean, esate baterako, goiko a), d) eta e) faktoreak elkarrekin loturik datoz, partez kausa-ondorio moduan: “Language endangerment may result of external forces such as military, economic, religious, cultural or educational subjugation, or it may be caused by internal forces, such as a community’s negative attitude towards its own language. Internal processes often have their source in external ones, and both halt the intergenerational transmission of linguistic and cultural traditions. Many indigenous peoples, associating their disadvantaged social position with their culture, have come to believe that their languages are not worth retaining. They abandon their languages and cultures in hopes of overcoming discrimination, to secure a livelihood and enhance social mobility or to assimilate to the global marketplace.”²¹⁹

4.2 Zergatik goaz aurrera?

Laburkiro emango dugun erantzunak ez du, aurreko kasuan bezala, teoriak oinarri handirik. Bibliografia zabalik ere ez. Eskainiko ditugun azalpenak lehen hurbilketa-saio huts dira beraz, aparteko kontrasterik gabeak oraingoz. Oro har, euskarak aurrera egin duela esaten dugunean ondoko elementuotan fijatu ohi gara euskaldunok, gutxi-asko:

- a) Hizkuntza bera landu, bateratu eta eginbehar berrietarako ego- kitu, moldatu eta aberastu egin dugu.
- b) Hiztunen artean asko dira, lehen baino askoz gehiago, hitz egiten jakiteaz gainera euskaraz irakurtzen eta idazten dakitenak.
- c) Euskaldunen (euskaraz dakitela diotenek) kopuru absolutuak bi- lakaera positiboa izan du oro har (ez herrialde guztietan), eta oso igoera deigarria herrialde eta adin-tarte jakinetan.
- d) Euskarak orain gutxira arte debeku izan dituen hainbat jardungu- netan euskaraz egiten da gero eta neurri zabalagoan: eskolan, uni- bertsitatean, administrazioan, idatzizko prentsan eta ikus-entzunezko komunikabideetan. Baita, hein batean, lan-mundu kualifikatuan ere.
- e) Euskalgintza sendoa zabaldu da han-hemen, bai *top-down* for- mulazioaz eta bai *bottom-up* gisakoaz, euskara gero eta jardungune, harreman-sare eta situazio komunikatibo gehiagotara hedatuz²²⁰. Hizkuntza-normalkuntza izan da, oro har, asmo zabal horren erre- ferente kontzeptual nagusia.
- f) Hizkuntza-soziologia aztergai monografiko bihurtu dugu azken hamarkadotan, atzerriko informazioa bertaratuz eta gure arteko go- goeta informatuari ateak zabalduz.

Gatozen, beraz, hasierako galdera horretara. Zergatik ari gara gorantz, ez beherantz, “goi-mailako” jardungune jakinetan? Ez dugu galdera horri erantzun betea ematen dion analisi xumerik ezagutzen. Lehen hurbilketazko hipotesi minimoa honako hau izan liteke: euskaldun-jen- dearen eskariak eta herri-aginteen deliberoak, elkar harturik, ekarri dute zabalkunde soziofuntzional hori. Hala dira kontuak EAEn, hein ohargarrian; neurri mugatuagoan gertatu da hori Nafarroan, eta nabar- men mugatuagoa da kontua Iparraldean.

4.3 Zergatik egin da gora edo behera, zergatik abiadura diferentez?

Leku batzuetan, adin-talde jakinetan eta zenbait jardungunetan aurrera egin da gure artean, azken hamarkadotan, euskarazko jardunari dago-

Zergatik ari gara gorantz, ez beherantz, euskarazko jarduna “goi-mailako” jardungune jakinetan? Lehen hurbilketazko hipotesi minimoa honako hau izan liteke: euskaldun-jendearen eskariak eta herri-aginteen deliberoak, elkar harturik, ekarri dute zabalkunde soziofuntzional hori. Hala dira kontuak EAEn, hein ohargarrian; neurri mugatuagoan gertatu da hori Nafarroan, eta nabarmen mugatuagoa da kontua Iparraldean.

**“Euskararen
lurraldearen
barruko hiru
erkidegoetan
euskarak izan
duen bilakaera
askotarikoari so,
esan liteke
euskararen
bilakaera soziala
baldintzatzen
duten faktoreak
direla, beste
zenbaiten artean,
lege estatusa,
herri-aginteen
hizkuntza
plangintza eta
politika, eta
herritarren
atxikimenduaren
neurria, eta,
ondorioz, hiru
faktore horien
arteko loturaren
tamaina”.**
(Baztarrika,
2013: 12).

kionez. Aldiz beste zenbait adin-taldetan, zenbait lekutan edota, leku berean, beste zenbait jardungunetan atzera egin dugu edota aurrera egin ezinik ari gara. Atzera-aurrera horiek, norabide berekoak izan direnean ere, ez dira gainera nonahi eta noiznahi abiadura berekoak izan. Nola esplikatu aldakortasun-espektro hori bere konplexutasun osoan? Ez da lan erraza: aurreko puntua landu-arin baldin badago teoriaz (eta hala dago gure ustez), are oinarri ahulagoak ditu oraingo galdera honi dagokion erantzun-saio teoria-asmozkoak. Hasieran esan duguna baliagarri izanik ere oro har, konkrezio-maila handiagoa eskatzen du oraingoak, abiadura diferenteen azalpen zehatzera hurbildu ahal izateko. Grosjean-en 1982ko saioa gorabehera²²¹, halako konkrezio kontrastaturik ez dago, dakigula, inon: bat gatoz horretan Calvin Veltman-ekin (1983: 10).

Hainbateko zehaztasun-mailara iritsi gabe posible da ordea, hemen ere, lehen hurbilketa-saio globalik egitea. Horrela, hizkuntza-politikaren perspektiba instituzionaletik erantzun konkretua emanik dio galdera global horri Patxi Baztarrikak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordeak. Bere hitzetan esanik “euskararen lurraldearen barruko hiru erkidegoetan euskarak izan duen bilakaera askotarikoari so, esan liteke euskararen bilakaera soziala baldintzatzen duten faktoreak direla, beste zenbaiten artean, lege estatusa, herri-aginteen hizkuntza plangintza eta politika, eta herritarren atxikimenduaren neurria, eta, ondorioz, hiru faktore horien arteko loturaren tamaina”. (Baztarrika, 2013: 12).

Hiru faktore horiek gogoan izatekoak dira, dudarik gabe: nazio arteko bibliografia teknikoak hala dio maiz asko. Gurera etorritz argi dago, orobat, euskal hiztun-elkartearen egungo barne-bilakaera diferenteen iturrian daudela: faktore horiek kontuan izan gabe nekez esplika liteke azken hamarkadotan hemen gertatzen ari dena. Begien bistakoa da, bestalde, faktore horiek ez direla bakarrak: zerrenda hirukoitz horren osagarri, goiko pasarte horretan aipatzen den “beste zenbaiten artean” sartzekoak dira faktore demografikoak²²² eta lurralde-antolamenduzkoak²²³, ekonoteknikoak²²⁴ eta soziokulturalak²²⁵ ere. Beste faktoreok loturik daude hein batean goiko zerrenda hirukoitzeko lehenengo bi elementuen oinarrian dagoen *institutional support* delakoarekin. Loturik egonda ere ez dira, ordea, *support* horren ondorio huts. Faktore posibleen konstelazio guztia batera bildu eta nahas-multzo horretatik konstruktua sintetiko, koherente eta argi-emailea moldatzea ez da batere lan erraza. Egin gabeko lana dugu hori, hein handian: egin gabeko baina egin beharreko lana, bihar edo etzi esplikazio-ahalmen zabaleko konstruktua baliagarri batera iritsi ahal izateko.

4.4 Une jakinean zergatik egiten da euskaraz gehiago edo gutxiago?

Hizkuntza-soziologiaren eta horren baitako demolinguistikaren perspektibatik zehaztapen argia egin da inoiz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik, V. Inkesta soziolinguistikokoaren lanketan jardundako lantalde teknikoaren eskutik seguruenik. Iparraldeko egoeraz ari delarik, adibidez, euskararen erabilera eragiten duten faktore nagusiak euskaldunen dentsitatea harreman-sarean, eta euskaraz egiteko erraztasuna direla zehazten da bertan²²⁶. Bi faktore horiez gain, badira beste batzuk ere eragina dutenak, hala nola, lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa. Faktore horiek guztiek fluktuazio jakin-garriak dituzte jardungune batetik bestera²²⁷."

4.5 Zer ingurumen-girotan ari da euskararen erabilera gora, behera edo bietara egiten?

Inoiz zehatz samar azaldu izan dugunez²²⁸, hizkuntza-erabilerak azken hamarkadotan gure artean izan dituen gorabeherak ulertzeko ondoko elementuok kontuan hartzea komeni da gutxienez:

- 1) Bilakaera demografikoa²²⁹: haur-jaiotzen (1978tik honako) erabateko jaitsiera; gazte euskaldunen emigrazioa (batez ere unibertsitate mailako lizentziatuena eta are doktoratuena); immigrazioaren goraldi berria;
- 2) Bilakaera ekonoteknikoa: azken urteotako krisialdi gogorak bi ondorio ekarri ditu, lehengoez gain: a) soldata apaleko/apalagoko langileak lehenetsi beharrak euskal muinguneetara eraman du hainbat erdaldun gazte eta heldu (herri txikietako tabernetako barran edo mahai zerbitzen, adibidez); bertako gazteen lan-merkatua zabaldu egin da irismenez, bestalde: lehen maizenik herrian edo eskualdean egiten bazen lan, Lurraldean eta, are, hortik gorako esparru zabala-goetan bilatzen da orain soldata, ez goi-mailako irtenbide profesionaletan bakarrik. Horrezaz gainera, fenomeno formalki berria gertatu da azken 40 urte inguruan: euskara irabazpide bihurtu da milaka profesionalentzat, batez ere hezkuntza munduan baina ez hor bakarrik. Une honetan 40.000 profesional inguru, gure estimazioen arabera, egon liteke EAEn bakarrik situazio honetan. Ez da maila horretako inplikazio sozioprofesionalik izan Nafarroan (baina ez da hutsaren hurrengoa han ere); are ahulagoa izan da inpaktu hori Iparraldean.
- 3) Bilakaera soziokulturala: Familiak eta ingurumen hurbilak lehen baino babes-ingar ahulagoa du orain: sozializazioaren gero eta zati

**Bilakaera
soziokulturala:
Familiak eta
ingurumen
hurbilak lehen
baino babes-
ingar ahulagoa
du orain:
sozializazioaren
gero eta zati
handiagoa
familiaratik
kanpora osatzen
da;
Sekularizazioa
ingar betean
garatu da.
Aisialdi
antolatuen eta
turismoaren
zabalkundeak
eragin bortitza
izan du hitzunen
bizimoduan,
tarteetan "norekin
zer hizkuntzatan
hitz egin"
definitzeko
orduan; Atzerria
etxean dugu
jadanik:
ingelesaren
irrupzioa gogorra
da dagoeneko.**

**“Bilakaera
demografikoak,
ekonoteknikoak,
soziokulturalak,
politiko-
operatiboak eta
lurralde-
antolamen-
duzkoak eragin
bizia izan ohi du
hizkuntza
kontuan.**

handiagoa familiatik kanpora osatzen da; sekularizazioa indar be-
tean garatu da, eta lehen ez bezalako balio-sistema ari da gailentzen.
Aisialdi antolatuen eta turismoaren zabalkundeak eragin bortitza
izan du hiztunen bizimoduan, tartean “norekin zer hizkuntzatan
hitz egin” definitzeko orduan; atzerria etxean dugu jadanik: ingele-
saren irrupzioa gogorra da dagoeneko, eta ez dirudi bere eragina
une batekoa izango denik;

4) Bilakaera politiko-operatibo konplexua: EAEko, Nafarroako eta
Iparraldeko soziologia elektoralak aski ezaugarri desberdinak ageri
ditu oro har. Desberdintasun horiek bere eragina dute euskalgintza
instituzionalari han-hemen ematen zaion babes-oinarri legal, eko-
nomiko eta ideologikoan. Jaurlaritzaren, Nafarroako Foru Gober-
nuaren eta Aldundien alorrean euskara-eredu bateratuak sarbide
zabala izan du, orobat komunikabide publiko eta pribatuetan.

5) Lurralde-antolamenduen bilakaera bortitza: Bide-sare berrituak
nabarmen laburtu du arnaguneen behinolako babes-distantzia fisiko-
tenporala. Bost hiriburuak, aireportuak eta industriagune nagusiak
aski elkarren pegante jarri ditu bestalde bilakaera horrek, probintzien
arteko bereizbideak hainbatean gesalduz. Hiriek gainezka egin dute
eta kanpora irten dira. Industriaren eta teknologia-guneen kokaera be-
rriak nabarmen birmoldatu du milaka profesionalen koskaera espaziala.

Honela ematen genion amaiera analisi horri, 2007an: “bilakaera demo-
grafikoak, ekonoteknikoak, soziokulturalak, politiko-operatiboak eta
lurralde-antolamenduzkoak eragin bizia izan ohi du hizkuntza kontuan.
Gure arteko bibliografia teknikoak aitortu ohi duena baino nabarmenki
handiagoa²³⁰. Aurrez aurreko eta are urruneko harreman-sare tradizio-
nalen birmoldatzaile gertatzen dira, sarri, bilakaera horiek. Erdal auza-
tegiz edo erdal zona erresidentzialez²³¹ bete(tzen ari) dira zenbait ar-
nagune, orain gutxira arte indarrean zuten euskal giroa nabarmen
ahulduz eskolatik kanpora²³². Language shift edo luze-zabaleko min-
tzaldaketaren eszenario bihurtu dira, mende-laurden honetan, arnas-
gune horietariko zenbait. EEN legea onartu zenetik hona eskolan egin
eta egiten den indarberritze-saioa eta eskolatik kanpora eragiten dena
ez doaz askotan elkarren eskutik: elkarren kontra doaz hainbat kasutan,
eskolagintza euskalduna eta lurraldearen berrantolamendu erdalduna.
EAEko hizkuntza-politika ez da Kultura eta Hezkuntza Sailetan bakarrik
erabakitzen. Funtsezkoak dira, horiezaz gainera, populazioaren haz-
kunde moldea, lurralde-antolamendua eta lan-esparruaren ordenazio
berria hurbilenetik eta sendoenik eragiten duten instantziak. Goiko bi
esparru tradizionalok baino funtsezkoago, oro har, ikuspegi demolin-

guistiko globaletik. Beste hiru instantzia horiek (populazioaren hazkunde moldea, lurralde-antolamendua eta lan-esparruaren ordenazio berria) izan dira, azken mende-laurden honetan, EAEko hizkuntza-politikaren parametro askoren eragile nagusiak. Beren eraginaren nagusitasuna areagotu egingo da, itxuraz, hurrengo mende-laurdenean.

Lurralde-antolamenduak eta lan-esparruaren ordenazio berriak ahultutako hiztun-taldearen autorregulazio soziokulturalean duten garrantzia hain nabarmena izanik ere, ez dago motiborik modernizazioaren aurkako plan-teamendurik egiteko. Soluzioa ez dago lehenari iltzaturiko “euskararreserba” etnolinguistikoetan. Are gutxiago demarkazio eskualdekatu hutsean, Irlandako *Gaeltacht*-ak ere behar adinako neurrian azaldua duenez. Biziko bada lana eta jana behar du arnaguneetako jendeak, lehenik eta behin. Mundutar zabal sentitzeko komunikabideetarako lotura-aukera eta bizimodua itxura gabe ez oztopatzeko behar besteko zerbitzu-eskaintza (eskola, osasun-atentzioa, erosketa-gunea) eta aisialdi erakargarria ere bai, herrian geldituko bada beste norabait lekualdatu gabe. Gazteak herritik kanpora joaten dira bestela, eta zaharrak bertan hil ahala beherantz hasten da herria: kanpotikakoen demografia-hazkunderik gabe ere galtzen dira han-hemen, sarri asko, hiztun-taldeak eta hiztun-elkarte osoak. (..) Soluzio magikorik ez dago: faktore asko hartu behar dira kontuan, horrelako ebaluazioa egiterakoan. Kontestu multifaktorial horretan txertatu behar da, ezinbestean, Zazpi probintzietako herri-aginteen jarduna eta etekina. Fenomeno soziala da hizkuntza, kontestu elebakarrean zein elebikoan.”

5. ZERTATIK GAUDE GAIXO, ETA NORAINO? HIZTUN-ELKARTEEN OSASUN-DIAGNOSTIKOA

Galdera bi ditugu hor, erantzun zain. Bigarrenari egoki erantzun ahal izateko, kontu bat argitu behar dugu lehenik: zer “metro”, zer “termometro”, zer “neurpide” aukeratuko dugu hizkuntza baten osasun- edo gaixotasun-maila neurtzeko? Izendapen bakarrak jokatu badugu ere labur beharrez, *osasun-neurpideak* baino zuzenago *osasun-*, *gaixotasun-* edo *bideragarritasun-neurpideak* dira atal honen aztergai. Lan handia egin da azken mende-erdian²³³, kontaktu- edo ukipen-egoeran dauden hiztun-elkarteen indar-maila nola neurtu definitzen, hiztun-herri beregain gisa bizirik irauteko duten bideragarritasun-maila operatibizatzen eta azterbide osoa era konparatiboan aplikatzen. Beraiek baino indartsuagoko hiztun-herriekin edo soberania politiko zabaleko estatuekin ukipen-egoera iraunkorrean dauden hiztun-elkarteak, hiztun-taldeak edo harreman-sareak hartu izan ohi dira osasun-neurpide gehienetan aztergai.

**Horiek
(populazioaren
hazkunde
moldea, lurralde-
antolamendua
eta lan-
esparruaren
ordenazio berria)
izan dira, azken
mende-laurden
honetan, EAEko
hizkuntza-
politikaren
parametro
askoren eragile
nagusiak. Beren
eraginaren
nagusitasuna
areagotu egingo
da, itxuraz,
hurrengo mende-
laurdenean.**

**Hiru atal nagusi
konbinatuz jakin
liteke, BIE-EV-
ren arabera,
hiztun-elkarte
baten bizi-
indarra apala
den, ertaina edo
sendoa . Horra,
funtsean, bere
faktore-egitura.**


Diferenteak al dira osasun-, gaixotasun- eta bideragarritasun-eskala horiek? Formaz bai; edukiz ez hainbat²³⁴. Antz handia dute eskala edo formulazio gehienek Fishman-en 1991ko *GIDS* (euskaraz *BAEN*²³⁵) famatuarekin. Batzuek argi-argi aitortzen dute lotura hori; besteek ez dute halakorik egiten baina Fishman-en *GIDS*-eskalak bere ardatzean duen “ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena” kontuan hartzen dute guztiek, espresuki edo *de facto*. Quebec-eko *Ethnolinguistic vitality* edo *bizi-indar etnolinguistikoa* eta UNESCOren 2003ko *Language Vitality and Endangerment* eskala-multzoa dira, berehala ikusiko dugunez, formulazio horretatik (aski norabide desberdinez) gehien aldentzen direnak.

5.1 Osasun-neurpideak, batean eta bestean

Azken berrogei urteotako osasun-neurpide ezagunei dagokienez, ondo kontuan hartzekoak dira sei hauek: a) Quebec-eko *Ethnolinguistic vitality* edo *bizi-indar etnolinguistikoa* (laburduraz *BIE* edo *BIE-EV*); b) Fishman-en 1991ko *GIDS* edo *Graded Intergenerational Disruption Scale*, 2001ean eguneratua; c) Michael Krauss-en 1992ko bideragarritasun- edo ahuldade-mailaketa; d) ahuldutako Hizkuntzen *Liburu Gorriko* mailaketa (1994) edo *Ahuldutako Hizkuntzen Atlasekoa* (1996, 2001); e) UNESCOren *ad hoc* aditu-taldearen 2003ko *Language Vitality and Endangerment* eskala-multzoa eta, f) Lewis eta Simons-en 2010eko *Extended GIDS* edo *e-GIDS*. Gain-gainetik azalduko ditugu seiak.

5.1.1 1977ko Ethnolinguistic vitality edo bizi-indar etnolinguistikoa (laburduraz BIE edo BIE-EV).

Arras ezaguna da, mundu zabalean, H. Giles, R. Y. Bourhis eta D. M. Taylor-en 1977ko formulazioa²³⁶. Era batera edo bestera, maiz erabili ohi da *BIE-EV* hori; hemen ere aspaldidanik dugu aipagai²³⁷. Hainbat eguneratze- eta doitze-saio izan badu ere berrogei urteotan, konstruktaren muina betikoa da. Quebec-en joan den mendearen 70eko hamarkadan hain nabarmena zen egoera demolinguistikoa eta soziopolitikoa oso gogoan izanik²³⁸, baina deskribapen-tresna gisa han-hemen erabili ahal izateko asmoz, azken 40 urtean sortu den konstruktua nagusietarikoa da *BIE-EV*. Besteak beste direla, alde ditu *BIE* asmo-izaera orohartzailea batetik, kontzeptualki finduz eta eguneratuz zenbait adituk eginiko ekarpen teorikoak bestetik²³⁹, eta hainbat lekutan taxuz aplikatu izana azkenik. Hiru atal nagusi konbinatuz jakin liteke, *BIE-EV*-ren arabera, hiztun-elkarte baten bizi-indarra apala den, ertaina edo sendoa²⁴⁰. Horra, funtsean, bere faktore-egitura:



Faktore demografikoek osatzen dute lehen atal nagusia, institutional support edo institutional control alorrekoek bigarrena eta estatus-faktoreek hirugarrena.

Ukipen-egoeran dagoen hiztun-elkarte baten bizi-indarrean eragiten duten faktore sozioestruturalen taxonomia. (Richard Y. Bourhis-en 2008ko azalpena, egileak berak bere 2001a lanetik egokitua).

Faktore demografikoek osatzen dute lehen atal nagusia, *institutional support* edo *institutional control* alorrekoek bigarrena eta estatus-faktoreek hirugarrena. Hiztun-herri edo hiztun-elkarte baten osaera demografikoa, bere babes-oinarri eta kontrol-ahalmen instituzionala eta bere estatus-egoera analizatuz, hiztun-herri edo hiztun-elkarte horrek bizirik eta beregain irauteko ahalmena zenbatekoa duen argitu nahi du *Bizi-Indar Etnolinguistikoak*. Faktore demografikoen atala zehatz-mehatz egituratu izana bere alde du, oso, *BIE-EV* konstruktua²⁴¹. Argi bereizten ditu erabateko hiztun-kopurua²⁴², jaiotze- eta heriotze-tasak, adin-piramidea, endogamia-exogamien pisu erlatiboa eta immigrazio-emigrazio isuriak, lurralde barruko eta lurralde arteko joan-etorriak kontuan izanik²⁴³. Horrekin batera, eta agian horren gainetik, alde du konstruktua honek “distribution of L1 speakers” atal-zatian hiztunen kontzentrazio-gaiari berariaz eskaintzen dion leku argia. Gurea bezalako ingurumenetan

funtsezkoago da askotan hiztunen kontzentrazio hori, hiztun-elkartearen (edo bere baitako hiztun-talde jakinen) neurria baino. Konstruktua horren zenbait eragileren ustez, dena den, bigarren atal nagusia dago bizi-indar etnolinguistikoaren giltzarria²⁴⁴: *institutional support* eta, bereziki, *institutional control* alorretan. Honela mintzatuak dira Jake Harwood, Howard Giles eta Richard Y. Bourhis: “To the extent that dominant group members can use their power to establish their advantage relative to outgroup members (Sachdev and Bourhis 1991), it is clear that “institutional control” is the dimension of vitality par excellence available for ethnolinguistic groups to maintain and assert their ascendancy vis-à-vis competing ethnolinguistic outgroups.” (Harwood, Giles eta Bourhis 1994). Horri guztiari, hirugarren atal nagusia erantsi behar zaio: hiztun-herri edo hiztun-elkarte baten estatus-osaera, partez *institutional-support* delakoarekin lotua²⁴⁵: “The status variables are those related to a speech community’s social prestige, its sociohistorical status, and the prestige of its language and culture not only within the immediate confines of its territory, but internationally as well. It was proposed that the more status a linguistic community is ascribed to have on these items, the more vitality it could be said to possess as a collectivity.” (Harwood, Giles eta Bourhis, 1994: 170). Estatus atala ez da aurrekoak bezain kuantifikatzen erraza, egileen esanean: hori ere eragingarria da ordea²⁴⁶. Bistan da hainbat egoera deskribatzeko tresneria aberatsa eskaintzen duela BIE-EV konstruktua.

Baditu bestalde, neurpide guztiek bezala, bere ahuldade-mugak: BIE edo EV hori ez da, hasteko, interpretatzen²⁴⁷ eta aplikatzen erraza²⁴⁸. Interpretazio-arazoei dagokienez, hor dago *ethnolinguistics* kontzeptua nola tratatu behar den adosteko eragozpena. Operatibizatze ahulda-dei dagokienez, bestetik, sarritan perspektiba globalegiak jardutearen eragozpen-muga ikusten dio BIE-EV-ri Itesh Sachdev²⁴⁹. Hiru atal nagusiak justu-justu nola konbinatu behar diren ez dago, bestetik, argi: ez, behintzat, ranking zehatzik eskuratu nahi bada²⁵⁰. Hainbat hiztun-talderen bizi-indarra azpibalaratzeko dakarren arriskuaz mintzaturik dugu, bestalde, Kutlay Yagmur²⁵¹. Quebec-eko (eta, parez pare, Europako zenbait hiztun-herriak) gatazka soziopolitikoaren muin-muinean sortua izanik konstruktua, situazio sozial haiek ditu erreferente nagusi. Mundu zabaleko beste hainbat situazio aztertze, aldiz, ez da hain baliagarri: ele-aniztasunean oinarrituriko konpartimentazio egonkorrari, gatazka handirik gabeari, lekuri aitortu ez izana du BIE-EV-k, zenbaiten ustean, eragozpen nagusietarikoa²⁵². Kontuan hartzekoak dira muga horiek guztiak, jatorrizko eredua erabat indargabetzen ez badute ere.

Hori baino erreparo sakonagorik ere jasoa du BIE-EV-k. Bizi-indar etnolinguistikoaren kritikarik zorrotzena, dakigula, Joshua A. Fishman-ek 2001ean egindakoa da²⁵³. Bere ustez, a) BIE-EV-ri darion ikuspegia erredundantea eta lanerako kamutsa da alde batetik, eta ez du osaera teoriko sendorik bestetik: ez du lehentasunik ezartzen, ez dakar osagaien arteko barne-lotura sekuentzialik edota gertakari horien pisu erlatiboen haztapen-saio argirik, eta kanpoan utzitako elementuak zergatik baztertzen dituen ere azaldu gabe uzten du (*non-theoretical* da, bere esanean); b) deskribapenerako badu hainbat elementu interesgarri, baina preskripzio-indar argirik ez du: plangintza-lanerako ez du, beraz, balio handirik; c) funtsean, eta hori da gure ustez Fishman-en oinarri-oinarrizko erreparoa, BIE-EV-k ez du aurrez aurreko hizkuntzen funtzio-banaketa behar bezala kontuan hartzen. Distribuzio soziofuntzional hori nolakoa den, tartean distribuzio hori egonkorra den (diglosiazkoa) ala ez, kontuan izan gabe ezin da ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saio sendorik (hots, teoriak ongi informaturik) egin²⁵⁴: “any theory and practice of assistance to threatened languages (...) must begin with a model of the functional diversification of languages” (Fishman-en 2001).

Gatozen gurerara. Zertarako balio digu bizi-indar etnolinguistikoaren formulazioak “hemen eta orain”, eta zertarako ez? Hiztun-herri indartsuen eta ahulen arteko bereizkunde globala egiteko konstruktua egokia dugu BIE-EV: herri baten indar-maila globala aztertzeke tresnarik landuenezakoa da. Zenbait bertsiotan, gainera, hiztunen gaitasun-tipologia nagusiekin lotzeko balio izan dezake: gure arteko erdal-elebidunen multzo ugaria, esate baterako, egoki txerta liteke bertan (ikus Landry eta Allard, 1994). Deskribapen globalerako dituen abantaila horien ondoan, hiru eragozpen ikusten dizkiogu “hemen eta orain” probetxuz aplikatu ahal izateko: a) konstelazio etnokulturala bere osoan baloratzeko pentsatua egonik²⁵⁵, osotasun-prisma horrek ilundu egiten du konstelazio barruko errealtate nabar-konplexua²⁵⁶; b) gure ahuldadea (espazio geoterritorialean baino areago soziofuntzionalean) non dagoen zehazteko (eta indarberritzeko pauso nagusiak non eman argitzeko) motz gelditzen da BIE-EV, kategoria soziolinguistiko nagusi gehienak kontuan hartzen ez dituen²⁵⁷ esplizituki²⁵⁸, eta c) Hizkuntza Soziologia preskriptiboari (eta, bere aplikazio gisa, HINBERen teoriari) dagokionez funtsezkoak diren interbentzio-alorrak eta aski bazterrekoak²⁵⁹ elkarren parean ematen ditu, lehentasun eta haztapen-gradazio argirik gabe²⁶⁰. Hain balio-indar diferenteko elementuak elkarren parean emate horrek kamustu egiten du, zorrotzu orde, bere azalpen-indarra²⁶¹. Aski deskribapen baliagarria da zenbait eginkizunetarako²⁶², ez ordea eskuartean dugun

**Ahuldutako
hizkuntza
(hiztun-elkartea,
hiztun-talde
jakina) zein
ahuldurik
dagoen, eta zer
gaixotasun-
ezaugarri dituen,
azaltzeko sortu
zuen Fishman-ek
bere GIDS-
eskala. Euskaraz
BAEN esan izan
diogu: Belaun
Arteko Etenaren
Neurria.**

honetarako. “Beste zerbait” behar da, gure egoera ahul-zartatua (eta gure pareko asko) barrutik (perspektiba intragrupaetik) analizatzeko eta analisi horren araberrako enfoke preskriptiboaz jarduteko.

Ahuldutako hiztun-elkarte askoren osasun- edo bideragarritasun-maila kuantifikatu nahi izan denean ez da beraz harritzekoa, azken hamarkadotan osasun-neurpide berriak sortu izana mundu zabalean. Sortu diren formulazio alternatiboak ondotoz gehiago badira ere²⁶³, bost aplikazio konkretu azalduko ditugu hemen: a) Fishman-en 1991ko *GIDS* edo *BAEN*-eskala, 2001ean eguneratua; b) Michael Krauss-en 1992ko eta 1996ko eskalak; c) UNESCOren 1993ko Liburu Gorrikoa, d) UNESCOren aditu-taldeak 2003an moldatua eta e) Lewis-ek eta Simons-ek, Fishman-en eredia zorrotzuz, 2010ean kaleratutako *extended GIDS* edo *e-GIDS*: gure *BAEN-zabal* edo *BZ*. Hona bostak, hurrenez hurren

5.1.2 Fishman-en 1991ko Graded Intergenerational Disruption Scale (*GIDS*). 2001eko bere garapena

1991ko *RLS* liburuan, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko *HINBE*-lana ongi bideratu ahal izateko besteak beste, *Graded Intergenerational Disruption Scale* (*GIDS*) sortu zuen Joshua A. Fishman-ek. Ahuldutako hizkuntza (hiztun-elkartea, hiztun-talde jakina) zein ahuldurik dagoen, eta zer gaixotasun-ezaugarri dituen, azaltzeko sortu zuen Fishman-ek bere *GIDS*- eskala. Euskaraz *BAEN* esan izan diogu: *Belaun Arteko Etenaren Neurria*. (Zalbide, 2001). Hona Fishman-en *GIDS/BAEN* mailaketaren taula, Arianne M Dwyer-en azalpen sintetikoaren arabera jasoa²⁶⁴:

26. taula: GIDS/BAEN mailaketaren taula.

GIDS/BAEN	
LEVEL	DESCRIPTION
1	The language is used in education, work, mass media, government at the nationwide level
2	The language is used for local and regional massmedia and governmental services
3	The language is used for local and regional work by both insiders and outsiders
4	Literacy in the language is transmitted through education
5	The language is used orally by all generations and is effectively used in written form throughout the community
6	The language is used orally by all generations and is being learned by children as their first language
7	The child-bearing generation knows the language well enough to use it with their elders but is not transmitting it to their children
8	The only remaining speakers of the language are members of the grandparent generation

Lurrikara zenbatekoa izan den seinalatzen duen Richter-eskalaren moduan planteaturik dago *GIDS/BAEN*-eskala. Zenbat eta astindua bortitza goa izan, hainbat eta zenbaki altuagoa atxikitzen zaio: 8. mailan dau-

den hizkuntzak dira beraz inpaktatuenak, eten-urratuenak, osasunez (eta bizirik ateratzeko itxaropenez) okerrean daudenak. Eskalaren 1. mailan daudenak lirateke aitzitik, 6. maila seguru baldin badute, osasuntsuenak. Maila bakoitzak bere garrantzia badu ere, taula osoaren ardatza 6. lerroan dago. Situazio soziolinguistikoko hori eskueran dute osasun berteiko hiztun-herri sendoek; 6. maila eskuratzea edo bizirik mantentzea funtsezko eginbeharra da, aitzitik, hil ala biziko ataka larrian dauden/gauden milaka hiztun-herriontzat.

Eskala horren 5. mailara ez iristeak dakarren dislokazio-astindua jasangarria da, Fishman-en *GIDS/BAEN* formulazioaren arabera: 6. mailara iritsi ezina, aldiz, ez. Bizirik atera nahi duen hiztun-herriak (edo hainbatetaraino ezin bada, bere baitako hiztun-talde batek) 6. maila lortu behar du gutxienez: 6. maila hori da, beste era batera esanik, bizi-iraupeneko frontoiaren “pasa / ez pasa” lerroa²⁶⁵. Horrek erabakitzen du, hiztun-elkarteak belaunez belaueneko jarraipena izango duen ala ez. Hortik beherakoak (BAEN-eskalako 7. eta 8. mailetan daudenak) galtzera doaz ezinbestean, indarberritzeko ezer egiten ez bada arin eta sendo²⁶⁶. Hartan saiaturik ere, aski dudamudazko da 8. mailan dagoen hiztun-herria osorik berpiztu ahal izango den²⁶⁷. Ahuldutako hiztun-elkartea indarberritzeko orduan eragozpen-muga nagusia non dagoen azaldu nahi du *GIDS/BAEN*-ek.

Eguneratu egin du Fishman-ek 1991ko bere *GIDS/BAEN* eskala, handik hamar urtera, dislokazio-maila batean edo bestean dagoen hiztun-elkarteak (hiztun-taldeak) zertan zentratu behar lukeen azpimarratuz. Hona 2001eko formulazio eguneratua (Fishman, 2001: 466).

27. taula: *GIDS/BAEN* eskala eguneratua.

<i>HINBE-atal nagusiak</i>	<i>GIDS/BAEN</i> eskala eguneratua	
	mailaL	Stages of RLS: severity of intergenerational dislocation
II: diglosia eskuratu ondoko garapen-pausoak	1	Education, work sphere, mass media and government operations at higher and nationwide level
	2	Local / regional mass media and governmental services
	3	The local / regional (hots: non-neighbourhood) work sphere, both among Xmen and Ymen.
	4b	Public schools for Xish children, offering some instruction via Xish, Yish curricular eta staffing kontrolpean
	4a	Schools for Xish children, in lieu of compulsory education, Xish curricular eta staffing kontrolpean
I: diglosia eskuratzea ²⁶⁸	5	Schools for literacy acquisition, for the old and for the young, not in lieu of compulsory education
	6	Intergenerational and demographically concentrated home-family-neighbourhood-community, basis of MT ²⁶⁹ transmission
	7	Cultural interaction in Xish, primarily involving the community-based older generation
	8	Reconstructing Xish and adult acquisition of XSL

Bizirik atera nahi duen hiztun-herriak (edo hainbatetaraino ezin bada, bere baitako hiztun-talde batek) 6. maila lortu behar du gutxienez: 6. maila hori da, beste era batera esanik, bizi-iraupeneko frontoiaren “pasa / ez pasa” lerroa.

**Ahuldutako
hiztun-elkartea
indarberritzeko
orduan
eragozpen-muga
nagusia non
dagoen azaldu
nahi du
GIDS/BAEN-ek.**

GIDS-BAEN neurrietan esplizituago zentratu dago eskema eguneratu hau, eta diglosiaren garrantzia are nabarmenago azpimarratzen du. Konstruktibakarra dira, ordea, 1991koa eta 2001ekoa. Ahuldutako hiztun-elkarte bakoitzak bere gaixotasun-guneak (bere eten-urradura nagusiak) espazio soziofuntzionalean non dituen azaldu nahi du²⁷⁰, eta gaixotasun-egoera bakoitzean batez ere zer lortu behar den zehaztu: indarberritze-lanari “nondik ekin” eta une bakoitzean “zertan zentratu”²⁷¹. Lehentasun-eskema horri dagokionez beheko neurri-multzoa da *I* eta goikoa *II*, ez alderantziz. Hots, behetik gora doa, ez goitik behera, lehentasun-neurrien fluxua. Lehentasun-eskema hori ez da ezinbestean kronologikoa: simultaneoak izan liteke *I* eta *II* multzoetako zenbait neurri. Baina *I* mailan dago arazo nagusia: 1991n bezala ama-hizkuntzaren belaunez belaueneko jarraipenari eustea (edo berreskuratzea) da gakoa. Horretarako hain zentrala den diglosia segurtatu gabe alferrik dira, Fishman-en esanean, hortik gorako (hots, *II* multzoko) saioak. Aurrerago hitz egingo dugu, xehekiro, Fishman-en GIDS/BAEN eskalak, gure artean egokiro aplikatu ahal izateko, dituen abantaila argiez eta zenbait eragozpen-mugaz.

*5.1.3 Michael Krauss-en 1992ko eta 1996ko bideragarritasun- edo ahuldade-mailak*²⁷².

Behin baino gehiagotan saiatu izan da Michael Krauss hizkuntzalaria, 1992tik aurrera, mundu zabaleko (bereziki Ipar Amerikako) hizkuntza indigenoen edo natiboen osasun-maila tipifikatzen. Batez ere galtzeko arrisku bizian daudenetan zentratu izan da, natura-zientzien eredutik abiatuz, tipifikazio-lan horretan²⁷³. Mintzajardunaren belaunez belaueneko jarraipenean oinarritzen dira Krauss-en eskalak ere, Fishman-ena bezala, funtsaren funtsean²⁷⁴. Bere neurpideak formulazio konkretu bat baino gehiago harturik du, une batean edo bestean. Dagoeneko *extinct* edo zeharo galdurik dauden hizkuntzak²⁷⁵ alde batera utzita, hona bere formulazio ezagun bi:

- a) 1992ko azalpena²⁷⁶: Hizkuntza natiboak edo indigenoak hiru atal nagusitan banatu litezke, 1992ko azalpen horren argitan: seguru daudenak batetik, heriobidean doazenak bestetik eta arriskupean daudenak azkenik. Ondoko taulak ematen du horren guztiaren berri.

28. taula: Bideragarritasuna, osasuna, ahuldadea

maila	bideragarritasuna, osasuna, ahuldadea
A	seguru / safe ²⁷⁷ : hiztun asko eta estatu-babes argia duten hizkuntzak
B	arrikupean / endangered ²⁷⁸ : haurrek ikasten dute oraindik hizkuntza baina, egoera aldatzen ez bada, hala egiteari utziko diote XXI. mendean
C	heriobidean / moribund ²⁷⁹ : haurrek ez dute hizkuntza hori ama-hizkuntza gisa ikasten. XXI. mendean galtzera doa hizkuntza.

b) 1996ko azalpena: aurreko formulazioa zertxobait aldaturik aurkeztu zuen Krauss-ek, handik lau urtera. Hiztun-elkarte seguruak eta arriskupekoak zaku berean (A kategorian) bilduz, heriobideko hiztun-elkarteetan zentratu zen oraingoan: B, C eta D kategoriak sortu zituen horretarako. Hona taula berriua:

29. taula: Bideragarritasuna, osasuna, ahuldadearen taula berriua.

maila	bideragarritasuna, osasuna, ahuldadea
A	haurrek etxean, familiarrean eta eguneroko bizimoduak "normal" ikasten dute hizkuntza, gurasoekin eta zaharagoekin jardunez ²⁸⁰
B	gurasoek hizkuntza horretan egiten dute beraien artean, adin berekoekin edo zaharagoekin; ez ordea beren seme-alabekin ²⁸¹ .
C	berrogeita hamar urtetik gorakoek bakarrik egiten dute hizkuntza horretan. Berdintsu du ehun hiztun diren, edo milioia ²⁸² .
D	hertar zaharrenek, haietako batzuek, bakarrik egiten dute hizkuntza horretan: askotan, elkarrekin ere ezin dute egin ²⁸³ .

Eskala-aula biak onak dira, gure ustez, hiltzeko zorian edo nabarmen ahuldurik dauden mundu zabaleko hiztun-elkarte askoren lehen mailako deskribapen xumerako²⁸⁴. Egoera larri horretan dauden hiztun-herri gehienetan aplikatzeko modukoak dira seguruena. Gure errealitate nabarra egoki islatzeko aukera murrizta eskaintzen dute, ordea. Bere alde dute aplikatzeko errazak izatea, baina bertatik atera dezakegun informazioa aski mugatua da hainbat kasutan, tartean gurean.

5.1.4 Ahuldutako Hizkuntzen Liburu Gorria (1994), Ahuldutako Hizkuntzen Atlas (1996, 2001)

Urte biko aurrean garapen moduan²⁸⁵, eta Stephen Wurm adituaren eraginez, gogoeta-etxe berezia eratu zen Tokioko unibertsitatean 1994an: *the International Clearing House for Endangered Languages (ICHEL)*. Gogoeta-etxe horren bidez liburu garrantzitsua argitaratu zuen, urte hartan bertan, UNESCOk: *Red Book of Endangered Languages*; hots, *Ahuldutako*

Stephen Wurm
adituaren
eraginez,
gogoeta-etxe
berezia eratu zen
Tokioko
unibertsitatean
1994an: the
International
Clearing House
for Endangered
Languages
(ICHEL).
Gogoeta-etxe
horren bidez
liburu
garrantzitsua
argitaratu zuen,
urte hartan
bertan,
UNESCOk: Red
Book of
Endangered
Languages; hots,
Ahuldutako
Hizkuntzen
Liburu Gorria.

Hizkuntzen Liburu Gorria. Liburu horrek Atlas formatua hartu izan du gero: lehen argitaraldia 1996an izan zuen Atlasak, oker ez bagaude, eta bigarrena 2001ean (*Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*). Gero etorri dira atlasaren gainerako argitalpenak eta eguneratzeak, formatu idatzizkoan zein elektronikoan.

Lan hori egin ahal izateko, *Degrees of Endangerment* gaia aurrez aurre landu behar izan zen. Fishman-en 1991koa baino sailkapen xoilagoa prestatu zuen horretarako ICHEL-UNESCOk. Ahuldade-neurria zehazteko, sei mailatako eskala hau erabili zen bertan, hasieran²⁸⁶:

30. taula: Hizkuntza baten arrisku-mailaren sailkapena, ICHEL-UNESCO.

<i>Unesco Red Book on Endangered Languages</i>	
LEVEL	DESCRIPTION
1	not endangered
2	potentially endangered
3	endangered
4	seriously endangered
5	nearly extinct
6	extinct

Nola operatibizatu zen, ordea, “endangered” maila? Belaunez belauneko transmisioaren egoera (transmisioaren zabala eta sakona) hartu zen bertan kontuan, batetik; hiztun-elkartearen tamaina (itxuraz zenbat hiritarrrek hitz egiten dakien, ez zenbatek hitz egiten duen), bestetik. Euskararen ahuldade-egoera 3. mailan tipifikaturik dago 1999an eguneraturiko dokumentuan: “Present state of the Basque language: endangered”. Azalpen zehatza honako hau da: a) children speakers: on the Spanish side, many children learn the language, but most of them become more fluent in Spanish and may not become active users of Basque; on the French side, very few children learn the language, and probably none of them have chance to become active users”. Bere motz-laburrean ere, ez da batere azalpen kamutsa.

5.1.5 UNESCOren ad hoc aditu-taldearen 2003ko Language Vitality and Endangerment eskala-multzoa

“Ad Hoc Expert Group on Endangered Languages” delako lan-taldea sortu zuen UNESCOk 2003an. Munduko hainbat hiztun-herriren bizi-indarra zenbatekoa den neurtu ahal izateko lagungarri moduan, doku-

mentu interesgarria landu zuen aditu-talde hark eta UNESCOk urte hartan bertan kaleratu: *Language Vitality and Endangerment* (UNESCO 2003). Hitzun-herriko partaideek beraiek edota kanpo-behaztaileek hitz-tun-elkartearen bizi-indarra, bere osasun-maila tipifikatzen laguntzeko tresna izan nahi du dokumentuak²⁸⁷. Gertakari-ardatz (eta hari buruzko eskala integratu) bakarraren orde, bederatzi faktore hartzen ditu kontuan formulazio honek²⁸⁸:

- a) belaunez belauneko transmisioa,
- b) hitz-tun-kopuru absolutua,
- c) hitz-tunen proportzioa,
- d) jardungune jakinetako mintzaldaketa,
- e) jardungune eta hedabide berrietarako zabalkunde-maila,
- f) eskolarako eta alfabetatzeko ikasmaterialik bai/ez,
- g) gobernuen eta erakunde ofizialen jarrera eta erabaki politikoak, hizkuntza horri buruz,
- h) Hitz-tun-herriko jendeak berak bere hizkuntza propioaz dituen jarrerak, eta
- i) gai horretaz dagoen dokumentazioa: zenbat eta zernolako.

• Faktore gehienetan, 0tik (egoera okerrenetik) 5erako (osasun-maila altuenerako) mailaketa-eskala dakar dokumentuak. Bederatzi faktoreetatik lehenengoa (F1: adituen hitzetan “the most commonly used factor in evaluating the vitality of a language”) Fishman-ena da: belaunez belauneko transmisioa. RLS/HINBEko lehen saio hartan baino garatuago dator ordea oraingoan. Garapen horrekin batera F3 eta F4 faktoreetan dago, gure ustez, UNESCOren *Language Vitality and Endangerment* dokumentuaren ekarpen nagusia. Hitz-tun-elkartearen (edo bere baitako hitz-tun-talde) kontzentrazioari eta jardungune jakinetako mintzaldaketari berariazko azterbidea eskaintzen die dokumentu honek, F3 eta F4 faktoreen bidez. Gure errealitatea gogoan izanik lagungarri dira F3ren gradazio-egitura nagusia²⁸⁹ eta F4 faktorearen LM4, LM3 eta LM2 mailak. Jarrera, konpromiso eta jokabide kontua ere argi azaltzen du faktore-multzo honek: bai gobernuen eta erakunde ofizialen jarrera eta erabaki politikoak, eta bai hitz-tun-herriko jendeak berak bere hizkuntza propioaz dituen jarrerak. Horiek ere kontuan hartzekoak dira, jakina. Bere neurrian ordea, ez erabat: literatura tekniko zabala dago azken mende-erdian²⁹⁰, jarrera horien eta mintzajardunaren arteko lotura oso badaezpada delako antzemateko eta, beraz, deskriptore moduan egokia izanik ere jendearen hizkuntza-jarrera neurgailu operatibo gisa oso kontuz erabiltzeko delako jakiteko.

**Language Vitality
and
Endangerment
(UNESCO 2003).
Hitz-tun-herriko
partaideek
beraiek edota
kanpo-
behaztaileek
hitz-tun-
elkartearen bizi-
indarra, bere
osasun-maila
tipifikatzen
laguntzeko
tresna izan nahi
du dokumentuak.**

- Formulazio zabal-konplexua da, nolanahi ere, *Language Vitality and Endangerment* dokumentuarena: aurreko osasun-eskala unitario-integratuek baino ondotoz leku gehiago eskatzen du bederatzi faktoreon aplikazioak. Bederatziak ez ditugu hemen sartuko. Bai, ordea, analisi konparatiborako berrikuntza ohargarria dakarten F1-, F3- eta F4- taulak. Hona, “ahuldutako hizkuntza” jenerikoaren lekuan “euskara” txertatuz, bertako F1, F3 eta F4:

31. taula. F1 euskararen belaunez belauneko jarraipena.

ikurra	larritasun-maila ²⁹¹	F1: euskararen belaunez belauneko jarraipena
LM5	osasun betean	belaunaldi guztiek euskaraz egiten dute (jardungune guztietan), belaunez belauneko etenik gabe
LM5-	egonkor baina arriskuz	belaunaldi guztiek euskaraz egiten dute jardungune gehienetan, belaunez belauneko etenik gabe
LM4	osasun betea gabe	neska-mutil gehienek euskara ikasten dute etxean, L1 gisa, baina jardungune jakin-mugatueta bakarrik darabilte ²⁹²
LM3	nabarmen ahuldurik	belaunaldi berrien etxeko ama-hizkuntza ez da euskara. Gurasoek euskaraz egingo diete agian seme-alabei, baina hauek erdaraz erantzun ohi dute.
LM2	arras ahuldurik	aitona-amonen (eta oro har zaharren) belaunaldiak bakarrik egiten du euskaraz. Gurasoek badakite, baina erdaraz egiten diete seme-alabei.
LM1	azken hatsetan	aitona-amonen belaunaldiko batzuek bakarrik egiten dute euskaraz, eguneroko mintzajardun arruntetik kanpora nagusiki.
LM 0	(azken hiltunak) hilk	ez dago euskaraz egiten duen (are euskaraz dakien) inor.

32. taula. F3: euskal hiltunen kontzentrazioa.

ikurra	larritasun-maila	F3: euskal hiltunen kontzentrazioa ²⁹³
LM5	egoera segurua	herritar guztiek euskaraz egiten dute
LM4	egoera ez da segurua ²⁹⁴	ia herritar guztiek euskaraz egiten dute
LM3	arrikupean ²⁹⁵	herritar gehienek euskaraz egiten dute
LM2	biziki arrikupean	gutxienak dira euskaraz egiten duten herritarrak
LM1	zeharo arrikupean	oso herritar gutxi egiten du euskaraz
LM 0	galdu da hizkuntza	ez dago euskaraz egiten duen herritarrik

33. taula: F4: jardungune jakinetan Xetik Yra (eus > erd) edo Ytik Xera (erd > eus) mintzaldaketarik bai/ez

ikurra	larritasun-maila	F4: jardungune jakinetan Xetik Yra (eus > erd) edo Ytik Xera ²⁹⁶ (erd > eus) mintzaldaketarik bai/ez
LM5	oro-mintzaira ²⁹⁷	Jardungune guztietan euskaraz egiten da (egiten dute guztiek) mintzaldaketarik ez.
LM4	multilingual parity = diglosia ²⁹⁸	H eta L hizkuntzen konpartimentazio funtzionala, mintzaldaketarik gabe ²⁹⁹
LM3	jardunguneak galduz	Bere-bereak izandako jardunguneetan bizirik dago euskara, baina erdara indartuz doa (are etxean) ³⁰⁰
LM2	limited or formal domains	Jardungune gutxitan bakarrik erabiltzen da euskara, hainbat eginkizun bideratzeko
LM1	highly limited domains	Oso jardungune gutxitan erabiltzen, oso eginkizun gutxitarako ³⁰¹
LM 0	extinct	

Fishman-en eta Lewis-Simons-enetan batera bildurik eman ohi diren “*belaunez belauneko jarraipen-maila*” eta “*mintzaldaketa bai/ez*” fenomenoak aparte tratatzeko aukera ematen du modelo honek. Arnasguneen kasuan Fishman-ek berariaz aipatzen duen kontzentrazio-faktoreari aparteko lekua eskaintzen dio, bestalde. Oro har, deskribapen-aukera ederra ematen du UNESCOren eskala-multzoak: argi aitortua du hori Lewis-ek, 2005ean³⁰².

Aldiz, aplikatzeko orduan badu eragozpenik *Language Vitality and Endangerment* eskala-multzoak: taula bakarraren ordeztu bederatzi irizpide (gehienetan aparteko taulaz) erabili behar dira. Informazio-multzo zabala eskatzen du horrek, hasteko³⁰³. Horrezaz gainera, eta oso bereziki, bederatzi faktore horien sintesi-lana ez da erraz egitekoa. Dokumentuak argi dienez “languages cannot be assessed simply by adding the numbers; we therefore suggest such simple addition *not be done*. Instead, the language vitality factors given above must be examined according to the purpose of the assessment”. Arrazoizkoa da gomendio hori: kasu bakoitzean egokiena den aukera egin behar da modelo horretatik. Gure kontestu jakinean, gorago esandakoa kontuan izanik, bertako F1, F3 eta F4 faktoreak ditugu argi-iturri nagusi. Balioespen sintetikorik, aldiz, ezin da bertatik erraz atera. Horixe da, berriz, guk behar duguna.

5.1.6 Lewis-en eta Simons-en 2010eko Extended GIDS edo e-GIDS

Berrikitan, 2010ean³⁰⁴, Fishman-en 1991ko BAEN-eskala zabaldu egin dute Lewis-ek eta Simons-ek³⁰⁵. Izenburuak berak argi dienez, “Assessing endangerment: Expanding Fishman’s GIDS” izan da beren xedea: Fishman-ek 1991n sorturiko GIDS/BAEN neurgailua findu eta ga-

ratzea. Sortu duten *Extended GIDS*, *e-GIDS* edo *BAEN-zabal* (aurrerantzean *BZ*) horrek sailkapen xeheagoaz hornitu du, batetik, Fishman-en 1991ko formulazioa. Bestetik, berriz, UNESCOren aditu-taldeak prestaturiko modeloaren hainbat faktore aintzakotzat hartuz taula bakarrera itzuli dute neurgailua³⁰⁶. Hona beren formulazio konkretua, berriro ere Arienne M Dwyer-en ildotik jasotako sintesia euskaraz emanik³⁰⁷:

34. taula: e-GIDS/BAEN-zabal: Description-azalpena.

BZ maila	BZ label	e-GIDS/BAEN-zabal Description-azalpena	UNESCO descript or	UNESCO factor
0	nazioartea	Nazio artean erabili ohi da hizkuntza, funtzio askotarako	seguru	F4
1	nazioa	Nazio mailan erabili ohi da hizkuntza, hezkuntzan, lan-esparruan, komunikabideetan eta aginte-esparruko administrazioan	seguru	F4
2	eskualdea	Eskualde mailan erabili ohi da hizkuntza, komunikabideetan eta administrazioan	seguru	F4
3	merkataritza	Eskualde mailan erabili ohi da hizkuntza, hiltun-talde desberdinen arteko merkataritza-lanean ³⁰⁸ , lan-esparruan, lantegi barrukoekin eta lantegiaz kanpokoekin.	seguru	F4
4	hezkuntza	Hezkuntza-sistema publikoak euskaraz irakurtzen eta idazten erakusten du	seguru	F6
5	hitzez + idatziz	Belaunaldi guztiek darabilte hizkuntza ahozkoan; hiltun-elkartearen zenbait lekutan idatziz ere erabiltzen da.	seguru	F6
6a	hitzez sendo ³⁰⁹	Belaunaldi guztiek darabilte hizkuntza ahozkoan; hori da, gainera, haurren L1.	seguru	F1
6b	arriskuan ³¹⁰	Belaunaldi guztiek darabilte hizkuntza ahozkoan; haur-hazteko ³¹¹ guraso batzuek bakarrik ari dira, ordea, hizkuntza L1 moduan transmititzen ³¹²	arriskuan	F1
7	mintzaldatz ³¹³	Haur-hazteko gurasoak beren artean egiteko gai dira hizkuntza horretan, baina ez dira seme-alabei transmititzen ari.	arris. argia	F1
8a	heriobidean ³¹⁴	Hitz egiteko zinez gai diren hiltun bakarrak aitona-amonen belaunaldikoak dira	arris. bizia	F1
8b	ia hilik ³¹⁵	Hitz egiteko gai liratekeen hiltun bakarrak aitona-amonen (edo zaharragoen) belaunaldikoak dira; ez dute ordea, ia, norekin hitz egin.	arris. larria	F1
9	izana oroituz ³¹⁶	Behinolako herri-izatearen, jatorrizko nortasun etnikoaren, oroigarri da hizkuntza. Era sinbolikoan erabil dezakete, soil-soilik.	hilik	F4-LM1
10	hilik ³¹⁷	Jatorrizko nortasun etnikoarekiko lotura galdurik du hizkuntzak beraientzat, are maila sinbolikoan.	hilik	F4-LM1

UNESCOren *F1*, *F3*, *F4* eta (neurri mugatuagoan) *F6* faktoreekin bate-ragarri izateaz gainera badu *BZ* honek, gure ustez, Fishman-en hasierako eskalarekin konparatuz abantaila argia. Hasieran lerro bakarrean (6-an) ematen zen fasea bitan banaturik eskaintzen da orain (batetik 6a, bestetik 6b). Zatibitze horrek lagundu egiten du hain zentrala den *belaunez belauneko jarraipen/eten* kontua hobeto zehazten, *diglosia bai/ez be-*

rezkuntzatik abiatuz: beren hitzetan esanik “the distinction between the two kinds of GIDS Level 6 follows from the observation that Level 6 straddles the line of diglossia (King 2001). In our view, Level 6a represents a stable diglossic configuration where oral functions are assigned to the L language and written functions are assigned to H. In contrast, Level 6b represents the loss of that stable diglossic arrangement with the oral domains being overtaken by another language or languages.” (Lewis eta Simons, 2009: 13). Hori dela medio, BZren argitan (hitzezko jardunean) sendo dabilta 6a-ko hiztun-herriak, eta arriskuan daude 6b-koak. Funtsezkoa da bidegurutze hori argi ulertzea. Baditu beste zenbait onura oraingo formulazio zabaldurak, baina horko hori oso konstante hartzeko iruditzen zaigu.

Ez dugu uste, halaz guztiz ere, UNESCOren 2003ko dokumentuko F1 erabat eta osorik islatzen duenik EGIDS-ek: 2010eko BZ-6a eta BZ-6b mailen parean hiru maila daude han, ez bi: LM4, LM3 eta LM2. Oro har bera dugu, ordea, gure beharretarako egokiena: Fishman-en perspektiba teorikoa ongi jasotzen du, UNESCOren ekarpen nagusi bat baino gehiago probetxuz biltzen du eta azken hori baino nabarmen errazagoa da erabiltzen.

5.2 Non dago euskara, osasun-neurpidez? EODA

Har ditzagun Fishman-en 1991ko (eta 2001eko) GIDS/BAEN, UNESCOren 2003ko *Language Vitality and Endangerment* eskala-multzoa eta Lewis-Simons adituen 2010eko *Extended GIDS (e-GIDS)*. Neurpide horien argitan, non gaude euskaldunok osasunez? Noraino dugu belaunez belauneko perspektiban bizirik irauteko eta jardungune “berri”ak garatzeko aukerabide objektiborik? Galdera horren erantzun erraza, eroso eta ez batere okerra, badakigu zein den: “segun”. Segun zein neurpide aukeratzen dugun, diagnostikoa (eta, hainbatean, diagnostikoaren terminologia) diferentea izan liteke. Beraz, “A neurpidearen arabera, euskararen osasun-maila X da” esan liteke, “B neurpidearen arabera Y eta C-ren arabera Z”. Guztia ez da, ordea, aukeratutako “termometro”-aren mendeko. Neurpidearen beraren argi-ilunez gainera, eta horien gainetik, beste kontu bat aztertu behar da beti: euskaldunok ez gara 100, 1.000 edo 10.000 laguneko hiztun-elkarte ñimiñoa, mintzajardunaren giza arteko moldaeraz aski uniforme. Gure txikian ere hori baino haziago gara euskaldunok hiztun-kopuruz, eta mintzajardunaren giza arteko moldaeraz barne-fragmentazio eta dibertsifikazio handiko konstelazio etnolinguistikoa osatzen dugu. Hori dela medio, euskararen osasun-

**Non gaude
euskaldunok
osasunez?
Noraino dugu
belaunez
belauneko
perspektiban
bizirik irauteko
eta jardungune
“berri”ak
garatzeko
aukerabide
objektiborik?**

**Joshua A.
Fishman-en
jatorrizko
konstruktutik
abiatuz, Lewis-
en eta Simons-en
2010eko
formulazioa
garatuz eta
UNESCOren
2003ko ekarpen
funtsezkoenak
integratuz, hiru
atal nagusiko eta
hamalau mailako
aplikazioa
prestatu dugu:
euskararen
osasun-
diagnostikorako
aplikazioa izan
nahi duen EODA.**

egoera aski diferentea da Urolaldean eta Zuberoan, Agurainen eta Leitzan, Markinan eta Donibane Lohizunen³¹⁸. Diferentzia horiek oso kon-
tuan izan behar ditu gure diagnostikoak, ezertarako balioko badu. Ba-
lioepen globalak, Euskal Herria bere osoan hartzen duenak, ezkutatu
egiten du sarri, argitu adina, benetako diagnostikoa³¹⁹. Analisi-maila
xeheagoa behar dugu gauza askotarako. Euskaldunok hiztun-elkarte
moduan bizirik irauteko ahalmena baldin badugu aztergai, galdera ezin
izan liteke askotan “euskararen osasun-maila zein da?”, beste hau baizik:
“euskararen osasun-maila halako herritan (edo eskualdetan) zernolakoa
da?”. Hori analizatzeko tresna behar dugu.

5.2.1 Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa (EODA): proposamenaren egitura nagusia

Hurbilagoko perspektiba horretatik abiatuz, zer ezaugarri behar ditu
osasun-neurgailu batek “hemen eta orain” taxuz erabili ahal izateko?
Hiru ezaugarriok behar ditu gure ustez: a) euskal hiztun-elkartearen
osasun-azalpen globalaz gainera lekuan lekuko osasun-egoera argi ze-
hazteko gai izan behar du; b) kontzeptu soziolinguistiko jeneraletan oi-
narriturik egon behar du eta, c) ahal delarik aplikatzen erraza izan
behar du.

Mundu zabaleko neurpideetan bada hiru eskakizun horietara nabarmen
hurbiltzen den eredurik. Posible da halere, eredu horietatik abiatuz
gure egoera nabarra doiago islatu lezakeen formulaziorik lantzea. Joshua
A. Fishman-en jatorrizko konstruktutik abiatuz³²⁰, Lewis-en eta Simons-
en 2010eko formulazioa garatuz eta UNESCOren 2003ko ekarpen fun-
tsezkoenak integratuz, hiru atal nagusiko eta hamalau mailako aplika-
zioa prestatu dugu: *euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa* izan nahi
duen EODA. Egitura nagusi hau du aplikazioak:

35. taula: Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa (EODA): non gaude?

Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa (EODA): non gaude?		
G	BZ-2	komunikabideak, administrazio publikoa eta zerbitzuak euskaraz
	BZ-3	lan-esparrua euskaraz
	BZ-4	hezkuntza formala euskaraz
J	BZ-5	herritarren eguneroko jardun arrunta euskaraz, hitzez eta (hainbatean) idatziz
	BZ-6a	herritarren eguneroko jardun arrunta euskaraz, hitzez
	BZ-6b	herritar gehienen eguneroko jardun arrunta euskaraz; hainbat herritarrek erdaraz egiten du
	BZ-6c	hainbat herritarrek euskaraz egiten du sarri, zenbaitek bietara eta hainbatek erdaraz.
	BZ-6d	herritar gehienek erdaraz egiten dute; hainbat herritarrek euskaraz egiten du etxean, lagunartean eta, hainbatetan, kalean

	BZ-6e	herritar gehienek erdaraz egiten dute; batzuek euskaraz edo bietara egiten dute etxean eta lagunartean, gainerakoan erdaraz
	BZ-7	haur-hazteko gurasoek, euskaldun izanik ere, ez diete seme-alabei euskaraz egiten. Etxean eta kalean erdaraz egiten da
	BZ-8a	euskaraz egiten duten bakarrik aitona-amonen belaunaldikoak dira
	BZ-8b	hitz egiteko gai diren hiztun bakarrik aitona-amonak (edota zaharragoak) dira. Ez dute ia norekin hitz egin
U	BZ-9	behinolako herri-izatearen, jatorrizko euskal nortasun etnikoaren, oroigarri eta adierazbide sinboliko da hizkuntza, ez inoren mintzabide
	BZ-10	jatorrizko nortasun etnikoarekiko lotura galdurik du hizkuntzak, are maila sinbolikoan

Hiru atal nagusi bereizi ditugu hor, hamalau osasun-mailon bidez: esparru-garapenezko *G* alorra (*BZ-2*, *BZ-3*, *BZ-4*), eguneroko jardun arruntean eta belaunez belauneko jarraipenean oinarritzen den *J* alorra (*BZ-5*, *BZ-6a/b/c/d/e*, *BZ-7*, *BZ-8a/b*) eta uste-balioen arabeko *U* saila (*BZ-9*, *BZ-10*). *J* atala da, askogatik, zabalena eta trinkoena. Ez da kasualitatea. XXI. mende-hasiera honetan aldakortasun handia, harrigarri handia, ageri dugu euskaldunok *J* alorrean³²¹. Aski ohiturik gaude *G* alorreko kategoriak, azpikategoriak eta azpi-azpikategoriak bereizten eta, aldiz, ez da horren laurdenik egiten *J* alorrean. Deigarri da, bereziki, eguneroko mintzajardun arruntean ageri den aniztasun handi horren aurrez aurre zein erantzun global, indiferentziatu eta monolitiko planteatu ohi dugun indarberritze-saio gehienetan. Kezkagarria da axola falta hori, euskal hiztunen belaunez belauneko jarraipen-galerak batez ere *J* alorrean (ez *G*-n eta ez *U*-n) erabakitzen direla³²² kontuan izanik. *J* alorreko aniztasun hori argi deskribatzeko eta bere indargune-ahuldadeak zehatz identifikatzeko lagungarri izan nahi du *EODAK*. Gradazio argia eskaintzen du, horregatik, *J* alorrean: batez ere (*BZ-5*)-etik (*BZ-6e*)-ra eta, ezinbesteko etenaz, hortik beherako mailetan. Honako ohar hauek kontuan izan behar dira azkenik, oraindaino esandakoaz gainera, *EODA*ren egitura nagusiaz egoki jabetzeko:

- *EODAK* ere oso kontuan hartzen du belaunez belauneko etenaren neurria (*BAEN*). Are gehiago: zabaldu egin dugu Fishman-en jatorrizko *BAEN*, gure arteko zenbait moldaera soziolinguistiko xeheago analizatu ahal izateko. Zabaldutako *BAEN* honi ere, 2010eko *e-GIDS*-en bidetik, *BAEN*-zabal edo *BZ* esango zaio hemen³²³.
- Belaunez belauneko jarraipenaz (*bbj*) edo etenaz gainera berariaz aztertzen ditu *EODAK* hizkuntza-soziologiaren zenbait kontzeptu giltzarri: mintzajardunaren giza arteko *nagusitasun-moldaera*³²⁴ (*nm*), (ama-hizkuntzaren) *etxeko transmisioa* (*et*), (luze-zabaleko) *mintzal-*

daketa (ma), (euskara-erdaren) konpartimentazio soziofuntzionala (*ksf*) eta (herritarren) eguneroko jardun arrunta³²⁵ (*eja*). Azken horretan “herri-giro zabala” aipatzen dugunean, honelakoak ditugu gogoan: as-teroko feria-azoka, elizkizunak³²⁶, herriko jaiak, erromeriak eta ibi-laldiak, jendaurreko kirol-saioak³²⁷, herritarrentzat antolatutako hitzaldi eta ikastaroak.

- Aplikazioaren bigarren atal nagusia, (*J* alorra alegia) da *EOD*Aren muin. Euskal herriko egoera soziolinguistikoa hain aldakor-bihurria izanik, berariaz zabaldu eta xehakatu da *J* alorra. Oso kontuan hartzekoak dira hortaz *EOD*Ako *BZ-5*, *BZ-6a/b/c/d/e*, *BZ-7* eta *BZ-8a/b* mailak.

- *BAEN*-taula gehienetan bezala, *J* alorreko *BZ-5* eta *BZ-6a/b/c/d/e* egoerak dira *EOD*Aren ere kritiko. Indar betean daude (*BZ-5*)-eko eta, gero eta jasangaitzago den letra-gabezia, (*BZ-6a*)-ko hiztun-elkar-teak; aldiz, galzorian egon gabe ere arrisku bizian daude (*BZ-6e*)-koak. Euskal hiztun-elkartean, Euskal herrian, osasun-maila asko-tako hiztun-taldeak egonik, (*BZ-5*)-eko zein (*BZ-6a/b/c/d/e*)-ko kokaerak bereizten du argien kasuan kasuko hiztun-taldea justu non dagoen: hiztun-taldearen nagusitasun-moldaeratik abiatuz, gai-nerako kontzeptu giltzarrien egoera aldakorra aurrez aurre azaltzen da hor. Tartean, nola ez, belaunez belauneko jarraipen-aukera zen-batekoa den. *UNESCO*ren 2003ko ekarpen (gure ustez) nagusiak integratuz, eta Fishman-en zein Lewis-Simons-en bizkarrezurrari bere hartan eutsiz, “hemengo eta oraingo” egoeretara egokitu da aplikazioa, *BZ-6* boskoiztuz. Aski gradazio xumea sortu da horrela. Aplikazio honetan ere mugarri prototipiko dira *BZ-6*ko maila horiek, ez egoera posible guztien azalpen exhaustibo.

- Horrezaz gainera garbi dago etxeko transmisioa (betea edo ohar-garria) bizirik dagoela *BZ-5* edota *BZ-6a/b/c/d/e* mailetan eta galdurik, aldiz, *BZ-7* edota *BZ-8a/b* faseetan. Kontuan hartzeko aldea da hori ere, etxeko transmisioa gurea bezalako egoeretara iragarpen-indar mugatukoa bada ere.

- Gure egungo osasun- edo ahuldade-egoera ahalik eta modu sis-tematizatu eta sinpleenean azaltzeko prestatu da taula. Izatez posible den (bizi-indar beteko hainbat hiztun-herrik bere baitan duen) ego-era osasuntsuagorik ez da beraz kontuan izan³²⁸. Diagnostiko guztiek bezala, *EOD*Ak argitu nahi duena ez da “ahal izanez gero non egon nahi genuke edo non egotea komeni litzaguke?”, “non gaude?” baizik. Loturik daude biak, hainbat aldetatik, baina gauza bi dira eta bakoitzak bere analisi propioa eskatzen du.

5.2.2 EODaren azalpen xehea

Ereduaren egitura nagusiaz jabeturik, EODaren azalpen xeheagoan sar gaitezke. Aparteko garapen-taula prestatu da horretarako. Hona bere egitura, ezaugarri teorikoak eta aplikazio konkretua:

36. taula: Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa: hamalau ataleko gradazio-eskala xehea.

Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa: hamalau ataleko gradazio-eskala xehea	
nm: nagusitasun-moldaera; bbj: belaunez belauneko jarraipena; ma: mintzaldaketa; ksf: konpartimentazio soziofuntzionala; eja: eguneroko jardun arrunta	
BZ-2	komunikabideak eta administrazioa euskaraz zer: a) Bertako, eskualdeko, herrialdeko eta hiltun-elkarte osoko hainbat komunikabidek euskaraz informatzen ditu herritarrak, partez edo osoz. Irakurritxoak dira komunikabide horietariko batzuk, entzunezkoak besteak eta ikus-entzunezkoak azkenak. b) Bertako, eskualdeko, herrialdeko eta hiltun-elkarte osoko hainbat administrazio-organok³²⁹ euskaraz atenditzen ditu herritarrak, hitzez eta idatziz. Zenbait organok euskaraz dihardu etxe barruan. non: EAEko³³⁰ euskal komunikabideetan hor daude <i>ETB1</i>, <i>Euskadi Irratia</i>, <i>Berria</i>, aldizkari espezializatuak, erdal egunkarietako euskal atalak... Administrazioan ere bada EAEn euskarazko jardunik: bai herritarrekiko harremanetan, hitzez bereziki³³¹, eta bai administrazio barnean. Nafarroako komunikabideetan eta administrazio-guneetan ere badu euskarak, EAEn baino ahulago, lekurik. Ilunago dira kontuak Iparraldean, han ere halakorik erabat falta ez den arren. ezaugarri teknikoak: • nm: erdara da, askogatik, komunikabideetan zein administrazio-organoetan nagusi³³². Euskara zabaltzen ari da bietan³³³, baina termino estatistikoetan erdarazko jarduna da jaun eta jabe. Nabarmena da erabateko nagusitasun hori, batez ere, bertako edo hurbileko interakzio-sareetatik harantz. Bere lekua egiten ari da euskara, halere, "erdal esparru" horretan: euskal irratsaioak entzuten ditu milaka euskaldunek, eta kopuru mugatuago batek euskarazko telebista-saioak ikusten edota egunkaria euskaraz irakurtzen. Komunikabideotan eta administrazio-organo askotan (batez ere aurrez aurrekoetan edo hurbilenetan³³⁴) euskaraz dihardu gaur egun, partez edo osoz, milaka profesionalak³³⁵. • bbj: euskal hiltunen belaunez belauneko jarraipenik ez dute komunikabideek eta administrazio-organoek segurtatzen: lagungarri dira, ez ordea bere hutsez eta bere baitarik hartarako aski den oinarri. • ma: <i>erd > eus</i> moduko <i>language shift</i> edo mintzaldaketa gertatu berri da partez (hala gertatzen ari da?³³⁶), esparru biotan³³⁷. • ksf: erdararen indargarri izandako <i>ksf</i> ahulduz doa esparru biotan³³⁸. Ez da, ordea, desegin. Are gutxiago eratu da euskararen indargarritzko <i>ksf</i>-rik.
BZ-3	lan-esparrua euskaraz zer: Herriko, eskualdeko edo alor jakineko <i>lan-esparruan</i>, lankide-sare hurbilean euskaraz egiten du hainbat hiltunek, ahoz bederen. Euskaraz egiten du, orobat, hala egin dezakeen eta hala egiteko prest dagoen hainbat hornitzaileekin. non: batez ere EAEn. Nafarroako euskal eremuan ere bai, maila apalagoan. NBZn ere bada halakorik. ezaugarri teknikoak: • nm: erdara da lan-munduan nagusi. Hornitzailez, bezeroz edo partaidez harreman-sare zabalak dituzten produkzio-enpresetan edo zerbitzuetan hori da arau nagusia. Hala dira kontuak, ez gutxitan, bertako hornitzaile-partaideekin eta bezeroekin eta, are, bertako zein kanpoko lankide askorekin ere: erdaldunekin ezin da euskaraz lan egin, eta erdal-elebidunekin nekez egin liteke euskaraz lanbide kontuan (erregistro formalenetan). Bertako erdararen ondoan, gutxitan haren orde, osagarritzko lanabes bihurtzen ari da ingelesa enpresa askotan. Idatzizko planoan nabarmenago da erda(ra)ren lan-esparruko nagusitasun hori, oro har, hitzezkoan baino.

	Bere lekua du euskarak, ordea, bertako edo eskualdeko zenbait zerbitzu eta enpresatan: batez ere ahozko jardunean eta lankideen arteko harreman informaletan. Euskaraz dihardu, hasteko, lehen ere euskaraz ziharduen zenbait lan-eremuk: "ethnically encumbered" dira horietariko gehienak³³⁹. Hortik goraxeago ere bai, zenbaitetan. Idatzizkoan barne-errotulazioan ageri da euskara ugarien, erdararekin batean sarri. • bbj: lan-munduak ere ez du, bere baitarik, hiztun-elkartearen belaez belaeuko jarraipen beterik garrantiztzen³⁴⁰. (BZ-2) baino lagungarri sendoago da, ordea, eginbehar horri dagokionez³⁴¹. • ma: alde baterako eta besterako mintzaldatzeko-prozesuak ari dira jardungune honetan gertatzen: <i>erd</i> > <i>eus</i> eta <i>eus</i> > <i>erd</i>. Luzaro erdal eremu izandako lan-esparru formalenetan sartzen ari da euskara, batetik: batez ere kultura- eta hizkuntza-alorreko zerbitzu-enpresetan³⁴². Mintzabide nagusi hizkera informal-espontaneoaren dute aurrez aurreko edo hurbileko lankide-sareetan ahultzen ari da euskara, bestetik. Nabarmen atzera egin du euskarak, azkenik, orain puntura arte bizi-bizirik izandako taberna eta jatetxe-alorrean: zerbitzariak erdaldun dira bertan, gero eta maizago, are arnasguneetan. • ksf: erdararen indargarri izandako <i>ksf</i> ahulduz doa³⁴³. Ez da ordea desegin. Are gutxiago eratu da euskararen indargarritzko <i>ksf</i>-rik.
BZ-4	hezkuntza formala euskaraz zer: Gero eta leku zabalagoa du euskarak eskolan. Etiket erdaldun diren haurrei euskara erakustez gainera³⁴⁴, euskaraz irakasten zaio eskolan gero eta neska-mutil gehiagori, partez (B) edo osoz (D): bai etxetik euskaldun direnei, bai elebidunei eta bai erdaldunei. Gaur eguneko eskolak, ia lehenengo aldiz historian³⁴⁵, "hein batean" euskaraz irakurtzen eta idazten erakusten dio neska-mutil askori. Saio handia, sakona eta iraunkorra egin da horrezaz gainera, EAEn bereziki³⁴⁶, eskola-ingurumen osoa euskal hiztunen pizgarri bihurtzeko³⁴⁷. non EAEn eta Nafarroan (batez ere bertako euskal eremuan) aski sarbide zabala du euskarak bertako hezkuntza-sisteman: bai publikoan eta bai pribatuan³⁴⁸. D eredua nagusituz doa EAEn³⁴⁹, eta sarbide ohargarria du Nafarroan³⁵⁰. Nabarmen apalago izan arren, Iparraldean ere badu lekuri euskarazko hezkuntzak. ezaugarri teknikoak: • nm: ikasle-irakasleen ikasgelako interakzio-hizkuntzari dagokionez, EAeko Haur-eskoletan, LMHn, DBHn eta Batxilergoan nagusi da euskara. Lanbide Heziketa ere kontuan hartuz, unibertsitate aurreko ikasle guztien %65,7 D ereduan dabil, eta %18,5 B ereduan. Gelaz kanpoko jardunaren nagusitasun-moldaerari dagokionez, ikus Arrue ikerketaren emaitzak. • bbj: euskarazko eskolaketak ez du, bere baitarik, hiztunen belaez belaeuko jarraipen beterik garrantiztzen³⁵¹. Are gutxiago lortzen du haur erdaldunak, adin batetik aurrera, ET-euskaldun bihurtzerik. Belaez belaeuko jarraipenaren lagungarri sendo da eskola: ez motore beregain. • ma: nagusituz doa euskara eskolan. Baina eskola ez da euskal eremu hertsia³⁵². Ez dago hor <i>erd</i> > <i>eus</i> norabideko mintzaldaketa osorik, bai ordea EAEn eta Nafarroako euskal eremuan nagusituz doan joera zabala. Unibertsitatean, partez <i>erd</i> > <i>eus</i> ari da gertatzen, baina nagusitasunetik urruti dago. • ksf: eskola-munduak badu bere baitan (ez osorik baina bai hein batean) konpartimentazio soziofuntzionala moldatzeko ahalmenik. Irakasleari euskaraz egiten diete milaka ikaslek, batez ere ikasgela barruan. Gai batzuk euskaraz lantzerantz ohihurtik daude, era berean, txiki-txikitatik. Kontuan hartzeko datua da neurri bateko konpartimentazio soziofuntzional hori, bere mugak eta guzti.
BZ-5	herritarren eguneroko jardun arrunta euskaraz, hitzez eta (hainbatean) idatziz zer: Beren artean eta beste hainbat euskaldunekin euskaraz ari izaten dira (BZ-5)-eko herritar gehien-gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntan. Irakurri eta (hainbatean) idatzi ere euskaraz egiten dute eguneroko kontuez, batez ere bertako berriez. Euskal literatura kontsumitzen dute, erdarazkoaz bat. non: Gipuzkoako (eta, agian, Bizkaiko eta Nafarroako euskal eremuko) zenbait arnasguneetan. ezaugarri teknikoak:

	• nm/eja: etxean eta kalean, lagunartean eta herri-giro zabalean nagusitasun-moldaera argia du euskarazko jardunak, hitzez eta (hainbatean) idatziz. Hitzezko nagusitasun hori interakzio informal-espontanea eskatzen duten aurrez aurreko rol-harremanetan da argien. • bbj: eguneroko bizimodu arruntean duen nagusitasun argiari eskerrak, belaunez belauneko jarraipena segurtaturik dauka euskarak³⁵³. • ma: mintzaldaketarik ez da ageri eguneroko jardun arruntean, hitzez. Bai, aldiz, bertako edo inguruko kontuen irakurketa-idazketan: <i>erd</i> > <i>eusk</i> norabidean gertatu da hori; • kfsf: konpartimentazio sozio-funtzionala indarrean dago, bai hitzez (herri- edo eskualde-esparru euskaldun sendotik haranzko erdaldunekin) eta bai idatziz (zabalagoko kultura-kontsumoan, lantegiko jardura formalean edota tramitazio administratiboan). Erdara³⁵⁴ da, oro har, nagusi.
	Osagarritzko oharra: Gutxi dira oso, gure ustez, erabat garapen-maila horretan dauden arnaguneak. Gehixeago, aldiz, bertara hurbiltzen ari direnak.
BZ-6a	herritarren eguneroko jardun arrunta euskaraz, hitzez zer: Beren artean eta beste hainbat euskaldunekin euskaraz ari izaten dira (BZ-6a)-ko herritar gehien-gehiak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntean. Irakurri eta (berezik) idatzi, aldiz, erdaraz egiten dute normalean³⁵⁵. non: arnagune askototan³⁵⁶, batez ere Gipuzkoan; baita Bizkaian eta Nafarroako euskal eremuan ere. Iparraldean ez dago, dakigula, (BZ-6a) mailako arnagune argirik³⁵⁷. Jarri adibideak. ezaugarri teknikoak: • nm/eja: etxean eta kalean, lagunartean eta herri-giro zabalean nagusitasun-moldaera argia du euskarazko jardunak, hitzez (ez idatziz). Hitzezko nagusitasun hori interakzio informal-espontanea eskatzen duten aurrez aurreko rol-harremanetan da argien. • bbj: belaunez belauneko jarraipena segurtaturik dauka euskarak, nagusitasun-moldaera horri eskerrak³⁵⁸ • ma: mintzaldaketarik ez da ageri eguneroko jardun arruntean. Bai aldiz, hein batean, bertako tramitazio eta prozedura administratiboetan (<i>erd</i> > <i>eus</i>). • kfsf: konpartimentazio soziofuntzionala indarrean dago: irakurtzeko edo idazteko orduan erdara da nagusi, ez euskara. Bertara etortzen diren erdaldunekin, eta lantegian, herri- edo eskualde-esparrutik haranzko kultura-kontsumoan, orobat lan-munduko esparru formalean, erdara da nagusi. Osagarritzko oharra: • Ez da erraza, egungo egunean, (BZ-5) neurri-mailan dauden arnaguneak (BZ-6a)-n daudenetatik argi bereiztea: zenbaitetan, are familia berean, zaharrak (BZ-6a) neurri-mailan daude eta gazte(ago)ak (50 urtetik beherakoak) (BZ-5)-ean. • (BZ-6a) neurri-mailako arnagune asko transformazio-fase bizian dago: (BZ-6a) mailatik (BZ-5)-era pasatzen ari da halako zenbait³⁵⁹; aldi berean, hobera ordez okerrera (BZ-6a egoeratik BZ-6b mailara, edota BZ-6b-tik BZ-6c-ra) doa hainbat arnagunereren osasun-egoera³⁶⁰.
BZ-6b	herritar gehieneguneko jardun arrunta euskaraz; hainbat herritarrek erdaraz egiten du³⁶¹ zer: beren artean eta beste hainbat euskaldunekin euskaraz ari izaten dira (BZ-6b)-ko herritar gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntean. Gutxienak izanik ere bada herrian, halere, erdaraz (erabat edo nagusiki erdaraz) egiten duen hiztun-multzorik. non: Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat arnagunetan. Batez ere Azpeitian, kopuruz eta ingurumenez duen garrantziagatik. Araban eta Iparraldean ez dago, dakigula, (BZ-6b) mailako arnagunerik³⁶². ezaugarri teknikoak: • nm/eja: etxean eta kalean, lagunartean eta herri-giro zabalean nagusi da euskarazko jarduna, hitzez (ez idatziz). Interakzio informal-espontanea eskatzen duten aurrez aurreko rol-harremanetan ageri da argien nagusitasun hori³⁶³. Kalean eta lagunartean erdaraz egiten duen herritar multzoak pisu nabaria du dagoeneko, gehiengo ez bada ere. Euskarazko hiztun-talde hurbila, aurrez aurreko interakzio bizikoa, kontzentrazio-dentsitatez ahultzen ari da baina, halere, kalean eta herri-giro zabalean euskarazko jarduna da nagusi.

	• bbj: euskararen nagusitasun-moldaera birmoldatzen eta bihurtzen ari bada ere, belaunez belauneko jarraipena segurtaturik dauka euskarak oraingo. • ma: mintzaldaketarik ez da falta, bai <i>eus</i> > <i>erd</i> eta bai <i>erd</i> > <i>eus</i> norabidean. Minoritarioa da, halere, <i>eus</i> > <i>erd</i>; • kst: konpartimentazio soziofuntzionala indarrean dago euskal hiztunen artean. Etxean eta eskolan, kalean eta tabernan, dendan eta elizan, euskarazko jarduna da herritar gehienek artean normala, atentzioa deitzen ez duena. Erdarazko jarduna ere etxekotzen ari da ordea, edota jadanik etxekoturik dago (horrek ere gero eta gutxiagotan atentzioa deitzen du), baina ez da herritar gehienek arau nagusi. Aldiz herri- edo eskualde-esparrutik harantzko kultura-kontsumoan, lan-munduko esparru formalean edota idatzizkoan eta tramitazio administratiboan erdara da nagusi. Konpartimentaziorik badago egon, ahultzen ari bada ere. Osagarritzko oharra: XX. mendearen bigarren erdialdera arte (BZ-6a) neurri-mailan egondako hainbat arnagune (BZ-6b)-ra pasa da geroztik. Beste hainbatek azken hamabost-hogei urtean izan du, edota oraintxe izaten ari da, osasun-galera nabarmen hori. Bai EAEn eta bai Nafarroako euskal eremuan³⁶⁴ ari da galera hori gertatzen. Iparraldean (Lapurdikiko barnealdean eta NBZn) XX. mendean galduta du euskarak, oro har, herri-giro zabaleko nagusitasun hori.
BZ-6c	hainbat herritarrek euskaraz egiten du sarri eguneroko jardun arruntean; zenbaitetik bietara; hainbatek erdaraz zer: gehienek badakite euskaraz, eta hala egiten dute sarri: batzuek beti edo nagusiki, besteek rol-harreman jakinetan³⁶⁵. Erdarazko jarduna ere aski zabalduz dago herrian: euskaldun batzuek hala egiten dute leku-solaskide-mintzagai jakinetan³⁶⁶, zenbait herritarrek erdaraz egiten du, gainera, beti edo gehienetan³⁶⁷. Irakurtze-idazte kontuak erdararen alde makurturik daude. non: Bizkaian (Bermeo?,...), Gipuzkoan (Elgoibar?,...) eta Nafarroako euskal eremuan (Elizondo?,...) ez dira gutxi horrelako kasuak. Araban Aramaio izan liteke kasu bakarra eta Iparraldean, dagoeneko BZ-7ra pasa ez bada, Baigorri gure adibide probaleena. ezaugarri teknikoak: • nm/eja: nagusitasunezko moldaera argirik gabeko egoera da hau, definizioz, eguneroko jardun arruntari dagokionez. Euskarazko solaskide-sarea, aurrez aurreko interakzio bizikoa, aski ahuldurik dago trinkoz eta zabalez. • bbj: euskararen belaunez belauneko jarraipena ahultzen ari da. Ez da ordea erabat galtzen ari: indarrean dago, parte ohargarri. • ma: mintzaldaketa gertatzen ari da hainbat kasutan, gehienetan <i>eus</i> > <i>erd</i> norabidean. Bada bestelakorik ere, ordea: hainbat gaztek eta bikote berrik euskaraz egiten du bere artean. • kst: aski egoera ezegonkorra, eguneroko jardun arruntari dagokionez. Ohiko konpartimentazio soziofuntzionala gainbehera dator eta berririk ez da eraiki. Etxean eta kalean, tabernan eta dendan erabat edo nagusiki euskaraz egitea ez da jadanik arau. Hori bezain "normal" bihurturik dago ingurumen horietan erdaraz egitea. Herri- edo eskualde-esparrutik harantzko kultura-kontsumoan, lan-munduko esparru formalean edota idatzizkoan eta tramitazio administratiboan erdara da, bestalde, nagusi. Osagarritzko oharra: XX. mendearen bigarren erdialdera arte (BZ-6a) edo (BZ-6b) neurri-mailan egondako hainbat ingurumenek arnagune izateari utzi dio eta (BZ-6c)-ra pasa da. Beste hainbatek azken hamabost-hogei urtean izan du, edota oraintxe izaten ari da, osasun-galera hori. Bai EAEn, bai Nafarroako euskal eremuan³⁶⁸ eta bai NBZn ari da galera hori gertatzen.
BZ-6d	herritar gehienek erdaraz egiten dute; hainbat herritarrek³⁶⁹ euskaraz egiten du etxean, lagunartean eta, hainbatetan³⁷⁰, kalean zer: eguneroko jardun arruntean erdara da nagusi etxean, lagunartean eta kalean. Gutxiengoa izanik ere euskaraz dihardu ordea bertako hainbat herritarrek. non: Nabarmena da bizigiro hori Euskal herriko hainbat lekutan: batez ere 5.000 biztanletik gorako hainbat herritan, herriburu askotan eta, hiriburuei dagokionez, Donostian eta (Irundik Andoain doan) bere gerri-bueltan (kanpoan utzi behar da Oiztun: euskaldunagoa da hori).

	ezaugarri teknikoak: • nm/eja: erdara da nagusi, argi eta garbi, jendartean: ezezagunekin erdaraz egiten da beraz, norma-arau nagusi horren ondorioz, kasu gehienetan. Familiaz, lagunartez eta, inoiz, lanbidez azpimultzo bizia (sendo bilbatua) osatzen dute ordea, hainbatetan, bertako euskal hiztunek. • bbj: Bertako euskaldunen belauenez belaueneko jarraipena (35-40 urteko epean neurtzekoa) nabarmen ahultzen ari da. Ez da ordea erabat galtzen ari: indarrean dago partez. Herritar euskaldun gehienek L1 gisa transmititzen diete euskara seme-alabei eta hauek, partez (ez osorik), bizirik eusten diote hizkuntza horri gaztarora arteko mintzajardun arruntan³⁷¹. Horiatariko hainbatek (ez guztiek eta ez, agian, gehienek) euskal bikote-bizitza eratzen du gero, eta euskal bizi-giroan txertatzen du familia berria. Horrezaz gainera, osasun-maila hobeko herri(xk)etatik datorren "euskal migrazioak" bertako galera berdintzen du hainbatean. • ma: eus > erd moduko mintzaldaketa gertatzen ari da partez³⁷², etxean L1 euskara izandakoen artean. Mende luzez bere-bereak izan dituen jardunguneetan³⁷³ atzera doa euskara. Aldi berean, zabalkunde argia izaten ari da bbj-ahalmen beregain osorik gabeko zenbait jardungunetan (batez ere eskolan). Euskaldunberri helduen fenomeno ere ohargarria da bertan: hein batean (zenbaitetan aski ongi) ikastera iritsi direenetatik eguneroko jardunean maiz egiten dutenetara jauzi ohargarria dago, ordea, horien artean ere. • kfs: Konpartimentazio soziofuntzional handirik ez da gelditzen auzoa, herria edo hiria bere osoan hartuta. Bertako euskal hiztunen artean badira ordea, oraindik, horren arrasto biziak: familian (eta zenbait lagunekin) euskaraz / kalean erdaraz, asteroko feria-azokan baserritarrek in euskaraz / jazki- edo lurrin-denda gehienetan erdaraz,...
BZ-6e	herritar gehien-gehienek erdaraz egiten dute; batzuek euskaraz edo bietara egiten dute etxean eta lagunartean, gainerakoan erdaraz zer: erdarazko jarduna nagusi da erabat, baina "euskal uharte" soziofuntzionalak bizirik daude "erdal itsaso" zabalean. non: Nabarmena da bizigiro hori Euskal herriko hainbat lekutan: batez ere 10.000 biztanletik gorako hainbat herri, herriburu eta hiriburutan. Tartean Bilbo, Gasteiz, Baiona eta Iruñea. ezaugarri teknikoak: • nm/eja: jaun eta jabe da erdara (BZ-6e)-n: erdara da herritar gehien-gehienek etxeko, lagunarteko, laneko, kaleko eta instituzioetako mintzabide ia bakar. Hori dela medio, etxean euskaraz egiten duten hiztun gehienek ere erdaraz egiten dute etxetik kanpora, erabateko nagusitasun-egoera horrek hartaraturik, erabat edo nagusiki. • bbj: Seme-alabei erdaraz egiten diete bertako guraso gehien-gehienek, jakin ere ez baitakite euskaraz³⁷⁴. Aldiz bertako guraso euskaldunek euskaraz edo bietara egiten dute etxean baina seme-alaba gehienek erdaraz egiten dute, nagusiki edo erabat, nerabezaroan, gaztaroan eta bikote-bizitzan. Joera nagusia, hori dela medio, euskararen jarraipen-katea haustekoa da: ez preseski eskolan (D eredura baitoaz haur asko), baina bai eskolatik kanpora eta eskola-aldia amaitu ondoren. Erdal itsasoan igeri egitera beharturik daude gazte-gaztetxoak eta gehienek erdara dute lagunartean, gero lan-giroan eta bikote-bizitzan, eguneroko mintzabide arrunt. • ma: gehiengo erdaldunak ez du erd eus mintzaldaketarik. Aldiz eus > erd norabideko mintzaldaketa gertatzen ari da, 35 urteko perspektibaz³⁷⁵, guraso euskaldunen eta etxean euskara jaso duten gazte askoren artean. Eskola ez da aski, atzerabide horri aurre egiteko. • kfs: Konpartimentazio soziofuntzionalik ez dago ia.
BZ-7	haur-hazteko gurasoek, euskaldun izanik ere, ez diete seme-alabei euskaraz egiten. Kalean erdaraz egiten da zer: erdalduntze biziko egoera. Gurasoek (biek edo bietariko batek) badaki(te) euskaraz, baina etxean eta lagunartean erdaraz egiten diete haurrei eta, beraz, seme-alabak erdal familian hazten direnez erdara dute ama-hizkuntza. non: Egoera hori aski bizirik dago Iparraldeko NBZn³⁷⁶ eta, itxuraz, LBn. ezaugarri teknikoak: • nm/eja: jaun eta jabe da erdara. Euskarak bere lekua izan dezake rol-harreman jakinetan (gurasoen edo beren adinkideen arteko harreman-bide gisa, edota gazteekiko kriptohizkuntza moduan). Seme-alabak erdaraz bizi dira ordea, oro har³⁷⁷.

	• bbj: Belaunez belauneko jarraipenik ez dago: apurtu egin da katea. Seme-alabak D ereduko eskolara bidalita ere, gaztelania dute ama-hizkuntza. • ma: erabateko mintzaldaketa gertatzen ari da, 35 bat urteko perspektiban³⁷⁸, gurasoetatik seme-alabetara. Eskola ez da aski gertatzen ari, atzerabide horri aurre egiteko. • ksf: Konpartimentazio soziofuntzionalik ez dago ia: gehienik ere etxeko edo laneko interakzio jakinetan: gurasoek beren artean, adin bereko lagun batzuekin, gazteen aurrez aurre kriptohizkuntza moduan. Osagarritzko oharra: “limited or formal domains” alorretara mugaturik gelditzen da maiz euskararen presentzia.
BZ-8a	Euskaraz egiten duten bakarrak aitona-amonen belaunaldikoak dira • zer: <i>eus</i> > <i>erd</i> mintzaldaketa oso aurreraturik, ia azken fasean, dagoeneko egoera soziolinguistikoa. Erabateko indarberritzerik eragiten ez bada begien bistako etorkizunean, hiztun-talde hori hil egingo da: dotoreago esanik, extinct fasera pasako da. non: Horrelako askotxo dago Nafarroan eta Iparraldean (batez ere LBn eta NBZn). Litekeena da, Bizkaian ere ugartxo izatea halako herriak, auzoak edo hiztun-taldeak. ezaugarri teknikoak: • nm/eja: herriko zaharren artean leku ohargarria du, oraindik, euskarak. Hortik kanpora erdara da jaun eta jabe. • bbj: belaunez belauneko jarraipenik ez dago: erabat apurtu zen hori, duela bi belaunaldi. • ma: mintzaldaketa amaitzen ari da. • ksf: konpartimentazio soziofuntzionalik ez dago herri-giro zabalean: zaharren barne-gertakari marjinala da euskarazko jarduna (karta-jokoan zahar-etxean, demagun), ez herritarrei luze-zabal eragiten diena.
BZ-8b	hitz egiteko gai diren hiztun bakarrak aitona-amonak (edota zaharragoak) dira. Ez dute, ia, norekin hitz egin zer: aurreko egoera soziolinguistikoaren are fase aurreratuagoa, azken-azken puntakoa. Zaharren arteko harreman-sare homolinguistikoek galdu egin dute, ia erabat, herri edo auzo barruko kontzentrazio tradizionala. non: bada halakorik Nafarroan eta, bereziki, Iparraldean. Erraz ahazten badugu ere hori, EAEn bertan ez da halakorik falta: euskarak eguneroko herri-giroan ia inolako pisurik ez duen tokietan barreiaturik bizi da hainbat aitona-amonak euskaldun (tartean hainbat euskaldun garbi). ezaugarri teknikoak: • nm/eja: erdara jaun eta jabe. • bbj: inolakorik ez. Ez dute nori pasa. “Azken mohikanoak” dira euskaldun apur horiek. • ma: aspaldi, beren haurtzaroan-edo, pasa zen beren bizi-giroan <i>eus</i> > <i>erd</i> mintzaldaketaren olatua. • ksf: ez dago halakorik. Erdarak bere mende du eguneroko jardun arrunta.
BZ-9	behinolako herri-izatearen, jatorritzko nortasun etnikoaren, oroigarri da hizkuntza zer: normalean ez dira euskaldun; era sinbolikoan bakarrik “egin” dezakete gehienek euskaraz: kaixo, egun on, agur, eskerrik asko,... Gehienek ez dakite euskaraz. Seme-alabak B edo D ereduko eskolara bidaltzen ditu horietariko hainbaitek, motibazio honegatik edo hargatik. Euskaltzale izan liteke halako hainbat, herri-gogoak eraginik. Euskarazko jardunak ez du ordea beren (eta bere inguruko gehienek) bizimodu arruntean pisuzko lekuri, sinbolikoki ez bada. non: Horrelakorik askotxo dago Euskal Herri gehienean: demagun Araba gehienean eta Nafarroako bietariko eremuan bizi den (adin batetik gorako) hiztun-jendea, oro har erdaldun elebakarra (hots, euskaraz ez dakiena) baina arbasoen aldetik euskaldun izatearen zantzurik ageri duena. ezaugarri teknikoak: • nm: erdara jaun eta jabe. • bbj: ez. • ma: pasa zen aspaldi, inoiz halakorik izan bazen beren arbasoen ibilbidean. • ksf: ez dago halakorik. Erdarak bere mende du eguneroko jardun arrunta.
BZ-10	jatorritzko nortasun etnikoarekiko lotura galdurik du hizkuntzak, are maila sinbolikoan zer: ez dira euskal hiztun eta gehienek ez dakite euskaraz. Arbasoekiko euskal lotura etnokultural argirik ez dute.

non: Hego eta Ipar ez dira gutxi, egoera horretan dauden herritarrak: Nafarroako erdal eremuan, bereziki, erdal hiztun dira ia guztiak³⁷⁹ eta gehienak ez daude euskara sustatzearen alde³⁸⁰.

ezaugarri teknikoak:

- **nm:** erdara jaun eta jabe.
- **bbj:** ez.
- **ma:** pasa zen aspaldi, inoiz halakorik izan bazen beren arbasoen ibilbidean.
- **ksf:** ez dago halakorik. Erdarak bere mende du eguneroko jardun arrunta.

Hamalau kategoriako eskala-etaula sortu dugu beraz, atzerriko bibliografian ibilbide luze(en)a duten formulazioak gure egoerara egokituz eta, ahal izan den heinean, hizkuntza-soziologiaren oinarritzko konstruktuek integratuz. Egin diren egokitze-lan horietan garrantzitsua da, besteak beste, belaunez belauneko jarraipena etxeko L1-era mugatu ez izana. Aplikazio moduko proposamena da hau. Asko dago hor eztabaibatze eta fintzeko. Bere aje eta moztade guztiekin ere badu ahalmenik, gure ustez, XXI. mende-hasierako euskal hiztun-herriaren osasun- eta ahuldade-egoerari neurria hartzeko eta, batez ere, “kasuak eta kasuak” ditugula onartuz kasu batzuen eta besteen bereizgarriak termino soziolinguistiko operatiboetan planteatzeko.

Gatozen beraz mamira: *EOD*Aren osasun-eskala horretan non gaude gaur euskaldunok? Zer pisu dugu egungo euskal hiztunok hamalau maila horietariko bakoitzean? Erantzun argia du galderak: atal eta maila guztietan gaude egungo euskaldunok, BZ-2tik hasita BZ-10eraino, eta aski pisu diferentea dugu batzuek eta besteok maila bakoitzean. Nagusitasun-moldaerari dagokionez, batez ere, alde handia dago J arloan: herritar batzuek (BZ-5)-ean gaude, besteak (BZ-6e)-an edota are ahulago. Hona, beraz, galdera horren lehen hurbilpenezko erantzun-saioa:

- a) Lan handia egin da garapenezko G alorrean, Euskal herrian oro har eta EAEn bereziki, azken hamarkadetan: ahuldutako hiztun-herri europar gehienekin konparatuz, oso handia. Lehen baino nabarmen hobeto gaude orain, hori dela medio, zenbait eskualdetan eta zenbait jardungunetan: eskola-esparruan, bereziki, arras goraldi bizia izan dugu oro har. Alde nabarmena egonik ere EAetik Nafarroara, eta bi hauetatik Iparraldera, batez besteko joera goranzkoa izan da hor. Oro har sarbide ohargarria izan du euskarak G alorreko beste mailetan ere. Eskola-esparruan (BZ-4n alegia) izan ezik, halere, erdara da G alorrean nagusi. Inportantea da euskararen etorkizunerako, hamarkada hauetan G alorrean egin den eta egunero egiten den euskalduntze- edo elebiduntze-saioa. Garapenezko hiru maila horiek osasungarri sendo dira maiz, gurea bezalako hiztun-herrien-

**Aplikazio
moduko
proposamena da
hau. Asko dago
hor
eztabaidatzeko
eta fintzeko. Bere
aje eta moztade
guztiekin ere
badu ahalmenik,
gure ustez, XXI.
mende-hasierako
euskal hiztun-
herriaren
osasun- eta
ahuldade-
egoerari neurria
hartzeko eta,
batez ere,
“kasuak eta
kasuak” ditugula
onartuz kasu
batzuen eta
besteen
bereizgarriak
termino
soziolinguistiko
operatiboetan
planteatzeko.**

tzat; kontestu modernizatueta gero eta beharrezkoago, ahuldutako hizkuntzak indarbertitzeko. Beren baitarik ezin dute, ordea, G alorreko garapen-saioek helduen jardun arruntetik galdutako hizkuntza etxekotu³⁸¹, ez eta belaunez belauneko jarraipen bete segurtatu: lagungarri dira horretarako, ez ordea motore beregain.

b) Gatozen J alorrera. Aldakortasun handia, harrigarri handia, ageri dugu euskaldunok J alorrean, XXI. mende-hasiera honetan³⁸². Gradazio argia eskaintzen du J alorrak (BZ-5)-etik (BZ-6e)-ra eta, ezin besteko etenaz, hortik behera.

c) Osasun hoberena *arnasguneek* dute: hots, BZ-5, BZ-6a eta BZ-6b mailetan dauden ingurumen fisikoek. Euskaraz egiten da bertan, erabat edo nagusiki, etxean eta auzoan, lagunartean eta herrigiro zabalean. Etxeko transmisioa ia erabatekoa da hor, eta eskola gehien-gehienak D ereduak dituzte. Belaunez belauneko jarraipena inon baino sendoago segurtaturik daukate arnasguneek, luze-zabaleko transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultural, politiko-operatibo edo lurralde-antolamenduzkoek beren oraingo egoera okertzen ez badute. Arnasguneak ere ez daude, ordea, guztiak osasun-maila berean. Batetik *arnasgune beteak* daude: BZ-5 eta BZ-6a mailakoak. Eguneroko jardun arruntean (hitzez eta, partez, idatziz) euskara erabat nagusi da bertan. Bestetik, aldiz, (BZ-6b)-ko *arnasgune erasanak* ditugu: herritar gehieneguneko jardun arrunta euskarazkoa da hor ere, baina hainbat herritar erdaraz bizi da eta herrigiro zabalean eragin nabarmena du horrek. Hiztun-kopuruz txikiak edo oso txikiak dira arnasgune beteak, eta bizibidez inguruko herriburuen edo hiriburuaren mendeko. Arnasgune erasanak handixeago dira hiztun-kopuruz, eta bizibidez beregainago. Azpeitia (bere gerri-buelta zabala barne duela), bereziki, oso kontuan hartzekoa da. Aparteko indarbertitze-plana zor zaio.

d) Osasunez ahulago daude BZ-6c mailako ingurumenak. Ez dira *arnasgune*: euskara ez da eguneroko jardun arruntean nagusi eta, partez, konprometitu dute belaunez belauneko jarraipena. Etxean euskaraz egiten dute bertako euskaldun gehienek, eta lagunartean ere bai askotan. Horrezaz gainera bere alde dute euskal eskola, ia beti D ereduak³⁸³, baita (idatzizko edo ikus-entzunezko) euskal komunikabideez baliatzeko aukera ere. Erdarazko harreman-sareek pisu nabarmena dute, ordea, bertako euskaldunen artean ere. Hori dela medio ahulduz doa bertako euskal jarduna; ahulduz doa oro har, baina bizirik dago. Herri eta (arnasgunez inguratutako) herriburu mordoxka dago BZ-6c-n. Aurrekoak baino handixeago dira hiztunez, askotan.

e) Osasunez okerrago daude (BZ-6d) mailako herri eta herriburu ugariak batetik, eta Donostia bestetik. Hiztun-kopuru zabala bizi da (BZ-6d)-n. Bertako euskaldunen belaunez belauneko jarraipena ahulduz doa oro har, euskal eskola eta guzti; *eus* > *erd* mintzaldaketa lanean ari da. Osasun-maila sendoagoko lekuetatik datorkien “euskal migrazioak”, eta leku horiekiko harremanak (lanbidez, familiarterako harremanez...) berdindu egiten du ordea, norabidez aldatu ere bai inoiz, galera hori. Indarberritze-saio askoren abiaburu eta jomuga dira (BZ-6d)-ko herritarrak.

f) Egoera larrian daude (BZ-6e) mailako hiztun-talde euskaldunok: hor sartzen dira batetik Bilboko, Gasteizko eta Iruñeko euskal hiztunak; XX. mendean immigrazio eta mintzaldatze larria jasandako herriburu askotakoak ere hor daude, bestetik. Lapurdin, Bizkaian, Araban eta Nafarroan aspaldidanik “erdal eremu” diren lekuetako euskaldunak hor daude orobat, azkenik. Seme-alabei euskaraz (ere) egiten diete sarri betako euskaldunek; eskolan ere euskarazko ikasbidea indartsu dauka horietariko askok eta bestelako garapen-aukerez baliatzen dira hainbatean (euskarazko prentsa-albizkariez, irrati-telebistaz eta abar). Herri euskaldunekiko (edo herri horietako euskaldunekiko) kontakturik ere badu bertako hainbat herritarrek, familia-loturaz, lanbidez edo bestelako lokarriz: erdal-giro horretako euskaldunberriekiko loturarik ere bai, zenbaitetan. Gizarte-bizitzaren mintzabide bakar (edo arras nagusi) erdara den lekuetan bizi direnez, euskararen belaunez belauneko jarraipena oso konprometiturik dute halere³⁸⁴. Nerabazarotik hasita “erdal itsasoan” igeri egitera beharturik daude horko gazte gehienak eta erdara dute kolean, lagunartean eta gero, sarri, lantegian eta bikote-bizitzan eguneroko mintzabide arrunt: *eus* > *erd* norabideko mintzaldaketa indartsu ari da hor lanean. Garapenezko lagungarrien eraginaz gainera alde dute ordea, hiztun-multzo hauek ere, osasun-maila sendoagoko lekuetatik datorkien “euskal migrazioa”. Mintzaldaketaren galera-eragina xuabetu, zenbaitetan bestelakotu, egiten du “euskal migrazio” horrek.

g) Oso larria da (BZ-7)-ko osasun-egoera. Gurasoen jokabide hori erro-errotik aldatzen ez bada, aldeko transformazio demografikorik gertatzen ez bada edota garapenezko neurriek eragin bortitzik sortzen ez badute, belaunaldi bitan desagertu-edo egingo da hor euskara, jendarteko jardunean.

h) Larria ezezik agonikoa da (BZ-8a/b)-etako egoera. Azken euskal belaunaldia da hori; jendarteko euskal mintzoaren amaiera; mintzaldaketaren fase-amaiera osoa. Bere baitariko indarberritze-biderik ez da hor ageri.

Osasun hoberena arnasguneek

dute: hots, BZ-5, BZ-6a eta BZ-6b mailetan dauden ingurumen fisikoek.

Euskaraz egiten da bertan, erabat edo nagusiki, etxean eta auzoan, lagunartean eta herrigiro zabalean. Etxeko transmisioa ia erabatekoa da

**Aurrerabide
nabarmena egin
da eskola-
esparruan : EAEn
oso igoera argia
izan du gela
barruko euskal
jardunak;
Nafarroan eta,
apalago,
Iparraldean ere
euskararen
ikasgelako
erabilerak gora
egin du azken 50
urtean.**

i) Mintzajardunari dagokionez erdaldun huts dira (BZ-9)-ko eta (BZ-10)-eko herritarrak. Ez dago hor euskararen belaunez belauneko jarraipena eteteko bildurrik: ez dagoen gauzarik ezin da galdu. Indarberritze-lana ordez *revernacularization* egin behar da: “euskara etxekotzea” bideratu behar da hor. Arras zaila da hori baina ez ezinezkoa: ikus hebraiera.

Aurrerago, txosten honen hurrengo atalean, esaten dugu hiztun-multzo horien jarduna belaunez belauneko perspektiban indarberritzeko gure ustez zer egin litekeen.

6. AURRERA BEGIRAKO ERRONKA NAGUSIAK. ERRONKA HORIEI EGOKI ERANTZUTEKO ZENBAIT PROPOSAMEN

I
Gero eta euskaldun (euskaraz dakien elebidun) gehiago dugu oro har; igoera hori nabarmena da, batez ere, EAEn. Jakite-maila kuantitatibo globalak, ez lekuan lekukoak³⁸⁵, gorabide argia ageri du horretan: hor daude Iñaki Mz. de Lunaren azalpen jakingarriak eta, beste perspektiba batetik, Xabier Erizeren ekarpen sendoak. Ba al dago jakite- edo gaitasun-mailaren pareko igoerarik, euskarazko jardunaren alorrean? Bai eta ez.

Aurrerabide nabarmena egin da eskola-esparruan³⁸⁶: EAEn oso igoera argia izan du gela barruko euskal jardunak; Nafarroan eta, apalago, Iparraldean ere euskararen ikasgelako erabilerak gora egin du azken 50 urtean³⁸⁷. Egia da administrazio- eta zerbitzu-alorrean ere aurrera egin duela euskarazko jardunak, oro har, azken hamarkada hauetan. Egia da euskal irrati-telebistak ditugula orain eskueran, lehen ez bezala, bertako edukia euskaraz jaso ahal izateko; euskal egunkari-albizkariak ere hor dauzkagu egungo egunean, irakurle potentzialen hautakizun; euskal kultura-kontsumoaren elikagai izan litezkeen argitalpenak eta zabalkunde-bideak ere ugaritu egin dira azken hamarkadotan. Lan-esparruan ere ez dirudi, oro har, atzera doanik kontua: EAEn behintzat ez. Hizkuntza bera lehen baino landuago, doituago, zorroztuago eta aberastuago daukagu *corpus*-plangintzaren aldetik: hizkera-molde formal-espositiboaren beharra duten jardungune eta harrreman-sare zabal-berrietan lehen baino errazago egin liteke orain euskaraz. Landuago dago hizkuntza barne-moldaeraz, terminologiaz eta ortografiaz, eta hainbat jardungunetan lehen baino airosoago erabiltzen da maiz³⁸⁸. Horretan guztian aurrera egin da, dudarik gabe.

Ez da aldiz aurrerabide nabarmenik ageri (EAEn ere ez) etxeko erabilera aitortuan eta kaleko mintzajardun neurtuan. EAetik kanpora bederen ez dago halako igoerarik, era bateko edo besteko datuen argitan, belaunez belauneko jarraipenaren babes-oinarri nagusi diren gainerako jardunguneetan ere. XX. mende trumiltsuan euskararen babes, hauspo eta gotorleku izan diren arnaguneak, bestalde, ahulduz doaz nonahi. Ahultze-bide hori nabarmen azeleratu da EAEn, azken urteotan. Orain dela gutxira arte euskararen aski erabilera bizia ageri zuen hainbat eskualde³⁸⁹ atzerabide larrian ageri da. Hots, etxe-auzo-kale-lantegi-lagunarte sailean eta herrigiro zabalean bertako hiztun gehienek eguneroko hizketa-ordu gehienak estaltzen dituen aurrez aurreko (zenbaitetan talde-giroko) jardun xumean, euskararen eguneroko erabilera arruntean alegia, hizkera-molde informal gatz-piperduna ez da (maiztasun-kopuruz eta mami-bizitasunez) bere buruari eusten ari, edota nekez eusten dio bere buruari. Hizkuntzaren jardungune formal-jasoetan egiten ari garen aurrerabide ukaezina ez da gai, jardungune informal-intimoetako atzerabide hori frenatzeko. Urtean ehun tesi euskaraz egiteak, udal-ordenantzak euskaraturik eta herritarren eskuragai izateak, Administrazioako edo aurrezki-kutxetako publizitatea ele bietan (zenbaitetan, hala nahi bada, euskara hutsean jaso ahal) izateak eta ETB1ek eguneroko berri-emankizun argiak edo dokumental ederrak euskaraz emititzeak ez du ehunka mila euskaldunon eguneroko mintzajardun arrunt, espontaneo horren alorrean gertatzen ari den aurrera ezina, sarritan galera mingarria, nabarmen ematen: are gutxiago ezabatzen.

Hori izanik panorama nagusia, non daude euskara indarberritzeko saioak erantzun beharreko erronka nagusiak? Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena segurta dezaketen alorretan. Hor ditugu epe ertain eta luzerako erronka nagusiak. “Behe-mailako” esparru horietako erabilera arrunta indartu eta zurkaiztu gabe alferrik dira gainerako garapen-saioak. Ikasteak ezer gutxitarako balio du, ikasten ari garena “hemen eta orain” ikasgelaz kanpoko harreman bizian txertatzen ez bada luze-zabal. Belaunez belauneko jarraipenaren sostengu nagusi diren jardunguneak, eta jardungune horiei dagokienez euskara nagusi izango den esparru fisiko-territorialak, ezinbesteko aurrebaldintza ditugu bizirik ateratzeko. Horixe izan du euskarak iraupen-oinarri nagusi, menderik mende; hori gabe ez da bizirik aterako gero ere.

Euskara-erdaren konpartimentazio-eskema zabal eta egonkor berria sortu, adostu eta aplikatu beharra dago horretarako: hori gabe, “arrain handiak txikia jango du”. Horretaz guztiaz dihardu atal honek. Zazpi erronka nagusi zehaztu dira bertan. Hona zazpiak, hurrenez hurren.

Non daude euskara indarberritzeko saioak erantzun beharreko erronka nagusiak? Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena segurta dezaketen alorretan. Hor ditugu epe ertain eta luzerako erronka nagusiak.

***Etiket
euskaldun diren
ikasleen
gaitasuna,
euskaraz
mintzatzeko
ahalmena,
sendotu egin
dezake euskal
eskolak.***

***Etiket (erabat
edo nagusiki)
erdaldun diren
ikasleak
euskaldundu egin
ditzake eskolak,
halako neurri
batean.***

6.1 «Lehendabizi ikasi, gero egin» paradigmatik «eginez ikasi» formulaziora pasa beharra. Euskara indarberritzeko saioan eskolak zer leku duen argi ulertzea.

Asko egin da eskola esparruan, azken 50 urtean. Hazkunde nabarmena izan du euskal eskolak, sektore publikoan zein pribatuan, azken 35 urtean, eta lehenagotik dator ikastolen eragin bizia. Bada ordua, han-hemen lortu dena eta lortu ez dena aztertzeko, baloratzeko, eskola bidezko indarberritze-saioaren argi-ilunak diren bezalakoak zergatik diren ulertzen saiatzeko eta, litekeen neurrian, eskolak indarberritze-alorrean duen eginkizuna, “bere lekua”, birplanteatu eta, ahal balitz, adosteko. On da, hasteko, euskal eskolak zer egin dezakeen eta, hainbatean, zer egiten ari den gogoratzea. Euskara indarberritzeari dagokionez bost helburu nagusi ditu, edo izan ditzake, euskal eskolak:

a) Etiket euskaldun³⁹⁰ diren ikasleen gaitasuna, euskaraz mintzatzeko ahalmena, sendotu egin dezake euskal eskolak: ikasle euskaldunek etiket dakarten gaitasuna zabaldu, aberastu, etxeko erreistro informetik erreistro formalagorako bidea indartu, ahozko jarduna idatzizko eta irakurritzko planora hedatu, hizkuntzaren eredu bateraturako ateak zabaldu eta hiztun-elkarte osoaren bateragarri izango den eredu horren ezagutza jeneralizatu.

b) Etiket (erabat edo nagusiki) erdaldun diren ikasleak euskaldundu egin ditzake eskolak, halako neurri batean. «Neurri batean» diogu, eskola bidez L2 ikastea edo (euskaraz egiteko adina) ez ikastea eskolan eta, bereziki, eskolatik kanpora L2 horretan jarduteak edo ez jarduteak bideratzen duelako nagusiki³⁹¹. Eskolan (eskolan bakarrik) ez da L2 hizkuntzaren hitz-etorri oneko mintzamenik eskuratzen, oro har. Erabateko gaitasun hori ez du eskolak eskaintzen, baina milaka ikasle erdaldun “nolabaiteko gazte elebidun” bihurtzen ditu. Elebitasun horrek era askotako eragozpen-mugak izan ditzake, baina abantaila sendorik ere badu berekin. Eskolatik kanpora euskaraz interakzio-sareetan integratu beharra, komenentzia edo gogoia baldin badute ikasle horiek, “oinarrizko maila bat” eskuratua dute-larik hortik aurrera errazago egin ahal izango dute.

c) Curriculumaren euskal dimentsioa (CED) aurrez aurre landu dezake eskolak. EAEk badu %45 inguruko eskumena curriculum-fin kapen horretan. Hainbateko eskumen espresurik gabe ere ez da hutsaren hurrengo, eskolak euskal dimentsio horren alde egin dezakeena. Gure herri-izaeraren eta nortasun kolektiboaren ezagutza eskura dezakete horrela, hein batean, belaunaldi gazteek. Kultura

ez da, gainera, mende joanetako jardunaren ondare metatua bakarrik: egunero berritzen da, eguneroosatzen, egunero birmoldatzen eta berregiten. Euskaldunon egungo talde-izaera kontuan izan behar du eskolak, horretarako³⁹². Belaunaldi gazteen sozializazio-lanean osabetezko partaide izango bada eskola, euskal dimentsioaren berri eman behar die belaunaldi gazteei. Askok besterik uste duen arren unibertsalago egin gaitzake lan horrek, ez nor bere zilborraren miresle itsuago. Gure herri-izaerak, lehengoak eta gaur-biharretakoak, bere lekua (behar) du eskolan. Eginkizun horri ere “bere neurria” bilatu behar zaio, jakina: eginkizun dago, nagusiki, neurri-bilatze eta neurri-adoste hori. Ez da lan erraza, bai ordea premiazkoa: *dikotiledoneoak* eta *Ruffiniren teorema* euskaraz ikastea ezin izan liteke euskal eskolaren helburu nagusi, are gutxiago bakar³⁹³. Euskal dimentsioa ganoraz eta neurriz lantze hori bateragarri da gurea baino esparru zabalagoetako gizarte-moldaerak, aginte- edo lan-erakundeak, bateko eta besteko ohiturak, balio-ikuspegi diferenteak eta ekarpen globalak aintzakotzat hartzearekin. Euskaltasunak leku zentrala izan behar du ikuspegi global horretan: euskaldun izateaz³⁹⁴ harro (ez zilbor-miresle itsu, bai ordea baikor) dagoen gazte-jendea behar-beharrezkoa du hiztun-elkarte ahuldu orok, bizirik aterako bada eta hiztun-elkarte beregain gisa aurrera egingo badu. Euskal nortasun-izaera egoki jasoko duen curriculum berariaz lantze horrek nabarmen lagundu dezake eginbehar horretan³⁹⁵.

c) Eskola, buru-langile eta buruzagi berrien harrobi. Eskolan agertzen eta gailentzen hasten dira sarri, egungo egunean, lagun-taldeak, talde barneko gidari-eskemak eta trebetasun bereziko lankideen lehenengo konfigurazioak. Hala da eskola gehienetan eta hala da, hein batean, gurean ere. Elementu hori ere kontuan hartu behar da. Edozein hiztun-herri bizik, edozein hiztun-elkarte sendok, belaunez belaun bizirik aterako bada bere gogoetaginek propioak, bere sormen-eragileak, bere eliteak eta bere buruzagiak behar izaten ditu. Ez dago hori gabeko hiztun-elkarte osasuntsurik munduan. Horren premia baldin badute beren hizkuntza belaunez belauneko perspektiban segurtaturik duten hiztun-herriek, gurea bezalakoek ere beharrezkoago dute osagai hori. Eskolak badu horretan ere zer egina, eta ez dago dudarik hainbat lagungarri eskaintzen dituela horretarako, nahiz eta eginkizun hori ez den, urrundik ere, eskolaren eginkizun eskusibo.

e) Milaka euskaldun profesionalen bilgune eta pizgarri da eskola-mundua. Beren hizkuntza osasun onean duten hiztun-herriek badute gureak ez bezalako doai berezia, aldeko zein kontrako mila legek

Curriculumaren euskal dimentsioa (CED) aurrez aurre landu dezake eskolak.

Milaka euskaldun profesionalen bilgune eta pizgarri da eskola-mundua.

**Eskolak ezin du
ordea, larri
ahuldutako
hizkuntza
nabarmen
indarberritu:
hiztun-kopuruz
eta hiztun horien
kontzentrazioz,
orobat aplikazio-
gune
soziofuntzionale,
belaunez
belauneko
perspektiban
atzeraka etorri
izan den
konstelazio
etnolinguistiko
xaharrak eskola
bidezko
indargarri hori
baino sendabide
globalagoak
behar ditu.**

baino pisu handiagoa duena: beren aldeko ordainsari-sistema. Aurrera egin nahi bada gizarte horietan, gizartean gora egin nahi bada, ezinbesteko eskakizuna da hizkuntza horretan trebe izatea: trebe izatea hitzez, eta gero eta alor gehiagotan trebe izatea eta idatziz. Lan-esparru bakarra da hezkuntza, euskararen aldeko ordainsari-sistema (ez erabatekoa, baina bai nagusitasun nabarmeneko) ezarri duena bere alde. Azken 35-40 urtean egin da hori, bereziki, EAEn; 30.000 irakasle baino gehiago dira, egungo egunean, lan-esparru horretara sartu ahal izateko EGA, HE2 edo antzeko maila frogatu behar izan dutenak. Hots, irakasle izateko euskaldun izan behar da hemen (EAEn, beste maila batean Nafarroan, ondotoz ahulago Iparraldean). Euskal eskolak euskara indarberritzeko ekarri duen bosgarren onura da hori, inolako dudarik gabe.

Hori guztia egiten du euskal eskolak, edota hori guztia egin dezake. Ez da beraz, inola ere, gutxiesteko lana. Hori guztia egia izanik ere eskolak ezin du ordea, bere hutsean, larri ahuldutako hizkuntza nabarmen indarberritu: hiztun-kopuruz eta hiztun horien kontzentrazioz, orobat aplikazio-gune soziofuntzionalez, belaunez belauneko perspektiban atzeraka etorri izan den konstelazio etnolinguistiko xaharrak eskola bidezko indargarri hori baino sendabide globalagoak behar ditu, atzerabideari alto emateko eta, gizarte-oinarri zabalez adostutako norabidean eta neurrian, aurrera egiteko. Guztiok (esplicituki edo inplizituki) luzaro aldeztu edo gogotik onartu izan dugun «lehendabizi ikasi, gero egin» paradigmaren ordeaz «eginez ikasi» formulazioa gorpuztu beharra daukagu eskola-munduan (Zalbide, 2013: 164-5). Horko «lehendabizi ikasi, gero egin» paradigmaren oinarritzen da, funtsean, 1982ko Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarri Legea. Asmo konkretu-operatiboei dagokienez xede-eskakizun bat du guztien gainean, zorrotz eta global³⁹⁶: oinarritzko eskolaketa-aldia amaitzean ikasle orok euskaraz³⁹⁷, hitzez eta idatziz, egiteko behar bezain trebe izan behar du praktikan. Herri Aginteei dagokie, Legearen arabera, hurrengo belaunaldiak euskaraz egiten ikasiko duela segurtatzea. Hots, «lehendabizi ikasi» eta gero gerokoak. Badakigu zer konplikatu den, gero, legeak dioena osorik ez bada ere xede hori ondo samar betetzen dela esplikatzea, edota zer kritika zorrotz egiten diren lege-eskakizun hori inondik inora ez dela betetzen gogoraraziz. Perspektiba soziologiko murrizaz jokatzeko dugu horrelakoetan, batzuek eta besteok. Legeak nahi duena esango du, baina eskolak bakarrik, bere baitarik, ezin du halakorik lortu. Hori lortu nahi bada, paradigmaz aldatu behar dugu guztiok: «eginez ikasi» formulaziora egin behar dugu jauzi.

Neska-mutilei “behingoz euskara ondo irakasteko” metodo hobea, moda-modakoa, “definitiboa”,... leher egin arte bilatzen saiatu gabe beste honek izan behar du lehentasun nagusi: gizarte-bizitzan euskaraz egiteko aukera, komenentzia eta beharra benetan non dagoen (edo non legokeen) ikusiz, eta gure esku egon litezkeenak hautatuz, aukera-komenentzia-behar horien oinarrian dauden prozesu demografikoak, soziokulturalak, ekonoteknikoak, lurralde-antolamenduzkoak eta administratiboak euskarazko jardunaren indargarri izan daitezen birmoldatzen saiatzea. Hori egin gabe «lehendabizi ikasi, gero egin» paradigmaren ildotik jarraitzeak ez garamatza begiz jotako indarberritze-helburu sendora. Dagoeneko lortu duguna hurrengo belaunaldian galdu, hutsetik abiatu eta berriro oraingo lorpen-maila lortzen saiatzea da, horrela jokatz, gehienik egin dezakeguna: berriro hutsetik hasiz maiz asko³⁹⁸, etxetik, auzotik eta lagunarte hurbiletik jasotzen ez duten euskarazko jardun biziaren truk euskara ikasteko bide formala eskaintzea³⁹⁹. “Orain ikasi” lelopean indarberritze-saioaren esfortzu nagusia *de facto* eskolara mugatzeak badakigu nora garamatzen. EAEn gero eta jende gehiagok daki euskaraz, hein batean edo bestean: igoera handia gertatu da, inkesta soziolinguistikoen argitan, EAEn bereziki. Inkesta horien zein kale-neurketen oso irakurketa okerra egin ez badugu, ordea, nekez esan liteke euskararen erabilera bizi-giro informaleko jardungune hurbiletan (etxean, auzoan, lagunartean, kalean) antzeko aurrerapausorik egiten ari denik (gizarte-indargarritz hornituen dagoen Gipuzkoatik kanpora, bereziki). Hots, munduko hizkuntza guztiak belaunez belaun transmititzen diren ingurumen zentrolean ez gara, D eredua lagun izanik ere, aurrerapauso handirik egiten ari, eta atzera ari gara zenbait kontestutan.

6.2 Eskolaz kanpoko erabilera ardatz izango duen lehentasun-eskema berria eratzea

Lehentasunez aldatzea eskatzen du goian esandako paradigma-aldaketa horrek. Eskolaren berezko eginkizunak eta euskara indarberritzeko dituen ahalmenak ezertan gutxietsi gabe, jakite kontuen ordeztuak hartzea ardatz. Eguneroko bizi-giro arruntean batez ere euskaraz egiten den (okerreanean, euskaraz egin litekeen) jardunguneak, harreman-sareak, auzoak, herri-herrixkak eta, ahal balitz, eskualdeak izan behar ditugu horretarako abiaburu. Eguneroko jardun arruntean euskara bizirik eta sendo dagoen espazio fisiko eta soziofuntzionalak izan behar ditugu begien aurrean, lehenik eta behin, euskal eskolak eta euskalgintza osoak bere fruitua emango badu. Nagusiki euskaraz egiten duten (har-

«Lehendabizi ikasi, gero egin» paradigmaren ildotik jarraitzeak ez garamatza begiz jotako indarberritze-helburu sendora. Dagoeneko lortu duguna hurrengo belaunaldian galdu, hutsetik abiatu eta berriro oraingo lorpen-maila lortzen saiatzea da, horrela jokatz, gehienik egin dezakeguna.

**Etxean eta
eskolan
ikasitakoa
auzoan, kalean,
aisialdian,
lagunarte
hurbilean (eta
gero, lan-
esparruan)
zapuztu egiten
bada, etxeko eta
eskolako saio
gogotsu hori ahul
gertatzen da
hizkuntza-
erabileraren
belaunez
belauneko
jarraipena
bermatzeko.**

tarako beharra, komenentzia edota, gutxienez, aukera eskaintzen dute-lako nagusiki euskaraz egiten duten) ingurumen fisikoak, jardunguneak eta harreman-sareak urre bizia bailiran zaindu eta gorde behar ditugu. Fishman-ek behin eta berriz gogoratu izan duenez, “Every infant acquiring the beloved old language at home must have ample out-of-home interlocutors, topics, and places for informal use of the language all the way through to the time when he or she becomes a parent.” Seme-alabei euskara L1 moduan (edo L1a/L1b gisa) erakustea ez da aski; D edo B ereduko eskola ere ez: etxean eta eskolan ikasten den hori etxetik eta eskolatik kanpora erabili egin behar du umeak, gazteak edota helduak, euskal familia eratu eta haurrak izan arte. Ziklo hori burutu arte ez dago belaunez belauneko transmisio beterik. Etxean eta eskolan ikasitakoa auzoan, kalean, aisialdian, lagunarte hurbilean (eta gero, lan-esparruan) zapuztu egiten bada, etxeko eta eskolako saio gogotsu hori ahul gertatzen da hizkuntza-erabileraren belaunez belauneko jarraipena bermatzeko. Jarraipen hori gabe, berriz, hiztun-elkarteak ez du etorki-zunik. Badago horretan guztian ere kanpoko argi-ilunetan zer ikasi. Eskolaz kanpoko erabilera ardatz izango duen lehentasun-eskema berria eratu behar dugu: herritarren eguneroko jardun arrunta eta belaunez belauneko jarraipena segurtatzea edo indartzea helburu nagusi duen eskema berria. Gizarte-bizitzan euskaraz egiteko aukera, komenentzia eta beharra eragiten duten prozesu hurbilak oso kontuan izan beharko ditugu horretarako: eguneroko jardun arrunta prozesu-multzo horren ondorio da batez ere, eta belaunez belauneko jarraipenaren iturburu nagusi. Garapen-saioen aurretik jarri behar dira, hortaz, eguneroko jardun arrunta eta belaunez belauneko jarraipena zurkaiztea. Hori gabe alferrik dira dira garapen-neurriak oro.

6.3 Konpartimentazio soziofuntzional berria(k) birsortzea

Eguneroko jarduna konpartiturik dugu eta, hoberenean ere, hala izango dugu euskaldunok. Etxean eta auzoan, kalean eta lanean, hiriburuan eta opor-lekuan, telebistan eta *internet*-en euskaraz bakarrik egiten duen herritar multzo zabalik ez dago: arnaguneetan ere ez. Erdararen etxekotzea iritsi den mailara iritsi delarik, euskaldun gehienek ez dugu gehienetan, aukera izanik ere, euskara hutsezko bidea hautatzen: “behar denean” erdaraz⁴⁰⁰ egiten dugu. Panorama hori ez da gure (eta gure seme-alaben) bizialdian goitik behera aldatuko. Euskara-erdarekin kontatu beharra dago hortaz begien bistako etorkizunean. Arrain handiak txikia jateko arriskua du bide horrek, bistan da. Baina ez dago beste biderik.

Noiz euskaraz egin, eta noiz erdaraz, euskarari bizirik eutsiko bazaio? Gauza bera egiteko, solaskide berarekin ingurumen berean solas-modu bera aurrera eramateko, ez da hizkuntza bi edo gehiago behar izaten, *code-switching* eta irri-joko jakinetatik kanpora. Horrelako bikoiztapen erredundanterik ez da gertatzen, bereziki, belaunez belauneko perspektiba egonkorrean. Leku berean hizkuntza bik (edo gehiagok) bizirik iraungo badute, bakoitzak bere espazio argia behar du. Gurera etorriz, konpartimentazio soziofuntzional argiko elebitasun-molde egonkorra behar du euskarak, lehenik eta behin, bizirik aterako bada: euskaldunok gure artean euskaraz jarduteko ahalik eta behar, komenentzia edota aukera ugariak eragiten dituen konpartimentazioa. Gaur ditugun eta bihar-etzi seguruenik izango ditugun baldintza soziolinguistikoetara egokituko den konpartimentazio soziofuntzional berria asmatu, adostu eta antolatu behar dugu horretarako: belaunez belauneko perspektiban bere buruari eusteko⁴⁰¹ lain izango den moldaera⁴⁰². Luze-zabaleko konpartimentazio soziofuntzional egonkor hori da, hain zuzen, *diglosia* (Zalbide, 2011). Arnasguneetan egin liteke berritze-lan hori errazenik, hemen eta orain. Ez hiztun gehienak bertan bizi direlako, euskararen nagusitasun-moldaera sendoenik hor dagoelako baizik. Nagusitasun-moldaera horrek eutsi dio euskal hiztun-elkarteari bizirik, milaka urtean. Hori gabe ezingo da iraun, begien bistako etorkizunean ere.

6.4 Arnasguneen lehentasuna eta garrantzia

Euskarazko jardunak bizi-giro informalean leku oparoa izango duen espazio trinkoa, sakabanatze edo dispertsio fisiko nabarmenik gabea, ezinbesteko baldintza dugu goian esandakoari begira. Espazio hori errazagoa da eguneroko habitat hurbilean segurtatzea. Euskal jardun informalari dagokionez hilik dauden espazioak berpizten hastea baino funtsezkoago da arnasguneetan bizirik dagoen euskarazko jardun arruntari, eguneroko hizkera-molde informalari, bizirik eustea eta, nagusitasun hori zurkaiztuz, euskal berbakera arrunta ingurumen hurbileko esparru zabalagoetara hedatzea. Ondotxo errazagoa da dagoenari bizirik eustea, hildakoa berpiztea baino.

Lehentasunezko ikuspegi hau ez da gure artean berria. Beste terminologiaz bada ere berariaz azpimarratua du Seber Altubek, orain dela lauogei urte, arnasguneen zentraltasuna. Hona bere zenbait pasarte, euskal hizkuntza-soziologiaren historian mugarri argi eta sakon diren 1933ko *La Vida del Euskera* eta 1936ko *Más sobre la Vida del Euskera* dokumentuetatik jasoak: “para la restauración de un idioma, es necesario que una población

**Baldintza
soziolinguistikoet
ara egokituko
den
konpartimentazio
soziofuntzional
berria asmatu,
adostu eta
antolatu behar
dugu
horretarako:
belaunez
belauneko
perspektiban
bere buruari
eusteko lain
izango den
moldaera.**

**Euskal jardun
informalari
dagokionez hilik
dauden
espazioak
berpizten hastea
baino
funtsezkoago da
arnasguneetan
bizirik dagoen
euskarazko
jardun arruntari,
eguneroko
hizkera-molde
informalari,
bizirik eustea.**

compacta y bastante numerosa lo use íntegramente como habla propia e íntima suya. La propagación del lenguaje hablado se opera principalmente por *expansión natural* mediante el *contagio oral* (hoy es necesario además que vaya apoyada por medios *artificiales* o docentes), lo cual requiere indispensablemente la existencia, repetimos, de focos o centros de irradiación de cierto volumen y formación compacta (..) en los que viva el idioma a expandir su vida plena, lozana y arraigada. (..) Será necesario que cuidemos, con preocupación primordial, la conservación (con léxico más o menos puro, que esto no es lo esencial) del fuego sagrado del euskera en las poblaciones de alguna importancia en que aún permanece vivo, pues constituyen los últimos reductos de defensa, las últimas bases para una posible expansión futura” (Altube, 1936: 73); “Todos los trabajos de los euskalzales deben encaminarse primordialmente (..) a la conservación de esos núcleos euskaldunes en que sigue todavía *funcionando normalmente* (..) seguros de que, en cuanto desapareciesen o se dispersaran dichos núcleos (..), sería imposible no ya *difundir*, ni siquiera *conservar* por mucho tiempo el euskera” (Altube, 1933: 388-9); “Observando con atención el estado actual del euskera, su extensión geográfica, la importancia por el número de habitantes de los pueblos completamente euskaldunes⁴⁰³, las regiones o zonas que por su situación ofrecen mayor resistencia a la invasión de los idiomas extraños, etc. etc., teniendo en cuenta todo ello, quizás pudiéramos hallar en la comarca denominada “Goyerri” de Gipuzkoa (más concretamente, en los valles dominados por el Izarraitz⁴⁰⁴) núcleos de población con los que se pudiera formar uno de los baluartes de defensa más eficaz y prolongada, así como preparar el personal y demás elementos necesarios para una restauración y expansión futura del idioma” (Altube, 1933: 305). Bistan da laurogei urte pasa direla ordutik hona eta han esandako hainbat gauza beste begiz eta beste lehentasunez interpreta litekeela orain. Gernikako bere talaiatik Gipuzkoako “Goierri”-ren kokaera zehatzaz, hedaduraz eta muga-kontuez izan zezakeen ikuspegi lausoa gorabehera, balio-indar betea du egungo egunean ere, beste zenbait irizpiderekin batean⁴⁰⁵, arnasguneei aitortzen zien garrantzi estrategikoak⁴⁰⁶. Arrazoi zuen, gainera, “valles dominados por el Izarraitz” zirelakoak azpimarratzerakoan. HINBERen funtsezko bi elementuotan pausatu zuen Altubek, besteak beste direla⁴⁰⁷, bere ekarpena⁴⁰⁸: a) non-noiz-nola bideratzen da, nagusiki, ama-hizkuntzaren belaunez belauko jarraipen sendoa?, b) non ditugu euskaldunok hiztun-herri gisa bizirik irteteko eta, hiztun-kopuruz, jardungunez, solaskide-sareez eta mintzagaiz sendotu ahala, lurralde-esparruz eta demografikoki zabaltzeko balibide sendoenak?”⁴⁰⁹ Galdera horiei, eta horien antzeko beste zenbaiti, erantzun nahirik ari gara euskaldunok aspaldiko urteotan.

Euskal herriko biztanle gehien-gehienak, are euskaldun gehienak, arnaguneetatik kanpora bizi direla esateak ez du aparteko baliorik, larritasun kronologikoaren argitan. Gu baino egoera larriagoan dauden hizkuntza amerindioen ordezkariak berariaz gonbidaturik, inon baino zorrotzago azalduz die Fishman-ek larritasun kontu hori honako ekarpenean: *Maintaining Languages: What Works and What Doesn't*. Bere hitzetan esanik "an early start before inter-generational mother-tongue transmission has ceased to occur is worth more than tons of sage advice. It is better and easier to foster informal life when it still exists. It is the hardest thing to create afterwards. It is very hard to create, to program that which is essentially not programmed or programmable. At best, you can program situations that might facilitate it" (Fishman, 2007 [1996]). Euskara indarberritu nahi badugu (eguneroko hizkera-molde informal-bizia, belaunez belaun transmititzen denaren legamia indartuz), eragingarriago da arnaguneetan saiatzea hortik kanpora jardutea baino. Arnaguneak soziolinguistikoki egonkortzea, zurkaiztea eta litekeen neurrian zabaltzea ez da batere lan erraza, arras eginkizun delikatua baizik. Kontua da hortik kanpora indarberritze sendorik bideratzea askoz zailagoa dela. Indar guztia edo indar gehiena espazio soziofuntzional berriak sortzen eta espazio geofisiko "galduak" berreskuratzen jartzea ez da hortaz arrazoizkoa, zer mantendu (eta, hartatik abiatuz, zer garatu eta zer zabaltu) badagoenean eta mantentze-lan hori egunetik egunera premiazkoago bihurtzen ari denean. Arnaguneen ezin ordezkatzeko lehentasuna behin eta berriro azpimarratu beharra dago: horietariko hainbat nabarmen ahultzen ari zaigun une honetan ez lehen baino gutxiago. Horiek ditugu egungo egunean, eta (kasurik onenean) horiek izango ditugu begien bistako etorkizunean, euskara eguneroko jardun arruntean (etxean, auzoan, kalean, lagun artean,...) nagusi dabilen ingurumen fisiko-territorialak: ingurumen bakarrak edota, gutxien-gutxienez, nagusiak.

Beste era batera ere planteatu liteke kontua. Zergatik ditugu arnaguneak hain garrantzizko? Hizkuntza osasuntsu orok hain bereak dituen ondoko lau ezaugarriok estatistikoki (portzentajeaz) beste inon baino beteago ageri direlako bertan, plano kolektiboan (ez norbanako batzuen atributu berezi gisa):

- a) bertako hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa segurtaturik dago arnaguneetan, migrazio bortitzik edo bestelako eten-urratze larririk gertatzen ez den artean. Belaunaldi gazteak ere euskaraz ari izaten dira beren artean, etxean eta auzoan, jolasean eta eskolan.

**Bestelako muga-
eragozpen-
gabeziarik falta
ez duten arren,
osasun-egoera
sendotik inon
baino hurbilago
daude
arnasguneak
(batez ere
arnasgune
beteak).
Horregatik
ditugu hain
inportante.
Horregatik da
hain lehentasun
biziko
eginbeharra,
bestelako hainbat
eginkizuni uko
egin gabe
euskarak
arnasguneetan
duen
nagusitasun-
moldaera argia
ahultzen eta
galtzen ez uztea.**

b) euskarak bere mendea dituen herri mailan eguneroko bizi-giro hurbil, informal-intimo guztiak edo gehienak: etxean euskaraz egiten da, auzoan ere bai; hala egiten da herriko tabernan eta, halakorik dagoenean, bertako denda; euskaraz funtzionatzen du eskolak, euskara da elizako hizkuntza nagusi edo bakar. Bere espazioak ditu erdarak: beti-beti hala ez bada ere lan-esparruan erdara da askotan nagusi, kanpotarrekiko harremanetan, prentsa idatziaren eta ikus-entzunezko media direlakoen kontsumoan orobat. Hots: konpartimentazioa soziofuntzionalak indarrean dirau bertan, hein mugatu baina ohargarrian.

c) Haur-gazte-helduen kate luzean, jaiotzatik 35 urte inguru bete arte doan ibilbide biografikoan, euskaratik erdararako mintzaldaketa zabalik ez da arnasguneetan gertatzen ari. Kalegiro erdal-mendekoan ez da hori, inondik inora, arau nagusia.

d) Euskaldun garbien sorgune edo iturburu oparo (ez bakar, baina bai oparo) da askotan arnasgune hori. Eguneroko bizi-giro informal-intimoaren gorabeherak aparteko graziaz eta hitz-etorri onez azaltzeko gai diren hiztun beteen sorburu da maiz asko. *Background* horretatik elikatu izan dira, orain arte, jendaurreko euskaldun jantzi⁴¹⁰ gehienak. Orain ere halatsu dira kontuak, sarri asko.

Hots, bestelako muga-eragozpen-gabeziarik falta ez duten arren, osasun-egoera sendotik gainerako guztiak baino hurbilago daude arnasguneak (batez ere arnasgune beteak). Horregatik ditugu hain inportante. Horregatik da hain lehentasun biziko eginbeharra, bestelako hainbat eginkizuni uko egin gabe euskarak arnasguneetan duen nagusitasun-moldaera argia ahultzen eta galtzen ez uztea.

Euskara bizirik aterako bada bizpahiru belaunalditik gorako perspektiban, ezinbestekoa dugu konpartimentazio-molde berria aurkitzea, adostea eta zentzuz aplikatzea. Egin behar dena izugarri lan delikatua da. Goitik beherako plangintzak badu hor bere lekua, batez ere beharrezko edo komenigarritzko situazio egokiak babesten eta bideratzen: bertako migrazio-fluxuan, etxegintza-baldintzetan eta lurralde-antolamenduzko beste zenbait aldagai nagusitan, tartean lan-esparruari dagozkionetan. Funtz-funtsean behetik gorako plangintza da, ordea, arnasguneetan bideratu beharrekoa. Bertako bizilagunek ulertu, hobetsi eta asumitu behar dute, lehenik eta behin, abentura demografiko, soziokultural eta soziolinguistiko konplexu eta berrian, European pare-pareko adibide handirik gabekoan, sartzeraz doazela bide hori aukeratzen badute, eta, onik aterako badira, beren konpromisoak eta beren kemenez zurkaiztu,

osatu eta garatu beharko dutela XXI. menderako bide-erakusle izango den arnagune berria. Erdal mundua ere beren (eta beren seme-alaben) bizialdi osoan elementu propio izango dutela jakinik eta, beraz, dagokion lekua aitortuz, baina euskal munduari bere osoan, litekeen erarik betenean, eutsiz biziko dira euskaraz. Beren biziaren zati garrantzitsuak (gizakiaren *Gemeinschaft*-giroa sortzen dutenak eta euskarazko arnagune trinkoetan bizi izaten lagun diezaieketenak, bereziki) euskaraz sortzen, antolatzen eta seme-alabei transmititzen ikasi beharko dute. Eguna joan eta eguna etorri erdal munduarekin mutur-joka ibili gabe euskal kulturari edertasun-kutsua eransten asmatu beharko dute, gogoz eta ekitez euskal neurrietara errendituz eta kanpoko herritar euskaldunen zein erdaldunen aurrean beren bizimodu berezia errespetatu araziz. Mila bider errazagoa da hori esaten, egiten baino. Badakigu Irlandako *Gaeltacht* esperientziek huts egin zutela; zergatik huts egin zuten ere badakigu, parte on batez. Lagungarri sendoa izan liteke ezagutza hori, gure arnaguneetan harri berean behaztopa ez egiteko.

Labur bilduz: arnaguneen funtsezko izaera hori argi eta bizkor txertatu beharra daukagu gure lehentasun-eskeman. Arnaguneen funtsezko izaera aitortzetik bere aldeko neurri sendoak aplikatzera pasa behar dugu lehenbailehen. Azken hamabost-hogei urteak arnaguneon gain-behera bizikoak izan dira; neurri horiek gabe arnaguneek ez dute hobera egingo. Euskarazko jardunak bizigiro informalean leku oparoa izango duen espazio trinkoa, sakabanatze edo dispertsio fisiko nabarmenik gabea, ezinbesteko baldintza da euskarak etorkizunik izango badu. Espazio horietan bakarrik lor liteke, luze-zabal, ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen betea. Jarraipen-bide hori gabe ez dago munduan bere buruari bizirik eutsi izan dion hiztun-elkarterik. Euskara jaun eta jabe (edota, gutxien-gutxienez, nagusi) deneko moldaera hori errazago eskura liteke eguneroko *habitat* hurbilean. Hilik daudenak berpizten hastea baino funtsezkoago da arnaguneetan bizirik dagoen euskarazko jardun arruntari, eguneroko hizkera-molde informalari, bizirik eustea eta, nagusitasun hori zurkaiztuz, euskal berbakera arrunta ingurumen hurbileko esparruetara hedatzea. Ondotxo errazagoa da bizirik dagoenari bizirik eustea, hilurren dagoena osasun betera ekartzea edota, bereziki, hilik dagoena berpiztea baino.

Errazagoa izateak ez du esan nahi erraza denik. Hartarako eginbeharrak oso dira delikatu eta nekagarri. Bertarako *top-down* ezarpenetan ezinbesteko lagungarri dira euskaraz diharduten eskola, osasun-zentroa eta udaleko edo eskualdeko administrazioa⁴¹¹. Besterik da, ordea, zentrala:

**Anasguneen
funtsezko izaera
hori argi eta
bizkor txertatu
beharra daukagu
gure lehentasun-
eskeman.
Arnasguneen
funtsezko izaera
aitortzetik bere
aldeko neurri
sendoak
aplikatzera pasa
behar dugu
lehenbailehen.**

**Eguneroko
kale-giro
zabalean indartu
egin behar da
euskarazko
jardun arrunta:
batez ere
ahozkoa, baina
baita
elektronikoa ere.
Herritar
euskaldunen
arteko
harreman-sare
informalak
bizirik
mantentzeko
neurriak hartu
behar dira
horretarako,
lehenik eta
behin.**

a) arnasmuneen estabilizazio demolinguistikoa: bertako bizilagun (gazte) gehienak bertan (edo inguruan) bizi izaten gera daitezen, hainbat haurreko familia euskaldunak (ez, ahal dela, eleartekoak) sortuz; kanpoko erdal-elebidunak edo erdaldun hutsak bertan bizi izatera samaldan etorri ez daitezen lagundu behar da horrekin batera: migrazio-fluxuen soziolinguistikazko erregulazio-ahalmenaren zati ohargarri bat herri-tarren esku izatea eta ahalmen hori zuhurki erabiltzea eskatzen du horrek; b) arnasmuneri eta bere ingurumenari bideragarritasun sozioekonomikoa bermatu behar zaio: lanetik bizi da jendea; c) berariazko atentzioa eskatzen dute arnasmuneei hiri-plangintzaren alorrean⁴¹², eta d) herritarrek beraiek konpartimentazio soziolinguistikoa eta soziokultural berri bat adostu eta herri-giroan aplikatu behar dute; herri-giro beregain bati eutsi behar diote, herriko biztanle zahar eta gazteentzat *Gemeinschaft* moldeko bizibide soziokultural berri-pizgarria moldatuz.

Oso lan zailak dira lau horiek, bai bizimolde demokratiko modernizatu-tako pautak organizatibo nagusien aldetik eta bai, are, funtsezko oinarri etikoen ikuspegitik. Nor dago prest, “lau katuren arazo marjinal” bategatik hainbat arriskatzeko? Hor dago koska. Arrisku-neurri horiek asumitu gabe ezin da ordea aurrera egin: zentral-zentrala da kontu hau.

6.5 (BZ-6c) mailako ingurumenak (BZ-6b) mailara itzultzen saiatzea

(BZ-6a) edo (BZ-6b) mailako ingurumenetatik datoz, oro har, egungo (BZ-6c) mailako herrixkak, herriak eta herriburuak. Garrantzitsuak dira, oso, ingurumenok ere: (BZ-6c) mailako herriburuak (Tolosa?, Bermeo?, Baztan?) bereziki, funtsezkoak dira beren biztanle-kopuruagatik eta duten kokaera geografikoagatik⁴¹³. Herri eta herriburu horiek eskaintzen dute, arnasmuneen ondoan, euskalgintzarako oinarri sendoa. Hauek ere berariazko atentzioa eskatzen dute migrazio-fluxuen, bideragarritasun sozioekonomikoaren, birmoldatze soziokulturalaren eta hiri-plangintzaren alorrean⁴¹⁴. Zer egin *top-down* bidez, eta zer *bottom-up* moduan? Goitik beherako plangintza instituzionalaren sailean ezinbesteko lagungarri dira hor ere euskaraz diharduen eskola, osasun-zentroa eta udaleko edo eskualdeko administrazioa⁴¹⁵. Besterik da, ordea, eginbehar zentrala. Eguneroko kale-giro zabalean indartu egin behar da euskarazko jardun arrunta: batez ere ahozkoa, baina baita elektronikoa ere. Herritar euskaldunen arteko harreman-sare informalak bizirik mantentzeko neurriak hartu behar dira horretarako, lehenik eta behin. Horrekin batera zabaltu eta indartu egin behar dira harreman-sare informal berriak, edo azken

hamarkadotan galduz joan direnak berreskuratu. Oso lan zaila, bistan denez.

Nola egin liteke hori? Bide batezko euskalgintzaz edo bide batezko hizkuntza-plangintzaz, berariazkoaz bezainbat edo gehiago⁴¹⁶. Euskarazko zerbitzu-eskaintza eratu behar da hor, halakorik behar, nahi edo onartzen duten euskaldunentzat⁴¹⁷. Beste hitzetan esanik auzo-laguntza, auzo-langintza edo zerbitzugintza dugu baliabide hoberena: euskaraz eratu eta “D eredu” moduan eskaini behar zaio, horren beharra edo gogoia duen euskaldun-jendeari, bizimodu normalean beharrezko den hainbat zerbitzu: etxeko haurren zaintza, adineko pertsonak etxean edo auzoan atenditzea, gazte-jendearen eta adinekoen aisialdi-eskaintza, jan-edanen inguruko antolamendua, turismoa eta aste-bukaerako irteerak, bai eta interes edo xede jakineko herritar zaharren eta, bereziki, gazteen harreman-sareak moldatu eta elikatzea. Bikote berrien sorburu diren interakzio-guneei⁴¹⁸ aparteko atentzioa zor die, azkenik, zerbitzugintza horrek: interakzio-gune horien moldaera soziolinguistikoa jokatzeko da, sarri, herritarren belaunez belauneko jarraipen-auziaren azken partida.

Erdaraz ere ahul antolatutako dago horrelako hainbat zerbitzu⁴¹⁹: abantaila ohargarria da hori euskalgintzarentzat. Bestalde, zerbitzu-eskaintza horrek ez dauka maiz, eta ez du izango gero ere, estaldura instituzional handirik: herri-diruzko laguntza-bideak ez dira beti hainbatera iristen. Behetik gora izan ezik nekez bidera liteke, hortaz, auzo-langintza edo zerbitzugintza zabal hori. Gizartearen defizit jakinak konpontzera datorrenez, ez lehendik agerian direnak ugaritzera, etorkizun-karga handiko lanbide ernagarria da auzo-langintza hori, argi eta zentzuz antolatzen bada. Gauzak horrela egiten badira, gizarte moderno gehienek beren altzoan duten hainbat gaitz endemiko (tartean anomia, baina ez hori bakarrik) arintzera dator eta, horregatik guztiagatik, auzoaz haraindik irismena eta ondorio-eragin zabala izan dezake “bide batezko euskalgintza” horrek. Berariazko euskalgintza ezagunaren ordain berri eta indartsua da, ongi aplikatuz gero, bide batezko euskalgintza.

(BZ-6c)-ko herriak eta herriburuak berriro (hein bateko) arnagune izatera eramaten lagundu dezake langintza horrek, azken urteotako euskalgintzan aski meharturik dagoen ilusio-txispaz “kargaturik”. Euskaraz bizi diren edota euskaraz bizi nahi duten hiztunen atentzio-ardura izanik helburu nagusi, euskarazko jardunari arnas-gelaxkak zabaltzen zaizkio horrela eta, azkenik baina ez azken, bertako edo inguruko hainbat herritar euskaldunentzako diru-sarbidea eratzen da. Ia guztia egin-

**Auzo-laguntza,
auzo-langintza
edo
zerbitzugintza
dugu baliabide
hoberena:
euskaraz eratu
eta “D eredu”
moduan eskaini
behar zaio,
horren beharra
edo gogoia duen
euskaldun-
jendeari,
bizimodu
normalean
beharrezko den
hainbat zerbitzu.**

kizun dago zerbitzugintzaren esparru honetan, jendearen borondatea errespetatuz eta goitik beherako babes-neurriekin bat eginez.

6.6 Erdara nagusi den (BZ-6d) eta (BZ-6e) hirietan euskal giro arrunta berreskuratzen saiatzea

Euskal hiztun gehienok ez gara arnasmuneetan bizi; (BZ-6c)ko ingurumen zabalagoetan ere ez. Hiriburuetan eta herriburu nagusietan bizi gara gehienok: (BZ-6d)ko ingurumenetan batzuk (demagun Donostian eta bere gerri-bueltan: Irundik Andoaina doan konurbazio gehiena), (BZ-6e)koan besteak (tartean Bilbo-Iruña-Gasteiz-Baiona). Bertan jaiotako euskal hiztunen eta bizi izatera etorritako euskaldunen bilgune ditugu lekuok. Gutxi-asko erdal-giroan murgil eginik bizi gara bertako gehienok⁴²⁰.

Galdurik dagoen altxorra berreskuratu behar da ingurumenotan, ezer baino lehen: eguneroko bizigiro arruntaren euskal atala; *pockets of basic, everyday, informal life*. Oso-oso lan zaila da hori. Erdara nagusi (askotan jaun eta jabe) den ingurumenotan euskarazko hiztun-taldeak edota harreman-sareak eratzea eskatzen du horrek, lehendik bizirik daudenak mantentzeaz gainera. Nola egin hori? Aurreko atalean azaldu den bide batezko euskalgintzaz edo bide batezko hizkuntza-plangintzaz baliatu behar da hemen ere. Euskarazko zerbitzu-eskaintza eratu behar da hor ere, halakorik nahi edo behar duten euskaldunentzat. Goitik beherako plangintza instituzionalak dagoeneko eskaintzen dituen euskarazko eskolatz- eta alfabetatze-aukera ugarietz gainera⁴²¹, eta behetik gorako perspektiban seguruenik, euskaldun-jendearen arteko harreman-sare informalak eratu, zabaltu, indartu eta bizirik mantendu behar dira. Auzo-laguntzan oinarrituriko formulazioa dugu, horretarako, hoberena: euskaldun-jendeak behar dituen zerbitzu normalak euskaraz eratu eta “D eredu” moduan eskaintzea. Herritarren benetako beharrei erantzuteaz gainera, “bide batez” alegia, esparru informal-intimoetan euskarazko jarduna indartzeko eta zabaltzeko neurri egokia da hori. Izugarri lan delikatua da: arras delikatua baina, kreatibo-moderno eta, bere aje guztiekin, askogatik emankorrena.

6.7 Osasun-taulako BZ-7, BZ-8a/b, BZ-9 eta BZ-10 mailetan dauden lekuetan zer egin?

Eskualde zabal osoak daude maila-multzo honetan. Nafarroako erdal eremua, gorago azaldu denez, BZ-9 eta BZ-10 mailetan dago ia erabat. Era berean, Lapurdi barnean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ugariak dira BZ-7 eta BZ-8a/b mailako ingurumenak. Batean (Nafarroako erdal

eremuan) ez dago ia euskal hiztun aktiborik (euskal nortasun etnolinguistiko zaharraren uste-sinesmen handirik ere ez du bertako hainbatek), eta bestean (NBZn, LBn) adin handikoak dira ET-hiztun gehienak: BZ-7 eta BZ-8a/b mailetakoak.

Zer egin BZ-7, BZ-8a/b, BZ-9 edota BZ-10 mailetan dauden ingurumenetan, bertako biztanleen euskarazko mintzajarduna indartzeko? Aurreko kasuetako euskaingintza zaila baldin bada oso, are zailagoa da osasun-eskalaren behe-parte honetan aplika litekeena. Ikaste-lanari dagokionez, ohargarria eta mesedegarria da euskaitegi eta eskola bidez ingurumen horietan bidera litekeen berreuskalduntze-saioa. Ingurumen horietako gazteak eskola bidez (edota horko helduak euskaitegien laguntzaz) euskalduntzen diren heinean, pauso bat emanik dago perspektiba globalean: osasun-maila sendoagoko ingurumenetara joaten badira bizi izatera (ikastera, lanera, bikote-bizia antolatzeraz...) lagungarri gerta litezke, ez enbarazgarri, bertako (osasun-maila sendoagoa duen ingurumeneko) euskal mintzajardun arruntarentzat. Aski bestelakoa da ordeaz egoera nagusia: euskaitegi eta eskola bidezko saio hori ez da urrundik ere, bere baitarik eta bere hutsean, BZ-7, BZ-8a/b, BZ-9 edota BZ-10 mailako ingurumenean bertan HINBE zabalik ekartzeko gai. Biografia mailako gertakari izaten da normalean, ez luze-zabaleko gizarte-arau, euskaitegi edo eskola bidez euskalduntutako hiztunak beren esfortzu biziak euskaltasun-habitat finko baten sorburu bihurtzea erdal ingurumen horretan. Erdalgiro nagusira biltzen dira hiztunok jendarteko jardunean, maizenik, adin batetik aurrera.

Ingurumen horietako berreuskalduntze-saioa ez da alferlana, inondik inora, baina presta-lana edo bazter-laguntza da gehienetan, ez aurrez aurreko lorpen betea. Goragoko osasun-mailetan eman litezkeen aurrerapausoen mende dago funtsean. Haren mende dago oro har eta haren lagungarri da gehienetan: ez euskaingintzaren osagai nagusi, are gutxiago muin.

7. BEHARREZKO BALIABIDEA: AHULDUTAKO HIZKUNTZA INDARBERRITZEKO GOGOETA-ETXEA

Gorago azaltzen saiatu garenez, *ahuldutako hizkuntza indarberritzea* (HINBE) ez da batere lan erraza. Eginbehar delikatua eta konplikatua da hori: tentuz eta begirunez, baina luzamendu handirik gabe eta hari-mutur asko lotuz, egin beharrekoa. HINBE hori *social planning* da, ez *language planning* huts, Fishman-en esanean⁴²². Hizkuntzari hiztun

Gizarte-plangintza orok bezala, aditu-jendeak bideratu beharreko hiru atal nagusi ditu HINBE-lanak: estrategia, taktika eta ebaluazioa.

**Ebaluazioa.
HINBE sailean
orain arte egin
den lan ugarian
zerk ondo
funtzionatu
duen, zek erdizka
eta zerk gaizki
kontuak
ateratzea.
Emitza diferente
horien zergatikoa
eta
zenbaterainokoa
ere esplikatzen
saiatu behar du,
ahal delarik,
ebaluazio-lan
horrek.**

gehiago atxiki nahi badizkiogu, eta hiztun horiek orain baino maizago eta gero eta jardungune edo harreman-sare gehiagotan euskaraz egin dezaten nahi badugu, ezin gara perspektiba linguistiko hutsera mugatu. Hizkuntza horretaz baliatzen den⁴²³ gizartearen altzoan gertatuz doazen transformazio demografiko, lurralde-antolamenduzko, politiko-operatibo, ekonotekniko, psikosozial eta soziokulturalen eskutik joan ohi da mintzajardunaren gorabidea edota gainbehera, eta beraz hori guztia kontuan hartzen saiatu behar du ganorazko HINBE-lanean jardun nahi duenak. Buruan duen hizkuntza-plangintza gizarte-plangintza zabal horren altzoan txertatu behar du.

Gizarte-plangintza orok bezala, aditu-jendeak bideratu beharreko hiru atal nagusi ditu HINBE-lanak: estrategia, taktika eta ebaluazioa. Ahal izanez gero, *desideratum* gisa alegia, lau eskakizun-baldintzok ongi betetzea eskatzen du estrategiazko gogoeta-lanak: a) mintzaldaketaz⁴²⁴ eta ahuldutako hizkuntza indarberritzeaz⁴²⁵ nazioarteko bibliografia teknikoak zer dioten jakitea; b) oraingo eta lehengo gure mintzaldaketaz⁴²⁶ eta bertan formulatu edota egindako HINBE-saioez⁴²⁷ informaturik egotea; c) gure egoeraren diagnostiko zehatza egiten eta begien bistako bilakaeraren egiantz handieneko zantzu nagusiak antzematen jakitea; d) aurreko hiru puntuen argitan, “hemen eta orain” ditugun baliabide jakinekin⁴²⁸ hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena indartzeko jardungune eta jardunbide egokienak zein diren argitzen jakitea. Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio betea⁴²⁹, eta hartarako ingurumen-baldintza globalak⁴³⁰, arras funtsezkoak dira gogoeta-lan horren baitan. Bistan da *desideratum* mailan ari garela hor: kontuak estu-estu harturik, nekez aurkituko genuke baldintza horiek guztiak ehuneko ehun betetzen dituen inor. Balio betea du ordea eskakizun-zerrenda horrek, gauza batez konturatzeko: atal bitan edo gehiagotan *desideratum* laukoitz horretatik nabarmen aldentzen garenok nekez izan gaitezke estrategiazko gogoetarako lankide egoki. Zer da, ordea, “nabarmen aldentzea”? Neurria da, hemen ere, kontua: “hoberena” eta “egin litekeena” gauza bi direnean, hoberena gogoan izanik ere egin litekeenetik abiatu behar da. Gauden egoeratik abiatuz⁴³¹ gogoeta-lan estrategikorako bide egokia aukeratzea ez da, gure ustez, ezinezko.

Taktika-sailari dagokio, bestalde, aurreko puntuan begiz jotako lehentasun-funtzioak indartzeko proiektu bereziak diseinatu, antolatu eta hezurmamitza. Makro-mailatik meso- eta, sarri, mikro-mailara “jaistea” eskatzen du horrek, “jaitsi” hitza infrabaliozko adiera despektiborik gabe hartuz⁴³². Asteasun eta Barkoxen, Baztanen eta Uztaritzen, Marki-

nan eta Murgian, Etxarri-Aranatzen eta Laudion, Agurainen eta Leitzan ezin gaitezke neurri berberak aplikatzen hasi: kasuan-kasuan zer den premiazkoen, eta premiazkoeneko neurri-multzo horretatik zer den egingarri, determinatu delarik gogoeta estrategikoaren fasean, premia bizikoa eta egingarria den neurri-multzo hori etekin hoberenaz nola aplikatu izan ohi da taktika-aldiaren xede nagusia⁴³³.

Ebaluazioa. HINBE sailean orain arte egin den lan ugarian zerk ondo funtzionatu duen, zek erdizka eta zerk gaizki kontuak ateratzea. Emaizta diferente horien zergatikoa eta zenbaterainokoa ere esplikatzen saiatu behar du, ahal delarik, ebaluazio-lan horrek. Horrela jardunaz HINBEren alorrean trebatuz eta espezializatuz joango gara eta, oso bereziki, emaitza hobeak atera ahal izango ditugu bihar edo etzi. Nola gabiltza gogoeta-lan estrategikoaz, aplikazio-saio taktikoez eta ebaluazio-saioen aldetik?

Hiru atal horiek ez ditugu euskaldunok neurri berean landu eta zehaztu: alde handia dago, oro har, atal batean eta bestean egindako inbertsio-esfortzuaz. Azken 120 urteotako euskalgintza⁴³⁴, berdin du nork, noiz-non eta nola formulatua, bideratua eta hezurmamitua izan den, taktika kontu praktikoez gainezka dago⁴³⁵. Harrigarria da, gutxitan aipatzen bada ere hori⁴³⁶, kopuruz eta kemenez euskaldunok zenbat aplikazio-saio egin dugun epealdi horretan: komeniko da, egunen batean, saio horien guztien bilduma egituratua prestatu eta saioaldi bakoitzaren (bai eta ekimen osoaren) balorazio kritikoa egitea. Esan dezagun orain-goan, ur sakonagoetan sartu gabe, Europan (eta gero bestetan) hedaturiko hainbat ekimen konkretu⁴³⁷ aplikatu izan dela hemen ere, azken 120 urtean: hizkuntza “xaharkitua” eginkizun berri-modernoetarako egokitzea (bateratze ortografikoa, euskalkiz gaindiko batasun-eredua lantzea, ohiko hitz-altxorra eguneratzea, zabalkunde terminologikoa,...), euskal literatura indartu eta hedatzea, euskarari buruzko informazio linguistikoa eta soziokulturala landu eta aberastea, helduak alfabetatzea, euskal eskola sortu eta zabaltzea, euskara komunikabideetara, administrazioa eta, hein batez, lan-esparrura eramatea, euskararen aldeko marko juridikoa eskuratzea,... Ez dago dudarik lan handia egin dela azken 120 urtean. Bai *bottom-up* formulazioaz eta bai, 1980tik hona, *top-down* moldaeraz saio zabal eta sakonik egin da gure artean, hizkuntza-plangintzaren eta glotopolitikaren alorrean. Horregatik genioen goraxeago, huts egiteko beldur handirik gabe, aplikazio praktikoen alorrean saio asko egin dela gure artean: asko egin da, eta are gehiago formulatu⁴³⁸.

Ez dago dudarik lan handia egin dela azken 120 urtean. Bai bottom-up formulazioaz eta bai, 1980tik hona, top-down moldaeraz saio zabal eta sakonik egin da gure artean, hizkuntza-plangintzaren eta glotopolitikaren alorrean.

**Indarberritze-
lanari buruzko
irizpide nagusien
gaineko gogoeta-
lan jarraikia
antolatu,
bideratu, zabaldu
eta, ebaluazio-
emaitzen argitan,
eguneratuko
duen gunea
behar da.
Ahuldutako
hizkuntza
indarberritzeko
saioen inguruko
gogoeta-etxea.**

Bestelakoa da panorama, aldiz, estrategia eta ebaluazio alorretan. Estrategia-asmo globalak, eta estrategia horien ildotik lortu diren emaitzen ebaluazio-saio kontrastagarriak, horiek ere aztertu izan dira gure artean. Ondotxo bakanago ordea. Sabino Aranaren 1901eko azalpen labur baina zorrotza⁴³⁹ eta Seber Altuberen 1933-36ko gogoeta- eta ebaluazio-saio zabala⁴⁴⁰, esate baterako, lehentasun-eskemen eztabaida kontzeptualerako ezin alboratuzko iturburu dira⁴⁴¹.

Geroztik ere egin da estrategiazko eta ebaluaziozko saiorik. Zenbait adituk, bertako zein kanpoko, eginik du halako ekarpenik⁴⁴². Erakunde-elkarteetan⁴⁴³ edo euskalgintzaren gurpilari itsatsitako talde-ekimene-tan⁴⁴⁴ ere maiztxo egin da halakorik. Norbanakoen eta euskaltzale-elkarteen orduko eta geroko ekarpen bizia ezertan gutxietsi gabe, eta 1980tik hona (bir)sortutako erakunde publikoen gidaritza- eta koordina-zio-ardura osorik aitortuz, erantzun-bilaketa horrek fruitu onik emango badu “beste zerbait”en premian gaude. Eguneroko premia praktikoko larrien sorgin-gurpiletik ihes eginaz, indarberritze-lanari bu-ruzko irizpide nagusien gaineko gogoeta-lan jarraikia antolatu, bideratu, zabaldu eta, ebaluazio-emaitzen argitan, eguneratuko duen gunea behar da horretarako⁴⁴⁵. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioen ingu-ruko gogoeta-etxea⁴⁴⁶. Urtea joan eta urtea etorri horretan (ez “horretan ere bai”) jardungo duen gogoeta-gunea.

Ez gara munduan lehenak, horrelako zerbaiten premia ikusten dugunak. Ez premia ikusten gara lehenak, eta ez aplikazio konkreturik planteatzen: gogoratu, beste hainbaten artean⁴⁴⁷, Heinz Kloss-en behinolako *Forschungsstelle*⁴⁴⁸, Estatu Batuetako *SIL International*⁴⁴⁹ eta Washington DCKo *Center for Applied Linguistics*⁴⁵⁰, William F. Mackey-ren Quebec-eko *International Centre for Research on Bilingualism*⁴⁵¹ / CIRAL (*Centre International de Recherche en Amenagement Linguistique*) / CEFAN, egungo ICRML (*Institut canadien de recherche sur les minorités linguistiques*) / CIRLM (*Canadian Institute for Research on Linguistic Minorities*⁴⁵²) edota Wurm-en Tokioko *International Clearing House for Endangered Languages* (ICHEL)⁴⁵³, 1982tik 2010era arte indarrean egondako *European Bureau for Lesser-Used Languages* (EBLUL)⁴⁵⁴ eta, hizkuntza kontuetan baino herri txikien pro-blematika osoan zentratuago, Flensburg-eko *European Centre for Minority Issues* (ECMI)⁴⁵⁵. Saio horiek aski diferenteak (izanik) dira xede-helburuz, espezializazio-oinarriz, iraupen-ahalmenez eta antolamendu-neurritz. Gogoeta-gune horietariko gehienek aski bilakaera bihurria izana dute bestalde⁴⁵⁶. Beren argi-ilun guztiekin ere, hizkuntzaren gizarte-dimen-tsoia oro har, eta aurrera begirako lehentasun-enfasi soziokulturala (*uni-*

bus-en ordeztu, edota horrekin batera, pluribus ikuspegian oinarrituriko filosofia zabala) era monografikoan aztertu eta lantzeko sortuak ditugu iniziatiba horietariko gehienak (ez guztiak) eta, alde horretatik, bada hor zer ikasi⁴⁵⁷. Eredugarri da, alde askotatik, ICRML / CIRLM institutua⁴⁵⁸. Hango kontuak ez dago hemen hitzez hitz kopiatzerik, alde askotatik. Funtsezko xedea eta antolamenduaren zenbait ezaugarri aski gogoan izatekoak gerta litezke, ordea.

Altube etxea sortzea planteatu genuen inoiz, funtsezko beharrizan horri gure artean ganoraz erantzuten saiatzeko⁴⁵⁹. Motibo bat eta beste dela medio⁴⁶⁰, horrelako enterik ez da gure artean inoiz sortu. Badugu elementurik aski, ordea, pausoz pauso horrelako zerbait eratzen hasteko. Lehen baino baliabide humano, ekonomiko, material eta organizatibo sendoagoak daude han-hemen, gorago adierazi denez, pausoz pausoko langintza koordinatu horri ekiteko.

Lehen ez bezala bada gure artean, bereziki, gogoeta-gune horren ernamun izan litekeen hainbat elementu. Gizajende espezializatuari dagokionez, demagun a) Jaurlaritzaren HPSOko Iker-eremua⁴⁶¹, b) Jaurlaritzan bertan⁴⁶², Nafarroako Gobernuan⁴⁶³ edota Iparraldean⁴⁶⁴, orobat Foru Aldundietan eta Udaletan (batez ere bertako zenbait Euskara Zerbizutuan⁴⁶⁵) diharduten teknikari jantziak, c) unibertsitate alorreko zenbait ekimen⁴⁶⁶ eta hainbat profesional⁴⁶⁷, d) Euskaltzaindia⁴⁶⁸ eta, bereziki, e) Soziolinguistika Klusterra⁴⁶⁹. Oinegitura bibliografikoari dagokionez hor dugu HABEren liburutegia. Gogoeta-lanaren eztabaida- eta zabal-kunde-leku gisa funtsezkoak dira, azkenik, BAT aldizkaria, *erabili.eus* hedabide digitala, *Euskal Soziolinguistika Jardunaldiak* eta *Udaltop*. Baliabide horiek (eta horien antzekoak) oso kontuan hartu behar dira hasieratik beretik. Arauz osaturik eta langintza betean ari diren organo horiez baliatzea komeni da, ezinbestean baizik ez delarik sortu behar horien pareko organo berriak⁴⁷⁰.

Aurrera egin delarik ere goian esandako egitasmo zabalean, xede nagusi edo bakarra ahuldutako hizkuntza(k) indarbertitzeko bideak aztertzea duen instantziarik ez dago gure artean. Funtsezko galdera batzuei ganoraz erantzun ahal izateko, “hurrengo asterako” presaren itolarria gabe lan egin ahal izango duen *Clearing house* moduko bat eratzea komeni da. Etxe horren falta-gabeziak sortu izan duen eta orain ere sortzen duen desoreka nabarmena da. Ez dago konparaziorik, hizkuntza indarbertitzeko gizajende aldetik, antolamenduz, dirubidez eta dedikazioz egiten dugun inbertsio ohargarriaren eta langintza horri buruzko go-

Funtsezko galdera batzuei ganoraz erantzun ahal izateko, “hurrengo asterako” presaren itolarria gabe lan egin ahal izango duen Clearing house moduko bat eratzea komeni da.

**Zertan
oinarritzen da
hiztun-elkarteen
belaunez
belauneko
jarraipena, non
dago beren
iraupen-indarra?**

**Noiz, nola eta
zergatik uzten
zaio herritarren
ama-hizkuntza
belaunez
belauneko
perspektiban
luze-zabal
transmititzeari?**

goeta-lan teorikoan eralgitzen ditugun baliabideen artean. Kontuan izan, sektore publikoa eta pribatua batera hartuz 40.000 soldatatik gora ordaintzen direla hilerro, EAEn bakarrik, euskalgintzaren esparru zaballean. Gehienak Lehen eta Bigarren Hezkuntza, bai, baina ez hor bakarrik: unibertsitate publikoak eta pribatuak, helduen alfabetatze-euskalduntzea, irrati-telebistak, liburugintza, ikus-entzunezko materialgintza, kirol-alorreko eta astialdiko euskal ekimenak, literatura zentzurik zabalenean, itzulpen-etxeak,... Bere muga eta gorabehera guztiekin ere, baliabide material, ekonomiko, antolamenduzko eta gizajendeko ugari aplikatu da mende-laurden luzean, euskara indarberritzeko saioetan. Ez dugu uste *per capita* terminotan gu baino askoz aurrerago dabilenik Europan hiztun-herri minoritario asko. Gizajendek, antolamenduz, dirubidez eta dedikazioz egiten dugun inbertsio ohargarri horren pareko ekimenik ez dugu, tamalez, gogoeta-lan egituratuaren sailean. Euskalgintzak EAEn bertan duen kostuaren (40.000 soldaten) milatik bat gogoeta-lanean xahutzea ez litzateke helburu makala.

Baliabideen alorretik xede-helburura hegaldaturik, zertan jardun behar luke horrelako gogoeta-guneak? Ahuldutako hizkuntza(k) indarberritzeari dagozkion funtsezko aztergai ugarien artean, zer galdera moduri erantzuten saiatu behar luke preseski? Honako galdera hauei eman behar lieke, gure ustez, lehentasun osoa:

a) Zertan oinarritzen da hiztun-elkarteen (edota beren baitako hiztun-talde eta harreman-sare jakinen) belaunez belauneko jarraipena, non dago beren iraupen-indarra? Iraupen-ahalmen edo jarraipen horretan zer garrantzi dute hiztun-elkartearen neurriak, hiztunen kontzentrazioak, beste hiztun-elkarteekiko separazio edo isolamendu geoterritorialak eta immigrazio- eta emigrazio-isuriak? Zer pisu-eragin du belaunez belauneko jarraipen edo iraupen-indar horretan hiztun-elkartearen (edo bere baitako hiztun-talde jakin baten) beregaintasun-maila politiko-operatiboak (hortik eratorritako ordainsari-zigorren sistemaz eta marko jurilinguistikoaz) eta moldaera ekonoteknikoak (industrializazio-mailak, kale/baserri tarteak)? Zer eragin du iraupen-indar horretan euskara-erdaren arteko konpartimentazio soziofuntzionalak (hots, diglosia bai/ez dikotomiak)? Zer pisu du hiztunen formazio-mailak eta ama-hizkuntzaren ezagutza formal-eskolarrak? Zer eragin izan dezake horretan guztian hizkuntza bien barne-osaerazko berezitasun-neurriak (hots, distantzia interlinguistikoak, gurean *Abstand* modukoak)? Zer pisu du belaunez belauneko iraupen-jarraipenean hizkuntza (hiztun-elkarte) bien ar-

teko prestigio-gradienteak?

b) Noiz, nola eta zergatik uzten zaio herritarren ama-hizkuntza belaunez belauneko perspektiban luze-zabal transmititzeari⁴⁷¹? Euskarari bizirik eta indarrean eusteko orduan zer leku dagokie etxegiroari, auzo-giro hurbilari eta, oro har, belaunaldi berrien lehen 30 urteko sozializazio-agente nagusiei (lehen eta bigarren mailako eskola, kultura-kontsumoa, ikus-entzunezko eta idatzizko hedabideak, lagunarteko aisialdia eta kirolgintza, bikote-moldaera, goi-mailako ikasketa-fasea, lan-esparrua,...)? Zein neurbidek iragar lezake ongien euskarak eskualde batean edo bestean ageri duen mintzaldaketaren zenbatekoa, nolakoa eta lastertasuna? Ba al da mintzaldaketa horretan, gizakion gaixotasun kontuetan bezala, *point of no return* modukorik? Non dago hori, egotekotan, eta zer neurritan da itzulezin?

c) **Lehentasun-irizpideak:** ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan zein dira ezinbestean aintzakotzat hartu beharreko aldagai demolinguistikoak, ekonoteknikoak, politiko-operatiboak (tartean jurilinguistikoak) eta soziokulturalak⁴⁷²? Aldagai horietariko hainbat nekez (osorik edo nagusiki) hitzun-herri ahularen kontrolpean izango dela jakinik, aldian aldiko aldakuntza-prozesu horiek gora-behera zein dira hogeit bat urtera begira gure artean planteatzen litezkeen lehentasun-irizpide basikoak⁴⁷³?

d) Euskara indarberritzeko saio zabalaren altzoan zer leku, eta zer lehentasun, dagokie egunetik egunera ahulduago ditugun arnasguneei? Zer elementu ekonotekniko, soziokultural, lurralde-antolamenduzko (tartean etxegintza) eta juridiko hartu behar dira kontuan, hein batean bederen kontrolpean gordez, hizkuntzaren azken gotorleku naturalotan ere, azken hamar-hamabost urteotan gertatzen ari den bezala, euskaltasun beteak nabarmen behera egin ez dezan?

e) Hizkuntza handien (gaztelania-frantsesen, oso beste neurrian ingelesaren,...) eta euskararen arteko bizikidetzaren zein ardatz nagusiren jira-biran antola liteke XXI. mende honetan, hizkuntza ahularen kaltegarri izango ez den *modus vivendi* luze-asmozkoa eratzeko⁴⁷⁴? Zer leku dagokio egin behar horretan konpartimentazio geoterritorial eta soziofuntzional berritu bati? Nola diseinatu, adostu eta aplikatu gizarte-bizitza modernoarekin bateragarri izan litekeen konpartimentazio iraunkorra? Hizkuntzen elkarbizitza-molde posibleak definitzerakoan, zein dira aukera bakoitzaren on-gaitzak eta konponbide konkretuak?⁴⁷⁵

Lehentasun-irizpideak:
ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan zein dira ezinbestean aintzakotzat hartu beharreko aldagai demolinguistikoak, ekonoteknikoak, politiko-operatiboak (tartean jurilinguistikoak) eta soziokulturalak?

Galdera nagusi horiei erantzuten saiatzeaz gainera besterik ere egin behar luke gogoeta-etxe horrek: landu-arin dugun hainbat oinarri kon-

**Euskara
indarberritzeko
saio zabalaren
altzoan zer leku,
eta zer
lehentasun,
dagokie egunetik
egunera
ahulduago
ditugun
arnasguneei?**

tzeptual eta zenbait iker-metodo garantia onez bideratzeko lagungarri operatiboak diseinatzen laguntzea. Batez ere bi puntu hauek ditugu gogoan: a) bizi-giro hurbileko⁴⁷⁶ erabilera nola hobeto neurtu, bai inkesta bidez, bai aurrez aurreko belarri-entzunketaz, edota beste nolabaiteko bidez; b) lan-esparruko erabilera nola ongi neurtu, bertako harreman-sare, bezero-zerbitzari eta lankide-lankide harreman-sareak berariaz analizatuz. Funtsezkoak dira bi puntu horiek, egungo informazio-mailatik gora egingo badugu nabarmen.

Zinez merezi duen eginbeharra da gure ustez gogoeta-etxe horrek aurrera eraman dezakeena. Gorago esan dugunez 40.000 soldata inguru bideratzen dira hilero, EAEn, euskalgintzara: normalean inplementazio- edo aplikazio-lan praktikoetara⁴⁷⁷. Hain zaila ote litzateke jarduera publikoz, diru-laguntzaz edo ekimen pribatuz inplementazio-alorrean aplikatzen den diru-kopuru ohargarri horren %0,1 gogoeta-lan basikora (ber)bideratzea? Samuel Johnson handiaren hitzak dira, antza, ondoko hauek: “A lost cause is a cause whose adherents permit hope to take precedence over experience.” (Fishman, 2007 [1996]. “Lost cause” edo “causa perdida” batean murgildu nahi ez badugu, *HINBE*-lanaz hanhemen bildutako ebidentzia enpirikoari eta horren argitan eraikitako formulazio teorikoei (“Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages” direlakoei, alegia) aurrez aurre helduko dien gogoeta-gunea da, gure ustez, eskuartean dugun erronka nagusietako bat da. ●

OHARRAK

1. Hori baino konplexuagoa da, berez, eskuartean dugun eginkizuna: aurreko hiru bide horiek (erabilerak gora egin, bere hartan iraun, gainbehera etorri) ez dira, praktikan, aukera posible bakarrak. Ez bakarrak eta ez, askotan, maizenik hezurmamitzen direnak. Gurea bezalako bizi-giro nabarretan hiru aukera horiei beste hau erantsi behar zaie maiz: aurreko hirurak batera bildurik, nagusitasun-moldaera sinkretiko berria sortuz doaneko bilakaera: leku eta jardungune batzuetan (hitzez, idatziz, bietara) aurrera egingez, besteetan atzera, zenbaitetan bere hartan jarraituz,...
2. Aztergaiaren zabalerok eta hartarako dugun denbora zein testu-luzeera mugatuak eraginik, luze-zabaleko planoan jarduteko balio duten datuak (perspektiba globalekoak edota perspektiba globalera zabaltzeko balio dutela diruditenak) hartuko ditugu aztergai, oro har, gainerakoen aparteko sakontze-lanetan sartu gabe. Zenbait kasutan gehixeago sakonduko dugu halere elementu partikularretan, enkarguaren bigarren atalari artez erantzun ahal izateko.
3. Geroztikako datu-sail zabalik, era koherentean landurik, ez dugu eskueran. Dagoenetik abiatu gara, hortaz.
4. Adjektibo moduan, berriz, besteok: “parlante, que tiene la facultad de hablar” batetik, “persona abundante en palabras, pero no en mal sentido; que conversa con todos, sin acepción de personas; no rehuye la conversación en el trato social” bestetik eta, azkenik, “elocuente”.
5. Kopuruei begiratzea aski da: V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Euskal Herrian bizi diren 16 urte edo gehiagoko 2.649.000 pertsonetatik elebidun (euskaraz dakitenak,

hortaz) dira 714.000. Era berean, 2.649.000 horien artean hiztun sendo dira 263.000k (euskaraz egiten dute gehienetan), eta beste 164.000k euskaraz eta erdaraz (bietara berdintsu) egiten dute: hots, hiztun “trinko” dira 427.000 biztanle. Alde batera utzi ditugu hor elebidun hartzaileak batetik, eta euskaraz baino sarriago erdaraz egiten duten hiztunak bestetik. Beste era batera esanik, eta berriro ere V. Inkesta Soziolinguistikora joaz (50. or), “elebidunak bakarrik kontuan hartuz, %59,4k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, %23,9k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %16,6k ez du inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen”. Euskaraz egiten jakitetik euskaraz egitera badago beraz aldea.

6. Hitzaren adiera tradizioaletik hurbilago ibiltzeaz gainera ez gara ezer berririk esaten ari, hizkuntza-soziologiarako ere aukera terminologiko hori egiten dugunean. ikus, adibidez, Jone Hernandez Garciaren 2010eko azalpen espresua: “Logikoa denez, corpusak ez ezik, hizkuntzaren erabiltzaileak (alegia, hiztunak) ere berebiziko protagonismoa du soziolinguistika-ikerlanetan.” (Hernandez, 2010). Egia da, halere, *hiztun* hitza polisemikoa dela gure artean, azken hamarkadotako hizkuntza-soziologian: euskaraz dakienari ere hiztun esaten zaio hainbat kasutan. Segun azterlanak zer helburu duen, arazo handirik gabea da aukera hori. Gaurko txosten honek duen xederako, aldiz, nekez onar dezakegu erabilera bikoitz hori.

7. Halako hiztunik ez dakigu gaur inon baden, bospasei urtetik gorako herritarren artean; ezetz esango genuke. Formulazio teoriko gisa egokia da, ordea, eguna joan eta eguna etorri bere buruarekin eta inguruko solaskide ezagun zein ezezagunekin, mezu-igorle zein mezu-hartzaile gisa, euskara hutsean ari den hiztunaren figura. Hitzezko (eta, hala badagokio, idatzizko) jarduna hartu beharko genituzke kontuan, teorikoki. Hitzezko adierazpideari dagokionean, orain dela ehun urte arte halako hiztunak ez ziren hain salbuespenezko. Hiztun-elkarte sendo-osasuntsuetan, berriz, badakigu aski figura ezaguna dela elebakarrarena. Hedadura zabaleko LWC/HZH hizkuntza baten (bereziki ingelesaren) eraginez gero eta gutxiago dira halere, ama-hizkuntza ingelesa edo beste LWCren bat dutenetatik kanpora, horrelako elebakarrak. Herbehereetan, Danimarkan edo Norvegian, adibidez, oso gutxi.

8. Zehazkiago, euskaraz hitz egiten du ia beti, euskaraz irakurtzen du gehienbat eta, euskaraz idazten du nagusiki.

9. Berariaz azpimarratu dugu puntu hau, konturatzen baikara era polisemikoan dabilela hitz hori gure bibliografia teknikoan: zenbaitentzat aski da euskaraz jakitea, “euskal hiztun” izateko. Bada tarteetan, bere esplikazioa gaizki ulertu ez badugu, are erabilera konplikatuagoa darabilenik ere: Euskal herrian bizi den edonor “euskal hiztun” da beretzat.

10. Guk bakarrik ez: besteetan ere sarri izaten dute gaia zehaztu beharrik. Zehaztapenak, gainera, talde-nortsunarekin izaten ditu maiz berariazko loturak: ikus adibidez, Jack Jedwab-en 2008ko “How shall we define thee? Determining who is an English-Speaking Quebecer and Assessing its Demographic Vitality”.

11. Hor sartzekoak dira *code switching* alorreko mintzamoldeak, besteak beste.

12. Orobat “con esa camisa pareces un *gixajo*” edota “en la cena de despedida de *Gorka* tomamos *gibelurdiñas*, *kokotxas* y luego *intxaursalsa*”.

13. Iparraldean *frantsesez*, bistan da.

14. Iparraldean *frantses*, jakina.

15. Zabaltzen hasita, hor legoke gero eta ezagunagoa den kasu hau: “D ereduko ikastetxe batean irakasle naiz; euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ikasi dut eta euskaraz egiten diet gelako ikasleei; senarra erdalduna da sortzez, ni bezala, eta etxean ere hala (hots, erdaraz) egiten dugu askotan”. Egungo egunean milaka lagun biltzen dituen kategoria hau aski berria da gure artean.

16. Euskarazko jardunean sartzen dira bete-betean baina, a) kasuan salbu, ez dira euskara hutsezko mintzajardun. Horko a) kasu hori errazago planteatzen liteke aukera teoriko moduan, eguneroko gertakari arrunt gisa baino. Oso nagusiki euskaraz irakurtzen eta idazten dutenak salbuespen dira erabat, arnaguneetan ere. Euskarazko jardun betearen egungo hiztun-multzo nagusia b) atalekoa da, gure ustez.

17. Euskal kantuei dagokienez, bestalde, ikus nahas-hizketaz edo kode-aldaketaz lehen atalean esandakoak. ,

18. *Euskalzale* aldizkariaren garaitik aski ezaguna da euskal eraginezko erdararen izaera. Txorierriko (orain dela berrogei urte inguruko) aplikaziorako ikus, adibidez, Mikel Zarateren tesi-lana (Zarate, 1976). *Contact Linguistics*-en alorreko informazio partikularrik, ez (zorigaitzez) sistematikorik, gero eta ugariago jaso liteke gure artean. Gorago esan dugunez, ordea, txosten honetan ezin zentra gaitezke han-hemengo datu (oro har isolatu) horietan.
19. Euskal kantuak ez dira aski, inoren mintzajarduna euskarazkoa dela esateko. Ikus, konparaziorako, ingelesezko kantu-saioak: inoiz edo behin, talde-giroan batez ere, “Yellow submarine” kantatzeak ez gaitu ingeles-hiztun bihurtzen.
20. Azken hori ez da erabilera-kasua, erabilerarik ezaren adierazle argia baizik.
21. Horrela ez jokatzek eragozpen-muga larriak dakartza gure alorrera: “mediterranoak deskubritzen” jardutea behin eta berriro, alde batetik. Bestetik, eta bereziki, gure azterlanen ondorioak (askotan aski baliosak) kanpoko adituekin ezin argi konpartitu izatea. Aditu horiek aspaldidanik, aski era adostu, darabilten hainbat kontzepturi beste izen bat ematen diogu sarri, ulermen-nahasmendua areagotuz eta han-hemengo ikerlanek ekarritako emaitzen konparagarritasuna errotik eragotziz. Beste zenbaitetan, berriz, erabat arrotz gertatzen zaie adieraz (zenbaitetan, *diglosia*-renean bezala, justu kontrako bidean doa gure hainbat izendapen.
22. Argi-indar handirik ez dutenean edota, zenbaitetan, halakorik ez dutela iruditzen zaigunean. Zail izaten da, beti-beti, kontu hauek aldeztu aurretik zorrotz erreparatzea. Bertsolariak esandakoaren ildotik “sutan jarriaz” jakin behar izaten dugu, zenbaitetan, “eltzea nolakoa den”.
23. “aldiune” edota, soil-soilik, “une”. Demagun, adibidez, “aldiune” edo “une” hauek hartzen ditugula aztergai: gaur egun; 2011. urtea (hots, maizenik erabiliko ditugun V. inkesta soziolinguistikoa edota VI. kale-neurketa egin zen unea); orain dela 25 urte; XVIII. mendea,...
24. Esate baterako Euskal herri osoa, Hegoalde edo Iparralde, Bizkaia, Lea-Artibai, Ondarroa,...
25. Esate baterako etxea, lantegia, kaleko lagunartea, eskola, kirola, internet bidezko gizar-te-sareak,...
26. Erabilera portzentuala kategoriatan jakinetan zatitu ohi da zenbaitetan, halere: demagun, kontuak zertxobait sinplifikatuz, kategorizazio boskoitz hau: %0-20, %20,1-40, %40,1-60, %60,1-80 eta %80,1-100
27. Demagun, adibidez, sei kategoriatako abaniko hau: *beti*, *gehienetan*, *bietara berdintsu*, *hainbatean*, *gutxitan*, *oso gutxitan*. Ezinbestekoa ez bada ere, aski normala da neurbide hori demolinguistika alorrean: bai erabilera alorrean, bai hizkuntza-gaitasunean eta bai, are, iritzi-jarreraren esparruan. Hitzunen erabilera-maila ordez hitzunen gaitasun-maila hizpide harturik ikus, adibidez, Jone Hernandez Garciaren 2010eko azalpen argia: “datuak ulergarriagoak egiteko, kategoriatan edo label batzuen azpian aurkeztu dira. Esate baterako, euskararen ezagutza-mailak bereizteko, hainbat hiztun-talde finkatzen dira. EAEko kasuan, joera izan da hiztunak hiru multzo ezberdinetan sailkatzekoa: euskaldunak, ia euskaldunak eta erdaldunak. Baina zeintzuk daude label horien artean? Zer nolako hiztunak dira? Zailentzarik gabe, kategoriek euren mugak dituzte eta, hainbat ikertzailearen iritziz, horietako bat konplexutasuna adierazteko ezintasuna da”.
28. Jardungune jakinetako rol-harremanak, mintzajardunaren zabaleroa eta adierazpidea, mintzajardun hori estiloz formala, informala edo intimoa den eta abar analizatu beharko dira.
29. Horko *E4*, *E3*, *E2*, *E1*, *E0* ikurrak (orobat geroxeago datorren *ET*) guk jarri ditugu. Ikur-sistema hori aukeratzera koan atzerriko analisi ezagun batzuen jokabidea hartu dugu bide-erakusle. Funtsean, eta kronologiari men eginez, Calvin Veltman-en irizpidea hartu dugu, partez, gidari (kus Veltman, 1983). Bide beretik doa, nagusiki, Galesko lan hau: Euro-mosaic National Gaelic Speaker Survey 1994/5. “Extent of languages spoken between children with percentages at usage levels” argitu nahirik **Level 5**, **Level 4**, **Level 3**, **Level 2**, **Level 1** darabilte bertan,

Level 1	Level 2	Level 3	Level 4	Level 5
Always English	Mostly English	Both equally	Mostly Gaelic	Always Gaelic

gure *E4*, *E3*, *E2*, *E1*, *E0* ikurren adiera-sailkapenetik ez dabil, beraz, hain urrun. Konturatu, bereziki, horko *Level 4* gure *E4* dela, eta horko *Level 3* gure *E3*.

30. Horrek ez du esan nahi, adierazpide eta jardungune guztietan euskaraz egiten dutenik nagusiki. Ahozko jarduna bakarrik neurtzen da hor, batetik, eta jardungune jakinak (etxea, kalegiro hurbila, lan-esparrua, administrazio- eta zerbitzu-alorra) batera bilduz sortutako indize sintetikoa da hori, bestetik. Litekeena da, beraz, irakurtzerakoan edo idazterakoan nagusiki erdaraz egitea ahozkoan nagusiki euskaraz ari den hainbatek, eta alderantziz. Litekeena da, era berean, etxean nagusiki euskaraz egiten duenak lanean batez ere erdaraz egitea.

31. Eguna joan eta eguna etorri bizi osoan euskaraz (euskaraz bakarrik) egiten duten hiztunak genituzke, teorikoki, euskaldunik trinkoenak. Hots, euskara hutsez diharduten euskaldunak (*EHDE*) genituzke euskararen erabiltzaile sendoenak. Kategoría horrek ez du ordea, egungo egunean, aplikazio-ahalmen praktikorik ia: aspalditxo (gure aitona-amonen garaian, edota lehenago) galdu ziren horrelako gehienak, eta han-hemen bizirik daudekeen azken apurrak ere desagertzen ari dira urtetik urtera. Ez dugu, beraz, alferrikako kategoriarik sortuko eta, horrenbestez, euskaldun aktiboenak *E4* multzokok direla aitortuko dugu.

32. Iurrebasoren ustiapen demolinguistikoetan ez dago aparteko arazorik (teoriaz zein metodologiaz) etxeko erabilera nagusi hori *E4* atalean sailkatzeko.

33. Bestelakorik ere aipatzen da aldian behin, horri buruzko bibliografian: noren enkarguz egingo da lan hori, eta nork-nola-zertan erabiltzekoa da? Ez dira galdera inozoak, datuen balio-indarraz hainbat argibide eman dezaketenak baizik.

34. Zehaztu eta, partez, aldatu beharra daukagu hasierako puntu hau. Ohar hau egin du Olatz Altunak puntu honetaz: *E2* eta *E1*, batez ere *E2*, alde batera utzi izana galera nabarmena da: informazio ohargarria ematen du *E2*-k ere, eta kontuan hartzea komeni da beraz. Arrazoi du, partez, horretan. Berrikustapen zabal eta sakonagoa behar du gaiak, oro har. Alde horretatik bi ohar hauek egin litezke:

E4-ren balioari *E3*-rena batzea, parez pare, diskutigarri da; erabilera globalaren ikuspegitik difenteak dira, izan ere, bata eta bestea. Har ditzagun bi situazio soziolinguistiko hauek: batetik “*E4* = 7, *E3* = 3”, eta bestetik “*E4* = 3, *E4* = 7”. Bietan *ET* = 10 litzateke, oraingo irizpideen argitan. Benetako erabilera-maila diferentea da, ordea, batean eta bestean: lehenengo kasua indartsuagoa da. Posible da, horregatik, oraingo *ET* horri alternatiba egokiagorik bilatzea. Badakigu, adibidez, sintesi-neurri hau prestatuturik duela Iñaki Iurrebasok: $E4 + 0,5 \times E3$. Ez da erabaki desegokia, gure ustez, aurreko lerroetan esandako ahuldadea arintzeko.

Egia da, bestalde, *E2* ere hor dagoela eta, O. Altunak dioenaren ildotik, kontuan hartzekoa dela. *E2* ere kontuan hartzekotan, ordea, are kontuzago izan behar dira *E4*, *E3* eta *E2* horien pisu erlatiboak. Esate baterako, honelatsu joka liteke *i* jardungune bakoitzean: $ET_i = 0,75 \times E4_i + 0,5 \times E3_i + 0,25 \times E2_i$ (ekuazio horretako 0,75, 0,5 eta 0,25 indizeak egokitu eta hobetu egin litezke konprobazio enpirikoen argitan). Gero, jardungune guztien batura egin ahal izateko, berariazko ponderazio-sistema aukeratu behar da: $ET = \sum p_i \times ET_i = p_1 \times ET_1 + p_2 \times ET_2 \dots + p_n \times ET_n$. Badakigu $\sum p_i = 1$ dela ezinbestean, baina hortik aurrerako zehaztapena eginkizun dago. Argitu eta espezialisten artean adostu gabe dago, konkretuki, a) zenbat *i* (zenbat eta zernolako jardungune) kontuan hartu, eta b) p_i bakoitzari zer balio eman.

Horrela operatibizatutako analisirik ez dago inon, dakigularik, eta egin gabeko lanaz ezin da txosten handirik prestatu. Landuta dagoen *ET* bakarraz baliatu gara, bere mugak gogoan izanik ere, txosten hau idazterakoan.

35. Nazioarteko hizkuntza-soziologiak “sources of language use variation” edo antzeko esapidez azaldu ohi ditu iturriok. Berdinak dira, funtsean, munduko edozein kasutan: kasu bateko eta besteko maiztasun-banaketa da, termino estatiko-deskriptiboetan zein zinetiko-dinamikoetan, berezitasun-iturri nagusia.

36. Sei aldagai horiezaz gainera bada tartean, jakina, aldian behin kontuan hartu beharreko beste zenbait: a) solaskideen *L1* edo ama-hizkuntza; b) solaskideen hizkuntza-gaitasuna

(aldagai garrantzitsua da azken hori, zinez; beste txosten batean aztertzen da ordea gai hori, eta ez dugu hemen kontuan izango); c) solaskideen generoa, ikasketa-maila eta jardura sozioprofesionala. Azken aldagai horiek ez dute gure artean, orain arteko ikerketan gehien argitan, goiko seiak bezain bereizbide zorrotzik ageri; ez dira, ordea, hutsaren hurrengo. Bada azkenik, kale-neurketan bederen (eta ez han bakarrik, seguruenen), nola-baiteko eragina duen elementu gehigarria: urte-garaia batetik, egun-orduak bestetik eta neurketa justu non (herriko inguru batean edo bestean) egin den azkenik: abuztuan erdara gehiago entzuten da Lekeition, turismoa dela medio, beste urte-garaietan baino; eskola-inguruan euskara gehiago entzuten da, berebat, txikiteo-gunean baino (ikus Soziolinguistika Klusterraren zenbait herritako txosten monografikoak). Tolosan edo Ordizian ez da gauza bera, feria-eguneko eta merkatu-plazako mintzajarduna neurtzea edota beste aste-egun bateko (eta beste auzo bateko) hizketa-moldea analizatzea. Gure txosten honetan ez gara xehetasun-maila horietan murgildu: analisi sintetiko honetan ezin izan da xehetasun-maila horretaraino “jaitsi”.

37. Amezketan ere erdaraz egiten da zenbaitetan: erdal telebista-kateak maiz ikusten dira, interneten bietara egiten da, kanpotik (turismo, merkataritza) datozen erdaldunekin erdara hutsean egin behar izaten da, eta abar. Era berean, Balmasedan ere (eskoletan bereziki, baina ez han bakarrik) egiten da zertxobait euskaraz. Egia da ordea, guztiarekin ere, non geografikoak erantzun zuzenaren zati handia berekin duela kasu argietan: Amezketan euskaraz egiten da eta Balmasedan erdaraz. Gauzak ilunago daude, jakina, Eibarren eta Tolosan, Bermeon eta Gernikan, Elizondon eta Lekunberrin, Etxarri-Aranatzen eta Aramaion. Non geografikoak ez da egungo egunean aski, leku jakinean euskaraz ala erdaraz egiten den esateko.

38. Bertako eremu soziolinguistiko nagusiak argi bereiztea komeni da, ahal delarik: Araban, adibidez, berariaz analizatzekoak dira Aramaio, Gasteiz, Lautada-Gorbeialde-Mendialdeak eta, azkenik, Baiaren mendealde zein Errioxa. Horiek guztiak Araba-ren zaku berean sartzeak ilundu egiten du panorama, argitu ordez. Bizkaian ere balegoke irabazbiderik, analisi xeheagoaz: Karrantza eta Enkarterri gehiena gauza bat da, Bilbo handia bestea, eta abar.

39. Hots, Nafarroako euskal eremua, bietarikoa eta erdalduna.

40. Konkretuki hauek: **BAM** (Baiona-Angelu-Miarritze hiri-multzoa), **LB** (Lapurdiko barnealdea) eta **NBZ** (Nafarroa Beherea eta Zuberoa, bere osoan harturik)

41. Argi bereziz ikasgela barruko jarduna (batez ere *irakasle-ikasle* elkarrekintza) batetik eta jolaslekukoa (batez ere ikaskideen artekoa) bestetik (ikus *Arrue* proiektuaren hainbat emaitza).

42. Adina edota, xumeago, adin-geruzak.

43. Horrek ez du esan nahi, galdera global-bakar hori balio-indarrik gabea denik, are guxtiago kaltegarri. Galdera global horrek badu, zenbait kontestutan, bere lekua eta, are, zenbait abantaila. Ez beti ordea: aldakortasun-iturriok ez dira konstruktutik teoriko huts; gurea bezalako hiztun-elkarteen eguneroko mintzajardunean eragin praktikoa bizi dute maiz.

44. Iurrebaso, 2015: 5.

45. Horrela darabilgu azken hamabost urte inguruan (ikus, Zalbide 2001). Horrela darabil beste hainbatek ere.

46. Ez aldiz, gehienetan, hortik kanpora (baina hurbil) dagoen herriburuan, zer esanik ere Lurraldeko hiriburuan.

47. Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute horietan haur txikiek bertako hizkuntza. Hala ikasten dute hitz egiten. Lehenik hitz egiten eta gero, eskola eta abar lagun, irakurtzen, idazten eta bertan ahoz aho dabilen hizkuntza horren erregistro eta aldaera jaso, landu, formalizatuagoak erabiltzen. Hori da osasun oneko hizkuntzen belaez belaeuko jarraipen-bide normala, prototipikoa. (...) Lehentasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Joshua A. Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioren abiaburu natural eta baliagarriak. Hori gabeko normalkuntza ez da normalkuntza. Ingurumen horien zaintza-ardura bigarren edo hirugarren lehentasun-mailara daramana ere ez.

48. Udalerrri euskaldun dira oro har, edota udalerri euskaldun baten azpi-atal administratibo. Oso zaila da udalerri euskaldun ez den batek arnagunerik izatea bere baitan. Teorikoki ez da ezinezko, baina oso egiantz txikia du aukera horrek praktikan.

49. Historia luze samarra du ikerteknika honek gure artean. Miren Jone Hernandezen hitzetan “oinarrizko ikerkuntzarako teknika (moduan) inkesta izan duten azterketa ugari eta ezberdinak topa daitezke. Aztera eginez, 1989an, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, gaur egun) Soziolinguistikazko Mapa. 1986ko erroldaren arabera Euskal Autonomi Elkarteko azterketa demolinguistikoa izeneko azterlana argitaratu zuen (Eusko Jaurlaritza, 1989). Lan horretan oinarrituta, 1991n Euskal Herriko I. soziolinguistikako inkesta egin zen eta 1996an II. soziolinguistikako inkesta. Ikerketa biotako emaitzak Euskararen jarraipena I (Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernua, 1995) eta Euskararen Jarraipena II (Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernua; EKE, 1997), izenburupean argitaratu ziren, hurrenez hurren. Urte batzuk geroago, 2003an, hain zuzen ere, Euskararen jarraipena III argitaratu zen (Eusko Jaurlaritza, 2003). Horri guztiari eransteakoak dira besteok ere: Bigarren soziolinguistikazko mapa (1981, 1986 eta 1991ko zentsu eta erroldetan oinarriturik); (Eusko Jaurlaritza, 2008) IV. inkesta soziolinguistikoa. 2006: Euskal Autonomia Erkidegoa, Iparralde, Nafarroa, Euskal Herria izenburupean”.

50. Honela dio Patxi Baztarrikak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, V. Inkesta Soziolinguistikoaaren sarrerakoan: “Europako Kontseilutik aspaldian aholkatu zitzaigun Estatu barruko erkidegoen arteko nahiz Estatu mugaz gaindiko lankidetzak, euskara indarberritzeko lanetan eragingarritasun faktore gisa, eta aipatu gomendioa betetzeak abantaila baizik ez luke ekarriko euskararentzat. (...) Guztiz berezkoa izango luke era honetako azterketa batek euskararen lurraldeetako herri aginteen arteko lankidetzak. Gertatu ere, hala gertatu da neurri batean, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak bat egin baitu Eusko Jaurlaritzarekin liburu hau argitaratzeko lanetan. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, gogoko du Nafarroako Gobernua lankidetzak honetara biltzea eta ahalegin horretan jarraituko du, nahiz eta, tamalez, Nafarroako Gobernuak ez duen orain arte norabide horretan urratsik eman. Era berean, Eusko Jaurlaritzak eutsiko dio aurrerantzean ere Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekiko lankidetzak alor honetan sakontzeko ahaleginari.”

51. Patxi Baztarrikaren hitzetan “inkesta soziolinguistikoaaren helburu nagusia (...) zentsu eta errolden maiztasun berarekin –bost urterik behin, alegia– azterketa sakona, jarraitua eta ahalik eta sistematikoa egitea (da) euskararen bilakaera sozialari buruz, era horretara zentsu eta errolden azterketa bidez eskuratutako datuak eta inkestakoak erkatzeko aukera eskainiz, eta, gainera, azterketa hori euskararen lurralde guztietan egitea, EAEren, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Iparraldeko instituzio publikoen arteko lankidetzaren bidez. Lehendabiziko inkesta soziolinguistikoa 1991n egin zen. (...) gaur plazara ateratzen dugun V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011ko ekainetik abendura bitartean bildutako datuetan du oinarria. (...) Honenbestez, hogeitaz urteko (1991-2011) azterketa diakronikoa osatzen dugu, euskararen lurralde guztietan jasotako informazio seriatua eskainiz. (...) Izan ere,

52. Argitalpenaren fitxa teknikoan argi azaltzen denez, a) inkesta soziolinguistikoa aztertu zuen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen zuten (2.649.000 pertsona); b) Landa-lana Siadeco Koop EM enpresak egin zuen; c) Datu-bilketa 2011ko ekain eta abendu bitartean egin zen, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz; d) Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen arabera haztatu ziren emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta, eta e) V. inkesta Soziolinguistikoa 7.900 inkesta egin ziren guztira: 4.200 EAEen, 2.000 Iparraldean eta 1.700 Nafarroan.

53. Urte askotako jarraipen-lan horrek mesede handia egiten die honelako lanei: konparagarritasuna oinarri-oinarriko aurrebaldintza da, hortik ateratzen diren datuak fidagarritasun-maila egokiz erabili ahal izateko.

54. Zumarragakoa eta Aiakoa, adibidez: lehenengorako ikus Lizarazu, 2012; bigarrenaz denaz bezainbatean ikus Jose Anjel Aldai, 2016.

55. Lehenengo kasuan, maiztasunaren *continuum* zabala izaera erlatiboko tarte jakinetan diskretizatzen da datua; bigarreanean ez.

56. Hemen ere badago maiztasun erlatiboaren osagai posiblerik: euskaraz eta erdaraz nahasian ari direla antzematen du, ez hain gutxitan, kale-neurtzaileak. Hori guztia dela medio, “jendea bere artean batez ere euskaraz ala nagusiki erdaraz ari den” erabaki behar izaten du maiz neurketa-lanean ari den behatzaileak. Ez da hori, beti-beti, hain gauza erraza.

57. Leku eta une jakinean bertan dabilen jendeari bere artean ari direlarik zenbat aldiz euskaraz entzun zaion kontatzen du kale-neurketak. Zuzenean ematen da hor jardunaren berri: kontestualki mugatuagoa da jardun hori, baina neurketa aldetik fidagarriago. Entzundako erabiltzaile(-talde) kopurua kontuan izan liteke kale-neurketaren bidez, erabiltzaile horien egunean zeharko maiztasunaz nekez atera liteke ordea maila bereko ondorio fidagarriak: kale-kontaldi batean lau pertsona baldin badira solaskide, litekeena da pertsona horietariko bakoitzak maiztasun diferentzaz jardutea egunean zehar. Hori ezin da, bistan da, kale-neurketaz argitu. Solastalde horrek handik bost minutura zer hizkuntzatan egingo duen ere ez, askotan: segun laukoteak kalean norekin topo egiten duen, segun zer gairi heltzen dion, segun... (ikus aurreko oin-oharrean *code-mixing* eta *antzeko* terminoez esandakoa). Oso datu baliagarria da ordea, une batez kalean dabilen jendearen artean (biko, hiruko, lauко,... taldean) zenbatek euskaraz egiten duen jakitea.

58. Euskal Herri osorako adierazgarri den laginaz jokatzen da horrelakoetan: ikus Olatz Altunaren azalpenak.

59. Lickert-en eskala-formulazio ezagunen aplikazio bat, ez aplikazio posible bakarra, izan ohi dira horiek. Inkestaturen jarrerak, gaitasun-ahalmenak eta jokabideak neurtzeko balio izan dezake eskala horrek, eta erabilera handikoa da gizarte-zientzietan eta, are, haien aplikazio-lanetan. Jokabideei dagokionez, erantzun-aukera posibleak puntatik puntara banatzen ditu eskailera-maila posibleetan.

60. Beren mintzajardunaz eta, hein batean, etxekoan edo inguruko solaskideen jardueraz ari izaten dira, hainbatean, erantzule horiek.

61. Fishman-en hitzetan <<language use claiming (...) too is merely “claiming” and, therefore, is also subject to all the self-protective response patterns of which humankind is capable>> (Fishman, 1984: 108).

62. Aitorturiko portzentajea benetan egiten dena baino handi(xe)agoa dela pentsatu ohi da. Atzerriko azalpenei buruz ikus, adibidez, Calvin Veltman (1983: 6). Bertakoei buruzkoetan ikus, adibidez, Iñaki Lurrebasok (udalerrri euskaldunen gainean ari dela) esan berri duena: “erabilera aitortuari jaramon eginez gero euskararen erabilera erdararenaren gainetik azaltzen zaigun arren, aldeak ez dira oso handiak: %47,5ek diote euskaraz mintzatzen direla nagusiki etxean eta %37,3k erdaraz. Inkestetan emandako erantzunen eta benetako portaeren artean sarri askotan egon ohi den tartea aintzat hartuta, pentsa daiteke bi hizkuntzen erabilera oso parean ibiliko dela gaur egun udalerrri euskaldunetako etxeetan”. Ikus orobat Aldai, 2016: 94.

63. Hala adierazi digu, berrikitan, gai horren berri ongien dakien Ion Aizpurua arduradun teknikoak.

64. Antzeko buruhausteak ibiliak ditugu *Arrue* ikerlanean: ikus han hartutako irtenbidea, ezinbestean diskutigarria baina esplizitua eta, hein batez, arrazoi bidez azaldua.

65. Inork lortu ez duena edota, inork lortu baldin badu, aztertutako bibliografia teknikoaren argitan hizkuntza-soziologiaren alorreko adituen ahobatezko onarpenik jaso ez duena.

66. Operatibizatzen oso erraza: datu-pilaketa handia dago horretaz, perspektiba deskriptiboan eta are zinetikoan, Euskal Herri osorako. Jardungune eta situazio jakinetarako datu-bilduma ohargarriak daude, horrezaz gainera, hainbat kasutan. Ez da gutxieteko ezaugarria, oso kontuan hartzekoa baizik. Definizio operatibo “on” edo “zoragarri” baten aplikazioa ezin aurrera eraman baldin bada (hartaz baliatzeko datu-biltegi zabalik, sakonik eta aldiro-aldiro elikaturik ez dagoelako) definizio antzua da hori: oso ondo moldatua baina antzua.

67. Kontuan hartzeko elementua da hori. Bere neurria eta eragina konprobatu gabe dago ordea, dakigularik, oraingoz. Eguneroko esperientzia pertsonalak honako hau diosku: euskaraz moldatu ezin denarekin nekez egiten da gure artean hitzaspertu luzerik euskaraz. Besterik da, jakina, *Mintzalagun* moduko programen ekarpen baliosa. Termino demolin-guistikoa globaletan aski ekarpen mugatua da hori, ordea, gaur-gaurkoz.

68. Horko %70eko behe-langa hori ahulegia da, konkretuki, herri-giroan euskara nagusi dela uste izateko eta, hortaz, benetan “udalerri euskaldun” batean gaudela bermatzeko. *Euskalgeo*-ko bigarren grafikoa (ikus txosten honen II. atala) aintzakotzat hartzen bada, argi dago udalerri bat “euskaldun” kontsideratua izateko ez dela aski herritarren %70ek bederen “euskaldun” kategoriari dagokion gaitasun-maila izatea. Grafikoa arabera badirudi, aitzitik, %70 inguruko gaitasun-langa horrek %25 inguruko erabilera-maila duela bidelagun. Ba al dago, beraz, %70aren ordezkio gaitasun-langa hoberik? Ez dakigu: ez gara gai horretan aditu, eta ez dugu horri buruz nahi bezain informazio argirik eskuratu. Lehen hurbilketa zko ikuspegi-saioa besterik ez da, beraz, langa-kontu horretaz “hemen eta orain” esan dezakeguna.

69. Nafarroako marko jurilinguistikoa hirukoitz hori 1986tik dator eta honela azaldu izan ohi dute bere formulazioa, aski era sintetikoan, Nekane Orozek eta Pablo Sotese: “The Basque Language Law (1986) (...) divides the Community into three specific areas: the bascophone, or Basque speaking, zone, the mixed zone and the non bascophone, or non-Basque speaking, zone. These areas have different population densities, different urban and rural characteristics, and different percentages of people who are bilingual or monolingual in the two languages Basque and Spanish. The Basque language is recognised as an official language only in the so-called “bascophone” zone, where 10,8% of the total population lives. Most of the inhabitants of this area are bilinguals. It is made up of 61 villages, each one having no more than 10.000 inhabitants. Half of the Navarre’s population (52%) lives in the mixed zone, which includes Pamplona, the capital and its neighbouring areas. The majority of Navarre’s public services are concentrated here.” (Oroz Bretón, Nekane eta Pablo Sotés Ruiz, 2008: 22)

70. Badakigu beste irizpide bat egituratu duela I. Iurrebasok, bere tesi-lanerako: egokiagoa da beste hori, gure ustez.

71. Zentraltasun horren bermagarri da, esate baterako, bere sakontasun soziohistorikoa: 1490-1990epean, munduko hizkuntza guztien erdia-edo galdu egin da zenbaiten ustean eta galera hori, jakina, *language shift* edo mintzaldaketaren eskutik etorri izan da eskuarki (ez beti, halere: ikus tasmanieraren XIX. mendeko galera, mintzaldaketarik gabea). Ikus, horrezaz guztiaz, Mesthrie, 2001: 493.

72. Zerikusi nabarmena du adiera-aniztasun horretan mintzaldaketaren motibo batzuei edo besteei aitortzen zaien garrantzi-mailak: faktore demografikoek, ekonoteknikoek, soziokulturalak, *institutional support* izenekoek, intralinguistikoeak eta *language loyalty* alorrekoek formulazio berezietarako atea zabaltzen dute hein batean. Muina ez da, ordea, gehienetan aldatzen.

73. Atik Brako jauzi hori prozesu gradualak izan ohi da eskuarki, ez bat-batekoa: gradazioa egon ohi da maiz adinarean, sexuaren, lekuaren, hizketa-gaiaren eta abarren arabera.

74. Demagun Gaztelan, administrazio-alorreko irakurtze-idazte lanetan, XIII. mendean latinetik gaztelaniara gertaturiko jauzia. Eguneroko jardun arruntean (mintzaldaketaren aztergai zentral den horretan alegia) ez zuen administrazio alorreko mintzaldatze nabarmen hark antzeko jauzirik izan: administrazio alorreko mintzaldaketa ez zen luze-zabaleko mintzaldaketaren bidelagun, sorburu edo ondorio gertatu.

75. Kontua ondotoz lehenagotik dator baina azken 250 urteetako bilakaera, nabarmena izateaz gainera, dokumentatzen errazagoa da.

76. Batez ere EAEko lehen eta bigarren hezkuntza-mailetan.

77. Ahuldutako hiztun-elkarteetan oro har edota, maizago, hiztun-ekarte horietako hiztun-talde jakinetan.

78. Gizarte modernizatu askotan, familia molde berrien emergentziak eta lan-merkatuak eragindako fragmentazioak haurtzaindegien esparrura darama, partes (ez osoz), etxeko jardunaren izaera barizentriko hori.

79. Ez, bereziki, osasun oneko eta LWC izaerako zenbait hiztun-elkartetan: ingeles asko elebakar dira, espainol-hiztun asko bezala, Europan eta Amerikan.

80. Estatu Batuetako etorkinen kasuan, konkretuki, honako hau konprobatu du Calvin Veltman-ek: “previous analyses of the structure of language shift have revealed that this process is structured by the life experiences of the individual. When the mother tongue of

the individual differs from the politically and economically dominant language of a given region, language shift from the minority to the majority language is observed. This language shift is characterised by an age structure which is grounded in the social experiences of the individual. When the child is very young, his mother tongue and subsequent language use are largely determined by the behavior of the parents. Consequently, little language shift is observed. That is to say, the child continues to speak his mother tongue as his principal language of use. However, when the child attends school, the linguistic behavior of his peers, together with the official language of instruction and school authorities, begins to play a role in the language capabilities and preferences of the child. During this period there is a notable increase in the percentage of persons who make the definite break with the language of daily use. A more definite break with the constraining authority of parental home is associated with the entry of the young adult into the work force or institutions of higher learning and/or with the selection of a mate". (Veltman: 1983, 20). Bestetik ere esaten du Calvin Veltman-ek, lehendikako ikerketen argitan: "the process of language shift is presumed to be more or less invariable in Western societies, the age curve presented in Figure 2.1 being similar for all language groups and regions. What differs is the extent of language shift". (Veltman: 1983, 20).

Bistan da hango eta hemengo kontestuak ez direla, urrundik ere, gauza bera. Hango emaitzak ez du, hortaz, zergatik hemengo berbera izan. Nekez uka liteke, ordea, euskaldunok oso ondo entenditzen dugula hor esaten zaiguna: begien aurrean ikusia dugu prozesu hori, behin eta berriro, eta bide beretik doaz orain ere urak, hein batez, gure artean. Ezin dugu, hortaz, prozesu hori gure-gurea ere badenik ukatu. Gu ez gara prozesu unilaterial horretan mugitu azken 40 urtean, eta orain ere ez gara alde batera bakarrik leratzen ari: indarberritze ohargarria jazo da hemen, azken hamarkadotan, (luzaro edo inoliz) gureak izan gabeko jardunguneetan (ikus BZ-2, BZ-3 eta, bereziki, BZ-4 ataletan azaldutakoa). Egia da, orobat, Estatu Batuetan ez bezalako arrakastaz eutsi zaiola hemen, XX. mendean, euskarazko nagusitasun-moldaerari arnaguneetan. Hori guztia egia izanik ere, Calvin Veltman-ek azaltzen diguna ez ez zaigu arrotz gertatzen.

81. Jarraipenik izan duen ala ez jakiteko eta, baiezkotan, belaunez belauneko jarraipen hori zenbatekoa izan den argitzeko. Gutzitan lortzen da, egoera horietan, jarraipen bete, erabatekoa.

82. Teorikoki, era zabalenean, *A* hizkuntza-kodetik *B* hizkuntza-kodera: hizkuntza-kodearen barnean kasuan kasuko hizkuntza, aldaera (soziolektoa, dialektoa, teknolektoa,...), agerbidea (ahozkoa, irakur-idatzizkoa), estiloa edo erregistroa sar liteke. Baita Bernsteinen aldaera murriz/landuak ere, hartaraz gero.

83. Berehalako mintzaldaketarik erakarri gabe ezinbestean, nahiz eta bata eta bestea hertsuki loturik egon ohi diren hainbat kasutan.

84. Ez hiztun guztiek, hiztun elebidunek baizik. Hiztun elebidun guztiek ere ez, ezinbestean: aparteko esfortzua egin ohi du hainbat hiztun elebidunek, *A* eta *B* kodeak ez nahasteko.

85. Aski horniturik ditugu kontzeptuok, baina ez nahi bezain argi zehazturik eta, batez ere, bibliografia teknikoan behar bezain zabal adosturik. Alde handia dago, zenbaitetan, espezialista baten erabilera konkretutik beste baten aplikazio praktikora.

86. Ikus, adibidez, P. Auer, K. M. McCormick, S. Gross eta R. M. Bhatt in Mesthrie, 2001: 442-461.

87. Ikus orobat, gaiaren osagarri eta aberasgarri, Kostako autobusean Donostiara datozen gazte euskaldunei entzundako hizkerabideaz Andu Lertxundik *Berria*-ko bere ataltxoan inoiz idatzitakoa.

88. Termino horren adiera teknikoaz jabetzeko ikus, adibidez, K. M. McCormick 2001, 447.

89. Gure arteko kode-aldaketa askoren oinarrian, berariazko hautua baino areago erdal elebitasun desorekatuaren eragina antzematen dela esango genuke. Berraqntolamendu sintaktikoa (euskal eredutik erdal modera berregokitua) antzematen da sarri horrelakoetan. Hitzez hitz, edo gutxi gorabehera, han-hemen entzundakoak dira hauek: "etorri maitia: *nahi dezu palomitas?*"; "klasean oso majoa da Iker, baina *etxean tiene un morro que se lo pisa*", edota "Aloñari erosi diote *moto bat ke-es-una-pasada*".

90. Inoiz edo behin heldua diogu gaiari: ikus, adibidez, Zalbide 1994.
91. Bada horren aipamenik Aldairen 2016ko lanean: ikus 105 orriko 2.1.4 puntua.
92. Hango datuen laburpen-lanketa da hemengoa. Zenbait kasutan, hiztun-kopuru absolutuetan zein portzentajeetan, biribildu egin dira hasierako datuak, argitasunaren fabore. Jatorrizko iturrian ere datu batzuk biribildurik daudela iruditu zaigu.
93. Iparraldeko datuak 1996koak dira
94. Iparraldeko datuak 1996-2011 epealdikoak dira
95. Gogoan izan, berriro ere, 16 urte edo gehiago duten pertsonak kontabilizatzen direla hemen, soil-soilik.
96. Konturatu, EESrako ere ia berdin funtzionatzen duela sailkapen horrek.
97. Askogatik eta ordena horretan, ez kontrakoan: garrantzitsua da bereizbide hori, aurrerago ikusiko denez.
98. Ikus, adibidez, *UNESCOren Expert Group on Endangered Languages* delakoak 2003an egindako txostenean (8-9 orrialdeetan) *absolute number of speakers* izenpean zer dioten: “a small population is much more vulnerable to decimation (...) than a larger one”. Txosten horrek berak argi aitortzen du, ordea, oso kontuz erabili beharreko datua dela kopuru absolutuen hori.
99. Portzentaje horrek zera dio: Lurralde-eremu horretako biztanle guztietatik zenbat diren E4-, E3 edo ET-hiztun.
100. Konturatu, EESrako ere berdin-berdin funtzionatzen duela sailkapen horrek.
101. Ahuldade horren esplikazio nagusia metodologian bertan dago, gure ustez: Bizkaian eta Araban ere (Nafarroako moduan) *euskal eremua*, *bietarikoa* eta *erdalduna* bereziko bagenitu, edo antzeko zerbait, emaitza “logikoagoak” eskuratu ahal izango genituzke seguruenik. Egin gabe dago ordea zatiketa hirukoitz (edo n-koitz) hori EAEko Lurralde Historikoetan. Zehaztapen intraterritorial horren faltak interpretazio ximpleegietara eramaten gaitu inoiz.
102. Egileak (Iñaki Iurrebasori erantzunez) emandako esplikazioak ondo ulertu baldin baditugu (ez gaude, damurik, nahi bezain seguru), honela dira kontuak: a) lehen mapako “euskal hiztun” terminoak “biztanle” esan nahi du huts-hutsik, inolako konnotazio demolinguistikorik gabe; b) bigarren grafikoa, berriz, honela ulertu behar dela dirudi: “*erabilera erlatiboa*” = “*euskararen erabilera soziala*” zati “*ezagutza*”. Hots, euskaraz dakien ehun biztanletik zenbatek euskaraz egiten duen adierazten digu “erabilera erlatibo” horrek. Hor ez da adierazten, euskaraz dakiten horiek zenbat dakiten (elebidun hartzailak ere kontuan hartzen ote dira bertan?). Udalerrri bakoitzean “euskaraz egiten duten” horiek (gutxienez) zer maiztasunez egiten duten ere ez; are gutxiago zer jardungunetan egiten duten euskaraz. Kontuok argitu arte kontuz hartu behar ditugu, beraz, horko emaitzak. Beren (edo gure ezjakitearen) muga horiekin ere, lagungarri dira mapa-grafikook euskal hiztun-elkartearen udalerriz udalerriko perspektiba geoterritorial zuhurragoa eskuratu ahal izateko.
103. Lastima da zinez, bederatzi eremuetako datu desglosaturik ez izatea: argitasun-iturri bizia izan liteke bederatzi ataletako azalpen hori.
104. Hots, senar-emazteek beren artean nola egiten duten (seme-alabak bertan ez direnean edota, bertan izanik, solaskide ez direnean).
105. Iparraldean zertxobait diferente izanik kontuak: ikus taularen azken zutabea.
106. V. inkesta soziolinguistikoa administrazio- eta zerbitzu-sailean, esparru formalean hortaz, sartzen du dendarieko jarduna. Perspektiba soziolaboralek arrazoizkoa da hori (zerbitzu-sektore pribatuan sartzen dira dendak, bete-betea). Perspektiba soziolinguistikotik alde handia dago ordea, gure ustez, (herriko) dendariarekin jardun edo udal/osasundegi/banku-etxeo bulegariekin jardun. Dudamudaz bada ere, kale-giro arrunteko jardungunera bildu ditugu dendarieko harreman-moldeak.
107. Esplikazio posible bat hau genuke: Iparraldeko ET-hiztun asko lehen sektoreko laborari-artzain da, eta lan-esparruko erabilera-tasa konparatiboki handiagoa du halakok.
108. EAEn Jaurilaritza. eta Foru Aldundiak. Nafarroan Foru Gobernua. Iparraldean, dagokion administrazio supralokala.

109. SKren beraren hitzetan “Euskararen Kale-Erabilaren Neurketa ibilbide luzeko ikerketan lan zabala da, Siadecoren eta Euskal Kultur Batzordearen –EKB- eskutik abiatu, eta gaur egun, hogeita bi urteren ostean, Soziolinguistika Klusterrak egiten duena. Neurketaren I. edizioa 1989an egin zen, eta azkena, VI.a, 2011n burutu da. Hogeita bi urtetan sei argazki atera zaizkio euskararen erabilari Euskal Herri osoan. Argazki horiek aukera ematen dute une jakin bateko egoera zertan den jakiteko, eta, batez ere, urteotako bilakaera nolakoa den ezagutzeko. Inkesta soziolinguistikoarekin batera, Kale-Erabilaren Neurketa da euskararen termometrorik adierazgarriena eta egoera soziolinguistikoa zertan den jakiteko tresnarik garrantzitsuen.

“Zenbat erabiltzen da euskara kalean?”, galdera horri erantzun nahiak bultzatu zuen ikerketa. Hala, ahozko erabilera jasotzen da kalean. Eredu publikoan, denona den eta inorena ez den espazio librean egiten da ahozko jardunaren behaketa, herritarrak modu espontanekoan ari direla. Ez dago hizkuntza jardunean eragiteko interbentziorik (ez da eskola edo lantegia, adibidez). Ikerketa honen berezitasuna batez ere metodologian dago. Izan ere, behaketa bidez jasotzen dira datuak. Neurtzaileek ere ez dute interferentziarik eragiten, alegia, hiztunari ezer galdetu gabe, norbanakoaren subjektibotasuna albo batera utziz, entzun eta elkarrizketaren hizkuntza jasotzen da, hiztunaren adina, sexua eta haurren parte-hartzearen informazioarekin batera.”

110. Hortik ateratzen diren emaitzak E5 lirateke berez, zenbait aldetatik begiratuta: “beste zerbaite”. Bergarren kKategoria hori ezin dugu ordea aurreko laurekin erraz uztartu..

111. Datu hauek 2015ekoak dira, ez 2011koak.

112. Segmentu hori bi adin-zatitan banaturik dator Baztanen eta, besteen parera ekartzeko, segmentu horretako bi adin-zatien batezbesteko matematikoa egin da.

113. Egia da, dena den, herri berean neurketa bi egin direnean urte gutxiaren buruan aski emaitza harrigarriak atera direla zenbaitetan.

114. Ez da hori, ordea, irakurketa posible bakarra: kale nagusitik txikite- lekuara ez dago hainbateko alderik erabilera-tasan, eta txikiteoan ari direnen adinak ere izan dezake alde horretan bere eragina.

115. Diferentziarik deigarriena, termino portzentualetan, Arabakoa, Iparraldekoa eta, apalago baina hor ere nabarmen, Nafarroakoa da. Nola esplikatu hori? Mintzaldatze garatuaren ondorioztat har liteke hori Iparraldean, baina esplikazio horrek ez du balio Arabakoa eta, agian, Nafarroarako. Ez dakigu, hortaz, baliozko azalpena zein den. Teoria soziolinguistikoa aspaldidanik aurreikusia daukan aldakortasun-iturri hori benetan halaxe dela erakusten digute etxe-giroko eta kaleko solastaldean emaitza berezitu horiek. Teoriari dagokionez ikus, bereziki, Joshua A. Fishman-ek gai horri buruz behin eta berriro eskainiak dituen gogoeta-oharrak. Gainerakoen erakusgarri ikus, adibidez, bere *The Sociolinguistics of Language* ezagunean *sources of language use variation* gaia emanik dituen azalpen teorikoak eta, inoiz, aplikazio praktikoa.

116. Aspaldu galdurik edo galdu berri-berri, apenas oso erabakigarri den.

117. Gai honen azalpen xeheagoa eskaintzen da txotenaren VI.2. puntuan.

118. Sintesi on baterako ikus, adibidez, Txerra Rodriguez/Garaigoikoa, 2007.

119. Nafarroako euskal eremuan eta bietarikoan ez da gutxiestekoa, beste hein bateko gertakaria izanik ere, euskararen eskola-eragina. Nabarmen ahulagoa da azkenik, baina ez gutxiestekoa, Iparraldeko egoera.

120. Hots, ikasgela barruko irakas-hizkuntzaren estatistikak: ikasleak entzule, aldika irakurle, bakanago idazle eta hiztun direneko datu gordinak. Taula horiek ongi ulertzeko kontuan izan bitez, ohiko (X), A, B eta D ereduak gainera, honako sigla (eta adin-tarte hurbil) hauek: HH = Haur Hezkuntza (0-6 urte); LMH = Lehen (mailako) Hezkuntza (6-12 urte); DBH = Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte); LLHH = lehen hezkuntzak (HH+LMH+DBH: 0-16 urte); BATX = Batxilergoa (16-18 urte); LH (Lanbide Heziketa (16 urtetik aurrera); HB = Hezkuntza Berezia.

121. Bistan da “zeharo beste historia bat” ageri duela Lanbide Heziketak, eredu-banaketaren kopuruz eta portzentajeaz. Lan-munduen benetako izaera soziolinguistikotik hurbilago dabil, alde batetik, estatistika hori: eskolaz kanpoko konexio hori ez da inoiz baztertu behar, jolas hutsean amaituko ez badugu. Beteago eta biziago egin zitekeen lan zail eta delikatuaren oihartzun da emaitza (konparatiboki) ahul hori, bestalde: euskalduntze-lana funtsean

haurrei eta gaztetxoei (ez lanera-bidean aurrera samarturik dauden gazteei) “euskara irakastea” dela uste duen ikuspegi isil bezain zabalaren emari. Gertakari biak dira egia.

122. Iparraldean 1996tik 2011rako bilakaera aztertzen da, eskueran ditugun datuek epehasiera hori baitute.

123. Hots, lekuan lekuko hiztunak.

124. Hasieran esan dugunez, erabileran zentraturiko txostena da hau. Aparteko txosten banatan lantzen dira hizkuntza-gaitasuna eta jarrera-esparrua.

125. 2011ko Inkestaren argitalpenean ez dago, batetik, ama-hizkuntzaren edo L1en bila-kaeraren informaziorik. Bestetik, ez dugu beste inon halakorik lokalizatu. Oraingoz ezin erabil dezakegu iturri hori, beraz.

126. Ez dakigu, batetik, seme-alabei euskara (edo euskara eta erdara) transmititu dietela aitortzen duten guraso horiek seme-alabekin etxean batez ere euskaraz egiten duten, bietara, batez ere erdaraz edota, une batetik aurrera, erdara hutsean. Badakigu, bestetik, etxeko transmisioa ez dela beti belaunez belauneko jarraipenaren berme. Etxean haurrei beren lehen urteetan euskara erakutsi izanak ez du ziurtatzen haur horiek handik 25 urtera beren arteko eta helduekiko jardun arruntean euskaraz egingo dutenik.

127. Funtsezkoa da puntu hau, behin eta berriro azpimarratzen ari garenez. Jasotako datuetatik egindako eratorpen posible bat da, ezinbestean, hain jardungune diferentekak batera bildurik ematen dituen formulazio global hori. Ezin baieztatu liteke, benetako egoeraz jabetzeko informazio fidagarriena eskuratzen dugunik horrela. Badago motiborik, kontuak horrela ez direla uste izateko. Ikus beste leku batean gai horretaz dioguna.

128. Iparraldeko datuak 1996koak dira.

129. Iparraldeko datuak 1996-2011 epealdikoak dira

130. Ikus Calvin Veltman, 1983.

131. Ikus adibidez Zalbide 2009.

132. Batez ere Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroako euskal eremuan. Ez Iparraldean eta ez, aurrerago ikusiko dugunez, Hegoaldeko erdal eremu tradizionaletan.

133. Zehazkiago: euskaraz egiteko aukera oinarri duna izango du, termino demolinguitiko globaletan. Oinarri horretaz zer neurritan baliatuko den, aldiz, ikuskizun dago erabat.

134. Gogoratu, berriro ere, hamasei urteko edo hortik gorako biztanleen lagin batez ari garela hemen.

135. Aspaldidanik bai, baina ez garaialdi beretik. Luze-zabaleko mintzaldaketaren garaialdiari dagokion alde hori (oso) handia da berez. Are gehiago: Nafarroako Erriberan ez dago gaurko jakiterik euskara luze-zabaleko hizkuntza bizia izanik denik inoiz. Hainbat adituren ustean ez dago horren aldeko argudio-oinarririk.

136. Oso datu positiboa izan liteke hori, aurrerago argitzen saiatuko garenez, etorkizunera begira: “izan liteke” diogu ordea, ez “da”, ET-hiztunekin ari garelako eta ez E4-hiztunekin.

137. Gainerako apurretan ere ez dira gutxi izango, zehar-datuen argitan, euskaraz eta erdaraz bietara berdintsu ari direnak.

138. Gipuzkoako gazterien datu hori ez dator bat gure esperientzia pertsonalarekin. Bistan da inpresio pertsonalek ezin dutela inkesta baten emaitza baliogabetu, eta ez diogula goiko hori inolako epai-asmoz. Inkesta bidezko aitormen soilen emaitzak eta kale gorriko mintzajardunaren eguneroko esperientzia pertsonala hain diferentek direnean, halere, zilegi da harridura horren berri ematea. Aldea hain bizia izanik, non dago esplikazioa? Oker al daukagu belarria? Inkesta bidezko emaitza hori izatekotan egia, eta ez “nire belarriak dioena”, kale gorritik kanpora non bizi da Donostiako, Irun-Eibarretako, Zumarragako eta Errenteriako, Andoaingo eta Ordiziako gazte-jende hori “hain euskaraz”: etxean? (baina etxeko datuek ez diote hori), unibertsitatean?, kirolguneetan?, lantokian? (baina gehienek ez dute lanik adin horietan).

139. Ez ditugu eskueran, hori konprobatzeko datuak.

140. Iparraldean 1996an.

141. Hots, senar-emazteek beren artean nola egiten duten (seme-alabak bertan ez direnean edota, bertan izanik, solaskide ez direnean).

142. Ez dakigu, oraingoz, gure hipotesi honen balio-indarra zenbaterainokoa den. Datuok ez dute, gure ustez, hartarainoko sarbide zuzenik eskaintzen. Aurrerago, bestelako analisien laguntzaz, saiatuko gara puntu hori zertxobait argitzen (ikus Iñaki Iurrebasoeren lanetik atera litekeen lehen hurbilketazko ondorioa).

143. Datu hori ez du, itxuraz, V. Inkesta Soziolinguistikoak landu. Hutsik utziko ditugu, beraz, kontzeptu horri buruzko gelaxkak.

144. Tartean lankideekin.

145. Aurreko atalean esplikaturik daukagu, espazio formaletik informalera zergatik pasatzen dugun, analisi honetan, dendariekiko jarduna.

146. Konprobatu beharrekoa da esaera hori, ordea: Gipuzkoan ere ez al dira kontuak horrela? (Ikus, Donostialdeko merkatalgune zabalek zein *catchment area* edo zein bilgune zabala duten).

147. Idatzizko jardunean bederen segurtasun handiz esan liteke, gure ustez, gauzak aski bestela direla. Hitzezko jardunera bilduz ere, informazio hori nekez uztartzen da geure esperientzia pertsonalarekin eta beste hainbat pertsona helduren aitormen zuzenarekin.

148. Litekeena da, alegia, lanpostuan bertan (zer esanik ez ordenadore aurrean) erabat edo nagusiki erdaraz jardutea eta, kafe-orduan edo lanetik irteeran, hurbileneko lankideekin euskaraz edo bietara egitea.

149. Lehendik euskal presentzia handixeagoa zuelako hor?

150. Inkestak eskola-mundua ere kontuan hartuko balu, bigarren postura pasako litzateke administrazio publikoan eta zerbitzu-esparruan antzemandako kontraste sendo hori.

151. Batez ere ama-hizkuntzaren edo L1en.

152. Aurrerago zehaztuko dugunez, zentrala da E4 hori ama-hizkuntzaren, L1en edo etxeko hizkuntzaren belaunez belauneko transmisiorako. Alde handia dago horretan E3rekin.

153. Gero eta euskaldun gutxiagok egiten du euskaraz bertako, inguruko edo urrunagoko euskaldunekin, eta gero eta gutxiagotan egiten du indar bizian: EESTik EEBra lerratzen ari da EET hori, hainbatean. Hots, luze-zabaleko mintzaldatzea indar bizian dago, taertaren zati geoterritorial eta sozifuntzional gehiena dagoeneko jaanik badu ere.

Euskaldun-jendeak hainbat mende bere-berea izanikako konpartimentazio soziofuntzionala, eguneroko jardura arruntan (batez ere hitzezkoan¹⁵⁴) euskarari leku zabala eta, bereziki, belaunez belauneko jarraipena segurtatzekoa airtzen ziona, ahuldu egin da nabarmen eta, hainbat lekutan, desagertu egin da edota oraintxe desagertzen ari da.

Ezin esan liteke, bestalde, azken gotorleku-erreserba soziofuntzionala edota geoterritorial horietatik kanpora burua jasotzen ari denik euskara: ez jardungune jakinetan eta ez, bereziki, belaunez belauneko jarraipena segurtatzeko dezaketenetan. Etxea eta familia, kalea eta auzoa, lagunartea eta lan-esparru hurbila nabarmen galtzen ari da euskara Iparraldean, diglosia-molde zaharra indargabetzeaz eta desagertzeaz bat. Atzerabide larriko joera horrek indarrean dirau, oro har. Ikuskizun dago, alde horretatik, belaunaldi gazteenaren azken aldiko buru-jasotze apalak zer emango duen.

Atzerabide hori ez da, inola ere, harritzekoa. Bertako euskal hiztun-talde trinkoen ahuldade demolinguistiko estrukturalak, besteak beste, erraz esplikatzen du hori. Gutxi dira kopuruz, eta gero eta ahulago daude kontzentrazioaz: gero eta bakan-isolatuagoko EET-hiztunek norekin egingo dute euskaraz, eguneroko mintzajardunaren oinarri nagusi diren auzo-kale-lantokietan, beren aurreko belaundiak EET-euskaldunik gabe gelditzen ari baidira eta belaunaldi gazteenak hain presentzia murrizta baldin badu (oraingoz bederen) jardungune horietan?

Ez da harritzeko gauza, baina bai kezagarria. Oso egoera larrian dago Iparraldeko euskaldunen belaunez belauneko jarraipen-aukera. Xenpelarren behinolako “jaioko dira berriak” kantu-esaera ez dugu hor, zoritxarrez, indarrean.

154. Honako hau eranstean du berehala informazio horrek: “azken bost urtean behera egin du zertxobait, arretaz jarraitu beharreko bilakaera da aurrera begira”.

155. Ikus Bengoetxea Muxika, Xabier (2012): “Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 85 (75-118).

156. Orain dela hamabi urte-edo ULIBARRIrako moldatu genuen neurgailua da *gela-argazkia*. Ikasgela bateko (eta, argazkiak metatuz, eskola eta are herri bateko) eskola-umeek beren eguneroko bizigiroan (etxean, kalean edo auzoan, eskolan, elizan, komunikazio-alorrean, kirolean,...) mintzabide gisa euskara ala erdara duten nagusi, eta nagusitasun hori zenbaterainokoa den, neurtzen du *gela-argazkiak*.
157. Euskaldunen dentsitatea behera egiten ari den arren.
158. Funtsezkoa da “oraingoz” esatea. Ikus txosten honen I.13 puntuan azaldutakoa.
159. Lehenik euskaraz baina, bide batez, erdaraz ere bai.
160. Kontuak baikorrago dira irati-kontsumoan, halere.
161. Udalerrri euskaldunen definizio operatiborako ikus Iurrebaso, 2015: 5.
162. ikus Onintza Irureta Azkune kazetariak 2015eko maiatzaren 10ean eginiko elkarrizketa, *Argia* aldizkarian argitara emana.
163. Ikus Iurrebaso, Iñaki, 2015: *Udalerrri euskaldunak EAEn, 1981-2011: Hurbilpen deskriptiboa zentsuetako datuen ustiaketa bidez*. Andoain, Soziolinguistika Klusterra.
164. Iragarria genuen hori, hein batean, 2008ko lanean: ikus Zalbide, 2008).
165. Nafarroako euskal eremuan ere bai, agian: merezi luke, zinez, euskal eremu horretan ere horrelako lanik (hartarako datu-base egokirik balego) egitea.
166. Horrek ez du esan nahi, nagusitasun-moldaerazko euskal jarduera zabaletik erdal itsasorako mintzaldaketa-prozesu luzean euskaldunok inoiz halakorik bizi izan ez dugunik. Oso bestela izanik dira kontuak, seguruenik: mintzaldatze-bide orok bere pausaldiak eta bere azelerazio-aldiak izanik izango ditu.
167. Biztanle horiek gutxi dira EAE osoko perspektiban, orobat Gipuzkoako edo Bizkaiko planoan.
168. Horko letrakera etzana gurea da, aurreraxeago arnaguneez dioguna hobeto ulertzeko.
169. Fishman-ek halako zehaztapenik egiten ez badu ere pasarte horretan, pasartean bertan eta liburu bereko beste hainbat ataletan dioena gure koordenatuetan txertatuz honetara ekar liteke arnaguneetako herri-giro zabal-lasai horren oinarria: etxea eta auzoa, taberna eta denda, eliza eta herriko plaza, lagunartea eta aisialdia, bai eta (ahal dela) herriko edo herri inguruko lan-jarduna.
170. Justu-justu udalerrri izan liteke arnagunea, neurriz, eta askotan hala da. Baina identifikazio hori ez da ezinbestekoa. Izan ere, a) eskualde- (lehenago lurralde-) hedadura izanik du hainbat arnagunek, eta b) udalerrri-zati bat (auzo bat) estaltzen duen arnagunerik ere bada egungo egunean. Definizio soziolinguistikoak ez du unitate administratibo municipalera mugaturik egon beharrik, erosoena udal mailako unitateekin jardutea bada ere.
171. Ez, bistan da, hortik “gorako” funtzio gehienetan (lan-esparruko jardunean, administrazio-bizitzan, luze-zabaleko komunikabideetan). Hitzun-taldearen neurri demografikoan, hiztunen kontzentrazioan, lurralde-antolamenduan eta *institutional support* zein *estatus* ataletan ere ez, gehienetan. Bereizketa hori kontuan izan behar da beti. Nazio arteko perspektiba zabalerako ikus, adibidez, Richard Bourhis eta Rodrigue Landry-ren 2008ko ‘institutional completeness’ kontzeptua, lehenengoz Raymond Bretonek plazaratua (Breton, 1964, 2005: ikus Bourhis eta Landry, 2008: 187-8).
172. Ez aldiz, gehienetan, hortik kanpora (baina hurbil) dagoen herriburuan, zer esanik ere Lurraldeko hiriburuan.
173. Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute horietan haur txikiek bertako hizkuntzan. Hala ikasten dute hitz egiten. Lehenik hitz egiten eta gero, eskola eta abar lagun, irakurtzen, idazten eta bertan ahoz aho dabilen hizkuntza horren errejistro eta aldaera jaso, landu, formalizatuagoak erabiltzen. Hori da osasun oneko hizkuntzen belaunez belaunezko jarrera-bide normala, prototipikoa. (...) Lehenasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Joshua A. Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioaren abiaburu natural eta baliagarrienak. Hori gabeko normalkuntza ez da normalkuntza. Ingurumen horien zaintza-ardura bigarren edo hirugarren lehenasun-mailara daramana ere ez.

174. Udalerrri euskaldun dira oro har, edota udalerri euskaldun baten azpi-atal adminis-
tratibo. Oso zaila da udalerri euskaldun ez den batek arnasmunerik izatea bere baitan. Te-
orikoki ez da ezinezko, baina oso egiantz txikia du aukera horrek praktikan.


175. Ikus, esate baterako, 2015eko maiatzean *Argia* aldizkariak egin zion elkarriketan
azaldutakoak.

176. Ez, ezinbestean, territoriala: biztanle gutxi baina km² askotxo duen arnasmunezko
udalerririk ez da han-hemen falta.

177. Han egiten dituzte arnasmuneko helduek astean 35-40 ordu, batetik; han egiten
dituzte maiz, bestetik, gosari-bazkariak eta, aldian behin, lankide arteko afari-festak.

178. Hori ere, beste formulazio jeneriko guztiak bezala, sinplifikazioa da: barne-aldakor-
tasuna gizarte-bizitzaren osagai nagusi izan da lehen ere. Sinplifikazioa izanik ere, egiatik
hurbilago gabilta formulazio horrekin hori gabe baino, nire ustez. Kontuan hartzekoa
da hortaz, lagungarri den heinean.


179. Etxe-giroan euskarak zein protagonismo duen ikusteko, demagun EAEko udalerri
euskaldunak eta gainerakoak atal bitan bereziz Iñaki Iurrebasok egin duen grafiko argia.
Etxeko hizkuntza udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan konparatuz, hona emaitza:
gainerakoan %7,5koa dena %47,5era igotzen da EAEn, 2011ko datuen argitan. Konparazio
hori are nabarmengoa izango genuke, egiantz handiz esanik, udalerri euskaldunak ordez
beren parterik “intaktu” ena diren arnasmuneak hartuko bagenu konparazio-gai.



180. Ikus amerindioen *stabilization*-helburua.

181. Diglosiazko elkarbizitza dela-eta, hau diote UNESCOren adituek: “multilingualism
(..) does not necessarily lead to language loss”.

182. Ondoko grafikoa (Iñaki Iurrebasok paratua) aski adierazgarria da euskaldun zaharrek
(are, hor ikusi ezin bada ere, euskaldun garbiek) arnasmuneetan zer pisu duten ulertzeko.
Konturatu udalerri euskaldunetako datuak direla Iurrebasok grafikora ekarri dituenak. Uda-
lerri euskaldunen parterik euskaldunena osatzen duten arnasmuneetarako moldatuko balitz
grafikoa, euskaldun zaharren protagonismoa are handiagoa izango litzateke egiantz handiz.



183. “euskaldun garbi”-en formulazio soziolinguistikorako ikus Zalbide 2009: “Interfe-
rentzia, hiltun garbien galera eta mintzaldaketa: Hiriart-Urrutiren garaiko zenbait korre-
lato” in *ASJU* XLIII.

184. Bertan jaiotakoak edo aski hurbilekoak. Hurbileko leku horiek ere arnasmune dira
askotan.

185. Herriko denda, taberna, almalen-biltegia, azken aldia osasun-, finantza- edo administrazio-alorreko bulegoa.
186. Azken elementu honek ahuldade nabarmena (gero eta nabarmenagoa) erakutsi du, ordea, azken (demagun) 60 urtean.
187. Aparteko pisua du bertan, oro har, ehizak.
188. Hala gertatzen da, adibidez, urkoarenganako begiramen-laguntza konprometituan: inori borda erretzen zaionean, edota etxerako bidea oztopatzen, auzolanez saiatzen dira herritarrek norbanakoaren ezbeharrak arintzen.
189. Kollingue dira neska-mutil horiek, L1-i dagokionez. Hitz-etorriaz eta gatz-piperrez euskara dute nagusi.
190. Kollingue dira neska-mutil horiek, L1-i dagokionez. Hitz-etorriaz eta gatz-piperrez erdara dute nagusi.
191. Ondo gogoan hartzekoak dira, besteak beste, Kasares-en honako bi aipamen hauek; a) "hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak jarraipen eta aldaketa soziokulturala, biak, ditu aztergai: «The language socialization paradigm offers a socioculturally informed analysis of life course and historical continuity and transformation» (Ochs eta Schieffelin, 2008: 11)"; b) "haurrak hizkuntzaren erabilerarako arauak jabetzen dira hizkuntza gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita eta egoera horietan parte hartuta: «Children acquiring language acquire knowledge of the language or languages in their sociolinguistic environment» (ibid., 171). Beraz, haurrek hizkuntza -kodea- ez ezik hizkuntza erabiltzeko gizarte arauak, hizkuntzen arteko hierarkia eta halakoak ere barneratzen dituzte. Sozializazio elebiduna izan duten haurrek bi hizkuntzak ikastearekin batera bi kodeak nola erabili, non, norekin eta zertarako, bi kodeak noiz bereizi eta noiz nahasi ere ikasten dute (Luykx, 2003: 41)". Ikus guztia in Kasares 2013: 215-16.
192. Ferdinand Tönnies soziologo alemanak 1887an prestatuturiko kontzeptu osagarriak dira (ikus izenburu horixe daraman bere liburua), eta orain ere aplikazio-ahalmen argia du gure artean, arnasguneetan batez ere, *Gemeinschaft*/*Gesellschaft* dikotomiak.
193. Denboraz eta irismenez urrun(sko), ez ezinbestean kilometroz.
194. Bibliografia teknikoan, partez (ez erabat), *face to face interaction*. Ikus Ervin Goffman 1959: "the reciprocal influence of individuals upon one another's actions when in one another's immediate physical presence".
195. Euskaraz jaio eta hazi, helduaroan euskaraz mintzo; aldiz irakurri eta idatzi, orobat urruneko kanpo-esparruarekin jardun, maizenik erdaraz.
196. Aurrez aurreko talde-giroa indar betean, herritar zahar eta gazteen eskubide-eginbeharrak talde-giro horretan mamituz sarri; herritarren etengabeko harremana astialdian, auzolanean eta talde-ospakizunetan.
197. Urolaldea (goia salbu, Errezil barne) eta Lea-Artibai daude gaur egun, gure ustez, egoera horretatik hurbilen.
198. Hots, "euskararentzat berri".
199. "The most authoritative source on the languages of the world (*Ethnologue*, Gordon 2005) lists just over 6.900 living languages. Population figures are available for just over 6.600 of them (or 94.5%). Of these 6,600, it may be noted that: 56% are spoken by fewer than 10.000 people; 28% by fewer than 1.000; and 83% are restricted to single countries, and so are particularly exposed to the policies of a single government." (*Ogmios* aldizkaria, 27 zkia., 2015-VIII-31).
200. "Over half of the world's languages are moribund, i.e. not effectively being passed on to the next generation. We and our children, then, are living at the point in human history where, within perhaps two generations, most languages in the world will die out." (*Ogmios* aldizkaria, 27 zkia., 2015-VIII-31).
201. At the other end of the scale, 10 major languages, each spoken by over 100 million people, are the mother tongues of almost half (49%) of the world's population. Hots, bakoitzak 100 milioi hiztunetik gora duten munduko lehen 10 ama-hizkuntzek munduko hiztun guztien ia erdia biltzen dute (*Ogmios* aldizkaria, 27 zkia., 2015-VIII-31).

202. Lehenik (1964an), antza denez, New York-eko Yeshiva University-n argitara emana du lana. Jendaurreko zabalkundea 1966ko argitalpen handiaz eskuratua du ordea. Horrezaz gainera 1964an argitaraturik du, aparte, bertako artikulua funtsezkoa, *Language Maintenance and Language Shift as a field of Inquiry* izenekoa.

203. Fishman bera ez da langintza horretan hutsetik hasia: ikus Heinz Kloss-en 1927ko *Spracherhaltung*. Izenburuan bertan argi datorrenez, “the maintenance and perpetuation (azpimarrak gureak) of non-English mother tongues” du 1964-66ko *Language Loyatism in the United States* ekarpenak xede nagusi.

204. *Language Loyalty*-ren ikerbidean txertatu arren (1983: 10), badu Veltman-ek, dena den, berariazko terminologiarik: *language shift*-en ondoan *language retention* darabil berak, *maintenance* ordez.

205. Nori bere hizkuntzan egiten ez uztea, hori da lehenik eta behin debekua. Beregan ez ezik, bere ingurukoengan ere eragin zuzena izan ohi du debeku horrek. Batez ere familian, eta bereziki seme-alabengan, eragin ohi du askotan. Nork bere seme-alabak bere ohiturazko moduan, bere jokabide-arau, balore eta kultura-hobespenen arabera, hazi eta hezi ezina dakar, halakoetan, debekuak. Gazteengan ezarri ohi dira, sarri, horrelako debeku-neurriak: etorkizunean pertsona heldu izango diren eta bihar-etziko gizartea birmoldatuko duten hiritarren. Euskaldunoi ez zaigu horrelako debeku-neurrien lekukotasun historikorik falta. Ikastetxeetako eraztunak, esate baterako, eskolan euskaraz egiten zuten umeen kontrako debeku-bidea izan ohi ziren garai batean. Debeku-bide hori ez zen Euskal herrian bakarrik aplikatu: hemendik kanpora ere antzeko zigor-bideak dokumentaturik daude, lekuan lekuko hizkerak eskola-girotik (eta, zenbaitetan, bizi-giro arruntetik) uxatzeko.

206. Demagun Iparraldeko *Betiri Sants* bildugarria, azken aldiz 1846-47an gertatua.

207. Hor sartzen ditu uholdeak, lurrikarak, tenperatura-aldaketa gogorak, izurriteak,... . Hiztun-herri askoren geroan eragin bizia izana dute katastrofe naturalek.

208. Gerrak eta gerraondokoak, genozidioa, “scorched earth” edo “tierra quemada”-ko inbasio-politikak, esklaboak ehizatzeako espedizioak, populazio edo herrialde osoak espulsatzeako neurriak (sarri askotan, eufemismoz-edo, “reasantamiento / resettlement”, “transfer” edo “exchange / intercambio” izendatu ohi direnak), hiztun-herri hori bizi den lekuan lurra exhausto uztea, mehatze- eta oihan-esplotazio neurrigabea eta, orainagokoetan, airea, ura, lurra, fruitu-landareak, animaliak eta are gizakiak berak pozointzea.

209. Demografiaren alorrean egon ohi da, Fishman-en esanean, bere kulturaren txertaturiko hizkuntza batek (kultura eta hizkuntza horren sorburu, erabiltzaile eta emaitza den konstelazio etnokulturalak) belaunez belauz bizirik irauteko duen arriskurik handienetakoa.

210. Bere hizkuntza egiten den herritik zeharo beste bat egiten den herrialde batera joaten bada jendea (bere gogoz, edo hartara beharturik), edota berea ez den hizkuntza bat egiten duen jendea etortzen bazaio herrira, samaldan, bere hizkuntza galtzeko arriskua begien bistakoa da.

211. Ez beraiek kanpora emigratu eta ez erdaldunak beraiengana etorri, baizik eta soil-soilik seme-alabarik ez egitea (edo, antzekoa dena, oso haur gutxi egitea). Horrek ere dislokazio demografikoa dakar, ez berehala baina bai hurrengo belaunaldian. Gure koordinatuetara bilduz, nola iraungo du euskarak bizirik, euskaldunok seme-alabarik egiten ez badugu edo oso haur gutxi sortzen badugu?

212. Ordura arte baserri-giroan (edota, artzain-jendearen kasuan, etengabeko harat-honatean) bizi izandako populazioa (baserritar-jendea, gure artean esan ohi zenez) urbanizatzen denean (bizi izatera “kalera jaisten” denean), bizilekuaren aldaketa horrek ondorio nabarmenak izan ohi ditu jende-multzo horren ohituretan. Eten eta urratu egiten dira ordura arteko bere ohiturak. Dislokazio soziokultural sakona ekarri ohi du, sarritan, baserriatik kalera bizi izatera jaiste horrek. Dislokazio hori jan-edanean gertatzen da, janzteko moduan, mundu-ikuskera osoan eta, askotan, baita eguneroko berbetan ere. Beretzat ordura arte arrotzak ziren jende-moduekin tratatu beharko du aurrerantzean, batean ez bada bestean, kalera aldatu den baserritarrek: bere auzo berrian, lanean, eskolan, erosketak egiterakoan, garraio-bideetan, entretenimendu berrietan eta zeremonia publikoetan. Horrekin batera, lehen baino komunikazio trinkoagoa, ugariagoa izango du (baserrian jende gutxiago zuen hitz egiteko, ia beti solaskide berdina, eta zertaz hitz egina ere mugatuagoa

zuen). Horrek guztiak, azken buruan, ondorio jakina dakar: herri-jakintzaren baitako, eta bere ordura arteko hizkuntzan sortutako, mezuak etengabe gutxitzea eta ahultzea. Oso ezaguna dugu urbanizazioaren eragin molde hori gure artean. Egia da XX. mendearen lehen bi herenetan izan duela joera horrek ere eragin nagusia. Baina ez da erabat atertuta, azken aldi honetan, herri txikiak ere urbanizatzen ari zaizkigularik, kaletik baserrira hedatzen ari da, atzera martxan bezala, kale-giroko mintzaldatze-bide hori.

213. Jende-kopuruz, aginpide politikoz eta era askotako baliabideen kontrol-ahalmenez ahulagoak izatearen albo-ondorio modukoa da, Fishman-en esanean, *socially* (ere) *disadvantaged* izate hori. Bizian aurrera egin nahi duten euskaldunek, goragoko gizarte-mailetara iritsi nahi dutenek, “erdal itsasoan igeri egiten” ikasi behar dute. Horretan ez dago salbuespenik. Are gehiago: beraiek izango dira lehenengoak saiatzen, beraien seme-alabek alde horretatik inolako eragozpenik izan ez dezaten (hots, erdaraz behar bezala jakin gabe gera ez daitezten). Jokabide horrek baditu, begien bistako ordain-sariez gainera, kontrapartida nabarmenak. Kaltegarria da hori, oro har, batez ere hizkuntza ahularen eta bere hiztun-herriaren status sozialean. *Dependency interaction* sortzen da erdaldunen eta euskaldunen artean: mendekotasunezko elkar-eragina. Erdaldunduenik dauden euskaldunak dira, prozedura horren ondorioz, erdal aginte-egituratik ordain-sari hobereak jasotzen dituztenak. Hori da kontua, itsurik itsuenak ere azkar asko antzematen duena. Euskara hutsarekin jai duzula. Erdaraz ondo jakin behar duela euskaldunak, bizian aurrera (gizarte-mailan gora) egin nahi badu. Eta isuri horrek, jakina, etengabe erdal itsasora eramaten du euskaldun jendea: demografia aldetik, gizarte aldetik eta kultura aldetik. Boterearen eta baliabideen mailan erdaldun-euskaldunek ageri duten desoreka horrek (zeharo erdararen aldeko balantza horrek) bere horretan jarraitzen badu, gizarte eta kultura handi askok duen etno-kultura ahulagoak irensteko ahalmenak eta gogoak (*incorporative capacity* eta *incorporative ideology* direlakoek) bere horretan jarraitzen badute, behinolako transeunifikazioak eta translinguifikazioak aurrera segituko dute.

214. Moderno izatea nori ez zaio gustatzen? Ez al gabiltza beti begira, modako janzkera zein den? Eta berdin modako orrazkera, kotxe-modelo berria, modako filmegilearen azken pelikula, “mundu guztia” irakurtzen ari den liburua, modako turismo-lekua, *trekking*-a, eski-estazioa eta abar: “azken modan” egon nahi dugu guztiok. Eguneroko bizibide arruntean libertade osoa nahi dugu, “nahi duguna” egiteko. Gutxitan konturatzen gara, ordea, “nahi dugun” modernizazio-bide hori, “norbaitek” desiragarri bihurtzen digun moda-egarri hori batetik, eta euskaldun izaten jarraitu nahia bestetik, ezkontzen zailak direla. (...) aukeratzen dugun ikuspegia aukeratzen dugula, dislokazio kulturalaren arriskua dakar berekin modernizazioak.

215. Berariazko plangintza euskal-etsai espliziturik besapean ageri ez dutenez, identifikatzen eta aurre egiten zailagoak dira azkenok euskaldun-jendearentzat.

216. Erdaldun izan edo (hizkuntza-gaitasunez euskaldun izan arren) eguneroko jardunean erdal hiztun izan, aski antzekoa da ondorioa.

217. 2000. urteko datuen argitan osasun beteko hiztun-herri alemanak, frantsesak eta italiarrak inkorporazio-ahalmen handia daukate Suitzan; erromantxezkoak, aldiz, oso apala. Bertako Estatistika Bulego Federaletik esana da honako hau: “the proportion of German, French and Italian speakers increased within their heartlands thanks to the integration of new arrivals who have learned the local language”. Horren aurrez aurre, aldiz, honako hau dio iturri horrek berak: “the Romansh-speaking area is not strong enough to integrate speakers of other languages sufficiently – a finding that is unfortunately not new, and which continues”. Inkorporatzeko ahalmen-galera horrek bere eragina du bertako erromantxetik erdara baterantzko (normalean alemanerantzko) mintzaldaketan: “the proportion of Romansh speakers shrank, even in the parts of the south-eastern canton of Graubünden where it is widely spoken”.

218. Zehaztasun handiagoak ematen ditu Aitor Lizarazuk: “Zumarragaren kasuan XX. mendeko emigrazioaren arrazoi nagusietako bat Esteban Orbegozo fabrika hartu behar da. Bertara, trenak lagundurik, samaldan etorri ziren etorkinak bereziki 50-70 hamarkadetan. Etorkin gehienak erdaldunak ziren nahiz eta euren artean baziren inguruko herrietatik etorritakoak.” (Lizarazu, 2012: 110).

219. Ondo ezaguna izanik dugu autogorrotaren fenomenoak gure artean ere. Aezkoan gertatuaz jabetzeko ikus, adibidez, Camino 1997: 111-137.

220. Kontura gaitzen, “gureak ez genituen” edo “debeku genituen” jardunguneak direla euskarazko eskola, unibertsitatea, administrazioa, idatzizko prentsa, ikus-entzunezko komunikabideak eta, hein batean, (idatzizko jarduna berekin duen) lan-mundu kualifikatua. Hor irabazitakoaren ondoan gure-gurea genuen esparruan jasaten ari garen eutsi ezina eta galera gutxitan aipatzen da antzeko indarraz. Bodegatik ari zaigu ura sartzen, teilatuko boketeak eta arteziak nola tapatuko saiatzen ari garen artean. Beheko alorreko erabilerak definitzen du, nagusiki, hizkuntza bizi ororen (ez, jakina, latinaren eta antzeko hizkuntza galduen) belaunez belauneko jarraipena eta, horrenbestez, hizkuntza hori eguneroko mintzabide arrunt duen hiztun-elkartearen bizi-itxaropena.

221. Hogeita hamar bat faktore eman zituen berak, zenbait hiztun-taldek beste hainbatek baino mintzaldatzeko arinagoa zergatik duen esplikatzeko. Veltman-i jasoa diogu aipamena (1983: 10).

222. Hots: a) kasuan kasuko hiztun-taldearen neurria, dentsitatea eta kontzentrazioa; b) hiztun horien adin-osaera; c) euskal/erdal ezkontzen edo euskal/erdal bikoteen neurria; d) barne- zein kanpo-immigrazioa eta emigrazioa, eta edota jaiotza bidez, segurtatzen (ez) den belaunurteko jarraipena.

223. Tartean, bereziki, euskarazko jardunak pisurik handiena duen lekuetan bertako harreman-sareek eguneroko mintzajardun arruntean duten nagusitasunari bizirik eusteko lain den antolamendua.

224. Eguneroko bizimodu arruntean euskarazko jardunari amor eman beharrik ez dakarten ogibideak eta komunikazio-aukera mediatikoak segurtatzen dituzaketen ingurumenak sartu beharko genituzke hor.

225. Erdararekiko *social dependency relations* direlakoak, giza arteko mendekotasun-harreman euskal-galgarriak bereziki, ebitatu edo minimizatu ditzaketen baldintzak hartu behar dira hor kontuan, batetik, eta euskal osaera etnolinguistiko jatorra modernotasun suprateniko-arekin era pizgarrian konbinatzeko sormen-esparruak bestetik. Moderno izan nahi ez duen gero eta gizatalde gutxiago dago hemen, Mendebal Europako beste leku gehienetan bezala. Modernotasun horretarako bidea euskal osaera kontuan izanik eraikitzeko prest dauden herritarrak gutxiago dira ordea, eta ibilbide hori egiteko gai direnak aski diferente banaturik daude (kopuruz eta portzentajeaz) hiztun-herriaren leku batean eta bestean. Oso kontuan hartzekoak dira defizit-maila desberdin horiek ere, euskal hiztun-elkartearen egungo bilakaerak leku batetik bestera ageri dituen diferentziak entenditzeko orduan.

226. Ikus *V. Inkesta soziolinguistikoa*, 234. or.

227. Iparraldeko analisira bilduz, berriro ere, zehaztapen hauek eskaintzen ditu Inkestak: a) Etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea etxeko euskaldunen dentsitatea da, hau da, (etxean) zenbatek dakien euskaraz. Bigarren faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da. Gune soziolinguistikoak, lehen hizkuntzak eta jarrerak eragin txikiagoa dute. b) Lagunekiko erabileran gehien eragiten duen faktorea euskaraz zenbat lagunek dakien da. Bigarren faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da. Euskararekiko interesak eta jarrerak ere eragina dute, baina aurrekoek baino nabarmen txikiagoa. Azkenik, gune soziolinguistikoak EAEan eta Nafarroan baino askoz eragin txikiagoa du. d) Lankideekiko erabileran oso nabarmena da (lankide) euskaldunen dentsitateak duen eragina. Gainerako faktoreek etxean eta lagunartean baino eragin askoz ere txikiagoa dute. Bigarren faktorea erraztasuna da. Ondoren datoz interesa, jarrera eta gune soziolinguistikoa.

228. Ikus Zalbide, 2007b: ikus, bereziki, bertako VIII. kapitulua.

229. Orduan esandakoari beste elementu hau erantsi behar zaio orain, argi: hiztun-talde alofonoen etorrera zabala.

230. Kontuan hartzekoak dira, alde horretatik, *Lurraldea eta Hizkuntza* izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak UEMAren eta UEUrekin batera 2014an eta 2015ean egindako jardunaldiak eta bertan esandakoen berri ematen duten argitalpenak.

231. Hots, erdaldun-jendea (edo erdarazko jarduna oso berea duen euskaldun-jendea) demografikoki nagusitzen hasi den auzategiz edo zona erresidentzialez.

232. Auzoan eta herriko plazaren inguruan, aisialdiko ekintzetan eta salerosketa-guneetan, lan-eremuan eta, azkenik, lehengo hainbat bizilagunen etxean eta familiartean bertan garbi ari da antzematen ahultze hori.

233. Urrunagoko iturrietara jo gabe, halakorik ez baita han-hemen falta, mende-erdiko perspektibara mugatuko dugu jarduna. Ez da hau lekua, urrunagoko formulazioen analisia jarduteko. Bestalde, azken-azken orduan eskuratu dugunez ez dugu kontuan hartuko beste neurpide hau: ELDIA EuLaViBar Toolkit. Hona egileak: Djerf, Kari, Spiliopoulou Åkermark, Sia, Kühhirt, Eva eta Toivanen, Reetta. Hona bere deskribapena: EuLaViBar (European Language Vitality Barometer), a tool for the assessment of language maintenance, developed by the EU-FP7 research project ELDIA (European Language Diversity for All).

234. Gauza bera adierazten digute, funtsean, osasun- eta gaixotasun-eskala gehienek: eskala batzuek goitik behera egiten dute mailaketa, eta besteek behetik gora, baina guztiek gradazio modu bat seinalatzen dute. Hitzun-elkarte bat osasunez oso goi-mailan baldin badabil, gaixotasun-maila apala du; era berean, hitzun-talde bat oso gaixo baldin badago ez du osasun handirik. Pittin bat sofistikatutako dira bideragarritasun-escalak: hitzun-elkarte batek zer-nolako gaixotasuna duen jakinik, bere “salbamena” noraino den bideragarri adierazi nahi izaten dute bideragarritasun-eskalek. Era generikoan, beraz, osasun-mailaz eta osasun-adierazpideez hitz egingo dugu hemen.

235. Ingeleseko GIDS edo Graded Intergenerational Disruption Scale hori euskaraz nola esan? BAEN erabili izan dut RLS edo HINBERi buruzko graduondoko azalpenean (Zalbide, 2001), eta bide horri eusten hoberik agertu artean: *Belaun Arteko Etenaren Neurria* dugu BAEN hori.

236. Izenburuz “Towards a theory of language in ethnic group relations”. Hortik aurrerako azalpen ugarietan ikus, adibidez, Richard Y. Bourhis-en 1979ko “Language and ethnic interaction: A social psychological approach”, eta harrez gero konstruktua horrezaz baliatzen den (are bere argi-ilunez diharduen) bibliografia zabala.

237. Laurogeiko hamarkadan, tartean Euskararen Aholku batzorderako, eginik dugu H. Giles-en, R. Y. Bourhis-en eta D. M. Taylor-en 1977ko konstruktua azalpen-iruzkinik. Ez dugu gogoan bizi-indar etnolinguistikoaz ala bizitasun etnolinguistikoaz mintzo ginen orduan: berdin-berdin du horrek, eskuartearen dugun xederako. BAT aldizkariak ere argi jasorik du kontzeptu horren oihartzunik.

238. Richard Bourhis-ek berak argi asko aitorturik du hori: “the group vitality framework was originally conceived with the Quebec context in mind at a time when sociolinguistic research was being conducted to construct different components of Quebec’s *Charter of the French language* (Giles et al. 1977)” (ikus Bourhis, 2001b: 102). Han sortua izanik ere, perspektiba geografiko zabalagoan ezartzen du zenbaitek BIE-EV-ren sorrera: “Ethnolinguistic vitality theory grew out of a political and intellectual milieu in western Europe and North America, Canada in particular, which set highly politicized ethnolinguistic groups against each other.” (ikus *Ethnolinguistic Vitality Theory and Complex Linguistic Societies*).

239. Tartean, nola ez, *objective* eta *subjective ethnolinguistic vitality* artean bereizi izana: ikus, adibidez, Richard Y. Bourhis, H. Giles eta D. Rosenthal 1981. eta Johnson, P., Giles, H. eta Bourhis, R. Y. 1983.

240. “It was proposed that the above three dimensions combine to affect in one direction or the other the overall strength or vitality of ethnolinguistic groups” (Bourhis 1979; Giles et al. 1977, in Harwood et al. 1994).

241. Esparru hori zehatz egituraturik izateak ez du garantizatzen, halere, kuantifikatzen erraza denik. Bere azpiatalak egoki kuantifikaturik ere, nola atera batez besteko balioa? Gauza bat da (besteaqk beste) *ethnolinguistic group* baten hitzun-kopuru absolutua eta bertako hitzunen kontzentrazio-maila zehaztea, eta beste bat dimentsio horiek egoki konbinatzea. Demagun batetik Euskal herria, bere (mintzajardunari dagokionez) ehunka mila hitzunekin baina gero eta kontzentrazio-tasa ahulagoarekin, eta bestetik Feroe uhartea 50.000 hitzun ingururekin baina arras kontzentrazio-tasa handiarekin. Bietan zeinek du, demografiako faktoreei dagokionez, hitzun-elkarte beregain gisa bizirik irauteko ahalmenik handiena? Nola konbinatu hitzun-kopuru absolutua eta kontzentrazioa, bereziki?

242. Konturatu, konstruktua horretako *L1 speaker* ez dela ezinbestean bibliografia psikolinguistikoan hain ezagun den *L1* bera.

243. Ez dabil formulazio trekniko horretatik oso urrun Veltman, bere ekuazio argian (1983: 12).

244. Ez da harritzekoa, zentraltasun horren argitan, hasierako bigarren atal nagusi hori berariaz garatu eta findu izana. Beren nortasun etnolinguistikoa ongi erroturiko buru-zagi-protoeliteen garrantzia, esate baterako, berariaz tratatzen da orain bigarren atal nagusi honetan: "An important feature of institutional control not originally included in the vitality framework is the presence and quality of leaders who can head the formal and informal institutions representing the ethnolinguistic group (Wardhaugh 1987). Gains in institutional control often depend on the emergence of activists and protoelites who succeed in mobilizing ethnolinguistic groups in favor of their own language, culture, and ethnic survival in the intergroup setting (Fishman 1972). The absence of quality leadership can undermine gains achieved by previous generations of group members on the institutional control front and can mortgage future gains needed for the survival of the next generation of ethnolinguistic group members." (Harwood, Giles eta Bourhis, 1994: 170).

245. "Ethnolinguistic groups that have gained a measure of ascendancy on institutional support factors are also likely to enjoy considerable social status relative to less dominant groups within the social structure." (Harwood, Giles eta Bourhis, 1994: 170).

246. "Though not as readily quantifiable as demographic and institutional support factors, a great deal of social psychological evidence shows that a highstatus group position can contribute to a more positive social identity for group members than lowstatus group membership (Sachdev and Bourhis 1987; Tajfel & Turner 1979, in Harwood, Giles eta Bourhis, 1994: 170).

247. Ikus, esate baterako, Kutlay Yagmur-en eta Martin Ehala-ren aitormen hau: "Haugen, Haarmann, Giles et al., and Edwards (...) differ in their interpretation of the concept of ethnolinguistics. According to Haugen, the attitudes towards a language by its speakers are the subject matter of ethnolinguistics. On the other hand, for Haarmann, the linguistic distance between the contact languages is the domain of ethnolinguistics." Kutlay Yagmur eta Martin Ehala, 2011: "Tradition and innovation in the Ethnolinguistic Vitality theory", in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 32:2, 101-110 or.

248. Interpretatzeko eta aplikatzeko arazoak direla-eta, epai hau emanik dute aspaldi Charles Husband-ek eta V. Saifullah Khan-ek: "The dimensions of "vitality" outlined are ambiguous in their specification, and gross and inexact tools of analysis in their application" (Husband eta Saifullah Khan, 1982). Kritika horri emandako erantzunaz jabetzeko, bestalde, ikus Johnson, P., Giles, H. eta Bourhis, R. Y., 1983: "The viability of ethnolinguistic vitality: a reply".

249. "Vitality analyses presented thus far in this paper have focused on Aboriginal languages as a collective whole and ignored their diversity. The differential survival of different Aboriginal languages has been an important area of concern (AFN, 1990; Edwards, 1994). The AFN (1990) argued that pessimistic predictions of language survival which relied on sheer numbers of speakers (e.g. Foster, 1982) were not meaningful and did not serve language planning efforts well". (Sachdev, 1995: 41-59 or).

250. Demagun azalpen hau: "Demolinguistic and sociographic data can be used to assess as objectively as possible the relative vitality of ethnolinguistic groups within a particular intergroup setting. For instance, an ethnolinguistic group may be weak on demographic variables but strong on institutional support and status factors. In such a case one could say that overall, this dominant highstatus minority has medium vitality relative to another minority group that happens to be weak on all the vitality factors, demography, institutional control, and status." (Harwood, Giles eta Bourhis, 1994: 170). Horraino konforme, jakina. Ezertan hasi aurretik ere bagenekien hori. Hortik aurrera nola egin, ordea, konstruktua aparteko balio praktikorik izango badu? Hor dago koska.

251. "Compared to other models, Ethnolinguistic Vitality Theory (EVT) and its accompanying instruments provide a broader and more inclusive framework for the investigation of language maintenance and shift. However, the empirical evidence obtained in a number of contexts point to an underestimation of the actual vitality of some minority groups" (Yagmur, 2011).

252. "Ethnolinguistic vitality theory (ELVT) grew out of a political and intellectual milieu in western Europe and North America, Canada in particular, which set highly politicized ethnolinguistic groups against each other. The analytical concepts of ELVT emphasizing well-profiled group-based boundaries (in-group/out-group, subordinate/dominant etc.) privilege the conflictual dimension of multilingualism. In this context the existence of linguistic societies displaying relatively stable multilingualism, often with multiple lingua

francas, appears as an anomaly in ELVT theorizing. I argue on the basis of the language situation in northeast Nigeria that there exist what I term complex linguistic societies which, for a variety of reasons, favor a stable multilingualism. Smaller ethnolinguistic groups are not necessarily threatened in the face of politically or demographically dominant ones. ELVT, it is argued, is best suited as an analytic tool to describing what are termed simple linguistic societies where implemented languages are politically instrumentalized in the service of ethnolinguistic groups.”

253. “It is relatively vacuous to suggest that the speakers of threatend languages should be “larger in number”, should establish “more and stronger language supporting institutions” or should “provide their language with more status”. It is no help to tell a patient that he should attain health by getting better, or that he should get better by beeing healthier. These are redundant and non-operational bits of advice. (...) It is also non-theoretical insofar as it posits no priorities, establishes no sequences or linkages between events and provides no differential weights to the factors beeing heighlighted, nor any explanation why other factors are beeing ignored (e.g. geographic, economic, linguistic, political, and so on)”. (Fishman, 2001: 13).

254. Partez konforme dago kritika horrekin Richard Bourhis bera; ez, ordea, erabat. Osagarrizko elementu baliagarri (eta beharrezko) da BIE-EV, bere ustez: “the EV framework (Bourhis, 1979) can be seen as a necessary tool on analysis complementing the reversing shift model proposed by Fishman” (Bourhis, 200b1: 101 or).

255. Behin eta berriro aitortzen dute *intergroup* perspektibari ezinbestean-edo darion ikuspegi global hori egileek beraiek.

256. Euskara-erdaren *intergroup* perspektiba hori beharrezkoa da beti, baina ez nahiko: *intragroup* alorreko bereizbidea aurrez aurre analizatu gabe ezer gutxi egin liteke gurea bezalako egoeretan. Zer irabazten dugu, adibidez, Azpeitiko bizi-indarra (demagun) 7 baldin bada, Gernikakoa 6, Zarauzkoa 5, Errenteriakoa 4, Irurtzungoa 3, Maulekoa 2 eta Basaurikoa 1, Euskal herriko hiriguneen batez besteko bizi-indarra 4 dela esatearekin? Demografiak eta estatistikazko metodologiaren analisi-mugak ongi konpondurik baleude ere hor (bistan da ezetz), ezer gutxitarako balio liguke “gure hiriguneen batezbesteko bizi-indar etnolinguistikoa 4 da” esateak. Argitu ordez ilundu egingo genuke panorama, hainbatean, generalizazio horrekin. Interbentzio-bide propioa eskatzen dute Azpeitiak, Errenteriak eta Basaurik: *intragroup* analisisiaz baliatu behar da horretarako, *intergroup* delakoaz gainera. Hein batean argigarri izanik ere, balore globalak kontu handiz erabiltze-koak dira hortaz gurea bezalako egoera fragmentatuetan.

257. Kontuan hartzen ez dituen ez edota, belaunez belauneko transmisioaren kasuan bezala, demolinguistikazko fenomenotzat hartzen hartzen duen kontzeptua. Gurea bezalako kontestuetan, demolinguistika kontua baino gehiago, nabarmenki gehiago, da ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa. Murriztapen hori kaltegarria da. Ez agian Quebec-en (segurtaturik zuten han transmisio hori, ia erabat, BIE-EV-ren formulazioa egin zenean: ikus Bourhis 2001b); bai, ordea, transmisio kontuan “herren” egiten dugun Euskal herria (eta gurea bezalako hiltun-elkarte ahuldu gehienetan).

258. Badakigu Bourhis-ek, arrazoiz, zer erantzun izan duen: esplizituki inkorporatu ez baditu ere inplizituki jasoak dituela BIE-EV-k kontzeptu giltzarriok, han-hemen. Hala izango dira kontuak zenbaitetan, baina normalean besterik da ondorioa: lanerako eragozpen larri da funtsezko dimentsio kontzeptualak aurrez aurre ez lantzea. Ikusi, bestela, Landry eta Allard 1994.

259. Demagun *Linguistic Landscape* kontzeptua, azalpen argikoa eta zenbait gai jorratzeko orduan kontuan hartu beharrekoa baina nekez, oso nekez, osasun-neurpide sintetiko batek probetxuz integratzeko modukoa. Badakigu zenbaitek besterik uste duela. Litekeena da, gainera, zenbait lekutan kontuak horrela izatea: “Linguistic landscape refers to the visibility and salience of languages on public and commercial signs in a given territory or region. It is proposed that the linguistic landscape may serve important informational and symbolic functions as a marker of the relative power and status of the linguistic communities inhabiting the territory” (Bourhis, 2001b). Gurean nekez esan liteke ordea “power and status” markatze hori (eta hori, ez besterik, dugu aztergai) mintzajardunaren osasun-iturri gertatzen ari denik: azken hamarkadotan han-hemen ele biko edo euskarazko erro-

tulazioa ezarri izanak (bide-ertzeko herri-izenetan, eraikin publikoen kanpo- eta barne-errotulazioan) ez du euskarazko mintzajardunaren bilakaeran osasungarritzko bide-aldatze nabarmenik ekarri. Kalterik ez, bistan da; baina katalisatzaile-efektu ohargarriak ere apenas. Gauza bat da gure arteko *landscape* alorreko euskalduntze- edo elebiduntze-saioak bere baitan “informational and symbolic functions as a marker of the relative power and status” izatea (horretan ez dago dudarik), eta beste bat saio horrek mintzajardunaren giza arteko moldaeran eragin ohargarriak izatea (ikuskituz dago hori, onenean).

260. Ez beti, baina bai hainbat formulazio garatuta. Bertako *Linguistic Landscape* horrek esplikazio-ahalmen mugatua du gure artean, eguneroko mintzajardun arruntaren bilakaera ezagunari dagokionez. Ikus, batetik, Rodrigue Landry-ren eta Richard Y. Bourhis-en 1997ko “Linguistic Landscape and Ethnolinguistic Vitality”.

261. Azken 35 urteko errotulazio elebidunak (parte laburrez euskara hutsezkoak) izan duen zabalkundea gogoan izanik ez dago batera argi, esate baterako, ondoko hipotesi eta baieztapen-multzoa gure artean balio-indar osokoa denik. Parte (batez ere jarrera- eta sinbolo-ikur gisako funtzioari dagokionez) bai, baina partes (batez ere mintzajardun arruntaren eguneroko erabilera-mailari dagokionez) ez (nabarmenki): “Using the theoretical framework of ethnolinguistic vitality, it was hypothesized that the experience of the linguistic landscape by members of a language group may contribute to social psychological aspects of bilingual development. Factor analysis results show that the linguistic landscape emerges as a distinct factor separate from other measures of linguistic contacts. This factor was an important correlate of subjective ethnolinguistic vitality representing perceptions of the vitality of the in-group language in various domains. The study also found relations between the Linguistic Landscape factor and degree of in-group language use, especially in institutional settings, suggesting a ‘carryover effect’ of the linguistic landscape on language behavior.”.

262. BIE-EV hori Quebec-erako eta Kanada osorako aski baliagarri gerta litekeenik ez dugu duda egiten. Euskadunok (eta, dakigun heinean, mundu zabaleko hiztun-herri ahuldu gehien-gehienak) ez gara ordea, damurik, Quebec-eko egoeran bizi: ez perspektiba demolinguistikoa, ez *institutional support* delakoa eta ez estatus multzoa ditugu hangoen pareko, urrundik ere.

263. Ikus, adibidez, Charles Ferguson-en 1966ko “National sociolinguistic profile formulas”, H. Haarmann-en 1986ko *Language in ethnicity: A view of basic ecological relations*, Einar Haugen-en 1972ko “Language and immigration” eta J. Edwards-en 1992ko “Sociopolitical aspects of language maintenance and loss: Towards a typology of minority language situations”. Mackey-ren neurpide propioa eta Cobarrubias-en *Etoglossia* ere hor daude, eta hizpide izanik ditugu inoiz. Elaborazio kontzeptual landua dute biek, baina aplikazio-ahalmen mugatua dute “hemen eta orain”: ez dira “gure neurrirako trajaek”. Badira gehiago ere. Ikus horretaz, azken orduan irakurri dugun artikulua bat baizik ez aipatzearren, Garaio 2015. Azken ordukoetan ikus *The Endangered Language Catalog (ELCat)* delakoak lau irizpide ezagunen arabera (*intergenerational transmission, absolute number of speakers, speaker number trends, eta domains of use of the language*) prestatu duen Language Endangerment eskala seikoitza.

264. Gure azalpenerako ikus Zalbide 2001.

265. Beste era batera enfokatzen ditu kontuak Arienne M Dwyer-ek. Bere esanean “the GID scale focuses on language domains (Levels 1-3), literacy (Level 4-5), and intergenerational transmission (Levels 6-8). Levels 5 & 6 above illustrate the most common preconditions for language loss to occur, even though the speakers have not yet shifted to the other language: the domains in which the original language is used are more and more limited.” (Dwyer, 2011). Ez dabil gure ustez oker: Fishman-ek berak aintzakotzat hartua du ikuspegi hori 2001eko garapenean.

266. Konkreteki, berreuskalduntze hutsa baino nabarmen sendoago den *revernacularization* delakoa berreskuratzen ez bada.

267. Inoiz irakurria dugu, 7. edo 8. maila modukoan zegoela hebraiera XIX. mendearen bigarren erdialdean, indarberritze-saioari ekin ziotenean. Hori ez da ordea erabateko egia: “beste 7. eta beste 8. mailak” ziren haiek, ez BAENeko haiek. Hebraiera hilik zegoen, aspaldidanik, ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioari dagokionez, baina

(esparru sakro-klasikoan) bazuen berariazko jardungunerik. Erabiltzailerik ere bazuen, hortaz, hartara sarbide zutenen artean. Egia da, hori bai, bere indarberritzea *re-vernacularization* motakoa izan zela.

268. Zehazkiago, bizirik dagoen ingurumenetan diglosiari bizirik eustea (egoera berrira birmoldatuz) eta, galdurik dagoenetan, diglosiazko konpartimentazio egonkorra berreskuratzea. Horren aurretik, ohiko moduan, ideologiako argitze-saioa eskatzen du Fishman-ek.

269. MT hori *mother tongue* dugu Fishman-en terminologian: *ama-hizkuntza* alegia.

270. <<RLS theory, being more than merely a descriptive tool, attempts to locate the functional disruption of X in social space and has suggested a widely (which is not yet to say “universally”) useful series of stages for doing so>>. (Fishman, 2001: 465).

271. Espresuki esana dauka hori: <<these stages are intended only for purposes of diagnostic and programmatic location (“where to start” and “what to aim at when”)> (Fishman, 2001: 465).

272. Michael Krauss-ek berak nahas-mahas darabiltza “degree of viability” eta “degree of (language) endangerment”. Ikus bere “The world’s languages in crisis”, in *Language*, 68-1 alea, 4-10.

273. Bere hitzetan esanik “language endangerment is significantly comparable to -and related to- endangerment of biological species in the natural world” (Krauss, 1992: 4).

274. Ez erabat ordea: une batez (ikus aurrerago), osasun oneko hizkuntzak zehazterakoan, hiztun-kopurua eta babes instituzionala hartzen ditu batez ere kontuan. Beste leku batean, berriz, hiztun-kopuruaren garrantziaren kontra mintzo da espresuki: “Note that I am not citing the number of speakers, since it does not really make that much difference if such a language has a million speakers or only a hundred. If a language of a million people is not spoken by anyone under fifty, then it is not going to last very much longer than such a language spoken by a hundred people. A large number of speakers in itself does not assure survival” (Krauss, 2007 [1996]).

275. Hots, dagoeneko hiztunik ez duten hizkuntzak edo, zehazkiago, hiztun-elkarteak. *Extinct* izaera hiztun-elkarteak determinatzen du, ez han-hemengo hiztun-talde soilak: hiztun-talde baten galerak ez dakar ezinbestean hizkuntza osoaren heriotza.

276. Ikus Krauss, 1992.

277. Bere hitzetan “languages with ‘official state support and very large numbers of speakers’”.

278. Hots, “languages which, though now still being learned by children, will— if the present conditions continue— cease to be learned by children during the coming century” (Krauss, 1992: 6).

279. Bere hitzetan ‘languages no longer being learned as mother-tongue by children’ (Krauss, 1992: 4).

280. Bere hitzetan esanik “I would categorize in viability category A those languages that are still being learned by children from their parents and elders in the traditional way”.

281. Krauss-en arabera “languages still spoken by the parental generation, who could theoretically turn around and start speaking their native language instead of English to their children but generally they do not”.

282. Bere hitzetan, C kategorian hauek daude: “languages spoken by the middle-aged or grandparental generation and up only”.

283. “Category D languages are those spoken only by a few of the very oldest people. These elders often do not have the chance to talk much to each other. The language may be completely out of use, or it may be only remembered, so not quite extinct”.

284. Horrek ez du esan nahi, kasu bakan batzuetan bakarrik aplikatzekoak direnik. Krauss-en “the coming century (XXI. mendea hortaz) will see either the the death or the doom of 90%onf mankind’s languages” (Krauss, 1992: 7).

285. Lan-bilera berezia egin zuen 1992an Quebec-en, ahuldutako hizkuntzei buruz, *International Congress of Linguists (CIPL)* delakoak. Gaia berariaz lantzeko batzordea sortu zen

horrela: *Endangered Languages Committee*. Nazioarteko bilera egin zuen batzorde horrek Parisen, urte berean, UNESCOren orbitara bilduz.

286. Hori baino azalpen landuagorik agertu da bertan, geroztik “Generally speaking, language endangerment can be classified in terms of generations of users. (...) In all three editions, we have graded each language with a colour-code according to the level of danger it faces: a) *safe* if the language is spoken by all generations. The intergenerational transmission of the language is uninterrupted; b) *stable yet threatened* if the language is spoken in most contexts by all generations with unbroken transmission, although multilingualism in the native language and one or more dominant languages has taken over certain contexts; c) *vulnerable* if most children or families of a particular community speak their parental language as a first language, even if only in the home; d) *definitely endangered* if the language is no longer learned as the mother tongue or taught in the home. The youngest speakers are of the parental generation; e) *severely endangered* if the language is spoken only by grandparents and older generations; the parental generation may still understand it but will not pass it on to their children f) *critically endangered* if the youngest speakers are of the great-grandparents’ generation, and the language is not used every day. These older people may only partially remember it and have no partners for communication, eta g) *extinct* if no one speaks or remembers the language. The editors decided to include such languages if they have fallen out of use in the past sixty years, approximately the lifetime of UNESCO itself. Of all the categories, this one has become the most controversial.”

287. Arienne M Dwyer-en esanean “In the document *Language Vitality and Endangerment* (UNESCO 2003), the group detailed a set of determining factors that allow a speaker community or outsiders to assess the vitality of a language. The rubric was intended as a guideline adaptable to a variety of local situations, and assumes that a small-scale language use survey has been conducted in situ. Most factors have grades (0 through 5), where zero represents complete shift to another language (termed extinct in UNESCO parlance), and five represents vitality of a language for that factor (termed safe). The factor intergenerational transmission was retained from Fishman’s *GIDS* scale, while new elements were introduced to evaluate the critical influence that language attitudes can have on the vitality of a language.”

288. Baterabilduzko azalpenerako ikus dokumentuaren 17. orrialdea.

289. Gradazio-egitura hori aski egokia da gure ustez, hemen eta orain aplikatu ahal izateko. Ez gatoz bat, aldiz, zenbait errotulurekin. Ez dugu uste, esate baterako jende gehienak euskaraz egiten dueneko egoera (hots, 4 maila: teorikoki posibleen artean bigarren sendoena) *unsafe* izendatuz ezer aurreratzen denik. Gradazioa bera, berriro esan, aski egokia dela uste dugu.

290. 1966ko *Language Loyalty in the United States*-etik hasita, gutxienez, argi dago jarriren eta mintzajardunaren arteko bereizbidea.

291. Ingeleseztiko “degree of endangerment” esateko darabilgu hemen “larritasun-maila”. Konturatu, hori bai, hobe genukeela “osasun- edo larritasun-maila” esatea. LM5 eta LM4 osasun maila altueneko kasuak dira berez, eta LM1 eta, bereziki, LM6 larritasun-maila handienekoak. Ingeleseztiko dokumentuaren bidetik joko dugu, halere.

292. Konkretuki, etxean.

293. Jatorrizko dokumentuan “proportion of speakers within the total Reference population”.

294. Gogoratu goraxeago esan duguna: den baino larriago islatzen du horrek egoera, gure ustez.

295. Hau ere gogorregia iruditzen zaigu, oro har, gure hiztun-elkartearen egungo analisi-rako. Dauden-daudenean ematen ditugu ordea, itzulpenaren egokitasuna gorabehera, jatorrizko izendapenok.

296. EAEko eskola-mundua dugu, agian, Y-tik X-erako erd > eus mintzaldaketaren adibide bakarra. Hots, eskola munduan lekuri ez izatetik edota, une batetik aurrera, erdarazko eskolaren mendeko izatetik, azken lauzpabost hamarkadetan kopuruz eta portzentaje nagusi izatera pasa da euskara, jaun eta jabe izatera iritsi gabe halere. Ez da beraz erabateko mintzaldatzerik gertatu eskola-munduan ere.

297. “Universal use” esateko darabilgu hemen “oro-mintzaira”, Lizardiren “oro mintzo” ezaguna kontuan hartuz.

298. Bistan da diglosiaz, Fishman-en diglosia prototipikoenaz hain zuzen, mintzo dela hor aditu-taldea. Bere hitzetan “one or more dominant languages, rather than the language of the ethnolinguistic group, is/are the primary language(s) in most official domains: government, public offices, and educational institutions. The language in question, however, may well continue to be integral to a number of public domains, especially in traditional religious institutions, local stores, and those places where members of the community socialize. The coexistence of the dominant and non-dominant languages results in speakers’ using each language for a different function (diglossia), whereby the non-dominant language is used in informal and home contexts and the dominant language is used in official and public contexts” (azpimarra gurea). Definizio establezitua baino areago eufemismoa dirudien “multilingual parity” terminoa (parez pareko eleaniztasuna?) darabil hor dokumentuak, *diglosia* erabat baztertu gabe. Bibliografia soziolinguistikoa ez dugu halako erabilera terminologikorik inon topatu. Horren antzekoena historia alorreko *linguistic parity* izan liteke (Eugene Eoyang, 1999) edota, egungo egunetara etorritz, NBERen General Assembly-k 2012ko barne-dokumentuz azaldutako “Language Parity, Importance of Information Centres, Department’s Effective Use of Resources among Issues...”. Ez batak eta ez besteak dute zer ikusirik UNESCOren aditu-taldeak azaldu nahi duenarekin: hots, diglosiarekin. Ikus, konkretuki, bigarrenaz zer dioen dokumentu ofizialak: “Several speakers expressed concern that information products and services still were not equally available in the six official languages, particularly on the United Nations popular website portal.” Azpimarra biak gureak dira. Eufemismoa zergatik aukeratu zuen UNESCOren aditu-taldeak, on litzateke jakitea.

299. Diglosiazko elkarbizitza dela-eta, hau diote UNESCOren adituek: “multilingualism (...) does not necessarily lead to language loss”.

300. Azken 30 urtean LM4tik LM3ra pasatzen ari dira arnasmuneak. Joera hori azeleratu egin da, nabarmen, 2000tik hona (ikus Iurrebaso, 2015: 33 eta 34). Prozesu horren seinale-etariko bat zera da: etxean, gero eta maizago, gurasoek beren artean erdaraz egitea.

301. Horko 2-tik 1-era dagoen alde gradu-kontua ez ote da? Hala esango genuke

302. Ikus bere “Towards a categorization of endangerment of the world’s languages”.

303. Eragozpen-kezka hori ez da gurea bakarrik. Beste zenbait lekutako irtenbideaz ikus, adibidez, Nala Huiying Lee-k eta John Van Way-k berrikitan (2016ko apirilean) esandakoa: “(...) the *Language Endangerment Index (LEI)* (is) based on four factors (intergenerational transmission, absolute number of speakers, speaker number trends, and domains of use); this index is different from other methods of assessment in several ways, especially as it can be used even if limited information is available”.

304. 2010eko azken idazkeraz ez baina 2009ko txosten-zirriborroaz baliatuko gara hemen, sarri. Dakigularik ez dago alde handirik batetik bestera.

305. Lewis, M. Paul, and Gary F. Simons. 2010. in *Revue Roumaine de Linguistique* 55(2):103. *SIL*-eko eta *Ethnologue*-ko arduradun dira luzaz bata zein bestea.

306. Honela azaldu dute batera-biltzeko lan hori egileek beraiek: “The GIDS as developed by Fishman has served as the single most-often cited evaluative framework of language endangerment for nearly two decades. It has provided the theoretical underpinnings of much of what practitioners of language revitalization have engaged in. The UNESCO Framework and the Ethnologue vitality categories are also widely used and relied upon. We have proposed a harmonization of these three evaluative schemes that results in an expanded GIDS (EGIDS).” (Lewis eta Simons, 2009).

307. Arienne M Dwyer-en esanean “Lewis and Simons (2010) propose to extend Fishman’s simpler GIDS model from eight to ten levels. Their model retains Fishman’s concise single-table format and his focus on language domains, literacy, and intergenerational transmission. It adds two levels that concern the relationship of ethnic identity to high-prestige linguistic remnants such as greetings, what Lewis and Simons aptly term symbolic proficiency (Levels 9 & 10). “A language can be evaluated in terms of the EGIDS by answering five key questions regarding the identity function, vehicularity, state of intergenerational language transmission, literacy acquisition status, and a societal profile of generational language use” (Lewis eta Simons 2010).”

308. 2009ko azalpenean “This level encompasses languages that may not have official recognition but are “vehicular” in that they are used as a second language by members of multiple first-language communities and serve important functions for business and intergroup communication. They are learned outside of the home either formally or informally and often have a standardized (though perhaps not officially sanctioned) written form”. (Lewis eta Simons 2009: 12).
309. Jatorrizkoan *vigorous*.
310. Jatorrizkoan *threatened*
311. Ingeleseko *child bearing* esateko darabilgu hemen *haur-hazteko*. Hots, haurrak izan eta etxean hazteko adin biologikoan dauden gurasoak dira hemen gogoan.
312. Honela diote txostengileek 2009ko zirriborroan: “At Level 6b, many parents are transmitting the language to their children but a significant proportion are not, so that intergenerational transmission is partial and may be weakening. With each new generation there will be fewer speakers or fewer domains of use or both.” (Lewis eta Simons 2009: 13).
313. Jatorrizkoan *shifting*. (Lewis eta Simons 2009: 14).
314. Jatorrizkoan *moribund*. (Lewis eta Simons 2009: 14).
315. Jatorrizkoan *nearly extinct*. (Lewis eta Simons 2009: 14).
316. Jatorrizkoan *dormant*. (Lewis eta Simons 2009: 14).
317. Jatorrizkoan *extinct*. (Lewis eta Simons 2009: 15).
318. Esanik dugu gorago, txosten honen 1. atalean, dibertsifikazio hori are maila mikroa-goan ere garbi ageri dela: ikus mintzajardunaren aldakortasun-iturriei buruz han esandakoa. Hemen, begien bistako motiboengatik, ez gara hain “behera” jaitsiko.
319. “no está bien, pero podría estar peor” modukoak baino diagnostiko zehatzagoa nahi eta behar dugu.
320. Hots, 1991ko *GIDS/BAEN*-etik abiatuz eta 2001eko bere azalpen eguneratua kontuan izanik.
321. Aldian aldiko mapa soziolinguistikoek azaltzen digutena ez da, azken batean, hizkuntza-soziologia teorikoak arrazoiz azpimarratzen duen aniztasun handi horren oihartzun numeriko deklaraturik baizik.
322. Are gehiago: orain hor erabakitzen dira oro har, eta gero ere hor erabakiko dira nagusiki.
323. *BZ*-ren orde z hobe genuke, agian, beste sigla bat: bost kontzeptu giltzarri darabilgularik, ez bakararra, hobe litzateke egoera boskoitz hori bere osoan jasoko lukeen sigla. Oraingoz horrela utzi dugu, ordea, mundu zabalean aski erabili den *e-GIDS* aintzakotzat hartuz.
324. Ingeleseko *dominance configuration* soziozentrikoaren itzulpen gisa darabilgu termino hori, han-hemen. Maila bakoitzaren izendapen konkretua egunerokoo jardun arruntaren ildotik egin da nagusiki, *J* alorrean bereziki.
325. Hots, etxean eta auzoan, dendan eta parkean, kalean eta jolasean, soziedadean eta tabernan, lagunarte hurbilean eta herri-giro zabalean nagusi dena.
326. Asterokoak, aldian behingoak eta berariazkoak (bataio, jaunartze, ezkontza eta bereziki, hileta-elizkizunak).
327. Bai ohikoak (pilota, futbola, ziklismoa, mendi-ibilera,...) eta bai azken aldian hedatzen ari direnak (piraguismoa, eskalada, tenis,...).
328. Sinpletasun horren fabore, alde batera utzi da hiztun guztiek edo gehien-gehienek (ia) jardungune guztietan erabat edo nagusiki euskaraz egingo luketeneko *BZ-1* egoera teorikoa, aspaldiko mendeetan osorik eta erabat ezagutu ez duguna.
329. Administrazio-organo prototipikoez gainera hor sartzen ditugu osasun-zerbitzu publikoak, Ertzaintza eta abar.
330. Batez ere Gipuzkoan eta, mugatuago, Bizkaian; ahulago Araban.
331. Idatzizko jardunean ele biko formula da nagusi: ikus, bereziki, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (EHAA).

332. Komunikabideen kontsumo errealari dagokionez ikus, adibidez, zenbat erdal egunkari saltzen/irakurtzen den egunero gure artean (*Marca* barne), eta zenbat *Berria*.
333. Komunikabideen sailean azken 60 urtekoa da zabalkunde hori; administrazioan batez ere 1980tik honakoa.
334. Batez ere herriko edo auzoko osasundegietan, edota zenbait eskualdetako anbulategietan.
335. Ez daukagu datu fidagarririk eskueran, zenbat diren esateko. Seguruenik ez dira dena den, urrundik ere, eskola-esparruan bezala 30.000tik gora izango.
336. Ez dirudi aurrerabidean ari denik euskarazko jarduna, entzule-ikusle-irakurleei dagokionez, azken urteotan.
337. Komunikabideen sailean azken 60 urte ingurukoa da zabalkunde hori. Administrazioan, aldiz, batez ere 1980tik honakoa.
338. Euskara-erdarek gero eta erabilera konpartituagoa ageri dute bertan: formal/informal moduko konpartimentazio-zantzuak galduz doaz.
339. Demagun nekazaritza, arrantza, baso-lana, zurgintza, sagardo- eta txakolin-enpresak, kontserba-alorra, erlezaintza-esparrua ea.
340. Ama ETB1eko langile edota aita arrantzale izateak ez du esan nahi etxean, auzoan eta beren lagunekin batez ere euskaraz egingo dutenik seme-alabek. Are gutxiago seme-alaba horiek bihar edo etzi bikote euskalduna egingo dutenik, etxea herri edo auzo euskaldun batean erosiko dutenik eta euskal familia eratuko dutenik. Batak ez du bestea segurtatzen.
341. Urtea joan eta urtea etorri (partez edo osoz) euskaraz lan egiten duenak probabilitate handia du *hemen eta orain*, etxean eta kalean ere euskal bizi-giro sendoa izateko.
342. Hor sartzen dira euskal argitaletxeak, ikus-entzunezkoen ekoizleak, astialdiko ikus-kizunen (tarteen bertso-saioen eta euskal kantaldien eta antzerki-saioen) antolatzaileak, astialdiko ekimenak euskaraz bideratzeko monitore-enpresak,.. Idatzizko jarduna ere euskaraz bideratzen da horietan, hein ohargarrian. Finantza- eta aholkularitza-enpresetan ere halakorik ageri da, parte txiki batez.
343. Euskara-erdarek gero eta erabilera konpartituagoa ageri dute lan-munduan: formal/informal moduko konpartimentazio-zantzuak galduz doaz.
344. Hein batean lortzen da hori, ez erabat: ikus txosten honen II. atala atala eta, zehazkiago, Zalbide 1990, 1991, 2000 eta 2002b.
345. Hori baino bihurriagoak izanik dira kontuak, berez. Uste baino sarbide handiagoa izanik du euskarazko irakurketak (ez, antza, idazketak) gure eskoletan, zenbait lekutan eta zenbait alditan. Ikus, adibidez, Zalbide 1990, 2007a, 2007d, 2009. Ikus orobat Zalbide eta Muñoa 2006. Zehaztapenak zehaztapen, goiko esaldia ez da hain okerra.
346. Baita, beste neurri batean, Nafarroako zenbait eskola-alorretan ere.
347. Asmo horri dagokionez ez dago mundu zabalean, dakigula, *Ulibarri* proiektuaren pareko saiirik. Ikus, batetik, Jasone Aldekoa eta Nikolas Gardner, 2002: «Turning Knowledge of Basque into Use: Normalization Plans for Schools». Ikus, bestetik eta bereziki, Jasone Aldekoaren 2012ko doktore-tesia: *Euskararen Normalizazioa Hezkuntzan (2000-2010): Ulibarri Programa. Euskarri teorikoa, metodologia eta faktore azalgarriak*.
348. Sistema pribatuan daude ikastola gehienak, baina ez horiek bakarrik: hasieratik beretik D ereduak diren ikastolekin batera, ikus gero eta euskaldunago (sarri D ereduak) diren *Kristau Eskolak*.
349. Bibliografia zabala dago horretaz: ikus, besteak beste, Zalbide 2007b eta Aldekoa 2012.
350. Apalago dira kontuak Iparraldean, baina han ere urrats argirik egin da azken hamarkadotan.
351. Seme-alabak D ereduak eskolara bidaltzeak ez du segurtatzen etxean, auzoan eta beren lagunekin (erabat edo batez ere) euskaraz egingo dutenik haurrek, neska-mutikoeak eta gaztetxoek. Are gutxiago haztean, euskal bikotea aukeratuz eta bizi izateko euskarak bizi-indar nabaria duen auzo-herriren batean kokatuz (nagusiki) euskaraz egingo dutenik familian, etxean eta kalean. Hori gabe ezin garantiza liteke, luze-zabalean, belaunez belauneko jarraipen beterik. Argi azaldua dauka hori Fishman-ek, behin eta berriz: “People

generally do not understand the difference between, for example, other tongue acquisition, mother tongue use, and mother tongue transmission. They are not the same thing. So, they frequently settle for acquiring the language not as a mother tongue, but during the school experience. By then it is not the mother tongue, because they already have another mother tongue. And schools are not inter-generational language transmission agencies (azpimarra gurea). Schools just last a certain number of hours and a certain number of years and then, after that, they are over" (Fishman, 2007 [1996]: 76).

352. Eskola ez da euskararen jardungune eksklusibo: ez lege-markoz, ez ikasle-irakasleen estatistika aldetik, ez edukiz eta ez, oro har, perspektiba sozio-erakunde botatik. EAEn ere ez: erdara (gero eta usuago erdararak, ingelesaren eskutik) presente dago/daude bertan, guxtiestea komeni ez den neurrian.

353. *Segurtaturik* esaten denean, ez ahaztu (gorago azaldu denez) *segurtasun baldintzatua* dela hori. Belaunez belauneko jarraipen hori segurtaturik dago, bestelako baldintza biodemografikoek transmisio-prozesua okertzen ez badute: prozesu horren bestelakotze-iturri nagusiak honako hauek dira, hemen eta orain: ikastera (unibertsitatera, tesigintzara,...), lanera eta bizi izatera erdal-giroa nagusi den beste norabait joatea gaztea, bikote erdalduna egin eta eguneroko jardun arrunta (etxean, lanean, lagunartean,...) erdarara makurtzea. Hori guztia ez dago arnagunearen esku. Gertaera sozioestatistiko jeneralez ari gara hemen, hortaz, lege unibertsalez baino areago.

354. Erdara edota, ingelesa erantsiz, erdarak.

355. Ez dakite euskaraz irakurtzen eta idazten edota, usuago, kostatu egiten zaie euskaraz irakurtzea edota, bereziki, euskaraz idaztea. Hala dira kontuak 45 urtetik gorako herritar gehienekin eta halatsu D ereduari ibili izan den hortik beherako askotokorekin. Aukera izanez gero (hots, gehienetan) erdarara jotzen dute irakurtzeko edo idazteko orduan: zaharrenek ia beti, gazteagoak maizenik.

356. Hona gure ustea: arnaguneetako biztanle guztiak kontuan hartuz, ez gazteenak bakarrik, arnagune gehiago dago (BZ-6a) mailan (BZ-5)ean baino. Konprobazio enpirikoa behar du horrek ere, ordea: dakigula ez du inork halako ikerlanik egin.

357. Aspaldi hasi ziren hango arnaguneak galtzen (ikus, adibidez, Zalbide 1990, 2007a eta 2009), eta azken hamarkadotako mintzaldatzek bortitzak gogor erasan ditu hartarako aukerak.

358. Termino sozioestatistikoetan ari gara hemen, ez biografia indibidual jakinetan. Horrela dira kontuak bertan (edo euskara nagusi den herri-giroan) bizi izaten segitzen badu gazteak, bikote euskalduna aukeratzen badu eta etxe-kale-lagunarterako euskal bizimodua hautatzen. (BZ-6b)-n ondotoz zailagoa da hori, sozioestatistikoki, eta (BZ-6c)-n zein (BZ-6d)-n are zailago.

359. Tarte-bitarteko egoera horretan dago Zerain, gure ustez.

360. Iñaki Iurrebasoren analisisan oinarritzen gara, bereziki, baieztapen hori egiteko. Litekeena da, jakina, bere informazioa guk oker interpretatu izana eta garaiz lehen lantu jotzen ari izatea. Litekeena da, alegia, arnagune horietako egoera hain-hain goibela ez izatea. Azterketa soziolinguistiko sakon baten premian dago gai hori. Hori da bide bakarra, eztabaida antzuetan ez endredatzekoa.

361. Batez ere erdal etorkinak (azken aldikoak eta, zenbaitetan, aspaldikoak) sartzen dira sail honetan.

362. Aramaio izan liteke, izatekotan, salbuespen bakarra. Kale-neurketaraen arabera hori ere errazago koka liteke, ordea, (BZ-6c) sailean.

363. Ez, demagun, autoaren aseguru-papera egiterakoan edota etxe-erosketaren dokumentazioa aurrezki-kutxako bulegoan eta notarioarenean lantzerakoan.

364. Iparraldean ez dago, dakigula, arnagune argi-argirik (Baigorri, agian?). Aspaldi hasi ziren hango arnaguneak galtzen (ikus, adibidez, Zalbide 1990, 2007a eta 2009), eta azken hamarkadotako mintzaldatzek bortitzak ezabatu egin ditu hartarako aukerabideak.

365. Batez ere haurrekin, adinekoekin, baserritarrekin azoka-egunean...

366. Emakumezkoen artean, adibidez, halakorik ageri da sarri adin bertsuko solaskideekiko jardunean, haurrik ez denean tartean: erosketa-dendan, ile-apaindegian, igerilekuan eta kafetegian.

367. Hiru azpimultzo nagusi antzeman litezke erdal hiztunotan: a) aspaldidanik erdaraz bizi diren herritarrek: bai bertan jaioak eta bai (BZ-6d) edo (BZ-6e) giroan jaio, han hazi eta, ezkontutakoan-edo, herri honetara etorriak; b) azken orduko euskal/erdal-bikote gazteak bietariko bat erdaldun edo erdal-elebidun izanik, eta c) erdal etorkinak (azken aldikoak eta, zenbaitetan, aspaldikoak).

368. Iparraldean ez dago, dakigularik, arnasgunerik. Aspaldi hasi ziren hango arnasguneak galtzen (ikus, adibidez, Zalbide 1990, 2007a eta 2009), eta azken hamarkadotako mintzal-datze bortitzak ezabatu egin ditu hartarako aukerabideak.

369. Hots, herritar gutxienek baina ez hain gutxi: agian bostetik batek. Gutxiengo esan-guratsuaz ari gara beraz: %20ko multzoak estatistikoki adierazgarriak dira edozein az-terbide soziolinguistikotan.

370. Hots, auzoko janari-dendan, tabernako barran, parkean edo kiroldegian euskaraz egingo dion (egin dezakeen eta egin nahi dion) solaskiderik lokalizatzen badu eta euskaraz egin nahi badu (beti ez da hala izaten).

371. Hots: eskolan, auzoko lagun-taldean, kirolgintzan, bestelako harremanetan.

372. Gorago azaldu denez gauza bat da etxeko transmisioa (gurasoek haurrei, beren lehe-nengo urteetan, hizkuntza hori erakustea); beste bat, aldiz, hizkuntza horren belaunez belauneko jarraipena, 35 bat urtean hezuramaitzen dena.

373. Etxean eta auzoan, kalean eta lagunartean.

374. Ez, behintzat, eguneroko hizkera informal-espontaneoak eskatzen duen gaitasun-trebeziatz.

375. Gauza bat da etxeko transmisioa (gurasoek haurrei, beren lehenengo urteetan, hiz-kuntza hori erakustea); beste bat, aldiz, hizkuntza horren belaunez belauneko jarraipena. Ahuldutako hiztun-herrien kasuan, batak ez du bestea segurtatzen. Etxeaz gainera auzo-giroak eta kaleak, lagunarteak, eskolak, kirolak eta aisialdiak, bikoteak, lan-esparruak eta, oro har, sozializatzeko edo gizarteko kide bihurtzeko prozesuan parte hartzen duten eragileek erabakitzen dute bere osoan, ez etxeko lehen urteetako jardunak soilik, belaunez belauneko jarraipena segurtatuko den edota luze-zabaleko mintzaldaketa nagusituko zaigun. “A” belaunaldi heldua (demagun 35 edo 40 urtekoa, haur-haztekoa) eta “A+1” belaunaldi heldua (orobat 35 edo 40 urtekoa, haur-haztekoa) konparatu behar dira, be-launez belauneko jarraipena “zenbatekoa izan den” argitzeko. Benetan “zenbatekoa izan den”, ez etxeko lehen urteetako L1-saioaren argitan “zenbatekoa izan zitekeen”. Bat dator azalpen hori, euskaldunok oso barruan iltzaturik daramagun bizipenarekin: umetan euskaraz (bakarrik) egiten zuen hainbat heldu erdaraz bizi da orain partez edo osoz; min-tzaldatu egin da gero, haurtzaroko transmisioak txukun antzean funtzionatu zuen arren.

376. NBZko erabilera trinkoaren portzentajea, adin-taldea, honako hau da 2011ko V. In-kesta Soziolinguistikoaren arabera:

>= 65	50-64	35-49	25-34	16-24
49,2	30,4	23,0	15,9	14,4

E2-hiztunak kontuan izanik ere, handiegia da ET-hiztun zaharrenetatik gazteenetara da-goen jautzia, ez-ikusia egiteko.

377. Horietariko hainbat B edo D ereduko eskolara doaz eta badute beraz, zenbait urtez, euskararekiko kontaktu formalik. Eskola-esparru horretatik kanpora ez dute ordea euskaraz jarduteko ingurumen bizi-espontaneorik, are gutxiago euskaraz jarduteko beharrik. Erdal-giro hori dute (BZ-6e)ko gazte-gaztetxo gehien-gehienek beren mundu erreala.

378. Gogoratu gorago (BZ-6e atalean) etxeko transmisioaz eta belaunez belauneko jar-raipenaz esandakoa. Ez dira gauza bera.

379. Bertako biztanlen %98,5ek erdaraz egiten du beti. Soil-soilik 500 ET-hiztun kontabi-lizatu ditu 2011ko V. Inkesta Soziolinguistikoak Nafarroako erdal eremuan: bertako E4-hiztunen %0, E3-hiztunen %0,2 eta E2-hiztunen %1,3.

380. Ikus V. Inkesta Soziolinguistikoak.

381. Terminologia teknikoan (ingelesez) *revernacularization* esan ohi den kontzeptua *etxe-*

kotze bidez itzuli izan digu inoiz, eta itzulpen horri eusten diogu hemen. Dakigularik ez du inork, azken urteotan, hain funtsezkoa eta hain zentrala den kontzeptu soziolinguistiko horrentzat euskal ordain teknikorik eman.

382. Aldian aldiko mapa eta inkesta soziolinguistikoek azaltzen digutena ez da, hizkuntza-soziologia teorikoaren ikuspegitik, aniztasun handi horren oihartzun numeriko deklaratu (ez *in situ* neurtua) baizik.

383. Lanbide Heziketan nabarmen ahulagoa da egoera. Hor ere ez da euskarazko ikasbiderik falta ordea. Unibertsitatean ere zabalduz doakie euskaraz ikasteko aukera.

384. Bada hor azpimultzo bat, aparteko arreta eskatzen duena: “euskal eremu”-tik bertaratu diren euskaldun gazteak eta haur-hazteko heldu ugariak. Halako asko ezagutzen dugu Araban, Jaurilaritza sortzearen eraginez besteak beste. Zer iraupen-berme dute hiztuntalde aktibo (askotan euskaltzale suhar) horien seme-alabek, 30-35 urteko perspektiban, lanbidez edo bikote-bizitzaz gurasoen jatorrizko euskal eremura itzultzen ez badira?

385. Besterik izan liteke, jakina, hizkuntza-gaitasunaren bilakaera kualitatiboa. Gaitasun kontuen atala bestek (Iñaki Mz. de Luna lankideak) aztertzen du, ordea, eta ez gara horretan sartuko.

386. Gure moduko hiztun-elkarte ahuldu gutxi ageri du Europan, konkretuki, horren pareko igoyerarik. Galesen, zer esanik ez Frisian edo Britainian, ez dabilta gure aurretik. Herrialde katalanen egoerak analisi berezia behar luke, Ipar eta Hego, Andorrako bilakaera barne delarik.

387. Besterik da, gorago adierazi denez, adin batetik gorako ikasle askoren gelaz kanpoko jarduna: ikus *Arrue* proiektua (Soziolinguistika Klusterra, 2013).

388. Ez beti: hizkera-molde informal-intimoari dagozkion idatzizko jarduera-alorretan nekez esan liteke aurrera egin denik. Gatz-piperrik gabeko testuak ugarituz doaz, hainbaten ustean.

389. Batez ere Iparraldeko LB eta NBZ. Atzerabide zabal hori ez da, dena den, Iparraldean bakarrik gertatu.

390. Etiketrik erabat euskaldun, nagusiki euskaldun edo, probableago, era bateko edo beste-ko elebidun.

391. Antzera gertatzen da frantsesarekin edo ingelesarekin. Eskolan (han bakarrik) frantsesez edo ingelesez ikasi eta gero Parisa edo Londresa joaten den gazteak ez du hango jendearekin normal-normal jarduteko gaitasunik izaten, sarri: han bizi izanez, eta hango hiztunekin jardunez eguneroko bizimodu arruntean, eskuratzen du gaitasun hori. Jardun horren zenbatekoak eta zernolakoak eragin bizia du izan ohi du gaitasun-neurri horretan.

392. Euskal kulturaren ezagutza aberatsa koordinatu zabal-modernoetara birmoldatzea eta zabaltzea leku gutxitan egin liteke, gaur egun, eskola munduan baino sendoago.

393. Euskal eskola ez zuten XX. mendeko bidegile saiatuek horregatik eta horretarako asmatu, batez ere. Dokumentazioa argi eta oparo mintzo da horretaz.

394. Praktikan, XXI. mende honetan, *euskaldun elebidun* edo *euskaldun eleaniztun* izateaz.

395. *CED* eskolan txertatuko bada, jakina, irakasleak prestatu behar dira lehenik eta behin. Unibertsitatearen erantzukizuna handia da.

396. Hots, EAEko hiru lurraldeetan berdin aplikatu beharreko.

397. Berez, zehazki, “euskaraz eta erdaraz”: erdarazko jakite-maila hori ez da ordea aparteko arazo, herririk euskaldunenean ere, ahozko jarduenean. Irakurmen-idazmenetan, praktikan erakusten duenez, eskola garaiko eta eskolaz kanpoko praktikak eskuratzen ditu trebetasun horiek, euskaraz zein erdaraz.

398. Euskal eskolatik pasa diren eta eskolaz kanpoko indargarri sendorik izan ez duten gazte-heldu gehien-gehienak erdaraz bizi dira (erabat edo nagusiki) eta, etxean erdara nagusi den familia osatzen dutelarik maizenik, haurrak izatean eskolari egotziko diote berriro, onenean, haur horiek euskalduntzeko eginkizuna.

499. Litekeena da D ereduaren nagusitasun estatistiko hori ahulduz joatea etorkizunean, ingelesaren LWC gisako irrupzio soziala euskara hutsezko eskolaketaren lehiakide bizkor bihurtzen ari delarik.

400. Hegoaldean gaztelaniaz, iparrean frantsesez, oro har; ingelesez ere bai, ordea, ahal delarik.

401. Hots, belaunez belauneko jarraipen-oinarri horrezaz bere buruari bizirik eusteko eta, hortik abiatuz, espazio soziofuntzional eta territorial berrietara hedatzeko ahalmena duen moldaera.

402. Honela azaldu zuen kontua Fishman-ek, 1991n, bere *RLS* famatuan: “They must pursue stable bilingualism, at least among Xmen, if not among the generality of the population at large” (Fishman, *RLS*: 61).

403. Esaldi honetako “pueblos completamente euskaldunes” horiek gure arnasmuneak dira argi-argi. Eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez ziren Altuberen garaiko herri-herrixka haiek “completamente euskaldun”. Idatzizkoan badakigu han ere frantses-gaztelaniak zirela jaun eta jabe.

404. Jatorrizkoan <r> sabindarraz, orduko ofizialaz hortaz, ageri da *Izarraitz* hori.

405. Balio-indar handia du, egungo egunean ere, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio bete familiako, kaleko eta herri-giro hurbileko jardura bizian oinarritzen deneko bere baieztapenak: “La práctica familiar es (..) el medio más eficaz o decisivo para el aprendizaje perfecto de un idioma, aprendizaje que se completa y se consolida con el uso diario en las calles, plazas y demás lugares de reunión entre gentes de pueblo que hablan el mismo idioma”.

406. Zehazkiago, “ahalik eta arnasmune zabalenen, hiztun-kopuruz hazienen” alde mintzo da Altube. Bada bere formulazio horretan elementu gehigarria, begien bistatik galdu behar ez genukeena. Norabidez eta xede-helburuz gauza bera izanik ere, gurea baino esijenteago da, ez ahulagoa, Altuberen arnasmune kontzeptua.

407. 1900 ingurutik 1930era arteko garbizaletasunaren kaltegarritzko eraginak leku zabala du bere bi idazkietan. Egungo egunean ere baluke bertako hainbat pasartek balio-indarrik, nekez ordea orduko neurrikorik eta orduko moldekorik. Euskal idazle gehienen *euzkera garbija*-ren gaitzespen hark ez zuen, gerra ondoko saioretara bagoaz, kritika-lana abiatu baizik egin: 1956tik aurrerako hainbat dokumentutan nabarmen ageri dira Altuberen kezkek, ikuspegi kritikoak eta lehentasun-eskema berri baten aldeko iritziak.

408. Bere gogoeta-lanak, eta altzoan zeraman analisi autokritikoak, hainbat hauts astindu izana ekarpen haien sendotasun-seinale da, oro har.

409. Altuberen “población compacta y bastante numerosa” delakoaren eta hemen azaltzen ari garen arnasmuneen artean bada alderik: arnasmuneen kasuan ez da biztanle-kopuru minimorik ezarri; handi eta txiki, guztiak dira arnasmune hartarako baldintzak betetzen badituzte; arnasmune, gehienak txikiak, are ñimiñoak, dira biztanle-kopuruz “hemen eta orain”. Altubek ere ez du biztanle-kopuru minimorik ezartzen, baina kopuru hazieneko arnasmuneetan zentratzen da bera, batez ere: “ahalik eta arnasmune zabalenen, hiztun-kopuruz hazienen” alde mintzo da Altube espresukoa. Norabidez eta xede-helburuz gauza bera izanik ere, gurea baino esijenteago da, ez ahulagoa, Altuberen arnasmune kontzeptua. Horrek ez du esan nahi, orduko definizioaren arabera arnasmune eta oraingoa gauza bi direnik: gauza bera dira funtsean.

410. “jantzi” hitzaren hemengo adieraz jabetzeko ikus *OEHko instruido, culto*, oro har *ezjakin* hitzaren antonimoa: “basarritarra izan arren gizon jantzixa da” (Elexp Berg), “ez [...] euskaldun kaxkar ezjakinak, behar lirakeen euskaldun jantziak baizik” (MIH 346) edota “medikuntzan jantzia ez izanik ere” (MEIG V 115).

411. Oro har euskaldun bete izan behar dute bertako (edo bertan eragin zuzena duten) langileek: batzuek hitzez, besteek hitzez eta idatziz.

412. Etxalde edo auzo berriak planteatzerakoan gehiegizkoa ote litzateke (BZ-6b)ko herriburuetan “D ereduko auzo-guneak” planteatzea? Ez luke hala izan behar, bere argi-ilunak (tartean irabazi-galera alternatiboak) argi azalduko balira eta adostasun-maila zabal eskuratuko balitz. Mediterraneoa aurkitu beharrik ez legoke agian: Europan bertan bageneukake, seguruenik, non-zer ikasi.

413. Aparteko pisua du (BZ-6c) mailako hainbat herriburuk eskualdeko edo herrialdeko harreman-sareetan.

414. Etxalde edo auzo berriak planteatzerakoan posible ote litzateke (BZ-6c)ko herriburuetan ere, (BZ-6b)koetan bezala, “D ereduiko auzo-guneak” bultzatzea?
415. Oro har euskaldun bete izan behar dute bertako (edo bertan eragin zuzena duten) langileek: batzuek hitzez, besteek hitzez eta idatziz.
416. “Bide batezko” euskalgintza edo hizkuntza-plangintza, “berariazko” euskalgintza-plangintzen aurrez aurre, zer diren jakiteko ikus Zalbide 2007a eta 2015. Ikus orain, orobat, Rodriguez, 2016b:138-9.
417. Fishman-en RLS famatutik jasoa dago aholku hori. Hortik kanpora ere bada halakorik dioenik. Kataluniako perspektibari dagokionez ikus, adibidez, Jordi Pujol Nadal-en “nuevo discurso normalizador”. Edward de Bono-gandik datorren *pensamiento lateral* kontzeptuan du diskurtso berri horrek abiaburu: “(.) tenemos que procurar no vender lengua, sino productos en que ésta vaya acompañada de otras cosas (..)” (Pujol Nadal, 2000: 84-7). Ondoren eskaintzen dituen adibide praktikoak oso mugatuak (unibertsitate alorreko albo-ekinbide xumeak) badira ere, asmoa eta esplikazioa bera argiak dira.
418. Bikote-sortzeko adinean dauden gazteentzako informazio, aisialdi, topagune eta abarrekoak, dantza-, jolas- eta solas-lekuak (aurrez aurrekoak eta birtualak) barne.
419. Bistan da beti ez dela, urrundik ere, horrela: ikus noranahiko turismo-zerbitzu erraldiak, gero eta *internet*-en oinarrituagoak.
420. Badira, halere, lan-esparruan euskara nagusi (edo erdararen pareko) dutenak: D (eta B) ereduiko irakasleak (Haur Hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino), prentsako eta irrati-telebistetako euskal profesionalak, kultura-esparrukoak eta administrazio-alorrekoak. Kopuru ohargarria osaturik ere, gutxiengo nabarmena (%10etik beherakoa) dira. Hala izaten segituko dute, itxura osoz, begien bistako etorkizunean.
421. Orobat irrati-telebistetan eskueran dagoen aukera, eta abar. Elkarren eskutik joan behar dute aukera-bide biek.
422. Fishman-en azalpena bada ere aipagai duguna, iturburu gorenetan ez da hori bere asma-kizun huts. Gure ustez (are, zenbaitetan, Fishman-en beraren aitorten argiz) John Gumperz-en eskua nabari da HINBEren alorreko hainbat kontzeptu-marko nagusitan. Baita hemen ere, oker ez bagaude: ikus Gumperz-en 1962ko *Types of linguistic communities* bide-berritzailea.
423. Zehazkiago, “hizkuntza horretaz baliatzen den” edota “horretaz balia dadin nahi dugun” gizarteaz dihardugu hemen.
424. Kontzeptu tekniko zehatz-argiaz ari gara hemen: beste hizkuntzetan *language shift*, *Sprachverschiebung* edo *desplazamiento lingüístico* esan ohi den horrezaz.
425. HINBE-saioen ahalmen-mugez mundu zabaleko bibliografiak zer dioen jakin behar da horretarako, besteak beste.
426. Erdalduntze-lana noiz-non eta nola (hitzez ala idatziz, kale-bizitzan, familiaraino,...) gertatu den jakitea. Azken 30 urteotako bilakaera demolinguitikoaren iturriak (Inkesta soziolinguitikoak, kale-neurketak, analisi konkretuak,...) ezagun izatea eta bertako emaitzak zuzen interpretatzen eta egoki erabiltzen jakitea.
427. Bertan formulatu edota bertan egin izan diren HINBE-saioen berri izatea esan nahi du horrek, batetik, eta saio horien emaitzen argi-ilunez informaturik egotea, bestetik.
428. “hemen eta orain” ditugun baliabide jakinak ez dira zehazten hain errazak: interes jagirien eta izkutuen jokoak edonon ohi da tartean, ezinbestean. Agintean dagoenarentzat lerro gorri modukoa dena ez da kanpotik begira dagoenaren ustez inolako lerro gorri, “beste asmo ezkuturen baten ondorioa” edota “borondate politikorik eza” baizik. Guztuia ez da, ordea, bez “isilpeko interes” eta ez “borondate politiko falta”: kanpotik begira dagoenarentzat “lerro gorri” ez den ekimena “lerro gorri” bihurtu ohi da sarri, aldeaz edo moldeaz, agintera iritsitakoan.
429. Veltman-ek argi azaldu duenez, transmisio-lan sendo hori ez da etxe-esparrura mugatzen halere, are gutxiago haurren lehenengo urteetara: belauenez belauneko transmisio betearren azterketak belaualdi berriaren 30-35 urte inguruko epea hartu behar du kontuan.
430. Epe zabal horretan funtsezko aztergai dira belaualdi berri horrek dituen interakzio-sareen nolakoa (etxeaz gainera auzo-giro hurbila, kalea, eskolaketa, lagunartea, kul-

tura-kontsumoa, gero bikote-moldaera eta lan-esparrua), orobat jarduera-maiztasunaren sendoa eta rol-harremanen behar adinako dibertsifikazioa.

431. HINBE-lanerako jakite- eta prestasun-kontuan ez gaude beste hiztun-herri asko baino ahulago. Litekeena da, hortaz, “hoberen”-etik gutxien aldentzen diren adituen arteko lankidetzak moldeak antolatzea.

432. Gai honetan berariazko aditu den Baldauf-en hitzetan “Language planning is normally thought of in terms of large-scale, usually national planning, often undertaken by governments and meant to influence, if not change, ways of speaking or literacy practices within a society. It normally encompasses four aspects: status planning (about society), corpus planning (about language), language-in-education (or acquisition) planning (about learning), and (most recently) prestige planning (about image). When thinking about these aspects, both policy (i.e. form) and planning (i.e. function) components need to be considered as well as whether such policy and planning will be overt or covert in terms of the way it is put into action. Language policy and planning on this scale has dominated current work in the field. However, *over the past decade language planning has taken on a more critical edge and its ecological context has been given greater emphasis, leading to an increasing acceptance that language planning can (and does) occur at different levels, i.e. the macro, meso and micro* (letrakera etzana gurea). This shift in focus has also led to a rethinking of agency – who has the power to influence change in these micro language policy and planning situations.” Ikus Richard B. Baldauf Jr, 2006: “Rearticulating the Case for Micro Language Planning in a Language Ecology Context”, in *Current Issues in Language Planning*, 7 liburukia, 2-3 atalak, 147-170 or.

433. Askotan, preseski hala nahita edo halabehear hutsez, aldeztu aurretiko gogoeta-lan estrategiko handirik gabe murgildu izan gara hainbat eginahal taktikotan. Oro har “gure artean korritzen duen uste-multzo ezagun”enaren haritik abiatu izan gara halakoetan, ustez euskararen aldeko neurriak aplikatzen. Ez da biderik egokiena, baina horrelako hainbat saiari zor diogu egungo garapen bat baino gehiago. Lehen horrela jardun izanak, jakina, ez du esan nahi aurrera ere horrela jardutea komeni denik.

434. Ikus, adibidez, kontu horretaz argitara eman berri dugu artikulua: “XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan”, in *Hermes* 50, 10-29 or. (Zalbide, 2015).

435. Euskaltzetasuna eta, are, berariazko euskalgintza lehenagotik datoz: iturburu zaharragoetara jo gabe (eta bada halakorik), ikus adibidez Zalbide 2007a, 2007b eta Zalbide eta Muñoa 2006.

436. Bada, halere, horri buruzko azalpenik. Hartan jardundako euskaltzale askoren informazio biografikorako eta beren esan-eginen azalpenerako ikus, adibidez, Eusko Jaurlaritzako HPSOren *Bidegileak* bilduma.

437. Askotan kanpoan baino beranduxeago egin izan ditugu hemengo saioaldiak, zenbaitetan garai bertsuan eta, inoiz, kanpoan baino lehen. Hori ere perspektiba globalean kokatzea merezi luke.

438. Formulazio askok ez du aurrerabide praktikorik izan maiz, kanpo- zein barne-faktore ezagunengatik: goitik beherako debekua, baliabiderik ez, lan koordinatua egiteko trebeziarik ez,...

439. Ikus, adibidez, Zalbide 2003 eta 2015.

440. Ikus, bereziki, 1933ko bere “La Vida del Euskera” in *EUSKERA*, 1933-IV: 299-397 or. eta 1936ko *Más sobre la Vida del Euskera* in *EUSKERA*, 1936-I-IV: 1-217 or. Berez, denbora-tarte zabalagoan txertatu behar da Altuberen gerra aurreko eta gerra osteko saio-sorta hori: ikus, batetik, 1920ko bere sarrera-hitzaldia (“*Ikuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia*”, in *EUSKERA* 1921-II, 3-49 or.); ikus, orobat, 1959ko “Euskaltzaindiari” (*EUSKERA*, 1959-IV: 43-56 or).

441. Aranaren saioaz eman berri dugu iritzia (Zalbide 2015). Seber Altuberen 1933ko eta 1936ko ekimenaz txosten honetan bertan, VI. 3. atalean konkretuki, emanik dugu zenbait argibide.

442. Bertakoetan ezaguna da oso, besteren artean, Koldo Mitxelenaren 1951ko *Euskal literaturaren etorkizuna*.

443. Eusko Jaurlaritzak 1956an Parisen antolatutako I. Mundu Biltzarrean eta Euskaltzaindiaren babespean 1956-59 artean egindako Euskaltzaleen Biltzarretan azaldutako irizpide-oharrak izan litezke, agian, gerraondoko zaharrenak. Ikus, orobat, Euskaltzaindiaren 1977ko *El Libro Blanco del Euskara/ Euskararen Liburu Zuria*.

444. Gai hau ez dago, dakigula, behar bezala landua: corpus-plangintzari dagozkionetan gero eta argiago dago kontua, ez ordea HINBE-saioei dagokienean. XX. mendeko hizkuntza-plangintza aztergai izanik berrikitan (Zalbide, 2015) azaldu dudana laburregia da, nolana ere, esparru zabal hori bere osoan ikertzeko: aparteko lan monografikoa merezi luke horrek, 1940tik 1980ra arteko epeari (eta horren barruko faseei), berariazko atenzioa eskainiz. Zinez merezi lukeen lana da hori.

445. Ez da bere egitekoa, hortaz, lehendik ondo asko landua dagoen Euskal Linguistika, bere esparru ugarietan. Soziolinguistikaren hurbilbide “linguistikoenak” ere (hizkuntza-aldaerak eta mintzamoldeak, errejistro eta estilo kontuak, dialektologia, ukipen-egoerako interferentziak, corpus-plangintzaren hizkuntza-osaera eta idatzizko zein ahozko hizkuntzaren egokitasun-arauak...) iragaitzaz baizik ez ditu landuko. Bere jardun-esparru nagusitik kanpora gelditzen dira, orobat, Hezkuntza elebiduna eta Psikolinguistika, hizkuntzen alorreko Legislazioa eta Glotopolitika. Bere hurbilbide nagusiaren ardatza argitzea, eta ardatz horretatik funtsezko argibiderik eskain daitekeen neurrian soilik, heldu behar lieke honelako gogoeta-etxeak jakintza- eta aplikazio-esparru horiei.

446. Euskal hiztun-elkartea eta bere baitako hiztun-multzok, harreman-sareak eta jardunguneak dira honelako gogoeta-gune baten aplikazio-esparru nagusi: bertako language *maintenance*, *shift* eta *revitalization* prozesuei dagozkien datuak biltzen, aztertzen, ondorioak ateratzen, soluziobideak planteatzen eta horren guztiaren zabalkundea egiten saiatu behar du, bereziki. Gure hiztun-herrirako balio duenak beste hainbat lekutarako ere balio izan behar du, ordea, gogoeta-lan horrek maila batetik gorako abstrakzio- eta sintesiperspektiba eskuratuko badu (eta hala egin behar du, aplikazio-ahalmen ohargarrikoa izango bada bihar edo etzi). Alde horretatik zilegi litzateke *Ahuldutako hizkuntzak* indarberritzeko gogoeta-etxea esatea.

447. Demagun, batetik, unibertsitate giroan sortutako *Linguistic Minority Research Institute* (Kaliforniako unibertsitatean), Ingalaterrako *Foundation for Endangered Languages*, Alemaniako *Gesellschaft für bedrohte Sprachen*, Yaleko unibertsitateko *Endangered Language Fund*, Canberrako *Australian National Universityko Language Australia* (lehenagoko NLLIA). Denak ez dira unibertsitate alorreko sorkari, ordea: hor daude *Terralingua* moduko elkarteak, Bruselako *European Bureau for Lesser-used Languages* elkarteak (EBLUL) eta, hizkuntza kontuetan baino herri txikien problematika osoan zentratuago, *European Centre for Minority Issues* (ECMI) delakoa. Unibertsitate esparrutik kanpora dago orobat, Eusko Ikaskuntzaren pareko *Consello da Cultura Galega* txertaturik, Santiago de Compostelako *Archivo de Planificación e Normalización Lingüística* delakoa. Erdibideko formulazioa du, azkenik, Europako Batzordeak 1987an sortua duen eta hiru ikergunez osaturik dagoen *Mercator Project* delakoak.

448. Jasotako datu mugatuen arabera 1970ean abiatu zen ikergune hori: lehenik Kiel-en, *Forschungsstelle für Sprachen- und Nationalitätenfragen* izenpean, eta gero Marburg an der Lahn-en. Handik gutxira, 1971n, Mannheim-go *Institut für Deutsche Sprache* delakoan txertatu zen, *Arbeitsstelle für Fragen der Mehrsprachigkeit* izeneko atal moduan. Bertan jardun zuen Kloss-ek 1976ra arte.

449. Estatu Batuetako *SIL International* (behinolako *Summer Institut of Linguistics*) etxeak bere eragina izanik du munduko hizkuntzen eta hiztun-herrien azterketan eta babes-lanean. 1934an sortu zenean xede-helburu xumeagoak bazituen ere, eta proselitismozko asmo jakina bere-berea izan badu ere hasieratik, egia da Bibliaren noranahiko itzulpen ugariez gainera lan handia egin duela SILek mundu zabaleko hainbat hizkuntza txikitako hiztunak nor bere ama-hizkuntzan alfabetatzen, beren kultura-ondare jatorraz jabetuarazten eta lekuan lekuko hizkuntzen deskribapena gizarte-ingurumenezko markoan txertatzen. Hortik aurrera ere jo du azken urteetan, analisi teorikoaren alorrean.

450. 1959an sortu zenetik Estatu Batuetako soziolinguistikaren hazkundearekin aski loturik garatu izan da gogoetagune hori. Hizkuntzaren gizarte-dimentsioaz jabetzen eta zientzia-arauzko hurbilbideak zabaltzen ekarpen sendoa egina du horrek ere, *SILek* bezala.

451. Quebec-en 1960ko hamarkadan sortu eta egoitza Laval unibertsitatean duen CIRB-ICRB (*Centre International de Recherche sur le Bilinguisme*) delakoa, izenez eta izanez zertxobait aldaturik gero CIRAL (*Centre International de Recherche en Amenagement Linguistique*) deitzen duena. Hezkuntza elebidunaren eta, bereziki, hizkuntza-plangintzaren alorrean harrezkero egin izan dituen ekarpenak funtsezkoak dira, orain ere, mundu zabaleko hiztun-herri gehienontzat. Bere lehen zuzendari izandako W. F. Mackeyren eskutik 1972an (eta, 19.000 sarrerataraz baldurik, 1982an) argitara emandako *International Bibliography on Bilingualism* famatuak ildo berriak zabaldu zituen, jakina denez, *language contact* gaiaren inguruko hurbilbide ezagunenak (antropologia, soziologia, hizkuntzen psikologia, linguistika eta zientzia politikoak) elkarrengatuz. Erramun Baxok izan genuen, agian, CIRB moduko bat gure artean sortu beharraz mintzatzen lehena.

452. Ikus, adibidez, ICRML / CIRL institutuaren 2004ko *Research Policy* txostena, alde askotatik hain jakingarria.

453. Badakigu Stephen Wurm adituaren eraginez sortu zela Tokion. Ezer askorik ez, ordea, hortik aurrera. Jaso dugun informazio urriak honako hau dio: "Located at the Department of Asian and Pacific Linguistics, Institute of Cross-Cultural Studies, Faculty of Letters, University of Tokyo. Provides information on events, links and minority and endangered languages, including a database on minority languages in Russia. It also has links to the UNESCO Red Book of Endangered Languages for Asia and Pacific, Africa, Europe and Northeast Asia".

454. Gero, hein batez, *European Language Equality Network (ELEN)* moduan dirau ekimen hark.

455. Alemanian, Danimarkako muga-mugan dagoen Flensburg hirian, du bere egoitza. Alemaniako, Danimarkako eta Schleswig-Holstein-eko Herri-Aginteez eratua da etxe hori. Europako hiztun-herri txikiak eta, oro har, *ethnic minority* direlakoan egoera eta estatu-marko nagusien baitako aurrerabide posibleak ditu aztergai. Perspektiba horretan sartzen da bertako *Minderheitenschutz* jarduera. Bere esanean "The European Centre for Minority Issues (ECMI) conducts practice and policy-oriented research, provides information and documentation, and offers advisory services concerning minority-majority relations in Europe. It serves European governments and regional intergovernmental organizations as well as non-dominant groups throughout. The Centre co-operates with the academic community, the media and the general public through the timely provision of information and analysis. The Centre organizes its activities around five thematic clusters. A Justice and Governance cluster is concerned with the evaluation and further development of legal standards that may assist in consolidating democratic governance on the basis of ethnic diversity and human rights. Other thematic clusters include Politics and Civil Society focusing on minority politics, especially the ability of minorities to participate both through public office and civil society functions. A Conflict and Security cluster focuses on constructive conflict-management and addresses conflicts with an ethno-political dimension in the wider Europe. A Culture and Diversity cluster addresses the cultural issues of minority existence, in particular language and education but is also concerned with the access of minorities to the media. A Citizenship and Ethics cluster focuses on both legal and socio-political aspects of membership in mainstream society, including ethical issues of toleration, respect and contribution". Wikipediatik jasotako datuen argitan "ECMI is a non-partisan and interdisciplinary institution. It is a non-profit, independent foundation, registered according to German Civil Law".

456. Horrek ere badu zer erakutsirik. Luzaro eta indar betean iraungo badute ikerguneok, lekuan lekuko gizarte-behar konkretuei erantzuteko moduan eraturik egon behar dute gure ustez. Bertako antolamenduz, babes ekonomikoaz eta lege-babesaz eraturik egotea komeni da horretarako.

457. Soziolinguistikaren perspektiba soziozentrikoa eskatzen dute gogoeta-gune horiek, linguozentrikoa edota psikolinguistikoa baino areago. Hizkuntza-soziologiaren sortzaile nagusietarikoa den Joshua A. Fishmanek ezin argiago azaldua du, behin eta berriro, jakite-esparru horren egoera, bere lanketa-maila teorikoari eta horren iturriei dagokienez, zer-nolakoa den. Soziolinguistikaren hurbilbide soziologikoa (hizkuntzen elkarbizitza-moldeez eta hizkuntza txiki-ahulak indarberritzeko moduez argitasun gehien eskaini behar lukeena) askozaz landu-arinagoa dago, bere esanetan, ikuspegi linguozentrikoa baino.

458. Xede nagusiok ditu argitara emanik: "Initier, réaliser et appuyer des recherches contribuant à une connaissance scientifique des communautés de langue officielle du Canada. Initier, réaliser et appuyer des recherches pouvant contribuer à des interventions et des politiques ayant pour but la progression de la vitalité des communautés de langue officielle au Canada. Collaborer avec les organismes communautaires et les instances gouvernementales interpellées par les questions de langues officielles au Canada pour favoriser la promotion de la recherche. Créer des occasions d'échange et de collaboration entre les chercheurs intéressés dans la question des minorités de langue officielle. Répertoire l'ensemble des recherches existantes pertinentes au mandat de l'Institut. Organiser des événements permettant de rassembler les chercheurs et de partager avec les représentants communautaires et gouvernementaux les connaissances sur les réalités et les défis des minorités de langue officielle du Canada".

459. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Ikaskuntzaren gidaritzapean egin zen saio hura, 2003 urte inguruan. Dokumentaziorik bada.

460. Inoiz zerbait esanik dugu horretaz (Zalbide 2010). Ez legoke aparteko ezintasunik, gogoak eta beharrak hartara eramango bagintu, han esandakoak zehazteko eta zabaltzeko. Lekukoak (guztiki edo gehien-gehienak) bizirik direnez erraza litzateke, gainera, kontua ganoraz kontrastatzea.

461. HPSOko hainbat Zerbitzutan (batez ere bertako Iker-eremuan) euskara-erdaren gizarte-dimentsioaz, eta horren barruan hizkuntza-erabilera, informazio teknika biltzen, lantzen, koordinatzen eta kaleratzen diharduten teknikariak oso kontuan hartzekoak dira. Baita beren bidez eraturiko harreman-sare profesionala eta, hainbatetan, *know-how* ordezkaletza ere. Horri guztiari *Euskararen Aholku Batzordea* erantsi behar zaio.

462. Demagun, esate baterako, hezkuntza-alorrean (egoitza nagusian, Berritzeguneetan eta hainbat ikastetxetan, UEUren aholkularitzaz) *Ulibarri* programaren jentio-, gogoeta- eta ebaluazio-ardura duen gizatalde zabal eta trebea. Hezkuntza alorretik kanpora ere bada han-hemen pisuzko adituri.

463. Ikus *Euskarabidea* / *Instituto Navarro del Euskera* eta, bereziki, bertako azterlan sozio-linguistikoak.

464. Ikus, bereziki, bertako *Euskal Erakunde Publikoa*.

465. Lasartekoa berariaz aipatzeaz ez dut uste inor haserretuko zaigunik. Badira gehiago ere, aski goi-mailan dabiltzanak.

466. Demagun, adibidez, hizkuntza-plangintzaren *HIZNET* graduondokoa eta *HUIHEZ*ren *euskal kulturaren transmisioari* buruzkoa.

467. Unibertsitate-munduak ez du gure artean, *berariaz*, gogoeta-lan horretarako instantzia beregainik sortu. Sortzeko bidean denik ere ez dirudi. Bistan da, ordea, jakintza-alor horretan (edota horren inguruan) espezializaturiko hainbat profesional jantzi-dokumentaturen bilgune eta lantoki dela, orobat hainbat kontzeptu teorikoren eta teoria askotxoren transmisio-leku. Hori guztia kontuan hartu behar da.

468. Bertako Jagon Sailean dauka Akademiak eginkizun horri begirako giza- eta antolamendu-oinarri sendoena. EHS ikerlerroaren baitan ere balegoke aztergai horrekiko lotura-biderik.

469. Bere buruaren aurkezpenean honela dio SLk: "Ezagutza soziolinguistikoaren ikerketan, zabalpenean, eta aplikazioan ditugun gabeziei eta beharrei dinamika berri batekin erantzuteko (sortua da SK). Euskal Herrian hizkuntza normalizazio prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat –pribatu, publiko, zein gizarte mailako– arlo zientifiko-aplikatutik datuak, metodologiak, eta bestelako materialak eskaintzeko egitasmoak lantzen ditu, jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta, ondorioz, normalizazio ahaleginen emaitzak hobetzeko". (...) Quebec-etik bueltan, Erramun Baxok doktoreak proposatu zuen ideia baten inguruko hausnarketatik abiatu ziren (egungo SKren lehen urratsak): gure herrian *CIRB*ren antzerako gune bat sortzearen egokitasuna(z) jardun zuen Erramunek). 2000ko azaroan "Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen" *Sinposiuma* antolatu zen Gasteizen eta bertan arloko teknikari eta aditu talde zabal batek diagnosi horrekin bat egin zuen eta handik abiatu zen zenbait erakunderen arteko lankidetzaren (..), gerora definitzen eta osatzen joan dena". Euskararen berreskurapen eta normalizaziorako soziolin-

guistika ezagutza garatu nahi du Soziolinguistika Klusterrak, horretarako azpiegitura, baliabide eta baldintza egokiak sortuz, esparru zientifikoaren eta aplikatuaren arteko zu-
biak eraikiz eta arloko eragileekin hausnarketa zein lankidetzarako bilgune-sareak osatuz.
Lankidetzat horren adibide egoki da, gure ustez, *Arrue* proiektua.

470. Hala egin nahi izanda ere ba ote legoke Euskal herrian, administrazio-esparrutik kanpora eta bere laguntza zuzena gabe, HABEren liburutegiak urte askoren buruan so-
ziolinguistikaz bildua, egokiro egituratua eta espezialista guztion esku jarria daukan bi-
bliografia tekniko aberats horren parekorik beste inon antolatzerik? Egiterik balego ere,
zenbat urte beharko lirateke, eta zenbat diru, dagoeneko eginik dagoena berriro egin eta
aztergune edo gogoeta-etxe delakoaren eskueran jartzeko? Zentzuzko bide bakarra goian
esandakoa da: urteetan lanean ari den eta punta-puntako zerbitzu profesionala (jakintza-
sail honi dagokionez Europa osoan dagoen hoberenatarikoa) eskaintzen duen organoaz
baliatzen saiatzea hasiera-hasieratik, ez parez pareko inizatiba berririk sortzea.

471. Desoreka handia dago, esparru akademikoan, hizkuntzari buruzko azterbide nagusien
artean. Askozaz gehiago da ele biko (eta anitzeko) hezkuntza-programez mundu zabalean
ikertu, teorizatu eta argitaratu dena hizkuntzen elkarbizitza-moldeez eta indarberritze-
saioez zientzia-arauz argitu dena baino. *Language maintenance, shift* eta *revitalization* pro-
zesuen azterketa teorikoa sakontze- eta garatze-lan sendoaren beharrean dago beraz, oro
har. Hori gabe nekez espero liteke inongo instantzia teknikok gauetik goizera soluzio
praktiko handirik eskaini ahal izatea.

472. Fishman-en RLS edo HINBEK oso kontuan izanik ditu faktore horiek. 1991eko saio
haren osagarri ikus, adibidez, Bernard Spolsky-ren 1995eko "Conditions for Language
Revitalization: A comparison of the cases of Hebrew and Maori".

473. Zehazkiago: zein dira goiko analisi guztien argitan huts egiteko beldur handiegirik
gabe planteat litezkeen neurriak?

474. Euskararen erabilera normaltzeko xedea, formulazio intelektual eta juridikoei dago-
kienez batez ere 1977tik 1982ra artean hezurmamitua, adostasun handi samarreko bate-
ratze-saio baten fruitu izan zen bere garaian. Xede nagusi horren aplikazio-lanean aurrera
egin ahala desadostasunak eta kontrako jarrerak indartuz joan dira, ordea. Ez da hori ha-
rritzekoa: hizkuntza ahula indarberritzeko asmoz hartzen den neurri klasea hartzen dela
(eta inolako neurririk hartzen ez bada berdin) hizkuntzazko liskar-konfliktuaren arriskua
hor dago berez. Gustatu ala ez, konpondu beharreko arazoa dago hor. Auzi-arrisku txi-
kieneko eta lorpen-maila hobereneko soluzioaren bilaketa izan ohi da, horrelakoetan, ir-
tenbide artea. Nola egin hori, ordea, eta noren laguntzaz baliatu behar da horretarako?
Aginte legegileari eta exekutiboari batetik, era bateko zein besteko iritzi-sortzaile eta gi-
zarte-eragile nagusiei bestetik, eta boto-emaileei azkenik, dagokie glotopolitikazko ados-
tasun-bilaketa basikoaren ardura nagusia. Hori horrela dela onarturik ere, bistan da es-
kueran izan litezkeen alternatiba posibleen eztabaidarako datu-biltze kontrastiboa eta
kontzeptu-lantze soziolinguistikoa egin beharko dela aurretik. Aurrean horretan, bestekak
beste direla, zeresan argia izan dezake honelako gogoeta-etxeak.

Euskara-erdare (hasierako formulazioan euskarari) "bere lekua" bilatu beharraren kontua
ez da berria. Txepetx bera izan zen lehena, oker ez bagaude, orain dela 25 edo 30 urte
euskararentzako "nicho" baten beharraz mintzatzen; Jose Miguel Azaolak ere horren an-
tzeko aipamenik egin zuen aldi hartan (1972ko lehen liburukian oso oker ez bagaude),
eta antzeko terminoetan mintzatu zen Mitxelena: erda(ra)ren presentzia ukatu edo gutxietsi
gabe euskarari inork etengabe disputatuko ez dion "bere leku"-aren alde, ez kontra.

475. Hizkuntzen gizarte-dimentsioa zientzia-arauz lantzen duten espezialisten eta ins-
tantzia teknikoen laguntza kontuan hartzekoa da gure ustez. Bestek du azken hitza,
jakina, baina aurrean horrek onura baizik ezin ekar diezaioke erabakidun orori.

476. Batez ere etxe-auzo-kale-jolasgune-lagunarteko, eguneroko kultura-konsumoko, he-
dabideetako eta gizarte-sareetako. Horren osagarri, ez ordea pareko, eskolako eta presta-
era-gune formaletako.

477. Batez ere hezkuntzara, gorago esan denez, baina ez hartara bakarrik.

478. 1995eko hitzaldi baten egokitzapena: "This paper is adapted from the speech given
by Dr. Fishman at the second *Stabilizing Indigenous Languages symposium* on May 4, 1995".

479. Urtea ez dakigu seguru esaten: Olatz Altunak eskuratu digun informazio aberatsaren argitan, itxuraz azkena izan litekeen urtea jarri dugu hemen.

BIBLIOGRAFIA

- Aldai, Jose Anjel, 2016: "Hizkuntzen ahozko erabilera Aiako kalean eta leku publikoetan", in *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 98 zkia., 88-127 or.
- Aldekoa, Jasone eta Gardner, N. 2002: «Turning Knowledge of Basque into Use: Normalization Plans for Schools». In the *International Journal for Bilingual Education and Bilingualism*, 5, 6, 339-354.
- Aldekoa, Jasone, 2012: *Euskararen Normalizazioa Hezkuntzan (2000-2010): Ulibarri Programa. Euskarri teorikoa, metodologia eta faktore azalgarriak* (doktore-tesia, EHU).
- Altube, Seber, 1921: "Izkuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia", in *EUSKERA* 1921-II, 3-49 or.
- 1933: "La Vida del Euskera" in *EUSKERA*, 1933-IV: 299-397 or.
- 1936: "Más sobre la Vida del Euskera", in *EUSKERA*, 1936-I-IV: 1-217 or.
- 1959: "Euskaltzaindiari", in *EUSKERA*, 1959-IV: 43-56 or.
- Altuna, Olatz, 2016: "Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak". Euskaltzaindiak 2016ko otsailean *Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak* izeneko jardunaldian aurkezturiko txostena. Gainerakoan ikus Soziolinguistika Klusterra / Olatz Altuna. Aracil, L. V. 1982: *Papers de sociolingüística*. Barcelona: La Magrana.
- Austin, Peter K; Julia Sallabank, 2011. *Cambridge Handbook of Endangered Languages*. Cambridge University Press.
- Baldauf Jr, Richard B., 2006: "Rearticulating the Case for Micro Language Planning in a Language Ecology Context", in *Current Issues in Language Planning*, 7 liburukia, 2-3 atalak, 147-170 or.
- Baztarrika, Patxi, 2014: "Bizi-indarra ostertzean", in *V. Inkesta Soziolinguistika*, 12 or.
- Bengoetxea Muxika, Xabier, 2012: "Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasmuneren egoeraren behaketa". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 85 (75-118).
- Bourhis, Richard Y. 1979: "Language and ethnic interaction: A social psychological approach", in H. Giles eta B. Saint-Jaques (ed.) *Language and Ethnic Relations*. Oxford: Pergamon Press.
- 2001a: "Acculturation, language maintenance and language loss", in J. Klatte Falmer eta P. Van Avermaet (editore). *Theories on maintenance and loss of minority languages: Towards a more integrated explanatory framework*. Münster: Waxmann Verlag.
- 2001b: "Reversing language shift in Quebec", in J.A. Fishman (ed.) *Can threatened languages be saved?* (101- 141 or). Clevedon, Avon, UK: Multilingual Matters.

- Bourhis, Richard Y. (ed.) 2008: *The Vitality of the English-Speaking Communities of Quebec: From Community Decline to Revival*. Montreal, Quebec: CEETUM, Université de Montréal.
- Bourhis, Richard Y., H. Giles eta D. Rosenthal, 1981. "Notes on construction of a 'subjective vitality questionnaire' for ethnolinguistic groups", in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 2: 145–55 or.
- Bourhis, Richard Y. eta Rodrigue Landry, 2008: "Group Vitality, Cultural Autonomy and the Wellness of Language Minorities", in Bourhis, Richard Y. (ed.) 2008: 185-212 or. Artikulu honen euskal bertsiorako ikus "Hizkuntza-Gutxiengoen talde-bizindarra, kultura-autonomia eta ongizatea", in *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 67, 151-192 or.
- Branchadell, A., 2000: «La oposición a las políticas de catalanización y los límites de la intervención pública en materia lingüística», in *Grenzgänge14 (Thema: Neue Herausforderungen für die Katalanische Soziolinguistik)*, 65-79.
- Breton, Raymond, 1964: "Institutional Completeness of Ethnic Communities and the Personal Relations of Immigrants", in *American Journal of Sociology*, 70 alea, 2. zkia., 193-205 or.
- Camino, Iñaki, 1997: *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- Cantoni, Gina, ed., 2007 [1996]: *Stabilizing Indigenous Languages*. A Center for Excellence in Education Monograph. Northern Arizona University
- Cawford, James, 1996: "Seven Hypotheses on Language Loss Causes and Cures", in Gina Cantoni ed. *Stabilizing Indigenous Languages*, 45-60 or.
- Cenoz, J. 1998: «Multilingual Education in the Basque Country». In *Beyond Bilingualism: Multilingualism and Multilingual Education* (J. Cenoz and F. Genesee eds.) (1998: 175-191). Clevedon: Multilingual Matters.
- Cooper, R. L. 1989: *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Davies, D. 2005: «Spread Welsh – persuade the children to use it». In *Western Mail*, 2 August, 14
- Dorian, Nancy C. (editore) 1989: *Investigating Obsolescence. Studies in Language Contraction and Death*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Dorian, Nancy C. 1980. "Language shift in community and individual: The phenomenon of the laggard semi-speaker", in *International Journal of the Sociology of Language* 25, 85-94 or.
- 1999: "The study of language obsolescence: stages, surprises, and challenges", in *Languages and Linguistics* 3: 99-122.
- Dwyer, Arianne M. 2011. "Tools and techniques for endangered-language assessment and revitalization".

- Edwards, V. K. eta L. Pritchard Newcombe 2003: *Evaluation of the Efficiency and Effectiveness of the Twf Project, which encourages Parents to Transmit the Language to their Children*. Cardiff: Welsh Language Board.
- 2005a: «When school is not enough: New initiatives in intergenerational language transmission in Wales». In *International Journal of Bilingualism and Bilingual Education*, 8 (4), 298-312.
- 2005b: «Language transmission in the family in Wales: an example of innovative language planning». In *Language Planning and Language Problems* 29(2), 135-50
- Edwards, J, 1992: “Sociopolitical aspects of language maintenance and loss: Towards a typology of minority language situations”, in W. Fase, K. Jaspaert eta S. Kroon *Maintenance and loss of minority languages*, 37-54 or. Amsterdam: John Benjamins.
- Ehala, Martin, 2010: “Refining the notion of ethnolinguistic vitality”, in *International Journal of Multilingualism*, 7: 363-378 or.
- Eizmendi et al. 2007: «Hezitzaileek asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko», in *Bat soziolinguistika aldizkaria*. 63, 117-129.
- Eleizalde, Koldo, 1919: “Metodología para la restauración del euskera”, in *I Congreso de Estudios Vascos*, 428-439 or.
- Elordui, A., 2006: «Eskolaren hizkuntza-eredua harreman-sareen trinkotzearen ikuspegitik», in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 60. zkia, 141-60.
- Eoyang, Eugene, 1999: “Life, Liberty, and the Pursuit of Linguistic Parity: Multilingual Perspectives on the Declaration of Independence”, in *The Journal of American History*.
- Erize, X. 2001: «El discurso contrario a la «normalización» de la lengua en Navarra», in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 46-2.
- Esnaola, Imanol, 2014: “Udalerri euskaldunetako aldagai sozial eta ekonomiko zenbaiten bilakaera”, in *II. Jardunaldiak: lurraldea eta hizkuntza; erronkak eta tresnak*, 13-16. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Euskaltzaindia 1977: *El Libro Blanco del Euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskararen Aholku Batzordea, 2009: *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak*. Kultura Saila.
- Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco, 1991: *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera*. Gasteiz, Eusko Legebiltzarra.
- Eusko Jaurlaritz, 2013: *V. Inkesta Soziolinguistikoa (2011)*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Ferguson, Ch. A. 1959: «Diglossia» in *Word* 15.
- 1966: “National sociolinguistic profile formulas”, in *Sociolinguistics*, W. Bright, 309-14. Mouton, The Hague.
- Fishman, Joshua A. 1964: “Language maintenance and language shift as a field of inquiry. A definition of the field and suggestions for its

- further development”, in *Linguistics. An Interdisciplinary Journal of the Language Sciences*, 1964ko 2-9 alea, 32-70 or.
- 1976: *Bilingual Education: An International Sociological Perspective*. Rowley: Newbury House.
 - 1989: *Language and Ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
 - 1990: «Eskolaren Mugak Hizkuntzak Biziberritzeko Saioan», in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1, 181-188).
 - 1991: *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
 - 2007a [1996a]: “What Do You Lose When You Lose Your Language?”, in Gina Cantoni, ed., 2007 [1996],
 - 2007b [1996b]: “Maintaining Languages: What Works and What Doesn’t”, in Gina Cantoni, ed., 2007 [1996], (165-175 or.)⁴⁷⁸. Fishman J. A. ed. 1968: *Readings in the Sociology of Language*.
 - Fishman, Joshua A. editore, 1966: *Language loyalty in the United States; the maintenance and perpetuation of non-English mother tongues by American ethnic and religious groups*. The Hague: Mouton
 - 2001: *Can threatened languages be saved?* Clevedon: Multilingual Matters
 - Fishman eta beste, editore: 1985: *The Rise and Fall of the Ethnic Revival: Perspectives on Language and Ethnicity*. Gruyter.
- Garaio, Beñat, 2015: “Hizkuntza gutxituen bizi-indarra neurtzen duten eskalak aztertzen: euskararen eskala bat osatzeko proposamenak”, in *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 97: 169-202.
- Giles, H. (ed.), 1977: *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. Londres: Academic Press
- Giles, H., Bourhis, R.Y. eta Taylor, D.M., 1977: “Towards a theory of language in ethnic group relations”, in H. Giles (ed.). *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*, 307-348 or.
- Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014: *II. Jardunaldiak: lurraldea eta hizkuntza; erronkak eta tresnak*. Donostia, GFA.
- Goffman, Ervin, 1959: *The Presentation Self in Everyday Life*. Garden City, New York: Doubleday & Company.
- Grosjean, François, 1982: *Life with Two Languages. An Introduction to Bilingualism*. Cambridge: Harvard University Press
- Gumperz, John J., 1962: “Types of Linguistic Communities”, in *Anthropological Linguistics*, 4-1, 28-40 or.
- Haarmann, H, 1986: *Language in ethnicity: A view of basic ecological relations*. Berlin: Mouton de Gruyter.

- Harwood, Jake, Howard Giles eta Richard Y Bourhis, 1994: "The genesis of vitality theory: Historical patterns and discorsal dimensions", in *International Journal of the Sociology of Language*, 108-1 alea, 167-206 or.
- Haugen, Einar, 1972: "Language and immigration", in *The ecology of language: Essays by Einar Haugen*, A. S. Dil, 1-36 or. Stanford: Stanford University Press.
- Hernandez Garcia, Jone Miren, 2001: "Euskararen transmisioa gaur: ikerketa tresnak eta estrategiak", in "Hizkuntza eskubideak eremu pribatuan", in BAT 38 zkia._
- 2010: "Hizkuntzak aztergai: ikerketa-metodoetara oinarritzko hurbilpena (Soziolinguistika Klusterraren lankidetzarekin eta gidaritzapean)", in Auñamendiren *Eusko Entziklopedia*.
- Hornberger, N. H. and King, K. A. 1996: *Language Revitalization in the Andes: Can the schools reverse language shift?*, in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 17-6, 427-441 or.
- Hornberger, Nancy H. eta Serafín M. Coronel-Molina, 2004: "Quechua language shift, maintenance, and revitalization in the Andes: the case for language planning", in *International Journal of the Sociology of Language*, 167 zkia., 9-67 or.
- Husband, Charles eta V. Saifullah Khan, 1982: "The viability of ethnolinguistic vitality: some creative doubts", in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 3, 193-205 or.
- Huiying Lee, Nala eta John Van Way, 2016: "Assessing levels of endangerment in the Catalogue of Endangered Languages (ELCat) using the Language Endangerment Index (LEI)", in *Language in Society*, 45-2 zkia.
- International Clearing House for Endangered Languages, 1994: *Red Book of Endangered Languages*. Tokyo.
- Irigaray, Aingeru (Apat-Etxebarne), 1974: *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*. Donostia: Auñamendi.
- Irigaray, Jose Angel, 1973: *Euskara eta Nafarroa*.
- Irizar, Pedro, 1973: *Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico* (1973)
- Iurrebaso, Iñaki, 2014a: *Udalerri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera 1981-2011*, Soziolinguistika Klusterra, Andoain.
- 2014b: "Udalerri euskaldunetako bilakaera EAEn: 1981-201", in *II. Jardunaldiak: lurraldea eta hizkuntza; erronkak eta tresnak*. Donostia, GFA
- 2012a: "Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertze", in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 84, 2012 (3), 89-101 or.
- 2012b: "Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan", in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 84, 2012 (3), 103-120 or.

- 2015: “Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnaguneak arriskuan. EAE, 1981-2011”, in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 95, 2015 (2), 71-101 or.
- Jedwab, Jack, 2008: “How shall we define thee ? Determining who is an English-Speaking Quebecer and Assessing its Demographic Vitality.”, in Bourhis, Richard Y. (ed.) 2008: 1-18.
- Johnson, P., Giles, H. eta Bourhis, R. Y., 1983: “The viability of ethnolinguistic vitality: a reply”, in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 4, 255-69 or. Jones, Mari C., 1998: *Language Obsolescence and Revitalization. Linguistic Change in Two Sociolinguistically Contrasting Welsh Communities*. Oxford: Clarendon Press.
- Kasares, Paula, 2013: “Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa Nafarroako familia euskaldunetan (1970-2012)”, in *Fontes Linguae Vasconum* 116 zkia., 209-233 or.
- 2014: *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.
- Kloss, Heinz, 1927: “Spracherhaltung,” in *Archiv für Politik und Geschichte*, 1927, 8, 456-462 or.
- Krauss, Michael, 1992: “The world’s languages in crisis”, in *Language*, 68-1 alea, 4-10.
- 2007 [1996]: “Status of Native American Language Endangerment”, in Gina Cantoni ed., *Stabilizing Indigenous Languages*, 15-19 or.
- Landry, Rodrigue eta R. Allard, 1994: “Diglossia, Ethnolinguistic Vitality, and Language Behavior”, in *International Journal of the Sociology of Language*, 108 zkia, 15-42 or.
- Landry, Rodrigue eta Richard Y. Bourhis, 1997: “Linguistic Landscape and Ethnolinguistic Vitality. An Empirical Study”, in *Journal of Language and Social Psychology* 16 (1), 23-49 or.
- Lewis, M. Paul, 2005: “Towards a categorization of endangerment of the world’s languages”. SIL International (“originally prepared for a poster session at the 2003 Annual Meeting of the American Anthropological Association”).
- Lewis, M. Paul, eta Gary F. Simons. 2010. “Assessing endangerment: Expanding Fishman’s GIDS”, in *Revue Roumaine de Linguistique* 55 (2):103–120.
- Lizarazu, Aitor, 2012: “Zumarragako kaleetan euskararen erabilera indarberritzeko proposamena”, in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 82, 2012 (1) | 107-129 or.
- Mackey, William F., 1997: “International Centre for Research on Bilingualism: The Sociolinguistics on Language Contact”, in Christina

- Bratt Paulston eta G. Richard Tucker editore, *The early days of Sociolinguistics*, 273-8.
- McCormick, K. M., 2001: "Code-switching: overview", in Mesthrie, Rajend (editore) *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*, 447-54.
- Mesthrie, Rajend, 2001: "Code-mixing", in Mesthrie, Rajend (editore) *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*, 442-3.
- Mesthrie, Rajend (editore), 2001: *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*. Amsterdam: Elsevier.
- Mitxelena, Koldo, 1951: "Euskal literaturaren etorkizuna", in *EGAN*, 1951 [3], 17-21.
- 1985: "La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco"; in Mitxelena, Koldo 1985: *Lengua e Historia*, 227. Madrid: Paraninfo.
- Neustupný, 1974: Basic types of treatment of language problems. In J. A. Fishman (ed.) *Advances in Language Planning* (37-48 or.). The Hague: Mouton.
- Oroz Bretón, Nekane eta Pablo Sotés Ruiz, 2008: "Bilingual Education in Navarre: Achievements and Challenges", in *Language, Culture and Curriculum*, 21: 1, 21-38.
- Reyhner, John, 1996 (ed.): *Teaching Indigenous Languages*
- Reyhner, John eta Louise Lockard (ed.), 2009: *Indigenous Language Revitalization. Encouragement, Guidance & Lessons Learned*. Flagstaff, Arizona: Northern Arizona University.
- Rodriguez, Txerra, 2007: *Hizkuntzaren soziologia, soziolinguistika eta beste. Eskolaren mugak euskararen normalizazioan*. (Garaigoikoa bloga, 2007-12-17).
- 2016a: "Ez-lekuak", in *Jakin* 213, 2016ko martxo-apiriletakoa, 104-6 or.
- 2016b: "Soziolinguistika: euskalgintzak", in *Jakin* 214, 2016ko maiatz-ekainetakoa, 138-9 or.
- Ruiz Olabuenaga, 1983: *Euskararen Borroka (La lucha del euskera en la Comunidad Autónoma Vasca)*. Eusko Jaurlaritz
- Salminen, Tapani (biltzaile), 1993: *Unesco Red Book on Endangered Languages: Europe*. UNESCO
- Siadeco, 1978: *Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del euskara (1978ko urria)*.
- 1979: *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian*.
- 1983: *Gipuzkoako Lurraldean euskararen normalizaziorako plangintzaren lehen urratsak* (aurreko urteetan prestaturik 1983ko abenduan kale-ratua).
- 1975ean abiatu zen Siadecok burutuko zuen lehenengo ikerketa: *Euskararen liburu zuria*.

- Soziolinguistika Klusterra, 2013: *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza eta adituen iritzi-azalpenak*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Soziolinguistika Klusterra / Olatz Altuna (2016⁴⁷⁹): *Kale erabileraren neurketak (Euskal Herria). 1989 - 2011*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Spolsky, B. 1995: "Conditions for language revitalization: A comparison of the cases of Hebrew and Maori". *Current Issues in Language and Society* 2 (3), 177-201.
- Stedje, Astrid, 1989: *Deutsche Sprache gestern und heute*. München: Fink
- Tönnies, Ferdinand 1887: *Gemeinschaft und Gesellschaft*. Leipzig: Fues's Verlag
- UNESCO Ad Hoc Expert Group on Endangered Languages, 2003: *Language Vitality and Endangerment*. Unesco.
- UNESCO Mosely, 2012: World Oral Literature Project. *The Unesco Atlas of the World's Languages in Danger: Context and Process*. University of Cambridge.
- Veltman, Calvin, 1983: *Language Shift in the United States*. Berlin: Mouton.
- Viñes Rueda, Hortensia eta beste, 1982: "Estudio lingüístico y sociológico del euskera en Navarra. Informe del proyecto en curso", in *FLV*, 539-44.
- Wurm, Stephen Adolphe, 1995: "Methods of language maintenance and revival with selected cases of language endangerment in the world."
- 1996: *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing* (first edition). UNESCO Publishing.
- 2001: *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing* (2nd edition). UNESCO Publishing.
- Xarriton, Piarres, 1992: *Jose Mendiague (1845-1937). Haren bizia eta haren kantuak*. Bilbo, Etor.
- Yagmur, Kutlay, 2011: "Does Ethnolinguistic Vitality Theory account for the actual vitality of ethnic groups? A critical evaluation", in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 32-2 alea, 111-120 or.
- Yagmur, Kutlay eta Martin Ehala, 2011: "Tradition and innovation in the Ethnolinguistic Vitality theory", in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 32-2 alea, 101-110 or.
- Zalbide, Mikel, 1988: "Mende hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak", in *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskara-biltzarra*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Orobat ingelesez: "Basque Language Loyalism at the beginning of the Century: strengths and failings" in <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos>
- 1990: «Euskal Eskola, Asmo Zahar Bide Berri», in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1. lib., 211-271). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- 1991: “Eskola-giroko hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen lehen azalpen-saioa” in *Eskola Hitzun Bila*, 17-35. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- 1994: “Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide”, in *EUSKERA*, 1994 (1): 153-187.
- 1999: «Normalización Lingüística y Escolaridad: un Informe desde la Sala de Máquinas». In *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 43, 2, 1998, 355-424.
- 2000: «Irakas-sistemaren Hizkuntz Normalkuntza: Nondik norakoaren ebaluazio-saio bat», in *Eleria* 5, 45-6.
- 2001: «Fishman-en HINBE edo RLS». Donostia, graduondoko HIZ-NET ikastaroaren baitako materiala, erabili.com/erabili-eus sarean ere eskuragai.
- 2002a: “Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?” in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*, Donostia:EHIK,
- 2002b: “Ikasleek egiten al dute euskaraz?” in *Bat: Soziolinguistika aldizkaria* 42, 43-52 2002
- 2003: “Hendai-Hondarribietako biltzarrak, XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu” in *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- 2007a: “Iparraldeko euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia” in *Euskera* 52, 3., 877-1008
- 2007b: Euskararen Legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa in batetik *Euskera* 52. 3., 1283-1517, bestetik berariazko argitalpena.
- 2007c: “Pedagogoa batzar nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan”. Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia, in *Euskera* 52. 1., 61-157
- 2009a: “Interferentzia, hiztun garbien galera eta mintzaldaketa: Hiriart-Urrutiren garaiko zenbait korrelato” in *ASJU* XLIII, 1003-1034.
- 2009b: “Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioretan. Lasarteko Udaltop-en 2009an irakurritako txostena. Ikus erabili.com
- 2010: “Hizkuntza-soziologiaren ibilia gurean”, in *Bat: Soziolinguistika aldizkaria* 77, 27-55.
- 2011: “Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka”, in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 79-80 zkiak., 13-152.
- 2013: “Eskola eta hizkuntza: ardo berria zahagi zaharrean”, in *Soziolinguistika Klusterra, Ikasleak Hitzun*: 151-168.
- 2015: “XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan”, in *Hermes* 50, 10-29or.

Zalbide, Mikel eta Arantzazu Muñoa, 2006: *“Lardizabal eta bere gramatika, perspektiba soziolinguistikoa”*, in Francisco Ignacio Lardizabalen 1856ko Gramática Vascongada-ren 2006ko edizioa: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Zarate, Mikel, 1976: *Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial de Chorierrri* (Gran Bilbao). Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.